

Dultzinea

Iñaki Bastarrika Izagirre





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

IÑAKI BASTARRIKA IZAGIRRE

dultzinea

Bast etxeak aurkezten dizue:

Dultzinea behordun famatuaren ibilerak

Iñaki Bastarrika Izagirre-k idatzia.

Dultzinea izeneko lan hau egiteko liburu batzuk oinarrizkoak izan ditut. Don Kijote Mantxako liburua, Pedro Berrondo Lasarte-k euskaraz emana; Jose María Pérez Marañon-en *Olite, historia, arte, vida mardula*, Simone de Beauvoir-en *Bigarren sexua*, Irene Arrarats-ek euskaratua; Andres Trapiello-ren *Las vidas de Cervantes* saiakera liburua.

Pablo Antoñanaren “Odola oroï” liburua, Luis Mari Larrañagak euskaratua. Bereziki, IV. atala: Amama Demetria bortxatzen dute abuztuko egun batean (1874ko urtea).

Eskerrik beroena Karlos Azkarate Gorri eta Maria Jose Garbayo olitear lagunei.

Mendafin usaineko Itsaslamia gogoan.

Egilearen oharra

Errana baita Don Kixote Mantxakoa, Zerbantesek idatzia, lehen argitalpenean akatsez eta errataz betea atera zela, ez da lan hau guttiago izanen bere eskasean, eta beraz, erran dezagun, gaizki bada ere, osorik datorrela, parte guztiak berekin dituela, urratu eta ubelune batzuk gorabehera. Batek zioena: Perfecto e imperfecto, completo. Hortaz, zirriborro konpletoa duzue hau.

Bigarren sexua. Lehen kapitulua. Biologiaren datuak.

Zer den emakumea? Oso erraza da erantzuten, formula sinpleen zaleek diotenez: umetoki bat da, obulutegi bat; eme bat da: hitz hori nahikoa da emakumea definitzeko. Gizonaren ahoan, “eme” epitetoak iraina ematen du; gizona, ordea, ez da lotsatzen bere aberetasunaz; aitzitik, harro dago honela esaten badute berari buruz: —Hura bai arra!. “Eme” terminoa gaitzesgarria da, ez emakumea Naturarekin lotzen duelako, baizik bere sexuan giltzapetzen duelako; sexu hori mespretxagarria eta etsaia iruditzen zaio gizonari, baita abere errugabeetan ere, etsaitasun artega bat sentitzen duelako, bistan denez, emakumearenganako; hala ere, sentimendu horren zuribide bat aurkitu nahi du biologian. Eme hitzak irudi-nahaspila bat ekartzen dio gogora: obulu itzel biribil batek harrapatu eta zirikatzen du espermatozoide zaluia; munstroen gisan eta guztiz aserik, termiten erreginak agintzen du ar menderatuen artean; marisorginak eta armiarmak, maitasunaz nazkaturik, txikitu egiten dute arra, eta irentsi; arreske dagoen txakur emea kalerik kale ibiltzen da, atzetik usain perbertsoz osaturiko arrasto bat utzita; tximino emea ageri-agerian jartzen da, lizun, eta ezkututzen gero, pinpirinkeria hipokrita batez; piztiarik harroenak, hau da, lehoi emeak, pantera emeak eta tigre emeak, otzan etzaten dira arraren tinkaldi inperialaren mende. Geldi, irrikaz urduri, maltzur, ergel, sorgor, lizun, basati, umiliatu: gizonak eme guztiak proiektatzen ditu emakumearengan. Eta egia da emakumea emea dela. Baina topikoen arabera pentsatzeari utzi nahi bazaio, bi galdera egin beharra dago berehala: zer da emea animalia-erreinuan?, zer eme- mota singular da emakumea?

Simona Beauvoir de Arrarats

1. ATALBURUA

Dofia Dultzinea Olyte'co behordun famatuaren izakera ta bizikera nolakoak ziren agertzen diguna.

Behor gainean doazen emakumeei eta asto gainean doazen gizonezkoei eskainia, Pedro Berrondo eta Miguel de Zerbantesen omenez-

Olyte buru duen merindadeko herri kokkor batean, bere izenik ez nuke gogoratu nahi, bizi zen denbora asko ez dela etxeko alaba bat: apaina, fina, unibertsitate ikasketaduna, eta lan atsegin samarra zeukana, administrazio edo enpresaren batean. Gehienen ustez famili on samarrekoa zen, mahastiak eta upategi bat baitzuten haren gurasoek, eta aiton-amonek errota batzuk ere edukiak baitzituzten, dirudienez. Alaba bakarra zen, askoren arabera, eta bertze batzuen aburuz, ahizpaorde bat zuen, aspaldian ikusi ez zuena eta haren berririk ez zuena. Nekazarien lurrian jaiola, hazia eta hezia izan arren, ez zuen, diotenez, lurlangintzarako grinarik, eta batzuen iritziz etxeko upategiko administrari eta kontu-egilea zen, eta bertze batzuen iritziz, Iruñean lan egiten zuen auto fabrika bateko salmenta sailean, edo ileapaindegi batean, eta finean, egia garbia ezin jakin zitekeen, eta egia zikina ere, hor nonbait. Burgoia zen, diotenez, harroa, eta handi-ustea, eta baztertuak zituen eskualdeko mutilak oro, berak gehiago merezi zuelakoan. Aurreztu zalea zen, baina beharrezan zenari laguntzeko zalea, eta bereziki, emakumeen eskubideen defendatzaile sutsua. Lilaz edo morez jantzen ziren aldarrikatzaileekin batera ibiltzen zen hirian, eta bilera eta agerraldietan parte hartzen zuen.

Haren kale berean bizi zen Santxa, adin bertsukoa, eta umoretsua, Dultzineari barre eragiten ziona bere ateraldi lotsa gutxikoekin. Antzik gutxiena ondasunean zuten, izan ere, Santxak doi zuen oinarrizko eskola, hamalau urte artekoa, eta ondorioz lanpostua, eta baita aurpegian ere, ez baitzen honena Dultzinearena bezain ederra, ezta hurrik eman ere. Lodixea izanik Santxa, aurpegia ere lodiagoa zuen, masailak gorritzak, ilea atzean mototsa eginda, eta aurpegian orban bat zuen, umetan jolasean erori eta pareta ertz baten aurka buruko bat hartuta. Etxeak garbitzen egiten zuen lana, eta Dultzinearen soldataren herenaren pareko ordaina jasotzen zuen, hor nonbait. Dukat ala euro, alde handirik ez, usteak uste. Dultzinea askoz altuagoa eta lirainagoa zen, Santxa baino. Adats horail txit ikusgarri bat zeukan, apur bat kizkurra, ia gerriraino jausten zitzaiona. Mutil askoren begiradak jasotzen zituen, eta emakumeenak ere ez gutxi. Santxa oharkabean pasatzen zen gehienetan, bere ile beltzaranarekin, baina hizketan hasitakoan, berehala bereganatzen zituen besteen begi-belarriak, hain zen tolesgabea eta irri-eragilea.

Ondorengo mendeetan, oso litekeena da, ikertzaile batzuek aritzea, Dultzinea eta Santxaren benetako izenen bila, eta haien artean liskarrik egon ez dadin, eta disputarik, eta beraz, odol-isurtzerik, hemen erranen ditugu, garbi-garbi, haien izenak. Dultzinea da, Dulce Maria Mielgo Azcona anderea, berrogeita hamar urtekoa, eta Santxa da Iratxe Landibar Azkarate, hogeita hamahiru urtekoa. Merindadeko zein herritako diren jakiten nahiko lan izanen dute ikertzaileek, pertsonaien benetako izenen bila paper-miaka hasi gabe. Erdi Aroko Azokan, Olyten uda partean egiten duten horretan, Kixote eta Santxo jantzian atera zirenetik, "las Cervantas" izena ematen zieten herrian. Dulce Mariari "Ana Franca" deitzen zioten, Zerbantesen maitalearen izenez alegia, eta Iratxeri "Catalina de Salazar", Zerbantesen emaztearen izenez hain zuten. "Zerbantak".

Dultzinea irakurzalea zen oso, eta arraroa zen liburu bat eskuan hartu gabe pasatzen zuen eguna. Edo aldizkari edo errebistaren bat bestela, zientzia arlokoa ez bazen, modari buruzkoa edo dietetika arlokoa. Literatura arlokorik ere ikusten zitzaion noiz edo noiz eskuetan, baina gogokoena "Emakumeak gaur" aldizkariak hilero bidaltzen zion alea zuen. Santxak apenas irakurtzen zuen, doi

dendetako oharrak, "arratsaldean itxita" eta horrelakoak edo bertzenaz, kamioietako "igeltseritza orokorrean" eta horrelakoak, hildakoen eskelak, atariko oharrak, ur-mozketa eta abar, eta periodikoko izenburu larriak, gehienbat kirola, gurutzegramak eta berri labur estrainioak, gizon batek hozka egin dio zakur bati eta antzerakoak, arrunt maite baitzituen. Gehien-gehiena bihotzeko aldizkari deitzen diren horiek zituen gogoko, couchè paperean datozenak, nahiz eta berak "paper kutxet" esan, inolako beldur eta herabetasunik gabe. Dultzineak behin baino gehiagotan esana zion, couché papera kalitate handiko papera zela, eta maiz erabiltzen zela bisita-txartelak, aldizkari-azalak, poltsak eta abar egiteko. Eta bazituela beste izen batzuk ere, paper estukatua, paper estalia edo paper satinatua. Santxak eskerrak ematen zizkion, baina biharamunean noiznahi esango zuen "paper kutxet" berriro. Alabaina gogoan zituen lurjabe handi ardo-saltzaile andaluzaren eta modelo-aurkezlearen arteko separazioa edo bereizketa, onbideratzeko bidean jarria zegokeena.

Dultzinea emakumearen aldele sutsua zen, errana denez, emakumearen eta gizonezkoaren arteko aukera-berdintasunean sinesten zuen eta horren aldeko lanean ziharduen, manifestazioetara joaten zen aldiro, eta indar egiten zuen, lantokian, emakumeek goragoko postuak har zitzaten.

Santxa ez zen joaten manifestazioetara, nahiago zuen paper kutxetez egindako aldizkariak irakurri eta afarirako tortilla prestatu, patata tortilla, eta hobe tipularekin, nahiz negar pixka bat egin. Lilaz janzten ziren emakumeak ez zituen gogoko, ez baitzituen ikusten sukaldean lanean eta zaharrak zaintzen. "Printzesa" batzuk zirela esaten zien, eta nahi bezala bizi zirela. "Zer esango ote luke gure amonak, bizi balitz?" zioen noiznahi.

Egun batean, kafetegi batera joanik, Dultzinea Tobosoko eta Santxa Pantxak aulki bana hartu zuten, izurriaren kontra ongi garbitutako mahaian. Kafesne bana eskatu zuten eta kontu-kontari hasi ziren. Santxa kezkatua zegoen, garbitzen zuen etxeetako batean, zorua garbigai gogor samar batekin garbitu zuelako, eta beharbada kaltetu zuelako.

-Lasai hadi, Santxa! Ez dun ezer ere gertatuko!

-Hik erraz dion hori.

-Huri handian gizon batek emakumea jipoitu din eta erahil. Hori bai arazoa!

-Bai, hor ez zagon erremediorik! Gizona akabatzea, horixe!

-Zerbait egin behar dinagu.

- Okerrak zuzendu? Kixotek eta Santxok bezala?

-Horixe ta bera!

-Zaldiz eta astoz aterako gaitun, haien erara...

-Barregarri geratuko gaitun herrigune handietara orduko...

-Bai, baina atentzioa emango dinagu eta gure aldarrikapena errazago egingo.

-Zaldia eta astoa nondik?

-Emakumearen aldeko baikaitun, behorra eta astemea eramango dizkinagu...

-Gogorra haiz gero...!

-Eta izenak?

-Rozinanta eta Ruzia.

-Nahiko zailak esaten, nik Errozinanta eta Errusia esango zientat.

-Nahi dunan bezala, Santxa, Rosy eta Rusy esan nahi badien ere, niri berdin.

Horrela aritu ziren puska batean, behorra eta astemea nondik aterako, eta orduan beltz gazte bat, kalez-kaleko salmentan, hurreratu zen mahaira bere salgaiarekin: mutilak galtzerdiak, gerrikoak, aterkiak eta eskumuturrekoak eskaini zizkien, baina Dultzineak berehala ezezkoa eman zion, eta begiak aldendu zituen saleroslearengandik eta Santxari begira geratu zen. Santxak, kalean ibilzaleagoa eta ibiliagoa izanik, galtzerdi batzuk hartu zituen eskuan eta galde egin zion mutilari, hazpegi ederrekoa berau, eta ile kixkur kixkurrekoa, nahiz beltz-beltza izan, ezpain gorrikoa eta hortz zurikoa, jaioterriaz. Nongoa zen galdetzean, Senegalgoa zela ihardetsi zion mutilak eta Santxak "olof" ahoskatu zuen, bai baitzekien herrialde hartako askok hizkuntza hori zutela mintzaira. Mutilari begiak argitu zitzaizkion, eta ez gutxiago Dultzinari, Santxa zakarraren ezagutzaz jabetzean. Santxak "olof" ote zekien zimiko egin zion senegaldarrari jakinminak eta "badakizu olof?" galdetu zion eta ezkutari izatera zihoanak "ezetz" erran zion. Bi galtzerdi pare, kotoizkoak zirela ikasirik, hartu zizkion Santxak eta patrikatik kartera aterata, eskura eman zizkion txanponak, tratuan eske-eskainian hasi gabe. Olof mutilak hitzen bat ebaki zuen bere hizkuntzan eta jabetu zen Santxa zintzoak ez zuela mintzaira hura ezagutzen batere. Eskerrak eman eta irribarre batekin alde egin zuen, Dultzineak "agur" soil bat erraten ziola, bizkarrez, lepoa bihurtzeke.

-Lehengora etorrita, Santxa, nondik aterako dizkinagu behorra eta astemea?

-Urrutiko intxaurrak hamalau, hurreratu eta lau. Etxean bertan ez ote dauzka gure Santxok azienda bikainak, nahiz eta bere nagusiarenak izan? Zerbitzari dagoen etxaldera joatea izango dinagu onena, eta han ikustea, zer nolakoak diren behor-astoak eta zer moduz jasaten dituzten gure ipurdi lausoak.

-Ez dun gaizki errana, Santxa, buru argikoa baihaiz, eta gauzak egingalea. Baina gure ibiltari zalduntzan nondik nora goazen jakiteko, mapak eta liburuak irakurtzea komeni, eta hi ez haiz ez oso letrazalea, nik uste. Jokatuko niken lepoa, Senegal non dagoen ez dakinala...

-Halaxe dun, Dultzinea, gertu dagoen ala urruti, ezin jakin nik, baina gizasemea beltza dela jakinda, Afrikakoa dela erranen niken. Eta ondo jana dagoela eta gorputza duela nik zirri bat egiteko modukoa!

-Santxa, zer dion, ahobero horrek!

-Zer aho bero eta hotz, ohean bero-bero, ez al hintzateke berarekin etzango ohean? Ikusi ditun zer giharrak? Eta hortzak zuri-zuriak eta lerro-lerroan jarriak, ez nire Santxorenak bezalakoak, okerrak eta zikinak. Hortz bat ere falta zaion, ezkutari izanari.

-Ez, nik beltz bati musu ere ez nioken emango, ez horixe; arrazista esango diten, baina berdin zaidan, ez; neuk zuriekin aski, edo beltxarekin...pakistandarrak jadanik ilunegiak ditun neure gogorako....

-Zenbat buru hainbat aburu, dioela esaera zaharrak.

-Hiri, Santxa, komeni zain irakurtzen hastea, nirekin ibili nahi badun, zeren ezjakintasunak ez baikaitin inora eramango, ez Toledora eta ez Estalingradora.

-Inguruan ditudan herriein aski nik, eta asteazkeneko azoka Millafrangan.

-Zerbantesen Kixotea irakurtzen hasi behar dun, aldiko kapitulu bat, eta bidaian bi liburuki edo tomoak eramango ditun, alde banatan, astemearen zama berdindua joan dadin noski.

-Hi haiz nagusi, Dultzinea, kontu horietan eta besteetan, eta hortaz, hire esanetara jartzen naun, ez belauniko halere...

-Kixote eta Santxoren abenturak munduan ezagunak baitira, ez ditun izanen gureak, Dultzinea eta Santxarenak, entzute eta sona gutxiagokoak. Nire ezkutari izango haiz, ta ni zaldun, edo behordun, hobe esan. Honela hasten dun liburua: "Mantxa-aldeko erri koxkor batean, bere izenik ez nuke gogoratu nai, bizi zan denbora asko ez dala etzeko-seme bat: lantza altxa-tokian, adarga zaar, zaldi igar ta erbi-zakur dun oietakoa. Bere ondasuna, lautatik iru ontantxe zijoakion: eguneroko eltzekoa, beikia oparoago aarikia baiño, zezinkia ia gauero, zartagiko lodia larunbat oro, lentejak ostiraletan, eta usakumeren bat igandetako goxagarri."

-Alazankoa, hik daukan meritua, hori buruz jakitea, nik nahiko ene lau abizenak jakitearekin, ene!

-Ba has hadi gaur bertan, eta hire zalduna ni binaun, zor didan begiruneagatik, zuka edo berorika egin behar didan, eta jakin ezan, Zerbantesi ez kontra egiteagatik dela, eta ez beste ezergatik.

-Nahi duen bezala, Dultzinea andrea, ...

-Nahi duzun bezala, Dultzinea andrea, esanda nahiko...ez bainaiz hain goi-goi mailako, ez nago eta, ez gobernuan, ez kortean, ez enpresaburu, baizik eta agintari ertain, nik lan egiten dudan lantokian. Andere esatea hobe niri, zeren ez bainaiz ezkondua, baina bai amuruztua...

-Jakinean geratzen naiz, Dultzinea. Atrebentzia ez bada, zeinekin amuruztua?

-Kexada, Kijada edo Kijote erraten dioten batekin, doktorea bera, galanta, atsegina, eta izen onekoa.

-Eta doktore horrek zer erran nahi du, sendagile edo osagile horietarik bat dela?

-Doktore, ofizio askotakoak izan zitezken doktore, sendagileak bezala arkitektoak edo biologoak.

-Berdintsu geratu nauzu, andere Dultzinea.

-Hara, Santxa, egia errateko, nik neuk ez zakinat, ziur, zer doktore mota den, baina doktore-doktorea dena bai, eta batzuetan bata zuri bat janzten duela. Esango dinat, gaur goizean periodiko batean arkitekto emakume bati, doktorea berau, irakurri diodana. Eta poltsatik kartera atera eta kartera zabalduta aldizkari-orri tolestu bat atera zuen eta irakurtzen hasi: —Ez nuen beti nahi izan arkitekto. Neskato bat nintzanean pentsatzen nuen, beharbada esploratzailea izanen nintzela, zientzialaria edo asmatzailea. Mundu guztian zehar ibili naiz, hunkitzen nauen arkitektura ikusi, ukitu eta sentitzeko. Zenbait urtez bizi izan naiz Japonian, eta herrialde horretatik hau dut gustukoena, ederrarekiko eta fintasunarekiko duten maitasuna (eta matcha).

-Mahatsa eta ardoa, bai neuk ere gustuko. Toro, Olite ta Bordele, edan eta hamaika ele.

-Matcha tea dun, Santxa, te berdea, hango te-zeremonian erabiltzen dena.

-Hori ere probatuko dugu, okasioa heltzen bada.

-Bai, Santxa, ez baitinat erraten nik Japonia alderaino helduko ez garenik, eta bai, aldiz, nago iritsiko gabela, iritsi, haraino, eta gure eginek sona izango dutela, eta ez nolanahikoa, alajaina.

-Hala bedi ta perratuko ditut hamar zaldi. Halere doktorearena ez zait oso argi geratu.

-Santxa, ba doktore ez da edonor, ikasketak egin ondoren, goien gradora igotzeko eskailera dun doktoradutza eta gain hartara heltzen dena doktorea. Eskaileran gora doalarik doktoregaia dun.

-Dotoregaia edo gai dotorea hobeto aditzen dizkinat, doktoregai hori baino.

-Letuko dinat, aldizkari beretik...

-Egon zaitez, Dultzinea maite, neuk smartfonean begira dezadan... doktore..

-Ezta pentsatu ere, hemendik aitzina, eskuko telefonoak debekaturik geratuko dira eta bertze horrenbertze internet erabiltzea, guk Zerbantesen erranetara, ez baitinagu gaurko aurrerapenik erabiliko, eta bai betikoak izan diren tresnak, luma, tinta, papera,...

-Telebista ikus liteke?

-Ezta pentsatu ere, ezta irratia edo radixua aditu ere. Gizakiaren ahotsa, animaliena, eta izadiak eta gizateriak ematen dizkigun zaratak! Horiek!

-Ba ez dakit "Pasaparole" ikusi gabe etsiko ote dudan, hori ikusiz ari bainaiz zerbait ikasten, herrialde batzuetako hiriburuen izenak, ...

-Zer da "parole" hori, ene Santxa? Telenobelaren bat?

-Ez, besterik da, lehiaketa, oso buru argiko jendea joan ohi den lehiaketa. Bi lehiakide buruz buru aritzen dira, probarik zailena erroskoa da, hogeita bost letra dira, eta definizioa entzunda, hitza asmatu behar da, letra horrekin hasten dena. Esaterako, P letra, Frantziako hiriburua da, argiaren hiria ere erraten zaiona. Eta erantzuna, Paris, jakina. Baina ez pentsa denak hain errazak direnik. Auskalo zer mendetako zer erreginaren galtzerdia zein koloretakoa den asmatu behar da batzuetan...!

-Guk Tobosora joan behar dinagu, neska motza, eta ez parolo horiei begira egon. Herri hartako alkateak, Pilar Arinero baita, zera erran berria du "Kixote deskubrituz" dokumental-aurrerapenaren aurkezpenean. —Tobosok asko zor die Zerbantesi eta Kixoteri, Dultzinearen Seaska izateak nazioartean sona eman digu, eta opari hori baliatu egin behar dugu kultura eta turismo mailan. Eta gehitu du: —Udaletik obra hori hurreratu nahi diogu herritarrari, kultur-jarduera askoren bitartez, teatroa eta kultura kalera ateraz, Dultzinearen omenezko Zerbantestar jardunaldietan egin ohi dugun bezala edo obran adituak direnak ekarriz, gure literaturaren obrarik nagusienak ezkutuan dituen zokoak hobeto miazteko.

-Dokumental hori ikusterik izango ote dugu guk?

-Ez.

I. ATALBURUA

Dofia Dultzinea buru-argiak bere herritik lehenengo aldiz egindako irteera dakarrena.

Irteera egin aurreko egunetan prestakizunetan pasa zituzten orduak. Biderako behar ziren janak, soinekoak eta liburuak hartuz. Dultzineak, behor gainerako jantzi bat hartu zuen, kirola egiteko bertze bat, lotarako bertze bat, eta apain-jantzian ibiltzeko bertze bat. Zalantza izan zuen soinekoak ala galtza luzeak hartu, zerk hobeki emanen zuen. Azkenean apain-jantzirako soinekoa ez ezik, bertze guztietarako galtzak hartu zituen, luzeak eta laburren bat ere tartean. Minigona bat ere sartu zuen.

Santxak praka bakeroak eta txandalak hartu zituen gehienbat, jertse erosoak, zira bat eta beroki izanen zuen txal erako bat. Galtza gehienak beltz kolorekoak zituen, bere lodiari inoren begietara estua emateko.

Dultzineak, Don Kijote Mantxako'ren bigarren atala ozen irakurtzeko eskea egin zion Santxari, baina honek zer gogo gutxi zuen ikusirik, bera hasi zen irakurtzen:

—Egiñik, bada, prestaizun auek, ez zuan geiago itxo-egiñ nai izan bere burutapenak egiteari ekiñ gabe; ontara beartzen bait-zuan arren eta arren, munduari zor zionaren luzapenak; izan ere zenbat ote ziran, desegin beharreko kalteak, zuzendu beharreko okerrak, onbideratu beharreko bidegabekeriak, neurriratu bearreko gehiegikeriak, ordaindu beharreko zorrak. Eta ara, iñori bere asmorik agertu gabe, eta iñork ikusteke, goiz batean eguna baino leen, (Uztailleko kixkali aietakoa zan) jantzi zituan bere arma guziak, igo zan Rozinanteren gaiñera, doi-doian osaturiko zelata kaskoan, adarga besoan, eta lantza arturik, istegi bateko saiets-atetik kanpora irten zuan; pozaren pozez pozturik zeihen errax asiera eman zion bere egitasmoari. Baiña, landaratu zan bezaiñ laster, burutapen larri bat barnejabetu zitzaion, eta, ia-ia eginkizun asi-berria utzierazi ere; zera alegia gogoratu zitzaion, zaldun-armatzea beregan artu gabe zegola eta zaldun-legeen arauera, ezin zezakeala, eskubiderik ez zuala, iñolaz ere zaldun-armarik jo; eta alaxe izanik izan ere, arma txuriak eraman bear zituan, zaldun asi-berriari zegokionez, ezkuta arma-ikurrik gabe, alik-eta bere kemenez irabazi arte [...].

Santxak hori aditurik, erran zion nagusiari:

-Bai ongi irakurtzen duela berorrek, astiro, nik ulertzeko eran, eta Zerbantesek ere, antza, kontuan izan zuen, ni bezalako neska motzek ere adituko zituztela kontu hauek. Dena den, badago hitz bat edo bertze, ongi ezagutzen ez dudana, delako « hiztegi » hori, saihets atea duena.

-Ez dun, ez, "hiztegia", Santxa burugordina, baizik eta istegia, ixtegia alegia, ukuilu edo korta hain zuzen.

-Banengoen ba ni, gauza arraro samarra zela.

-Hik eramango ditun Kixoteren bi liburukiak, bata alde batean eta bestea bestean, orekaturik joan hadin, bi biak ere antzekoak baititun pisuz eta lodieraz, barruko gaia guztiz bestelakoa izan arren.

-Eta zu irakurgairik gabe?

-Nik eramango dinat "Zerbantesen bizitzak" izenburua duen saiakera, Trapiello izeneko batek idatzia, oso ongi idatzia, dena errana bedi.

Eta liburua erakutsi zion, liburu txikia, Kixotekien aldean. Horrez gain hartuak zituen “Hiztegi entziklopedikoa” eta “Atlas” deitzen den mapa-liburua. Baita ere, Feddericci izeneko andre baten “Mundua berriz liluratuz” izeneko lana.

-Zein ote Fettichi andre hori? – itaundu zuen Santxak.

-Begira ezan heuk entziklopedian- Dultzineak ihardetsi.

Dultzinearen hatz potoloak baldar-samar aritu ziren orri-pasan eta hatz mamietan miazka bospasei aldiz eginik, atzeman zuen F letraren saila. Federico bat atzeman zuenean, hortxe hatz punta jarri ta nagusiari pasa zion liburua.

Nagusiak aise asko aurkitu zuen Feddericci:

-Entzun eta aditu, Santxa maite: —Pentsamendu feminista eta marxista garaikideko teoriaririk esanguratsuenetakoa da. Besteak beste, emakumeen etxeko lanari, komunalismoari eta sorgin-ehizari buruzko lanak argitaratu ditu azken bi hamarkada luzeetan; tartean, Caliban eta sorgina: emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa liburua.

- Feminista eta marxista,... ene! Nahiago herriko plazako taxista!

-Emakume handi bat dun gure pentsalarien artean.

-Ez dut, ez, hori zalantzan jartzen; entziklopedian baldin badator zerbait izango da.

-Baina ez ahantz, Santxa, gure egitekoa: desegin beharreko kalteak, zuzendu beharreko okerrak, onbideratu beharreko bidegabekeriak, neurritu beharreko gehiegikeriak, ordaindu beharreko zorrak.

-Dama hori, ez ote dira gehiegizkoak asmo horiek? Zenbat bidegabekeria ez ote da munduan!

-Baina zaldun bulartsuak eta bipilak, behar ditin den-denak kontuan hartu, kemena eta ausardia erakutsi behar ditin, eta behar gorrian dagoenari lagundu. Halabeharrak, eta ez bertze inork, jarriko dio aurrean, borrokaizuna, asmakizuna, eginkizuna edo behar den kizuna. Eramankizuna ere ez gutxi, Santxa maitea.

Santxa sinesgogor samar zegoen artean, nahiz eta ezkutari lan horrek egundoko poza eragin bere barnean. Bidaiaeren nondik norakoaz, ibilbideaz alegia, eta ibilaldi horren iraupenaz kezketan zegoen, guztiz.

-Nora goaz ba, Dultzinea, albo-herrira ala munduaren ipurdira? Zidacosek bustitzen duen sailera ala kanguruak jauzi egiten duen landara?

-Hara, Santxa, esango diñat, ez nik ez hik erabakiko dinagu norakoa, eta bai halabeharrak, Zerbantesekin batera. Andro Trapo'ren “Zerbantesen bizitzak” liburua irakurri berritan naun eta markatuta ditinat Don Miguelen bizitzan esanguratsu izan ziren herri eta hiriak.

-Hori aurrerapen handia da noski. Esan biezat.

-Esquivias, Madril, Toledo, Sevilla, Valladolid, Argel, Lepanto, Napoles eta nahi bada Sizilia ere bai, han ere egon baitzen Don Miguel.

-Esquivias hori non da xuxen?

-Hara Santxa, liburutik bertatik letuko diñat, ni ez naun eta, sekula egon han, baina New Yorken bi bider. —Esquivias herri bat da, Madriletik hur dagoena, Toledoko errepidean, bi hirien arteko erdibidean eta mendebalera.

-Madril inguruan beraz!

-Horixe! Ezaguna zunan Zerbantesen garaian. —Mila arrazoi tarteko da ezaguna, leinu ilustreak dituelako batetik, eta, ardo ezin hobeak dauzkalako, bestetik, edo bertzetik.

-Gure merindadean bezala hortaz, hango ardoak dastatzeko gogoz nago. Zergatik esaten edo erraten duzu, Dultzinea, batean esan eta bertzean edo bestean erran?

-Ene buru argiak badin eta zer pentsatu, horrelako huxkerietan jausi gabe. Baina ohar, neska motz, batzuetan entzulea hizkera batekoa eta bestean bertzean bestekoa bertzekoa dudalako gogoan, eta hari natzaion mintzo, eta neuri bost edo bortz, inork horregatik salatzen banau.

-Ondo esana edo errana, nagusi! Eltzekaria dela bai begiratu beharrekoa eta ez eltzea, nahiz eta apaina izan edo itsuski dagoena.

-Esquiviasen berri jakin nahiko dun noski ta entzun.- Liburutik berriro-. —Gaur herri hori da zorigabea eta gutxi balio du. Hartan sartu aurretik zementu megafabrika baten ondotik pasatzen da, oso deigarria eta narrasa, eta hango makinak, bagonetak eta terrailak, hauts zurika fin batekin estaliak daude, eta ondoren, hiltegi industrial baten ondotik, zeina olibondoan erdian baitago.

-Zergatik esaten du erraten, megafabrika eta ez fabrikatzarra?

-Mega horrek gaur-gaurko ikuspegia ematen zion eta fabrikatzarra garai batekoa izan ziteken. Gauzak asko aldatu baititun joan zaigun mendean, emakumeen egoera esaterako, eta zorionez.

Eta beste edo bertze paper bat hartutik, Santxari irakurri zion, Silvia Federici andrearen lan bati buruz egunkarian irakurritakoa:

—Liburuaren sarreran aurkeztutako helburuak guztiz erdietsita, azterketa zehatz bezain ulergarria proposatzen du Federiciren azken lanak, egungo emakumeen aurkako biolentziaren gorakada eta bortizkeria ulertzen hasteko argi printza irekitzen duena. Eskertzekoa da Katakriskek pentsalari garrantzitsu honen lana gure hizkuntzara ekartzen eta sorgin-ehizaren memoria berreskuratzen egiten duen lana ere, iraunkorra eta nekaezina. Alabaina, etxeko lan gisa, bi abiapuntu argi uzten dizkigu Federicik, berandu baino lehen heldu beharrekoak: sorgin itsusi, zaharraren iruditxo prototipikoz beterik dauden gure herrietako souvenir dendak, eta Europaraino heltzen den Afrikaren eta bestelako herrialdeen desjabetze eta liberalizazioaren odol-arrastoa. Zer-nolako historia idatzi nahi dugun, gure esku ere badago.

-Oso interesgarria izanen da, bai, edo izango, Dultzinea dama ta nagusi anderea, baina ni berdin geratzen naiz, eta nahiago hori irakurri baino, bakailaoa patatekin prestatu, edo Pasaparol saioa ikusi edo are gehiago, Tin Chan-en marrazki bizidunak, eta barre egin, hark prakak beheratu eta ipurdia erakusten duen bakoitzean.

-Dorpea, motza ta gaizto samarra haiz gero, Santxa Pantxa, ezjakin bezain burugabe eta lotsagabea. Hik bezalakoak munduan daudelako zagon emakumea hain zapaldua, hain hobiratua eta alienatua.

-Alineaziorik onena gure futbol taldearena, herriko semerik onenak dauzka, eta esaera jator batekin esateko edo errateko, ongarri onean daude denak.

-Ongarri onean?

-Berorren liburuetan ez al dator esaera hori? Erdaraz jakingo du noski berorrek, eta jakin beza, “de buen año” esan nahi duela edo erran, “urte onekoa” eta denok dugula zer ikasia, paperetik ez bada zelai batetik edo kale zikinetik.

-Ez gaitezen haserra, eta goazeman, muinera, abarretan ibili gabe. Esquiviasen geundenan, eta Toledoko bidean. Egunkari edo diario bat ere egin beharko dinagu, gure ibilerekin gero liburuki bat edo bi betetzeko, Zerbantesek egin zuen bezala, hura editatzeko konde edo duke liburuzalaren bat aurkitzen badugu.

-Nik uste, eta ez bedi haserra, bideojoko bat egingo dutela gure ibilerekin, play stationarekin jokatzeko, eta hara, asko jota, rapero batek letraren bat egingo digula, guk idatzitakoari edo idazteko manierari barre eta burla eginez.

-Papera eta luma dagoen tokian, bertze guztiak soberan.

-Papera kartetan nahiago, jokorako egina bainago, rua de los tahures karrikan jaioa izan banintz bezala, gure Olyte maitean, nahiz gure sorterrria hurren izan.

-Hobe nik eskura emandako liburuak irakurtzea, jokoa dirua galtzeko besterik ez baitun edo bertzerik. Hara Federici-ren liburu batez Lumiere aldizkariak dioena:

-Liburukote sexya da -ia bostehun orrialde ditu-, neuronentzako kitzikagarri, pentsatzeko eta begirada kritikoa garatzeko aukera ematen digulako Silvia Federicik lan mardul honetan. Gaia sorgin-ehiza da, nagusiki Europan gertatu zena, baina Amerikan eta Afrikan ere aurkitu daitekeena. Erdi Aroaren amaieran hasi zena, baina egun, oraindik, munduko zenbait lekutan arrastoak utzi dituena. Gainera, Europako sorgin, Amerikako kolonizatu eta Afrikako esklaboek arteko konexioak egiten ditu begirada zabalduz.

-Bufff, ene dama maitea...

-Entzun ezan, entzun, eta aditu!

—Egileak dokumentazio lan izugarria egin du eta balio handiko ekarpen teorikoa: sorgin- ehiza sozialki, ekonomikoki eta politikoki kokatu du eta historia berrirakurri digu ikuspegi feminista batetik, generoa, klasea eta arraza kontuan izanik.

-Larrussya! Zuentzat kolonizatuak eta neretzat koloniak, usain onekoak. Liburukotea eta sexya, ... hobe senegaldar bat, guri-guria, lepo leuna eta zera tentekoa.

-Ezjakin halakoa, eltzegorra baino gorragoa, harri kozkorra!

-Nago, eta ez biezat gaizki hartu, andere Dultzinea, ene dama maitea, antzerki edo teatro eran emango balituzte gai horiek, nik eta neu bezalakoek samurrago irentsiko genituzkeela noski, bostehun orrialdeko sasitza hori baino; kitzikagarri edo kakingarri, niri bost edo bortz.

-Horretan arrazoi izango dun noski, nahiz eta arrazoirik ez dagoen edukitzerik, Seguroa hark erran zuenez esan, baina bai, taula ganean hezur-haragizko andra-gizonekin jokatzeko dena atseginagoa eta ulerterrazagoa dela noski, lerroz lerro irakurri eta norberak buruan jiratu behar duena baino.

-Horixe ta bera, artaleak ganbaran, gutxi nik, ta haiek alperrak! Ja ja!

Arratsaldea aurrera zihoan eta bero zegoen, bero, uztailearen hasiera baitzen, eta uztaileko kixkali haietakoak, Zerbantesen hitzetan errateko. Santxo morroi zegoen etxaldera abiatu ziren, behorra eta astemearekin lehen ateraldia egiteko asmotan, ateraldi laburra, probarakoa gehienbat. Bidean patinete edo trotineta elektriko banaren ganean zetozen bi gazte, neska eta mutila. Neskak smartfona begiratzeko tarteka eta gainera zigarro bat zeraman isitua, azazkal gorri margotuen artean. Betaurreko beltzak eguzkiarentzat. Bidea betean baitzioazen gazteak nahiz dama-ezkutariak, aurrez aurre geratu beste erremediorik ez zuten izan.

-Bazoazte, abiada bizian, trotineta horietan fite!- Santxak.

-Zer diozu?- neskak.

-Patinete elektriko onak daukazuela eta bizkor zoaztela, bizkor.

-Bai, hori bai.

-Aizue, galdera bat, atrebentzia ez bada, zer irizten diozue gaurko emakume eta gizonen arteko berdintasun kontu horri?

-Alde gaude noski- erran zuen mutilak.

-Eta zuk zer diozu, neska?- bota zion Santxak azazkal gorridunari.

Honek, zigarroari zupa egin eta kea botaz honela esan zuen erran:

-Nik ez dakit, jakin, neska naizen ala mutila, eta egiaz, ez zait askorik inporta.

-Alazankoa, bejondeiala edo bejondeinala, edo nik zer dakit.

- Agirietan X jarriko dut, horretarako aukera ematen dutenean.

Dultzinea mututurik geratu zen oldozketan, emakumearen aldeko goi-asmoak ondorio onik ekarriko ote zuen, eta horrelako kasuetan zer egin.

Elkarri adio esanik, aldendu ziren batzuen bizkarrak besteenetatik.

-Heldu den mendean, Santxa, emakume nahiz gizonezkoak zakur eta katuekin ezkonduko ditun.

-Bai, hala nago ni, eta zuhaitz batekin ere bai, farola batekin edo Tin Chanekin.

Aldapa gora edo patarra goiti zihoazen joan, eta izerdia kopetan. Santxak klinex batekin xukatu zuen bekokia, erabili eta botatzeko zapi bait da, paperezkoa, eta Dultzineak zetazko zapi brodatu batekin. Santxoren etxaldera iritsi ziren eta honek prest-prest zeuzkan behorra eta astemea, arte-arbola baten itzalean, zelaturik eta txalma jarririk, noranahi abiatzeko prest.

Idaurreko benta edo ostatura joan zitezen adierazi zien Santxok, arte-arbolaren ipurdian jarririk baitzegoen, labana batekin umeentzat zurezko ezpata bat egiten.

-Gazia nahiz gozoa, tontoa hara ez doan zozoa!- ezkutari ohiak.

-Hara goaz ba- erantzun Dultzineak.

-Bejondeizuela, dama maiteok, zalduntza ibiltaria hartzera zoaztenak! Inbiri gutxi nik, uhartego gobernari izana naizenak, bederatzi edo hamar egunez izan ere, eta aski dut horrekin, gobernaritzako eta jauregiko fintasun apainak eta zerbitzariak baino nahiago nik, neure gisa, zerbitzari bada ere, arte honen itzalean, euliak eta ezpatak uxatzen egon, eta zorroan gazta, arnoa, eta erretzeko tabakoa, bizo hau ere hartua baitut azken aldian.

Santxa aski ongi moldatu zen astemearen gainean eta Dultzinea, haseran pixka bat ikaratu zen arren, erortzeko beldurrez, inork uste baino hobeki gidatu zuen behorra hedeetatik.

“Fuenticas” deitzen den iturrira jo zuten zuhaitzen artetik, eta han atsedenaldirik eginik, eta ahoa freskaturik, honela mintzatu zitzaion Dultzinea bere mirabe Santxari:

-Santxa maite, ur onik bada munduan, hau izanen da onenetakoa, baina gure bidaiari hau osasunean eta gogotsu egin nahi badugu, Txorrongo ura edan behar dugula, arno guztiak baino hobea noski eta bestondorik uzten ez duena.

-Behorra amakatu beharrik ez alegia- Santxak.

Hala hurreratu ziren astiro Txorrongo iturrira, zeina baitago, Zidacos ibaiaren ertzean.

Freskatu bat eta zurrut on bat eginik, letu zuen Santxak, han jarriak dauden hitzak: —Iturri honetatik edaten duenak, izenez baita Txorron, Olyten uzten du bere bihotz on.

-Erraten dute, Santxa, hemendik edaten duena Olitera itzultzen dela, eta guk ere, gure zalduntza-ibilia egin eta behar diren eginkizunak eta burrukakizunak burutu ondoan, hona itzuli behar dinagu, ahal bada, sano eta osorik.

-Txit ongi errana, hori, Dultzinea ene nagusi maitea, etxetik aldentzea gozoa bada, ez da izanen eta, itzultzea, mikatzagoa, eta bai atsegin-atsegina. Nik, nago, Olof ikusteko desira bizia izanen dudala.

-Eta Santxo?

-Buaah, txabala, barka, anderea, utzixea dago, bizarrik ez du kentzen, beti arte arbolaren ipurdian, bere uharte-gobernaritza hori berritzen egunero, erresuma bateko errege edo errepublika bateko presidente izan balitz bezala. Doi ekarri zizkidan jantzi batzuk, eta ez onenetakoak, hauek.

Olibondo zahar-zahar baten ondora heltzean, zeinak baitu idatzia ohar bat ondoan, erranez berrehun urte edo auskalo zenbat dituela, eskuin hartu zuten gaztelu alderantz eta taillada ondotik pasaturik, Honorio fraideen sailetan zaindutako mahastiak behatu zituzten.

Ari ziren hurreratzen edo huilantzen Santxak maite-maite zuen lekura, gozotegi eta kafesnetoki aparta zen ostatu apainera.

Dultzineak gozotegi aurrean ikusi zituen mahai-aulkiak, eta benta hura, ostatu ez ezik, jauregi iruditu zitzaion, eta nolako.

-Mahai bakoitzean dama bat zagon, Santxa, aterki eguzkitako handiarekin, eta jokatuko niken Japoniako margolari edo ehungileren batek eder-apainduak direla aterki horiek.

-Ohar bekio, Dultzinea maite, horiek ez direla damen aterkiak, baizik eta izozki-etxe batek oparitutako aterki eguzkitakoak. Hemendixe, alde-alde, erranen nuke, Apolo etxeakoak direla, duten koloreagatik.

-Banoan ni haiengana, dama japoniar horiek washi paperaz asko zekiten bai, eta nik haiei entzuteko gogo-bizia dinat.

Santxak, bere ezjakinean, uaxi edo poxi, damari segitu zion orpotik, astemeari eraginda.

Ikusirik kixot-santxo andrazko haiek, gozotegiko kanpoaldeko mahaietan txokolatea eta freskagarriak hartzen zeuden herriko gizon eta andre nekazariak, etaroko ferirako entseguetatik zetozela zeuden, eta bertzenaz, antzerki obra bat prestatzetik, udan izaten baitira Erriberri alde horretan, eta txit famatuak, gauez gainera.

Jokoa segiz, eta jakinik, horrelako ekimenek herriari egiten dioten mesedea eta gaztelua ikustera datozenen erakargarri direla, galaiki zerbitzatu zituzten, aulkirik eta mahairik onenak emanez, eta Dultzineak, esker beroak emanez, hitz hauek ebaki zituen:

-Sekulan ezta damarik izan zaldun-eskuz aïñ serbitua nola Dultzinea bere erritik onuntz zenean bildua: mutiltxoek goxo lagun berari eta printzeek behorrari.

Txalo egin zuten denek, gogotik, zarta-zarta, eta olagaratzetik gelditu zirenean, burukoak kendu zituzten, eta izerdia xukatu.

-Edozer noski, hartuko nuke- erran zuen Dultzineak- hortaraxe bainago, nire ustez, egon ere.

Nora zihoazen galdetu zieten eta Dultzineak “bide guztiak Erromara” errespuesta eman zien, eta han zer egin behar zuten galde egin baitzieten irriz, Teodoraren emagalduek salbatzera zihoazela, baina ez Erroman, urrutiagoko Erroman baizik, Konstantinoplan hain zuzen, lehenago Bizantzio izandako hartan.

-Kontaiguzu- erran zuen Santxak-, Dultzinea ikasi horrek, Teodora eta kontinplora horien berri, neroni pixka bat buruz janzteko, eta dama japoniar hauek, hain fin eta egoki, atsegin har dezaten.

- Teodora eta Justiniano erregin-erregeen kontua da hau, eta baten batek sinesten ez badit, hemen daukat idatzirik eta irakurri egingen dut, Eddy Çibbonnek “Erromatar Inperioaren gainbehera eta erortzea” liburuan dakarren pasartea. Hasieran nekez samarra bazaizue, ez kezkatu, bukaeran argituko baita dena.

-Bertsoa bukaeran entenditzen dela, alegia- erantzi zuen Santxak.

-Pasarte solte batzuk dira, noski, zuek ez aspertzeagatik, guztiak arratsalde guztia kenduko liguke eta.

Eta irakurtzen hasi zen:

—Ekialdeko mundua makurtu egin zen Acacioren alabaren aiurri eta fortunaren aurrean. Magistratu seriosek, gotzain ortodoxoek, jeneral garaileek eta errege gatibuek erreginatzat gurtu zuten Konstantinoplan, hiriko antzerkia, ikusle askoren aurrean, kutsatua zuen emagaldua.

Orduan Santxak:

-Erraten du emagalduek bat izan zela.

Dultzineak: —Hori da bai, baina asko dira horrelakoak, eta Teodora, berriz, bakarra. Eta letzen segitu zuen, mahastian lan egitetik zetozen nekazariei jakin-mina piztuz.

—Teodorak heriotza edo erbestea agintzen zuenean senatari edo gotzain batentzat, agindua konfiantzazko mezulari bati ematen zitzaion, eta honen ardura bizkortzeko bere ahoz esandako mehatxua egiten zion: —Ene aginduak betetzen huts egiten baduzu, zin dagizut, betiko bizi denagatik, zu larrutzeko aginduko dudala.

Santxak, orduan:

-Erraten du larrutu egingo duela koneju bat bezala.

Dultzineak:

-Interprete lanerako balio dun, noski, hik, Santxa maite,...

Eta berriro iltzatu zituen begiak paperean:

—Teodoraren izena ohore berdinez sartu zen Justinianoren fundazio gupidatsu eta karitatetsu guztietan. Erregealdiko erakunde ongintzakoena, enperatrizak bere ahizpa zorigaiztokoagoengana zuen ulerkortasunarena izan zen, zeinak prostituziora erakarri edo behartuak izanak baitziren. Bosforoko itsasertz asiarean zegoen jauregi bat monasterio zabal bikain bihurtu zuen, eta diru kopuru oparo bat esleitu zitzaion Konstantinoplako kale eta putetxeetatik jasotako bostehun emakumeri. Erretiro seguru eta santu horretan, behin betiko itxituren geratu ziren, eta batzuek, etsi-etsiturik, itsasora bota zuten beren burua, baina penitentziagile gehienak esker oneko zeuden, bekatutik eta miseriatik askatuak, andre ongile eskuzabalari esker.

Santxak orduan:

-Emagalduek itsasoan hil zirela, erraten du.

Han entzuten zeudenak, hizkeraren jaso eta gaiaren urruntasuna medio, abanikoak atera zituzten eta lasaitu.

Dultzineak berriro irakurri:

—Justiniano pozten zen Teodoraren zuhurtziaz eta bere legeak emazte gur eginaren aholku jakintsuei egozten zizkien, emazte hori jaso baitzuen jainkozko dohaintzat. Honek adorea erakutsi zuen herritar multzoen eta gorteko terroreen artean. Justinianorekin bateratu zenez geroztik, badirudi haren kastitatea eztaba daezina zela; izan ere, etsirik gogorrenek isilik baitiraute; eta nahiz eta Acacioren alaba maitasunez ase izan, txaloa merezi du gogoaren sendotasunak, sakrifikatu baitzituen plazera eta ohitura, betebeharraren edo interesaren aurrean. Teodoraren desira eta gurariak ez ziren sekula bete, seme legitimo baten bedeinkapenarekin, eta neska bat lurperatu zuen, ezkontzatiko fruitu bakarra alegia. Frustrazio hori gorabehera, ahal iraunkor guztizkoa izan zuen; bere arte edo merituei esker, Justinianoren estimua izan zuen, eta itxurazko desadostasunak zorigaiztokoak izan ziren, benetakoak zirela sinetsi zuten gortesauentzat.

Santxak:

-Erraten du alaba bat izan zuela eta hil egin zuela, semea nahi zuelako.

-Bai, hori da, ez nengoen ni bertan; bertzenaz, astindu on bat emanen nion nik Teodorari, martxoaren 8an eman ere.

Barre pixka bat egin zuten entzuleek eta alboetara begiratu zuten, ikus-entzule batzuk gehitu baitzitzaizkien.

Dultzineak orduan:

-Luzetsi gabe, hemen doa azken pasartea, jaun-andreok:

—Beharbada haren osasuna minberatu egingo zen, gaztetasun lasaka izan zuelako, baina beti izan zen gaixobera, eta medikuek bainu bero apolotarrak hartzeko aholkatu zioten. Bidaian, enperatrizari eskolta eman zioten pretorioko prefektuak, diruzain nagusiak, zenbait konde eta patriziok, eta lau mila laguntzaileko jarraigo berebizikoak. Pasa behar zuen bideak konpondu zituzten, jauregi bat eraiki zuten bera hartzeko, eta, Bitinia zeharkatzen zuen bitartean, limosna oparoak eman zituen elizetarako, monasterioetarako eta ospitaleetarako, zeruari eska ziezaioten osasuna berreskura zezala. Azkenean, ezkondu eta hogeita laugarren urtean, erregealdiko hogeita bigarrenean, minbiziak zimelduta hil zen, eta haren senarrak, aktore emagaldu baten orde z Mendebaldeko birjinarik nobleena eta garbiena aukeratu ahal izan zuenak, erremediorik gabeko galera hura deitoratu zuen.

Santxak:

-Erraten du oso ona izan zela, eta azkenean minbiziarekin hil zela.

Olagaratu zuten gogoz, zarta-zarta, baina hasieran baino otzanago, gai serioa idoro baitzuten eta dama hura buru-argia txit, nahiz gizon jantzian lotua, izerditan pats egon. Santxaren grazia nahiago zuten, kasik, ez baitziren haiek Garañon jakintsuak, herriko semea berau.

Santxak, Dultzinearen belarrira xuxurlatu zuen gertaera harentzako bertze bukaera edo kontakizuna, kotalizuna, eta Dultzineak barre galanki egin zuen, baina inori ez zion kontatu, bere mirabe lotsagabeak izan zuen burutazioa.

Orduan, presaka bezala, eginkizun premiazko bat zain izan balute bezala, altxa ziren altxa aulkitik, eta behor gainera igota bat eta asteme gainera bertzea, bixi-bixi abiatu ziren. Patarra goiti baitzihoazen, nekez bezala igo zuten errepide nagusiraino, eta hura gurutzatzeraz prestatu ziren, frontoi eta igerileku aldetik aurrera joateko. Beti ere, herrigunera edo bobeki erran, hirigunera edo ziutate barrenera, merindadeko buru baita, sartzeke. Errepidea zeharkatzeko, itxaron zuten traktore batzuk pasatu artean eta ondoren kamioi batzuk pasatu artean, eta ondoren auto batzuk pasatu artean, eta ostean, moto batzuk pasatu artean, mobilette horietarik, atzean fruta kaxa zutela, barazkiz betea edo hutsa. Halako batean, hasi ziren zeharkatzen, eta erdilanetan zeudela, tandem erako bizikleta bat abiada bizian etorririk, jo zuten eskuin saihetsetik behorra eta doi astemea.

Kolpe hartan erori ziren lurrera bai Dultzinea eta bai Santxa, eta inoren barregarri gerta ez zitezen, berehala altxa ziren eta bizikleta bikoitzeko neska-mutilei laguntzera egin zuten, lurrea zetzaten eta, guztiz minberaturik.

-Lehenbizi neskari gure laguntza, eta gero gerokoak- bota zuen Dultzineak.

-Ez ote da beharrik handiena duenari?-erantzun Santxak.

-Hemen ni naun nagusi eta ixil hadi!

Eta hala, neskari altxatzen lagundu zioten, eta urratuak garbitzeari; eta ondoren mutilarengana jo zuten. Ordurako jaikia zen hau eta guztiz txukundua, eta baita bizikletaren heldulekua zuzenduta ere. Nolanahi ere, eskerrak eman zizkien.

Agur esan elkarri eta osasuna opaz batak bertzeari, nor bere bidean joan ziren. Dultzinea eta Santxa, berriro abere gainetara igorik, frontoi alderantz, igerilekuaren ondokorantz, abiatu ziren eta haize ufada baten ondoren Dultzineak hedeetatik tira egin eta seko gerarazi zuen behorra.

-Hara, hor, Santxa, txori hori, bere gandorra agerian duela! Argioilarra da noski!

-Bai, hala izanen da, punky samarra baita, izan ere.

-Akropolia Atenasen ikustera joan nintzen batean ikusi nuen aurrekoz, eta hara, hemen, bigarrenkoz.

-Akropoli edo Metropoli, nik nahiago Monopoly, ja, ta argioilarrak berdinak direla han eta hemen, eta mundu guztian. Baita Senegalen ere, han argioilarrak baldin bada.

Aurrera egin zuten, hirira batere sartu gabe, saihets aldetik beti, eta hala upategi eta komentuak albotara utzirik, hegoaldeko ate aurrera heldu ziren, Tuderao atea izenez ezaguna baita, eta lehenago laurre kafetegian ikusitako andre eta gizon batzuk ikusirik, diosala egin zieten, kapelak dantzatzuz eskuan.

Unatuxeak eta haize pixka baten premian, berriro ere "fuenticas" aldera bihurtu ziren, Txorrondik pasa gabe halere. "Fuenticas" iturrian hainbat kainu daude, ur zurrutza onarekin, eta han prexkatuak eta abereei edaten utzirik, astoa eta behorra hedeetatik hartuta, oinez, bi zangoren gainean, beren sorterrira bihurtu ziren, ilunabarra berehala zetorren eta.

Bidean, lehen ateraldi haren zer-nolakoaz mintzatu ziren. Ostalarien abegiaz, ez baitzien deus kobratu, eta bidaiarako beharko zuten diruaz.

Dultzineak, ikusirik eta ikasirik, berak irakurritako albisteei zein bukaera deigarria eta berezkotasunez betea ematen zion Santxak, eta biderako gastuak pagatzeko beharko zuten dirua eskuratu nahirik, kontakizunak idazteari ekin zion, eta haiek saltzeari, kontakizun paperetan eta herriz herri, heldu ahala saltzeari. Jasoak zituzten, jaso, soinean edo zelabereetan publizitatea edo propaganda eramateko eskaintzak, baina ez zuen Dultzineak onartu, nahiz Santxak edari freskagarri edo txokolatzeko donuts batzuen eramateko eragozpenik ez jarri batere.

Horrela, bada, denbora gutxian, kontakizun multzo aski txukun bat bildu zuten, eta izenburu jeneral bat ematean, eta eztabaida batzuen ondotik, kontakizunetako batek zeraman izenburua hautatzea erabaki zuten, *Phylloxera vastatrix* alegia.

Phylloxera vastatrix

[kontakizunak, albisteetatik abiatuak]

Dinotxoria

Izadiak baditu gauza harrigarriak. Lehen begiratuan, ez dirudi "kolibri" txori-izena eta "dinosauru" izena elkarrekin ondo datozenik. Bi hitz horiek lotu dituen mediuma dugu anbarra. Anbarra, hiztegiak dioenez, erretxina fosildua da, gogorra, horia eta gardena. Birmania aldean agertu den anbar zatiak kolibri neurriko dinosauru hegadun bat agerrarazi du. Azken batean, txoritxo txiki bat da, baina hortzak ditu eta begi handiak. Etxean national geographic aldizkaria hartzen zuten Denvertarrek eta

bizpahiru egunetan aritu ziren gai horretaz. Albistea: 1,5 cm luze den anbar zatiak erakusten du Oculudentavis khaungraae baten buruhezur osoa, Birmania modernoan orain 99 milioi urte bizi izan zen dinosaurusu mota berri batena.

Hori jakin dutenean Carolina eta Martirio ahizpek, bederatzita eta hamaika urteko hurrenez hurren, etxetik alde egin eta Birmaniarako hegaldi bat hartu dute ezkutuan, turista batzuk engainatuta. Haien gurasoen haurtzaroan ez zegoen ez dinosaururik ez kolibririk, bai txolarre eta behirik. Garaiak aldatu dira. Carolinari animalia txikiak gustatzen zaizkio, kolibriak eta Madagaskarreko igeltxoak, gaur munduan diren ornodunik txikiak baitira. Martiriori, aldiz, animalia handiak, dinosaurusuak, mamutak, elefanteak, jirafak eta hipopotamoak. Beti gatazkan ari dira, baina oraingoan, badirudi bien arteko aldeak pixka bat bare daitezkeela, txoritxo dinosaurusuaren bidez.

Anbar birmaniarren balioa gora doa, eta kezka ere bada, anbar pieza asko bildumagileen eskuetara baitoaz, zientzialarien begitik at. Meatzariak segurtasunik gabe egiten dute lan eta meatzeak Kachin estatu birmaniarrean daude, non gatazkan dauden armada birmaniarra eta Kachingo independentziaren aldekoak.

Carolina eta Martirio moldatu dira, etxetik ihes egin, hegazkin bat hartu eta txori-dinosaurusua duen anbarra dagoen lekuraino iristeko, eta zientzialari baten alabak direla esanez eta laster iritsiko direla guasoak argudiatuz, lortu dute nahi zutena.

Anbar preziatua ikusi dute mikroskopiopean. Oh, a zer nolako ikuskizuna. Carolina animalia txikiak zalea baita eta oharmen handikoa gauza nimoentzat, benetan estonatu da txoriaren begia ikustean. Mugitzen dela iruditu zaio. "Bizirik dago!" erran du. Eta Martiriok eta inguruko adituek barre egin diote. —It's impossible!. Carolinak behin eta berriro gauza bera esaten zuela ikustean, hurrendu da Ching Hao espezialista eta neskaren berbak berretsi ditu. "She's telling the truth!" bota du, bertze denak ahozabal utzirik. Hala, anbarra pittinka kentzeari ekin dio, eta txoriaren begia are gehiago mugitu da. Martiriok Carolinari begiratzen dio, inoiz begiratu ez dion eran. Anbar guztia kendu dutenean txoriaren soina higitzen hasi da, oso emeki, eta adituak une hori bidez grabatzeari ekin diote, hau izugarria baita munduko zientziarentzat.

Txoriak moko zabaldu du pittin bat eta agerian geratu dira haren hortz txiki-ugariak. Carolinak ur tanta batzuk jarri dizkio moko punttan eta txoriak edan egin ditu xurgatuz.

Aditu asiar guztiak aztoratuta dabilta, telefonoa dantzatzen hasi dira.

Une horretan bi nesken gurasoak sartu dira, eta hasperen egin dute atseginez, bi neskatilak onik ikustean. « Baina, baina, nolatan egin duzue ihes etxetik ? ». Martiriok orduan : « Bizirik dago, aita, ikusi, mugitu egiten da ! ». Aita hurreratu da eta ia erori da lurrera, aurkikuntzaren norainokoaz jabetuz.

Aditu talde guztia urduri dabil, izerdi patsetan, bero egiten du laborategian. Ching Haok leihoa zabaldu du eta aire freskoa sartu da, eta denek eskertu dute. Uf, zelako eguna ! Martiriok, nahi gabe probeta bati bultza egin dio eta lurrera bota du, eta kriskitin, mila puska egin, eta lurretik puskek biltzen hasi da, eta bertzeek lagundu diote, huxkeria horrek gaur ez baitu garrantzirik batere.

Dinotxoriak une horretan, hegala astindu eta leiho zuloatik kanpora ihes egin du. Bideokamerak dena grabatu du.

Gurgurioa

Liburu batean irakurri nuen aurrenekoz hitz hori, gurgurioa. Hain zuzen ere ondoren jarri dudan testu honetantxe. —Ardien eta ahuntzen artegiak behar bezain handiak egin behar dira, alegia, abelburu bakoitzak izan dezala ez lau oin eta erdi baino gutxiagoko azalera, eta ezta sei oin baino handiagoa ere. Aletegiak leku garaian jarriko dira eta iparraldera edo ipar-ekialdera begira; hala, garia ez da hain azkar berotuko, eta haizearekin hoztuz, luzaro iraungo du. Beste edozein orientaziok gurgurioa eta bestelako zomorroak sortzen ditu, alea hondatzen dutenak. Zalditegiak egin bitez landetxeko lekurik beroenean, baina sutara begira jarri gabe; zamako abereak suaren inguruan jartzen direnean izutu egiten baitira.

Pinotxok baino zudur luzeagoa du. Arrautza batetik sortzen da, gero larba bihurtzen, ondoren pupa, eta azkenik gurgurio heldu. Gurgurioa, arasetako izurria hilabete beroetan izeneko artikulu bat irakurri nuen. Galirinetan, artirinetan eta abar agertzen da. Okilak bezala zulo bat egiten dualean eta han arrautzak erruten. Milaka gurgurio espezie omen dago munduan. Tabako-orria ere hondatzen du. Berdin jaten ditu arroza edo irrisa eta fideoak. Fruitu lehorrak ere maite ditu. Plastikozko ontziak zulatzen ditu eta horregatik aholkatzen dute kristalezko potoetan jartzea janak. Gurgurio mota batzuek bi hilabeteko bizia dute. Gehien bizi diren gurgurioek, pinuaren gurgurioek esaterako, hiru urte harrapatzen dituzte.

Gure ganbaran ere agertu zen iaz, artaleen artean. Hain dira txikiak, ezin jakin zer motatako gurgurioak diren. Artale batzuk hartu nituen eta zulo txiki bat zuten gehienek, eta neure langelara ekarri nituen. Lupa baten azpian jarri eta ikusi nuen zulo horietan bazirela arrautzak errunda. Epelean izan nuen lagina aste batzuetan eta ikusi nuen nola arrautzetik harrak sortzen ziren, harretik pupak eta pupatik gurgurioa, bere sei hankekin.

Pentsatu nuen nola "berez" gertatzen diren prozesu hauek, protagonistaren inolako kontzientziarik gabe, eta nola jaio nintekeen neu ere gurgurio edo arratoi edo araba-zozo. Gizakia ere umetokian sortzen eta garatzen da, baina bilakaera horren araubidea ez da gurasoena, biologiarena baizik. Gogoratu nintzen, baita ere, Kafkaren ipuinaz, itxuraldaketa izenekoaz, non gizon batek goizean itzartzean bere burua aurkitzen duen mozorro bihurtua.

Atzo ene lagun batek gurgurior jositako tabako-orri bat pasa zidan, lupan azter nezan. Iluntzea zen eta begiak oso nekatuta neuzkan. Horregatik biharamon goizerako utzi nuen eginkizuna.

Gaur itzartzean jabetu naiz, sei hanka nituela, begiak hazita eta pinotxoren zudurra. Izuaren ondoren, jakinmina ase nahian, tabako-orriko gurgurioak ikustera joan naiz. Benetan harrigarria ez da izan neu koartotik langelara joateko sei hankan egindako pauso baldarrek eragindako egonezina. Benetan harritu nauena, zera izan da, luparen pean tabako-orrietatik lurrin moduko bat ateratzen ikustea. Aurreko bi hankekin makarrak begietatik kendu ondoren, begiratu eta ikusi dut gurgurio koadrila bat zegoela zigarro puruak erretzen. Denak barrez eta alai. Neure tamaina erraldoia ikusi dutenean, guztiz larritu dira, giza neurriko gurgurioa ez baita ohikoa. Esan diet: ai, gurgurio gurgurio! Menudo tugurio!

Phylloxera vastatrix

Mahastiak etsai gogor bat dauka, mahats-zorria, phylloxera vastatrix, landarea eritu eta batzuetan hiltzen duena. Intsektu ziztatzaile horrek, mahatsaren hosto eta erro edo zainak jaten ditu. Hiru motatakoak daude: landarearen zainetan bizi direnak, kuku-sagar batean bizi direnak eta hegalariak. Diotenez orain mende eta erdi inguru etorri zen zorria Ameriketatik Europara, New York-Baris bidaia eginda, 1868 inguruan.

Zorri horrek Europako ia mahasti guztiak izorratu zituen eta hondatu. Horregatik mahastizainek zerbait pentsatu beharra zeukaten etsai txiki anker horren aurka. Azterketa batzuk egin ondoren, Ameriketatik etorri zen konponbidea. Hango txertakak erabiltzen zituzten hemen eta txertaka

horietan mahatsa txertatu. Nolabait esateko, gorputz amerikar batean soinadar europarrak jartzen zituzten. Eta mahatsa eta ardoa izaten zuten.

Orain urte batzuk, iragarki bat ikusi nuen: Nahi duzu zure ardoa egin? Erraza da. Eta pentsatu nuen, zergatik ez? Baina oztopo nagusi bat neukan, ez neukan lursailik. Horregatik trenbide hondoko lur zirrindan landatzea bururatu zitzaidan. Baratze estu-estu luze-luze bat, trenbidearen lerroz-lerro. Hasteko patata batzuk erein nituen.

Aurrerago, txertaka amerikarrean, rister 110 izenekoan, cabernet sauvignon txertatu nuen.

Mintegitik ekarri nuen guztia, eta mahastizain familia bateko kide bati eskatu nion txertoak jartzen laguntzeko. Ofiziokoa ere zerbaitegatik izaten baita. Atsegin handiz lagundu zidan, eta gainera, inausteko guraize batzuk oparitu zizkidan. Sekula ikusi gabekoa zen horrelako saila, estu-estua eta luze luzea. Hi haiz hi esaten zidan. Nik ez neukan puenting egiteko adorerik, baina horrelako xeblekerietarako ez neukan, ez, ez neukanez, eragozpenik.

Nik hartua nuen saila, herriguneetatik urrun zegoen, eta inoren jabetzan sartu gabe ari nintzen. Behin, harrotasunez, trenetik nire saila ikusteko gozamina hartu nuen. Artean ez zuen lukurik, baina tira, hostotsu zegoen landarea. Migel lagun mahastizaina alabaren etxera joan zen bizitzera, ia mila kilometrora eta bakarrik geratu nintzen. Handik urtebetera edo, neu gaixotu nintzen, oraindik aurkitzeke duten gaixotasun batekin. Ohean egon behar izan nuen luzaro, eta ezerk ez zidan min handiagorik eragiten, mahastia abandonatu beharrak baino. Etxetik trena ikusten pasatzen nuen ia egunero.

Orduak eta egunak, eta minutuak, luze egiten zitzaizkidan, oso luze. Gauza guztiekin aspertzen nintzen, baita hedabideetako albisteekin ere. Bateko gerrak, besteko emakume-hiltzeak, futbol arraioa, metalaren greba, ...buaj. Musikak egiten zidan lagun gehien. Batzuetan, gogo txit ilunarekin heriotzean pentsatzen nuen, eta neure burua mahats-aihen bihurtua ikusten nuen. Inausketari eta mahasti-zaintzari buruzko liburu batzuk ekarri zizkidatenean, txit hobetu zen ene aldartea, eta burubelarri ekin nion hango gaiak aztertzeari.

Erran bezala, Kixote zaldun-ibiltarien obrak irakurtzen bezala, aritu nintzen mahastigintzako liburu eta aldizkarietan burua sartua. Periodikorik ez zidaten ekartzen oheburura, ez bainuen irakurtzen. Baina goiz batez, eguneroko trena pasatzeko orduan, ez zen trenik ageri, eta handik ordu batera edo irratiak erran omen zuen tren baten errailetik irtetearen berria. Zauritu asko omen ziren, baina hildakorik ez.

Hurrengo egunetako egunkariak leitu nituen sarean. Ehun eta gehiago zauritu tren istripuan. Azpitu-tuluan: Baratzezain axolagabe batek trenbide ertzean landatutako patatak trenbideak okertu ditu eta trena bidetik irten da. Larrialdiko zerbitzuak iritsi zain, bidaiari anitzek probestu dute geraldialdeko bertako mahastietatik mahatsa hartu eta jateko.

Migelek deitu zidan telefonoz: Hi haiz hi, sauvignon! Zorionez zauritu guztiak sendatu ziren eta ez zen ondorio larririk izan. Horrek lasaitasun handia eman zidan. Eta neure burua lanean hasi zen berriro. Non jarriko nuen sail berria? Txertoak egiteko ideia mordoa nituen buruan. Txertaka aukera zabala zegoen, baita ere. Horretan nengoela erizainak analisaren emaitzak ekarri zizkidan. Badakigu zer daukazu: Phylloxera vastatrix, mahats-zorria.

Amatasuna

Amatasuna eta emetasuna eskutik doaz, ama eta umea, ama eta umeak. Gizakiak eta animaliak ez dira asko desberdintzen horretan. Ugaztunetan bereziki, antzekotasun handiak dira. Behiak txahala edo katuak katakumea nola elikatzen duen esnez, hala amak haurra.

Aurreko batean Joe etxe inguruan zebilen, egurasten, eta ohiko ibilitxo egin zuen. Sastraka batzuen ondotik igarotzean hots bat entzun zuen, animalia batek mugitzean egiten duena. Begitxo batzuek dirdir egiten zuten han barnean. Bai amarenek eta bai umearenek. Amaren atzetik zebilen umea.

Ama-semeen eta ama-alaben arteko harremanak etorri zitzaizkion Joeri burura. Iraupena urteetan, zer-nolakoa, liskarrak, bereiztea eta nork bere bizia egitea. Zenbat gorabehera ez zuten sortzen guraso-eme-alaba harremanek hamaika etxetan, ene! Eta gero bilobak zetozen eta harreman berriak, amama-ama-umea hirukotea eta harreman sare gero eta korapilatsuagoa eta hedatuagoa.

Bizilegea. Sabelean umea sortu eta aldi baten buruan jai, gorri, mundu honetara. Eta jaikitzen hasi, ibiltzen, edoskitzen. Bularrean lotura adierazten nekezak diren batzuk sortuz.

Joeren begiek xoxo bat ikusi zuten alboko zuhaitzean pausatzen. Xoxokumerik ez zuen ondotik. Txorien izaera, bestelakoa da, arrautzetik jaiotzen dira, ta gero elikagaia eman behar zaie ahora, baina bularrik gabe, lotutasun hori gabe.

Joek egunero egiten zuen itzuli bera eta sastraka ondoan beha geratzen zen apur bat, ea bere ezagun haiek ikusten zituen. Gehienetan ez zituen ikusten, baina noiz edo behin bai. Begitxo haiek han zeuden, Ekiren jomuga. Haritz eta sahats baten artean zeukaten agerlekua.

Joe bere amarekin zihoan egun batean, kumea ikusi zuten porlandian lasterka, bixi-bixi zihoan. Bere egoitza arbeltsutik irtena zen, eta bakarrik zihoan, amaren laguntzarik gabe. Nazkagarria! bota zuen amak.

Begitxoen dirdira ikusi zuen Joek. Ama eta umea. Bataren eta bestearen isatsak. Arratoia eta arratoikumea. Amatasuna eta umetasuna. Joe ikustean gordetzera egin zuten sastraka artera. Txilio bat entzun zen. Zozo bat atera zen hegan. Isiltasun handi bat. Ondoren musika bat, atzetik bi arratoi smokinga jantzita, zeruari agur eginez eta klakea dantzatzuz. Isatsak ere dantzari. Joek txalo egin zuen gogotik, bravo!

Zaldiarraia

Arraina da, bai. Zaldi itxura badu ere. Isatsa kiribilduz heltzen die itsas-belarrei. Forma eta kolorea alda ditzake, beharraren arabera. Bitxia benetan izaki honen izaera. Zaldiarraia arrak izaten ditu kumeak, bai, arrak, haren poltsan arrautzak jartzen baititu emeak eta ondoren arrak ernaldu. Umealdiak aste bi edo irauten du eta hortik jaiotzen dira hamarka zalditxo. Haragijalea da: izkirak, krustazeo txikiak, ornogabe batzuk... jaten ditu. Tamaina askotarikoak daude zaldiarraia. Txikiak, munduan, ilar-ale baten alturakoak dira; handienak, gure besoaren luzerakoak. Uretan hotsak ere ateratzen ditu. Ur epelak nahiago ditu hotzak baino. Uretan bizi arren, oso igerilari txarrak da, metro batzuk egiteko orduak behar ditu.

Hori guztia jakin zuen Joek, aldizkari batean irakurrita. Aquarium batera joanda bere begiz ikusi zituen, eta liluraturik geratu zen, haien mugimenduei begira. Zaldiarraia!

Ordura arte zelaiko zaldiak bakarrik zituen ikusiak. Larrean, jauzika, isatsarekin euliak uxatzen, kaka egiten, askan jaten... behin osabak kontatu zion nola ikusi zuen hondartzan zaldi bat hila. Itsasoak ekarria. Azala leun-leun, urek harat-honat erabilia. Eta animalia oso-osoa, inolako zatirik falta barik. Negua zen, eta apenas zebilen jenderik hondartzan. Beharbada osaba bera izanen zen zaldi hura ikusten lehena.

Kobazuloetako margolan antzinakoetan ere agertzen ziren zaldiak eta Joe harrituta egoten zen haiei begira. Oso oso oso aspaldikoak ziren zaldiak. Nolakoak izan ote ziren lehen zaldi haiek? Leizezuloetan sartzen ote ziren ala beti libre ibiltzen kanpoan? Zergatik zeuden zaldi batzuk lehorrean eta bertze batzuk uretan?

Joek urpekari izateko ikastaro bat egin zuen, eta aurrezten aritu zen traje osoa erosteko, betaurreko eta arnasodi. Bi hegatsak ere beharko zituen oinetarako. Gertuen zuen hondartzan itsasoratuko zen, nahiz eta jakin, nahiko zaila izanen zela zaldiarrain horietako bat aurkitzea. Bizpahiru ordu urpean pasa arren, ez zuen zaldiarrainik batere ikusi, baina bazekien azken aldian asko murriztu zirela, gizakiak izadiari egindako kalteengatik. Bigarren uretaratzean zorte hobea izanen zuen beharbada.

Sakonago jo zuen, biriak ongi beteta. Behera egin zuen itsasbelarretara. Han zebilela trabatuta geratu zitzaion oin bat itsasbelarretan eta larritu zen. Ezin zuen hegatsa askatu eta bertan hilko zela pasa zitzaion burutik. Batera eta bertzera itzulikatu zen, baina alferrik. Madarikatu zuen bere jakinmina eta madarikatu zituen zaldiarrainak. Nork agindu ote zion bakarrik uretaratzea, lagunduko zion inor ondoan izan gabe?

Begiak itxi zituen, azkenaren zain. Hots bat entzun zuen, zaldi bat lau hazkan bezala. Zentzugabekeria. Une batetik bertzera bortzehun zaldiarrain agertu ziren, eta isatsarekin Joeren beso eta hankei heldurik, goratz atera zuten mutila, ur gainera. Bizirik eta onik. Begiak zabaldu zituen, eta arnas handi bat hartu ahal izan zuen.

Azken urteotan zaldiarrain anitz galdu dira. Gero eta nekezago aurkitzen da zaldiarrain bat uretan. Gainera badira zaldiarrain-arrantzale furtiboak ere, zaldiarrainak saltzen dituztenak, nahiz eta jakin, edukiontzi barruetan gehienak hil egiten direla. Sendagai miraritsuak egin asmoz ere hartzen dituzte zaldiarrainak, baina ez dago ezer sendatzen duten frogarik.

Haien habitata, zalditxoek bizilekua hondatzeagatik asko galdu dira eta galtzen dira, izan ere itsas-zelaiak eta alga handien sailak kaltetzen ari baikara.

Guk akabatzen ditugu zaldiarrainak eta era berean miresgarriak iruditzen zaizkigu, beharbada hauskorak direlako eta itxura hain berezikoak. Zaldiarrainak zaintzen baditugu, gogoan izango dugu, uretako bertze izakiak ere zaindu behar ditugula, animalia nahiz landare. Joek lagunduko digu zeregin horretan. Joek ez du zaldiarrainik erosiko, ez bizirik ez hilik. Apaingarrietarako zaldiarrain lehorrak saltzen dituzten salpostuak ikusten baditu, zaldiarrainek jasaten duten egoera zein den esplikatuko die saltzaileei. Joe urpekaritzan ariko da eta bizirik dauden zaldiarrainak agurtuko ditu aldiro, bizia salbatu ziotelako, katigatuta geratu zen hartan. Hilda aurkitzen dituen zaldiarrainak gurtuko ditu, benetako debozioz. Jadanik ezagutzen ditu haien hezurdurak.

Malaria

Joe jolasean zebilen eta Mire lagunarekin haserretu zen, ostiko jo ziolako.

-Txotxoloo!

-Lerdo!

-Kakaumea!

-Anopheles!

-Zer? -Anopheles!

-Eta hi gehiago!

Joe etxera joan zenean, jakin nahi izan zuen Anopheles hura zer zen.

wikimedia

Anopheles eltxo genero bat da. 460 espezie ezagutzen dira gaur egun, horietatik 100 inguruk malaria kutsatu ahal diote gizakiei baina normalean 30-40 espezie inguruk Plasmodium generoko parasitoak eramaten dituzte.

Gau baterako aterpea

Glaschu izeneko hirian entzun nuen ondoren kontatuko dudan gertaera hau. Ortzirala zen eta garagarno pinta bat hartzen geunden astero bezala lagunartean. Bilkura horietan asteko gorabeherak kontatzen genituen eta asteburuko planak aipatzen. Batzuk Arran uhartera joateko asmoa zuten, berte batzuek etxean geratzekoa eta bazen bizikleta prest zeukanik itzuli on baten egiteko.

Pintaren hiru laurdenak edanxeak zeudelarik, kontakizun batek hartu zuen gaina. Baziren senar-emazte aberats batzuk, haurrik ez zutenak, zergatik ez dakigula, eta halako batean erabaki zuten atzeritik bi umeren ekartzea, eta hala, kudeaketan eta joan-etorrietan hainbat denbora eta diru gastaturik, ekarri zituzten bi haur, bi urteren ingurua hor nonbait zuketenak.

Doi zekiten ibiltzen, eta aita-ama berrien eskutarat pozik heldu ziren.

Hazama eta hazaita haiekin aski ongi hazi eta hezi ziren, maitasun guztiarekin eta aberastasunean, eskolarako eta bertzetarako aukera guztiekin. Kewin eta Shona zuten izena bi anai-arreba haiek. Biak aski alegera ziren, eta lagunarterako egokiak, doi bat barnekoiak izan arren, une jakin batzuetan.

Hamalau urteren inguruan, ikasketetarako bideak pixkanaka hautatzen hasi behar zutenean, gazte bien jarrera eta jokabidea aldatzen hasi ziren. Gero eta haserrekorrakoak, ez-esanekoagoak eta oldartsuagoak, bereziki gurasoen aurka. Nerabezaroaren ezaugarriak zirelakoan, gurasoek eroapen handiz men egin zioten aldi neketsu hari. Iragankorra izanen zen, etxe guztietan bezala. Zentzatuko ziren, eta ezaguera onarekin aitzinatuko ziren beren bideetan. Baina ez zen halakorik gertatu. Egunetik egunera Kewin eta Shona makurrago eta maltzurrago ari ziren, eta itxura batean, inolako arrazoi sendorik gabe. Neurriak hartu zituzten eta zigor arinak, baina egoera ez zenaldatzen. Guztiz jasanezina bihurtu zenean egoera, gurasoek etxetik haizatu zituzten. Zirudienez ume haiek bazekarten sortzetik kromosoma bereziren bat, guztiz eraldatu zituena. Horrela, bi nerabe haiek, beren puskak hartuta, beren bidea hasi zuten. Geroztik inork ez du jakin haien berri. Ez bizi diren eta bizi badira, ez non diren eta nola.

Atsekabe hartan bizi zirelarik senar-emazteak, arrats batean norbaitek jo zuen etxeko atea, eta irekitzean bidez bide zebilen neska bat agertu zen. Gau baterako aterpea eskatu zien, gau bat bakarrik izanen zela. Zalantza pixka bat izan zuten, baina azkenean baiezkoa gailendu zen. Pasatu zen barrura neska, izenez Adele baitzen, eta txit atsegina gertatu zitzaizen bie. Bizimodu zaila zeukan, eta bazekien preziazten ogi puska bat eta etzangu epel bat. Senar-emazteak etxalde batean bizi baitziren, aunitz zakurrekin eta katuekin, Angelek berehala erakutsi zuen animaliekiko zeukan zaletasuna eta goxotasuna. Horrek are maitakorrago egin zuen bera senar-emazteen begietara. Esku ona zeukan animaliekin eta gainera zaletasun handia. Horrela, gau bat ez ezik, bertze gau batzuk ere egin zituen Angelek etxalde hartan, eta hain begiko gertatu baitzitzaizen, bolada batez bertan geratzeko gonbitea egin zioten. Angelek oso gogo onez hartu zuen eskaera, eta baiezkoa emanik, motxila ohe azpian jarri zuen.

Urteak joan dira eta Adele da etxe hartako alaba, benetako alaba. Berak zaintzen ditu guraso adintsuak eta bera izanen da etxalde aberats hartako oinordeko bakarra. Adorutzen dute Adele! Sekula ez dute jakin Shona eta Kevinen berri. Bizitza horrelakoxea da.

Ortziral hartako pintaren ondoren gertaera hau buruan izan nuen denbora askoan. Ortzirale batean, solaskide batek, Adeleren ezagutza baitzuen, erran zigun etxaldean txakurkume aunitz jaio zirela eta ea nahi genuen bat hartu. Nik bat hartu nahi nuen, baina handik gutxira hilabetez gurasoenera joateko asmoa neukan, bi mila kilometro hegazkinez eginik. Azkenean hartu nuen txakurkumea neurekin eta trenez egin nuen bidaia gurasoen baserriraino. Han, laketu zen zakurra eta gustura zebilen nonahi. Gurasoei Adeleren historia kontatu nien eta txit harrituak geratu ziren, eta zakurrari begiratu berezi bat egiten zioten.

Arratsean atea jo zuten eta neska zarpailtsu bat agertu zen atean eta gau baterako aterpea eskatu zuen. Baiezkoa eman genion. Eskeko asko zeuden munduan. Berehala zakurrekiko kariño handia agertu zuen. Izena galdetu genion. Eta hark erantzun Adela zuela izena. Etxekoek harridura punttu bat agertu genuen aurpegian. Zakurrek zaunka egin zuten. Aste bete egina zuelarik etxean, begiko izan genuen eta bertan geratzea eskaini. Adela esker onez aitorten bat egin zigun: —Neure benetako izena Shona da, eta baimena eskatzen dizuet neure anaia Kevin ganbaran lo egin dezan uzteko.

Ametsak

Artzain baten ametsak nahi nizekizueke kontatu. Artzain batek lotan egiten zituen ametsak, hain zuzen. Artzain hark, ardi saldo bat zeukan eta mendian bizi zen etxola batean. Egunez amets bakarra zeukan, bere osasuna zaintzea eta ardiak onik gordetzea. Ez zuen nahi ardirik galdu. Bi zakur zituen haien zaintzeko. Gaztea zelarrik, egun behelainotsu batean, axuri bat galdu zitzaion, eta bilatuagatik ez zuen inon aurkitu. Orduak, egunak eman zituen bila eta bila, baina ez zuen sekula gehiago ikusi. Lotaraturik, maiz amesten zuen, leku zailtan ibiltzen zela, baita hegaz ere, edo zaldi urdin baten gainean, eta axuria aurkitzen zuela, eta axuria etxolara ekartzen zuela. Amesgaiztoan, gorriak ikusten zituen, eta azkenean, erdiesten zuen axuria onik etxeratzea. Baina itzartzean, berriro jabetzen zen axuri hura ez zela sekula itzuli, ez eta itzuliko ere. Beste amesgaiztoetako bat, usuena, hau zen, otsoa atzematen zuela bidean eta aitzoz hiltzen zuela. Itzartzean, jabetzen zen, sekula ez zuela otsorik hil, ez eta hilko ere. Otsoak hilak zizkion hainbat ardi urteetan zehar, baina berak ez zuen erdietsi otsoa harrapatzerik sekula.

Artzainaren emazteak ezagutzen zituen ongi senarraren amesgaiztoak, eta arnasestuka itzartzen zenean gauaren erdian, galdetzen zion: —Zer, orain ere otsoa hil nahian?. Buruaz baietz egiten zion senarrak eta berriro lokartzen zen. Emazteak ere bazuen bere amesgaiztoa edo ez hain gaiztoa. Maiz

ikusten zuen axuri bat hegan etxeko korridorean. Ukan ez zuten haurraren ikur bat zela begitantzen zitzaion.

Adinean aurreratu zirelarik, ardi saldoa saldu zioten iloba bati eta erretiroa hartu zuten. Etxolatik herrira jaitsi ziren eta kale-etxe batean jarri ziren bizi izaten. Bizimodu eroso zuten, baina kosta zitzaien mendiko aireak ahanztea. Gizonak beti amesgaizto berberak egiten zituen, axuriaren bila suhar ez zebilenean, otsoa hil nahirik hor zebilen mendirik mendi.

Artzainak lotarakoan, aitzo bat jartzen zuen burukoaren azpian, pentsatuz baliagarri izanen zitzaioala otsoa aurrez aurre aurkituz gero. Emazteak erotzat hartu zuen eta esan zion ohe bereiz batean lo egin zezala, horrelako xelegekeria burugabeak egin nahi bazituen.

Hala, beste logela batean jarri zuen etzangua gizonak eta aitzoa burukoaren pean ezarri. Bizpahiru asteren buruan, egun batez, aitzoa odoloztatua agertu zen goizean eta senarrak aitortu zuen otsoa sastakatu zuela, baina ez zuela hil, ihes egin ziola. Andrea, ordura arte aiherga baitzen gaiarekiko, kezkatzen hasi zen gizonaren buruko osasunaz. Halere, egunean zehar zentzuz jokatzeko zuzen zuzen, bakean laga zuen bere etzanguan nahi zuena egin zezan.

Hurrengo gauetan, gizona etzalekuan lo zetzalarik, kanpotik gelako atea ixten zion andreak, inora joan ez zedin, ohartuta edo oharkabean. Goizaldera irekitzen zion eta hartara lasai samar lo egin zezakeen.

Gau batean, goizeko ordu biak aldera, egundoko oihiak entzun zituen andreak ohetik, eta altxaturik, laster batean joan zen senarraren gelako borta irekitzera. Kosta zitzaion, kosta, eginahaletan. Senarra zutik zegoen eta esku batean aitzoa zuen eta bestean abere-belarri bat odolotan. "Hurrengoan akabatuko dut, gaur belarria ebakitzea besterik ez dut lortu" bota zion hasperenka emazteari. Hau benetan izutu zen eta borta itxi zion berriro kanpotik, eskutik aitzoa eta belarri odoloztatua kendu ondoren. "Utzi berriak eta erokeriak! Ez zaude burutik sano!"

Bizpahiru hilabete lasai samar igaro ondoren, gau batez berriro ere istilu-hotsa atera zen gizonaren ganberatik eta arrabots izugarri bat. Emazteak auzora jo zuen laguntza eske, eta borta ireki zutenean, han zegoen senarra begiak zabal-zabal, aitzoa eskuan odolotan eta ohe gainean otsoa gorpu, sastakadaz josia. Emaztea eta auzoa, biak, auzoaren etxera joan ziren, eta han kafe pixka bat hartu zuten, gertaera argitu nahian, goiztiriko argiak lagundu arte. Emazteak bere etxeko borta kox-kox jo zutenean, senarrak ireki zion irribarre batekin, guztiz apain jantzirik, eta odolaren arrastorik gabe. —Otsoa ganbaran jarri dut, zintzilik!.

Kafe egin berria zeukan, baina bi emakumeak ez ziren ausartu barrura sartzen.

Emazteak etxolan bizi zen iloba artzainarengana jo zuen eta gertatua kontatu zion. Ilobak, osaba miresten baitzuen, esan zion osaba ez eramateko errotxe batera, berak bere begiz ikusi nahi zuela osabaren osasuna eta jokamoldea. Hala, gauero, osaba-izeben kale-etxera jaisten zen eta haien etxean lo egiten zuen, osabaren gelatik gertu, honen balizko zalaparta eta erokeriak begiratzeko. Ganbaran zintzilik zegoen abereari arretaz begiratu zion ilobak. Zalantzarik ez zeukan, hura benetako otsoa zen, arra gainera.

Hegohaizea zebilen gau ilargitu batean, tenpest hots beldurgarri baten ondotik, iloba itzarri eta osabaren gelako borta ireki zuen. Osaba poz-pez zegoen. —Aurkitu diat ene axuria!!!!. Besoetan axuri polit bat zeukan eta txit ederra gainera. Emaztea pixkanaka aurreratu zen, durduzaturik, eta axuriaren albora iritsita, begietara begiratu zion. Axuriak, isatsa mugituz, bee labur bat egin eta esan zuen: Ama, amatxo, hemen nago!

Wadi al-Hitan (Baleen harana)

Neska ernea zen Orodea. Ausarta. Bederatzi urtekoa. Gauetan amets arraroak egiten zituen. Oso. Beti animaliarene bat zen tartean. Oraikoan, balea. Gauean itzartzen zen supituki. Zer ikusi zuen galdetzean, "Balea belauniko" erraten zuen. Eta amak, —hori ezinezkoa da..., maitea, baleak itsasoan ibiltzen dira, igerian... egizu lo, amets egizu arkumeekin....

Orodearen zaletasunetan behinetakoa egipziar piramideak ziren, egipziar krokodiloak, egipziar faraoiak eta Nilo ibaiari buruzko kantakizunak eta gertaerak. Hainbesteko matraka ematen zuen bere Ejito-rekin, non eskolako lagun nagusiagoek erraten baitzuten hegan bidaliko zutela Afrikaraino, gutxien uste zuenean. Eskolako kahierrak edo koadernoak papirozkoak zituen, eta arabierazko hitz batzuk ere bazekizkien. Arkeologoa izan nahi zuen, eta bereziki ejitologoa.

Eskolako mutil bik, broma ederra egin zioten Orodeari. Bi dron zeuzkaten eta lokarri batzuekin Orodea lotu zuten dronetara eta aineratu egin zuten eta eskolako patioan hegan erabili zuten, bost pisuko etxe baten altueran, harik eta eskolako arduradunek ikusi, jaitsiarazi eta zigortu zituzten arte. Dronak debekatu zituzten.

Egun haietan eskolan itsasoko ugaztunak nolakoak ziren ikasten aritu ziren, balea motak... Orodeak gaueko ametsa gogoratu zuen, balea bat agertzen baitzen, belauniko eta urik gabe. Baita ere itsas dortokak, narraztiak eta arrainak, baina lehor lehorrak, harrizkoak balira bezala.

Asteburu batean, plazan jolasean ari zirela, bi mutil bihurriek berriro atzeman zuten Orodea eta lokarriekin lotuta dronekin aineratu zuten eta El Cairo hiriaren koordenadak sarturik, zeruan gora bidali zuten, eta laster ezkutatu zen bistatik neskaren oihu luzea. Eguraldi onak lagundurik eta haize zakarrik ezean, mediterraneo itsasoa zeharkatu eta afrikar kontinentearen gainetik joan zen, harik eta bateriak agortzen hasi eta pixkana beherantz egin zuen arte. Basamortuan jarri zituen oinak, inguruan ez zebilen inor. Lokarrietatik askatu eta bazterrak ikustera abiatu zen. Aurki harri batean zizelkaturik aurkitu zuen: —Wadi al-Hitan. World Heritage Site. Eta gainean arabierazko hitz batzuk, bere alfabeto berezian. Mundu mailako zerbait inportantea izan behar zuen. Arratsa hur zegoen, eta gaua bertan pasa beharrak zirraraz eragiten zion Orodeari. Otso egipziar bat etor zitekeen, edo basamortuko katua edo desertuko azeria. Baina zorionez gazela bat agertu zen eta haren atzetik beduino bat. Beduinoak agur egin zion, ume hura han bakarrik ikusteaz guztiz harriturik. Hiru datil eta ur pixka bat eman zizkion Orodeari eta honek dron bat eskaini zion, baina beduinoak ez zuen ezagutzen tramankulu hura. Handik bertan zegoen hezurdura handi bat erakutsi zion. Hezurdura hain zen handia, dinosaurusio batena zirudien. Baina mimikaz beduinoak jakinarazi zion arrain handi batena zela, balearena!!!!!!!!!!

Beduinoak tea eman zion edatera eta Orodeak biziki eskertu zion edari indargarri hura. Ondoren, bertze hezurdura bat erakutsi zion, hesi batez inguratua zegoen inor sar ez zedin eta kartel batean Basilosaurus irakur zitekeen. Iluntz-instantean Beduinoaren etxolara joanik, guztiz unatua baitzegoen, lo geratu zen seko. Itzarri zenean, bakarrik aurkitu zuen bere burua, beduinoa aldegina zen.

Niloko urak gainez egin zuen euriteen eraginez. Wadi al-Hitan alderaino heldu ziren urak eta Orodeak igel batzuk sumatu zituen bere inguruan, txipli-txapla. Ondoren arrain batzuk; eta gutxira, dordoka bat igeri bizian. Orodeak hatzak uretan busti eta ahora eraman zituen. Ur gazia zen. Belaunetaraino heltzen zitzaion. Eta uraren maila igotzen ari zen. Mendian gora egin zuen eta han bi arkeologo, senar-emazteak topatu zituen lanean. Turisten batzuen alabatzen hartu zuten eta adierazi zioten muino hari "infernuko mendia" deitzen ziotela, Garet Gohannam. Milioika urte lehenago Tetis izeneko

itsasoa izan zela han eta baleak zebiltzala eta bertze itsastar asko. Baleak lehorreko izakiak zirela eta urtar bihurtu zirela, garai urrun hartan. Baleek atzean hankak zituztela. Haien orkatil-hezurretako tortolosa aurkitzea altxorra zela.

Orodea ahozabalik geratu zen. Arkeologo haiek atzerritarrak ziren eta "Orodea" erratea oso zail egiten zitzairen, eta nahiago zuten "Pangea" deitu neskatoari. "Pangea, begira hemen zer azaldu zaigun. Hartu ixipu hori eta zeuk egin..." erraten zioten ingelesez. "Have a look" maiz esaten zioten.

Orodea belauniko ari zen lanean, eta lanaldi baten ostean, atzeko hankak laburtzen hasi zitzaizkion...

Senak agindu zion lau hankan uraren ingurura jaistea, eta uretaratu zen izurde jolasti baten atzetik, eta ez da inon, geroztik, neskatoaren arrastorik. Bi dron haren bila dabiltza etengabe.

Indio

Ondoren kontatuko dugun gertaeraren albistea ene lagun Jessicak ekarri zigun lagunartera. Ez nauzue, hortaz, neu, albiste hori entzun zuen bakarra, baina nola bertzeek ez duten idatziko, jartzen naiz izkiriartzera. Duela hilabete batzuk gertatutakoa da, eta dolu dut, hemen ezin adieraztea Jessicak ahoz erratean emandako ahotsak, indiarraren jakina eginez. Nolanahi ere, Jessica gure laguna podologoa da eta emakume adintsu bati oinetako azkazalak atontzen ari zen arratsalde hartan. Ondoko etxebizitzatik oihuak entzuten hasi ziren: "Put, emagalduta, emakaiztoa,... akabatuko haut, pozointsua!" Gizonezko baten ahots sendoa zen. Eta jarraian beste amots askoz eztiago bat: —Ez, ez nazak ukitu, mesedez, ez, ez dizut minik egin.... Eta ondoren berriz gizonezko-ahots bat: —Akabatuko haut, putatza hori, zer uste dun, jo ta akabatuko haut. Jessicak eta andre adintsuak elkarri begiratu zioten eta kezka bizian jarri ziren: —Hil egingo du. —Prebosteei deitu beharko zaie. Eta halaxe egin zuten. Etorri ziren eta tinbrea jo zioten indiarrari eta honek zabaldu zuen egundoko irribarre gozoa ezpainenetan zuela, sekula bere bizi guztian plater bat hautsi ez duenaren keinuarekin. —Bakarrik al zaude?" galdetu zioten prebosteei, eta indiarrak baietz, bakarrik zegoela. —Sar gaitetzke?" —Bai, bai, aurrera. Agenteek etxe guztia miatu zuten eta ez zuten inor aurkitu eta beraz, agur erranik, joan ziren. Jessica eta amona ate zirriztutik begira egon ziren denbora guztian, eta indioak begirakune zorrotz hilgarri bat egin zien. Indio burutik eginda dago, noiznahi oihuka hasten da eta pertsonalitate multiplea edo anizkoitza du, bera da gizon egur-emaiulea eta emakume egur-hartzailea. Bortz bat ahots egiten ditu. Medikazioaz gain, rayak hartzen ditu eta edan egiten du. Botilak etxeko leihotik kanpora botatzen ditu eta garaje sarrera baten aurrean hausten dira. Goizeko seietan autoak irtetea, lanerako, gurpilak zulatzen dituzte. Bizilagun guztiak kokoteraino daude. Zergatik ez dute indio eramaten bera bezalakoentzako egoitza batera? Laster, Jessicak erran digunez, sinadurak biltzen hasiko dira bizilagunak, Indio eraman dezaten. Indio kanpora.

Ponpeia

Joe eta Jessica kruzero batean Ponpeiara heldu ziren. Osasun-paperak eta gainerako agiriak erakutsi ondoren, eta ilara astun samar bat jasan ondoren, Ponpeiara sartzeko modua izan zuten. Azkenean han zeuden, gune historiko ospetsu hura euren begiezt aztertzen. Anfiteatroa, Foruma, eta bertze hainbat ikusgarri. Bidean lurrean harrian zizelkaturik pitilin bat eta bi arrautza ageri ziren aldiro, gizonezkoaren organo sexualak adieraziz, eta haren esanahia ere jakin zuten. Putetxeerako bidea seinalizatzen zuen garai aspaldiko hartan. Ponpeia ezaguna da Vesubio sumendiaren labak azpian hartu zuelako eta hildako asko daudelako, sendaturik, erupzioak harrapatu zituenean bezala.

Heriotza negargarri hark utzi zuen ondorengoentzat, instant haren betikotasuna, bat batean eskultura gogoangarri bihurtu ziren han hildako guztiak. Karl Brullow margolariak “Ponpeiaren azken eguna” izeneko margolana egin zuen, benetan gogoangarria.

Joek eta Jessicak gidariaren azalpenak arretaz entzun zituzten, eta beren begiz ikusi, betidanik sona izan zuen hiri haren barrunbea. Urte bete lehenago aurkitua zuten garai hartako taberna bat, eta aurkikuntza hori ere aurrean izan zuten.

Kruzeroa amaitu zenean, Bartzelonan lehorreratu ziren, eta egun batzuk eman zituzten hiria ikuskatzen, eta azkenean, Sagrada Familia ikusi ahal izan zuten, barrua andamiorik gabe eta garbi. Lagunentzako oparitxo batzuk ere hartu zituzten, liburudenda txiki batean, erakusleihoan zegoen liburutxo batek atentzioa emanda. Eta ondoren liburuzainak aholkua emanda.

Herrira heldu zirenean, artean bidaiaren oroitzua fresko zutela, argazkiak erakutsi eta partekatu zituzten. Eta esperientziaren berri eman, lagunei. Egunez egonaldia egiten zuen barkuak portuan, turistek hiria bisitatzen zuten bitartean, eta gauz egiten zuen hurrengo portura bitarteko itsasaldia. Bidaiariak bertze egun bat zuten, gosaldia eta bazterrak ikustera ateratzeko. Kapitainarekin batera afaltze kolektiboan ere parte hartu zuten, apain jantzita; eta ezagutu zituzten beste bi bikote eta soltero bakarti bat, berenganatu zutena. Talde atsegin bat eratu zuten, ateraldietarako eta otorduatarako. Prezioak oso garestiak ziren barkuan eta dena english zen, itsasontzia amerikarra baitzen.

Joe eta Jessicak argazkiak wasapera bidali zizkieten lagunei eta aurrez aurreko saioan bidaiaren xehetasunak eman zituzten. Gogortuta geratu ziren biztanleen gaia hizpidera atera zen, eta bitartean tabernako telebistak Afrikar uharteetan sumendi batek eragindako hondamendia, ezustea eta zirrara aipatzen zituen aldiro, platan sailen galera, etxalde aunitzen deuseztatzea, dronetik ateratako irudiak, kiroldegian aterpetutako jendea, labak itsasoan hedatutako saila estatuarena zela, kristal bihurtzen zela laba –uretaratzean-, kea, kedarra, jendea erratzak hartuta kaleak garbitzen, erregerreginen eta presidentearen bisita, sumendiaren jardun etorkizunekoari buruzko hipotesiak, geologoek iritzia, lurrikaratxoak,...

Izadia basatia zen, gupidagabea, eta gizakia....

Taberna txikia zen, eta ahalegina egin behar zen alboko mahaiko elkarrizketa ez aditzeko.

Azken orduko albiste bat telebistan. Ahotza beheratua du eta irudiak bakarrik ikusten dira. Sumendi bat ageri da eta bertatik laba isurtzen du lurraren barrunbeak... jendeak ez dio jaramon handirik egin, sumendien irudiak bakarrik ageri dira azken asteetan...Zuritoa bukatua da eta bertze bat eskatzeko orena. Telebistako irudiei azpitularrak jarri dizkiete. —Vesubio sumendiaren erupzioak 113 turista hil ditu, kruzero amerikar batean hiria ikustera lehorreratuak zirenak,.... Itsasontziaren irudi batzuk agertu dira, bertako kide batzuk lekukotasuna ematen...kea dariola mendia, jendea nigarrez, “Ponpeiaren azken eguna” margolana...

Gurutzatuaren ezpata

Oraindik orain urpekari batek, Israel iparraldean, Haifa-ko ur ez-sakonetan, itsas-bazterrean murgil eginik, itsas-zola behatzen ari dela, ezpata bat aurkitu du, gudari gurutzatu baten ezpata hain zuzen. Arma eta gurutzeta batean.

—Maita ezazu lagun hurkoa, zeure burua bezala.

Bertzaldean, etsaiak etsaia dakus aurrean.

—Allah da handiena!.

Ezpatadantza odoltsua.

Gurutzadetan, 1095ean hasi baitziren eta mendeetan iraun, kristau europarrak Ekialdera Hurbilera egiten zuten bidaiak, Jerusalem eta lur santuko beste parte batzuk eskuratu nahian, musulmanen eskuetatik kenduz.

Vindolanda izeneko gunean, Ingalaterrako iparraldean, gotorleku erromatarrean, Hadrianoren harresi ondoan, arkeologoek burdinezko ezpata bat aurkitu dute bere zurezko zorroan, beste ezpata baten ahoa (xafla), eta zurezko bi ezpata txiki, jostailuzkoak.

Ezpata-aurkikuntzarik ez-belikoena, XI. mende ingurukoa, Irlandan egin dute, eta ezpata hori, ehuntzeko erabili omen zuten, seguruenik emakume vikingo batzuek. Hagin-egurrez egindakoa da eta hogeita hamar zentimetro pasatxo ditu luzeran. Heldulekuan gizaki baten aurpegia dago zizelkatuta.

Ezpatak eta ezpatak.

Ez ote hobe ehuntzea, ezen ez inor erahiltzea?

Ez litzateke arraroa ezpata horietako batzuk gure burdinoletan eginak izatea. Olagizonek beren eskuz, sutan, urak eragindako mailuari esker, egindakoak.

Udako beroan, beharbada ezpata-euli baten ziztada hartuko zuten. “Ezpataren zartarea, minbera” dio esaerak.

Zuhaitzen ipurdia

Ez da gaurkoera zuhaitzen oinetan edo zuztar artean zerbait gordetzeko ohitura. Dirua lapiko batean, esaterako edo beste muturrera joanda, giza-gorpu bat. Zuhaitza hilobi.

Ez da aurkitu zaharra Irlanda aldean giza-gorpu baten hezurdura, zuhaitz baten ipurdian, baina ohar, orain mila urte inguruko da gizaki hori. Pago adintsu bat, bi mende pasatxokoa haizeak ipurditik atera duenean, agerian geratu dira gizakiaren hezurak, bizkarrezurra batik bat, zeren lurrean geratu baitira berna hezurak, zoruari itsatsita, ageri-agerian.

Ikertzaileak joan dira bertara, telebistak eta izparringiak baino lehenago, eta aditzera eman dutenez, hogei urteren inguruko gazte batena da hezurdura.

Haizeteari esker egindako aurkikuntza izan da hau. Joe gure laguna ere han izan da, zientzialari saiatua bera, eta ikasmin handiz behatu ditu pagoa, hezurdura eta kokagunea. Ikertzaileekin ere mintzatu da. Gertaera honen lekuko izan nahi du. Gaur prentsaurreko bat emango dute ikerketa-buruak, politikoa nagusiak eta kazetari-aurkezleak. Zutik emango dute, pago eroriaren ondoan, okasiorako jantzitako

zapel zuri eta katuskekin. Kazetariak aurkezpenak egin ostean, politikoa hasi da mintzatzen, denei eskerrak emanez, eta aurkikuntzaren garrantzi gorena nabarmenduz. Horretan ari dela, haizea hasi da belarrak eta pagoen hostoak mugitzen, eta mikroan interferentziak egiten. Eten batzuk egin behar izan dituzte, haize-boladarik gogorrenetan. Ikertzaileak adierazi du hezurdura horren azterketak ekar ditzakeen ekarpenak zeintzuk diren eta Joek adi-adi entzun dio, aditzaile handia baita.

Haizea indartuz doa eta ez ditu gauzak erraz jartzen. Eskuekin heldu behar zaie buruko zapelei. Bat batean arrabots handi bat entzun da, eta ondoko pagotzar handi bat jausi da, non eta prentsaurrekoa egiten ari diren lekuan bertan. Pagoak politikoa eta kazetaria hartu ditu azpian eta zapuztu. Ikertzaileak doi salbatu du bizia eta Joeri ez zaio ezer txarrik gertatu. Telebista kamerek den-dena grabatu dute zuzenean. Suertez erizain bat dago entzuleen artean, baina ezin du abarren artetik zapuztuengana heldu. Ez da entzuten ez intziririk, ez aienerik, ez arnas-hotsik. Soilik haizeak hostoetan egiten duen murmurio firfiratsua.

Zuztarren artetik doinu jostari bat atera da. Iratxo bat da gaita jotzen, eginahalean, paparra puztuz etengabe, eta bere libertatea ospatzen duela dirudi, —berrehun urte egin ditut hemen, irten ezinik.

Bacon

Aberdeen etxaldean zoriona zen nagusi uda hartan. Oiloak, txakurrak, katuak, denak loriatsu bizi ziren elkarrekin. Gau batean esparrura sartu zen trikua eta baratzako barazki batzuk lardaskatzeaz gain, Bacon txakurraren gailetak jan zituen. Biharamunean Bacon artzain txakur adintsuak, hamaika urte baitzituen, oilanda bat jan zuen, luma zuriekikoa. “Oilanda jan du, baina Bacon zakur ona da, orain ez gara hezten hasiko” esan zuen etxaldeko gizonak, bizilagunaren oporraldiko zakurraz. Albistea hedatu zen, oihartzun bat bezala. “Indarra erakutsi du, baina ez da idi baten aurka joan” erantsi zuen baten batek. Bacon oporretan zegoen, adinean aurrera zihoan, eta laster bere etxera bueltatuko zen. Paseora eraman zuten, azken opor egunetan, eta kutixi batzuk eman zizkieten jateko. Umeekin asko jolastu zen Bacon.

Halako batean, zuhaitz batzuen artean ezkutatu zen, eta isilik alde egin zuen. Umeek zakurra galdu zuten. Ene, zer esango du Baconen jabeak? Azkeneko egunean ihes egin behar zigun... Etxaldeko sukaldean mugikorrean dei batek ez du eteteko asmorik. Herriko artzainarena: -Zuen txakurrak gure mastina hil du! Arraioa! Akabatuko dut!

Danielaren ipuina

Orain ehun miloi urte, Lurrean bizi zirelarik dinosauru erraldoiak, espezie desberdinetakoak, Kretazeoan, dilista baten tamainako krustazeo batek bere itsas-bizigunea utzirik, landare koniferoen (pinuen antzekoak) baso baten barrura egin zuen. Oinez zebilela, itsatsita geratu zenhaietako baten erretxinean, eta azkenean erretxin horrek barneratu egin zuen, ia momifikatu, karramarroa bizirik zegoen artean. Fosilizatu zen eta ukigabe egon da orain arte. Horrela idatzi du Daniela Quintero kazetariak.

Hemen amaitzen da Dultzinea buru-argiak eta Santxa begi-erneak elkarrekin, batak hasi eta bertzeak buka, egindako idazlanak, lumaz paperean idatzi, eta gero moldiztegian, banaka, orri soltean ateratakoak, garai bateko bertso-paper, olerki-paper edo kontu-paperen antzera. Horien

salmentarekin, sos batzuk bildurik, bidaiari ekitera erabaki ziren. Kontakizun batzuek arrakasta izan zuten eta Olyten ezizen hauek jarri zizkieten, Anbar eta Erretxiñ alegia.

Olyte baitzuten abiapuntu, ohoratu nahi izan zuten ziutatea, auzoko herria jendetsuaagoa izan arren askoz, baina ez izaki merindadeko buru eta ez ukanki gaztelu txit ederrik, behiala kortea udan hartzen zuenik.

Bertsoak egiteko Perez Garañon-en liburua hartu zuten, hizpiderako hari batzuk handik hartu asmoz. Dultzineak begiz jo zuen "tailaden" pasarte. Honela dio:

Tailadak

Oliteko Gaztelua eta Hiribilduko gunea zaharra muino txiki baten gainean dago. Hango harresien pean ikus daitezke, gaur gorde samarrak, lurrezko pendiz edo ebaki batzuk, ertaroko erromantzean "tailada" deitzen zirenak. Hizkuntzaren bilakaeran "tajada" edo "tajo" deituak, eta hala deitu izan zaie Oliten Gazteluaren Ekialdean nagusiki, eta baita ertaroko hiribilduaren Mendebaldean ere, kirolgunerako jaitsieran. Umetan izen hori ematen genion auzoko haurrok.

Ebaki horien sakonean, lubanarro edo zangak zeuden, Oliteko Hiribildu harresitua inguratuz eta etsaietatik babestuz. Zanga horiek, gehienetan, urez beteta egoten ziren, Oliteko perimetro guztian bezala.

Hainbat ubidetatik, lubanarro, zanga edo "tailadak" urez beteta zeuden. 1414ko maiatzean ezbehar lazgarri bat gertatu zen. Salomonek, ezizenez Carrasco, Gortean zerbitzari, "tailladara" bota zuen bere burua eta itota hil zen. Carlos IIIak, suizidei buruzko garaiko usadioei jarraiki, agindua eman zuen Aragoi ibaira bota zezaten, Caparroso aldean, eta agindu hori bete zuen Bertholot de Baztan Probestuaren ordezkariak, eta 58 sueldo kobratu zituen.

Perez Garañon (Olyt, historia, artea, bizitza)

Dultzineak, bertso hauek ondu zituen, Salomon zenaren omenez.

Oi Salomon

Oi Salomon Salomon

sufritu zenuen asko

ezizenez Carrasco

Oi Salomon Salomon

Zure burua uretara

Botata ito zinen

Zoaz bai lehenbailehen

Zain duzu Jerusalem.

Oi Salomon Salomon

Zerk bultzata baina
galdu zenuen bizia
hori zuk baklarrik jakin
zuk bakarrik guztia.
Damuren bat beharbada
edo maitasun utzia
egoera beltz gorri
estu eta larria.

Oi Salomon Salomon
Kontsolamendurik ez zenuen izan,
modu batez errateko gisan.
Ilunaldi galantik igaroz zure baitan
Argi bila abiatu Bake baten ehizan.

Oi Salomon Salomon
Bi aldiz zigortua, hilda lehenik etzan.
Gero hiletarik ez ezin sartu elizan.
Lurra ere debeku ez lur ta ez lokatzen
Uretara botata Zidakosen altzoan.

Oi Salomon Salomon
Caparroson zintuzten jarri luze uretan
aldendu zintezenta buka itsasoan.
Auskalo noraino urrutiko hondartzan.
Berriz aberastua Betholot de Baztan.

Oi Salomon Salomon

Noraino heldu zinen inork ez daki.

Ez ote zinen izan igaraben sarraski.

edo suertez aterata lehorrera ongi,

eta lurperatua duin eder aski.

Oi Salomon Salomon Shalom Shalom

Dultzinea benetan burutsua iruditu zitzaion Santxari, eta berak ere ahalegin bat egin behar zuela bertsotan otu zitzaion. Zidakos ibaiari eskaini zizkion bere buru-ahaleginak.

Zidakos

Ni naiz Zidakos ibai ttipia,

euri guti delakotz batzuetan urria.

Nabarroan jaioa Nabarroan bizia

Aragoiri ematen diot neure izate guztia.

Azekia guztiek kortejatzen naute,

barazki guztiekene ura nahi dute,

herri guztiek gura izan neure jabe,

hamaika auzi nigatik sortuak dirade.

Uholde garaietan aunitz hazten naiz

ta ibiltzen gainezka jauzi-gogo alaiz.

Orduan inork ez dio naizela eskasa

eta bai ausart bipil ta txit aberatsa.

Igel-putzu batetik omen neure izena,

baina ez dut egingo nik salto gizena.

Santsoain ta Leotz nire bi morroiak,

handik etortzen dira urak eta lohiak.

Majada El Riaz Zenborrain Mairaga,

haien senideakgu laurok baikara.

Alaiz mendilerroa da ene ama,
hark ematen dit bularretik jana.
Ai Zidakos Zidakos maite haugu
ez txikiagatik! Honengatik baizik: gure haizelakotz!
Kox kox kox kox Nor da? Nor da?
Zidakox Zidakox
Artusia nintzena
Zidakos naizena
Ebro izanen naizena.
Mediterraneoan igeri
Izanen ene azkena.

Santxak, historiaz ardura handiegirik ez baitzuen izan ordura arte, jakinmin pixka batek hazkurea eragin zion hezurretan. Hona Dultzineak Perez Garañon-en liburutik jasota eskualdeko aldizkari batetik irakurri zion pasartea:

Bi aldiz urkatua

Edonork ez dauka Pedro Biurrun tafallarraren marka hausterik. Bi aldiz urkatu zuten, 1345. urtean, eta ez da broma. Hala irakurtzen dugu *Olite. Historia, Arte y Vida* liburu mardulean, Jose Maria Perez Marañon adituaren lanean. Euskaraturik hona ekarriko dugu pasartea:

Gertaera lazgarri bat izan zen 1345. urtean: urkatze bikoitz bat. Pero Biurrun, Tafallako biztanlea, urkan hilarazi zuten “por furtos que fizo” (lapurtzeagatik) eta “erregearen ogia” 23 egunez jan ondotik kartzelan, urkatu egin zuten. Ohikoa zen gorpua urkabetik zenbait egunez dilindan egotea, batzuetan ezin itoz zegoelako, jendaurrean lotsa eta eskarmentua erakusteko. Denbora horretan senitartekoek zaintzen zuten gorpua, inork arropak ez osteko edo hegazti harrapariak hura jatera ez gerturatzeko. Askotan, sorora lanera zihoazen laborariek uxatu behar izaten zituzten. Baina, beharrezkoa zen Erregearen baimena edo haren ordezkariarena, gorpua handikjasotzeko. Oraingoan senitartekoek ez zuten araua bete. Gorpua urkatik jaitsi zuten (desenforaron el cuerpo) eta San Bartolome elizan lurperatu zuten, Oliten, hilarazitakoen hilerrri derrigorrezkoa baitzen. Gobernadoreak jakin zuenean, Oliteko Prebosteari agindu zion, Miguel Periz de Alcalde jaunari, lurpetik atera zezatela, berriro epai zezatela eta jendaurrean urka zezatela, bigarrenez. Errebolta baten beldur, exekuzioa 30 gizon armadunekin indartu zuten.

“Eraile dena hil bedi” esaera zen garai hartan nagusi, Nabarroako Erreinu guztira zabaldua, XIV. mende hasieran Lizarrako Kontzejuaren Ordenantza abiapuntu hartuta. Eta zigor hori betearazteko modurik arruntena urka izan zen, burugabetzea baino gehiago: —la soga por el fierro. Hiribildu batean urka Erregearen justiziaren ordezkaria zen.

Oliten bada paraje bat La Horca deitua, suplizio leku horren oroigarri, hiribildutik tarte batera jarri ohi baitzen, “arkabuz tiro batera”, Huarteko Ordenantzak dioenez. Harlanduz egindako urkabea zen, zeuzkana “hiru zutabe sendo laukian, pisu handiko harriz eratu”, eta oinarri horren gainean altxatzen zen kadalsoa edota taula, hiru oholekin, eta handik zintzilikatzen zituzten gorputzak. Zaragozako errepidetik ikusten zen, dio kronista batek. Ziur aski, obrako egitura, ez oholak galkorrago baitira, Ertarotikoa izango zen, eta zenbait mende iraun zuen.

Hemen egon zen kokatua urkabea, 1820 arte, noiz eta Oliteko herritarrek desegin baitzuten, alderdi liberala gailendu zenean, 1811ko Cadizko Gorteetako Dekretuaren babesean.

Merindade buru izanik,, erregeen Gorte eta Erreinuko Gobernadorearen ohiko Egoitza, Oliten epaitzen eta hartzen ziren heriotz zigorra zutenetik hainbat, bertan hilarazteko. Oliteko historia, zoritxarrez, aberatsa da horrelako gertakarietan.

Atentzioa ematen du zenbat exekuzio izan ziren, heriotz-zigorra izanik Foruaren arabera, soilik traidore edota pozoitzaileentzat (pozonadores). Zentinelak eta harresiko atezainak urkatzen dira, traizio egiteagatik, baina baita ere moja hartu eta bortxatzen duena, muntazko lapurreta egin dutenak (furto en mano harrapatuak), “bidelapurrak”, diru faltsifikatzaileak eta delitu larrien egileak: “heriotza segurua”, “emakume behartua”, “sueten hautsia”, “etxe errea”, —traizioa... Hamasei urtetik beharakoei ez zitzaion heriotzarik ematen, belarriak moztu eta Erreinetik erbestera botatzen zituzten.

1306. urtean, Gobernadoreak juzkatzen ditu, Oliteko Gazteluko kartzelan atxilotu eta urkatu zituzten lau gaizkile, eta hurrengo urtean, 10 delitugile, horien artean bi emakume, osteagatik. Erriberako Merinoak, Pero Sanchiz de Monteagudo-k, 1309an, lapur bat ekarri zuen Olitera urka zezaten eta 1311n, Gonzalo Zapapico, Martzillan lapurtzeagatik atxilotua, Olitera ekarri zuten eta urkatu.

Prebosteak urkarazi egin zuen frantses bat “por furto que fizo de dineros” 1319an eta beste bat zilarrezko kikara bat lapurtzeagatik. Ondoren, 1337an, Gobernadorearen aginduz, Oliteko Prebostea, oinezko lau gizonekin, Garcia de Bujanda-ren bila doa, Garizumako Pazko egunean gizon bati lapurtu eta bizia kendu baitzion, Uxueko bidean. Kartzelan 54 egun pasatu zituen eta urkatu egin zuen “ribaldo” batek, urkatzaile edo “borreu”, bost sueldo jaso baitzituen bere lanagatik. Beste batean, 1347an, bi lapurrek 500 ardi ostu zituzten Barindanon eta 30 behor Larraonan. Gobernadoreak atzeman zituen, hilarazi eta buruak Olitera ekarri eta urkatu. (...)

Ez ziren urkan hilaraztearekin pozik geratzen. Kasu asko ezagutzen ditugu, gehiegizko laztasuna eta itsumena izan zena kondenatuekin, beharbada mendekuz edo eskarmentuz.

Sokagile batek, 1337an, hil egin zuen Oliteko prebosteak Bardeetan zuen mutila, Cabezo de Gracia ondoan. Heriotz-zigorra eman zioten, oinetatik tiraka arrastan eraman zuten Oliteko karriketan zehar eta urkatu zuten. “Por fazer justizia” partida arrunta da Erreinuko Kontuen Ganberan agertzen diren erregistro edo fakturretan. Oraingoan, badakigu bost sueldo ordaindu zirela “arrastatu zuen” aziendagatik, hiru diru jaso zituela añafila (tronpeta mairua) jo zuen pregoilariak, sei diru eskailera-eramaleak, bost diru urkatzaileetako bakoitzak, eta abar.

Batzuetan, epaia izugarria zen: arrastan eraman, burugabetu eta ondoren urkatu. Behin gertatu zen preso bat arrastan eraman zutela Oliteko karriketan, oinetatik lotuta zaldi baten isatsari, pikotan jarri zuten jendaurrean lotsagarri eguardira arte, klarin doinuz lagundurik urkaraino eraman, ebaki zizkioten mihingaina, belarriak eta ukabila, eta azkenik urkatu zuten. Arrastea, batzuetan, narraren, ohol batzuen edo idi-larru baten gainean zigortua ipinita egiten zen.

Aurten dira 200 urte, Oliten urkabea kendu zutela. Beharbada antzezlan batekin ospatzeko moduko urteurrena dugu. Bigarren Hezkuntza bukatu gabe dutenek zortea dute, asko jota belarriak moztuko dizkiete. Ja!

Dultzinea ez zen oso festazalea, Santxa bai aldiz, eta dama behordunak ez zuen gustuko taberna eta lokal askotan jartzen zuten musika, eta are gehiago, musika bera jartzea zuen arbuigarri. Horregatik, Astea aldizkarian zetorren artikulua, Hoixet andrearena, edo anderearena, batek daki, kopia edo erabazta batzuk egiteko mandatu zuen, guztiak ere eskuz egiteko, tintaz eta lumaz.

Hari musikala eta apokalipsia [Anabel Hoixet-en idatzia]

Asmakizun zoragarri asko daude, bizitza hobetzen digutenak: hor dira tipulak malkorik gabe zuritzeko betaurrekoak, Thermomix-a, arnasketa kontrolatzen laguntzen diguten app-ak (biziki gomendatzen dizuet RespiRelax), eranskailua duten atrapapelusillak. Baina beste batzuk ezarri dira, zertarako diren jakin gabe guk, horien saltzaileak aberastea ez bada. Orain hamarkada batzuetatik hona inguruan ditugun horroreen artean, bada bat bereziki nahasten nauena: hari musikala. Hotel, mediku-kontsulta, ile-apaindegi, taberna, txiringito, denda, jatetxe eta are banketxeek ere ematen digute, guk eskatu gabe.

Graziarik gabeko oinarri latazko ahosdunak, isiltasuna edo elkarrizketak inbaditzen dituztenak, euren “txunda-txunda” patetikoa inposatzeko eta garunean guri kaka gehiago sartzeko, berez dakargunaz gain. Orain bertan, hotel-areto batean ari naiz hau idazten, saiatuz “I want you back now” ozen errepikatzen ari den abesbatza saihesten. Mantra jasanezina da, gotele-murruek aurka doana areto hutsean, ez baitago inor, isilean jasaten duen bat salbu: neu. Ez dut inongo aldetik ikusten soinu-inposizio hau egiteko beharrik. Haren aurka egiten dut behin eta berriro, baina neure buruan sartzeko modu maltzurra dauka. Beharbada, gaur bereziki makaldua dago neure kontzentrazio-gaitasuna. Zergatik ezin dut gogo-aldendu musika (nolabait esateko) zaporegabe, koloregabe, gizatasunik gabeko honetatik? Zergatik? Lerro pare bat idazten dut, eta geroezabaten, konturatzen bainaiz leloa transkribatzen ari naizela behin eta berriro, Jack Torrance The shining filmean bezala.

Nahigabetzen hasi naiz, eta borrokatzen, parera heldu gabe baina, “I want you back now baby” inpernuko kantinekin. Altxa eta banoa harrera-lekura. Eskatu dut, ia arrenka, bolumena jaits dezatela. Arrakastarik ez. Erraten didate dena “haiek” kontrolatzen dutela eta ezin dutela ezer egin. Baina nortzuk dira haiek? Galdetu dut. Non daude? Zein izaki arimagabek erabakitzen ditu aurpegiarik gabeko abesbatza honen tonua eta bolumena, “I want you back now” alarau egiten duena zortzi minutuko bukleetan, inortxok ere ez entzuteko? Nork du nahiago kantinekin jasanezin hau, isiltasuna edo norberaren arnasa baino? Zergatik sinetsarazi diete hainbeste leku eta jabetza berrunba hori bezeroen bizitza hobetzeko dela? Teoria batzuk darabilzkit gogoan, zein baino zein apokaliptikoagoa. Orain, txertatu guztioi ustez sartu dizkiguten txip horietaz hainbeste hitz egiten denean, bururatzen zait ez dagoela buru-kontrola egiteko modu hoberik, hari musikala hau baino, zeina hedatzen den etengabe erupzioan dagoen sumendi baten laba bezala. Eta laba bero hori, boys band tronatu baten imitatzaile baten imitatzaile itxurakoa, garunean sartzen doakizu astiro baina nahitaez, eta ezin izango da atzera egin. Eta benetako zerbait entzuten dugunean, robot-grabazio estudioan sortu gabeko zerbait, egiatzkoa, arima eta ahots sentibera eta afinatu batek sortua, orduan, beharbada, ez dugu preziatzen jakingo.

III. ATALBURUA

Bertan dator, Dultzineak zaldun-armak hartzeko izan zuen hala-modu farregarria.

Olyteko kafetegira, laurrera alegia, eraman zuen Dultzineak Santxa; kale-jantzian eta kafetxo bat hartuz, eta aurreko hartan ez bezalako lasaitasunez, albo batean jarri ziren egunkari eta aldizkari miran.

Bidailaguna pixka bat ilustratu nahi zuenez Dultzineak, eta honek gogo onez onartua zionez ikasteko eta bere jakitatea zabaltzeko asmoa, eta ikusirik liburuak astun zitzaizkiola, aldizkari bat eman zion, zientziari buruzkoa, Wolfram izeneko, eta izenburu nagusiak bederen irakur zitzala galdetu zion. Santxak, esaneko, astiro irakurri zituen lerroburuak.

Jupiterren Orban Gorri Handia uste zutena baino sakonagoa dela argitu dute. Esne Bidearen kanpoko exoplaneta baten zantzuak aurkitu dituzte lehen aldiz. Jokoen teoria erabiltzen dute metastasien jokaera aztertzeko.

Ilargiaren geologia hobeto ezagutzeko aukera ematen ari da Chang'e-5 misioa. Bikingoak duela 1.000 urte izan ziren Ternuan.

NanoNeurok nanopartikulak sortuko ditu garunaren funtzionamendua aztertzeko. NASAk James Webb teleskopioari izena aldatzea baztertu du.

Material magnetikoak sailkatzeko aspaldiko arazoa ebatzi dute.

“Emakume zientzialarien argitan” zikloa abiatuko da.

Egiari zor, erneagoa zuen begia Santxak, kafe zerbitzatzen ari zen mutil beltzarentzat, eta hau ez zegoenean, kafetegi barruko telebistara zuzentzen zen.

Dultzineak, azken horretan sakondu behar zutela, hura zutela gaia, eta, irakurtzeko agindu zion, ozen irakurtzeko alegia.

Santxa mantso-mantso eta ahots apalez hasi zen leitzen:

—Hilaren 19an Ernesto Kulturguneak programazioaren lerro berri bat abiatukodu. Emakume zientzialarien argitan izenarekin, eta Wolfram etxeko Gala Aiestaranek koordinatuta eta gidatuta, programa berri honek kultur etxeak zientziaren dibulgaziorako egiten duen lanean sakonduko du, STIP-rekin batera martxan duen Zientziaren bide berriak elkarlanera gehituko baita.

Emakume zientzialarien argitan egitasmoak emakume zientzialariak ezagutzea du helburu. Izan ere, zientziaren eta teknologiaren historian emakumeen ekarpenak ezkutuan geratu dira, eta gaur egun ere emakumeen kontrako diskriminazioa nabarmena da arlo horretan.

Aurrez aurreko elkarrizketen bidez, arlo desberdinetan lan egiten duten emakume zientzialariak ezagutzeko aukera izango du jendeak. Zerk bultzatzen ditu ikertzerak, zein galderari erantzun nahi diote, zerk harritu ditu gehien, zer zailtasunei egin behar diete aurre... Eta "bi kulturen" estereotipoa gainditzeko (zientziak eta humanitateak), haien liburu gogokoenak ere gomendatuko dituzte.

Kafea pagatu eta plazarako bidea hartu zuten, plazeta-tik pasaz, eta txapitelpeko atea igaroz. Han zaldunen ezpatak, jantziak eta abar saltzen zituzten denda batera joan ziren, eta Dultzineak, bere neurriko armadura bat eskatu zuen, adarga, lantza eta ezpata. Santxarentzat kapa bat eskatu zuen,

izan zedila lila kolorekoa, inora joanda ere, beren goi- asmoa emakumea askatzea eta goratzea zela argi gera zedin.

Aste batzuen buruan dena eskuratu zuten, eta ordaindu ere bai, berri-paperak salduz lortutako diruarekin. Dultzineak zeramatzan billeteak diru-zorroan eta Santxak txanponak xorro txikian, nork bere ardura ondo betetzeko asmoz. Etxera joanik, jantzi ziren, jantzi, hartu zituzten abereak eta "fuenticas"-etik barrena iritsi ziren laurre etxe aurrera, eta han, ostaliera atera zedila eskatu zioten zerbitzari beltzari.

Ostatu-gazteluko jabeari dohain bat eskatu zion, eta honek, baietz agindu, hura arrenka belauniko zeukala ikusirik, eta kamera ezkuturen bat grabatzen ariko zela susmaturik.

-Ez nuen gutxiago espero berorren handitasun horretatik, ene jaun- erantzun zion Doña Dultzineak;- horra bada, hauxe esango diot, nik eskatu diodan dohaia eta berorren esku-zabalak opa didana, hauxe da: bihar, egun horretantxe, zaldun-armak harrerazi behar dizkidazu; eta gaur gauean, berorren gaztelu honetako kapillan, armak belatuko ditut, eta bihar, esan bezala, beteko da nik hainbeste desira dudana; behar bezala joan ahal nadin munduko lau parte osotan barrena, behartsuen alde ekintza-billa; halaxe baitazaldungoaren eginkizuna eta ni bezalako zaldun ibiltariena, gogo bizia ekintza horietara jarria izanik.

Gozotegiko jabeak orduan:

-Etxe honetan ez dugu kapillarik, ogia eta gozoak egiteko obradorea baizik, baina toki zabala du, eta nahi badu, hortxe egin dezake gaua berorrek, Dultzinea dama!

-O zu, edertasunaren jabe zaren gizon hori! Nire bihotz ahulduaren kemen eta ahalgo! Oraintxe da, bada, garaia, zure goi horretatik neregana zure begiak bihurtzekoa; zure menpeko den zaldun honengana, hainbesteko borrokan ari denez gero.

Eta hala, gaua bertan emanik, Santxa pixka bat lotsagorritua egon arren, armak hartzeko prestatu ziren bi-biak.

Lorik batere egin gabeak zirenez, kafe bizi samar bana eskatu zuten, itzarri eta lanak ongi burutzeko. Armak hauexek ziren, lantza eta ezpata, batetik, eta irakurgaia bestetik, Sylvia Federicciren liburuak, Kixoteren bi liburuki liburukoteak, luma, eta tinta. Dultzineak galde egin zuen ea ziutatean ba ote zen goiz hartan jende txit honest eta eredugarri bat, bidaiarako "ongi ibil" erranen zienik. Eta gauzak nola diren, han gertatu ziren, goiz hartan bertan, Paul Andoyaga eta Elvia Guerrico senar-emazteak, idazlea aurrena eta literatura- aditua eta maistra bigarrena, eta ez nolana hikoak, Leiren Bianako Printzea saria hartuak baitziren, alajaina. "Zoazte ongi eta hobeki itzul" erran zien Paulok, bere bizar luzeekin, eta Elviak hauxe erantsi zuen: "Emakumeak bagara nor".

Hala, bada, abiatu ziren abiatu, tailada ondotik, gazteluari begiratuz, eta olibondoaren ondotik errepide nagusira atera ziren, denbora gehiago galdu gabe, Escivias edo Toboso alde horretara, izan ere Tobosora arte, ez zen ez izanen Dultzinea Oliteco baizik.

Eta hala, atzera begoira eta San Pedroko dorre-orratzari agur eginez, abiatu ziren abiatu, Rozinanta eta Ruzia abereen gainean, nora eta hegoaldera, Artarroso erraten zaion paraje batera.

IV. ATALBURUA

Dultzinearen aitopena Santxari: Nire egia ez baitzen oihuka aldarrika daitezkeen horietakoa.

Olyte eta haren merindadea atzera utzirik, joan bazihoazen errepidetik bi biak, Dultzinea bere behor ganean eta Santxa bere asteme ganean, gustura joan ere, baina trafikoa saihestu nahirik, partzelabide bat hartu zuten, lasaiago eta zaratarik gabe joateko. Ibilgailu askok bozina jotzen zieten pasieran, irri egiten zutela, eta ume batzuek ipurdia erakusten zieten pasatutakoan, Tin Chanek bezala.

Hala, intimitate hasberri hartan Santxak jakin nahi izan zuen irteera haren arrazoia, berak ez baitzekien xuxen.

-Erokeria hau ere hastera goaz, Dultzinea anderea, ongi joan ahal zaigu. Eta onik itzuliko ahal gara.

-Bai, noski, emakume beharrean daudenak eta lidoztatuak lagundurik, etorriko gaitun atzera etxera, eta ongi eginaren pozez gainera.

-Eta ez al zegoen lan hori bera hemen egiterik, bertakoei lagunduz?- Santxak.

-Hara, Santxa maitea, luzatu gabe, banoa bidaia honen benetako arrazoiak erratera. Batetik, erran duguna, emakumearen alde aritzeko gogo bizia, bertetik ene bizimoduaz asper egin nagoela, dela lana, dela lagunak, dela sorterrria. Hi buruz bizkorra haiz, bai, ta jabetuko haiz noski nik errandakoaren mamiaz.

-Bai, andere agurgarria, inor ez dela profeta bere herrian, eta gainera, haize frexkoa hartzea beti komenigarri dela. Ni ere aspertuxea nago Santxo nagi horrekin, beti zurrutean eta zurrunga. Bertze zerbait opa diot, hobe noski, neure buruari.

-Ondo errana, Santxa, hire zokoan masiaka baino, betekizun hobe eta esker hobekoa daukan, mundu zabaleko emakumeei laguntzen. Zenbat ez ote dira hil, haien senar edo gizonak labankadaz hilda edo leihotik behera botata. Patriarkatua desegin behar dinagu...

-Patry katu hori ez dut, ez, nik ezagutzen, baina atzaparrak luze ditu hark eta guk guraizeak eskuan.

-Hi haiz hi, Santxa Mari, ez da zer eska gari zumarrari!

-Garia soroan eta eroa zoroan!

-Horixe ta bera!

-Ez al zaude gustura zure enpresan? Kontuak egiten omen dituzu Wagen auto-fabrikan...

-Ez, noski. Zeinek erran din hori? Gezurra ta biribila, nola baiten gurrupila. Ospitale batean lan egiten dinat edo egin dinat orain arte, eta bai, kontuak egiten eta administrazioan, hori egia dun.

-Atera da, hortaz egia garbia!

-Egia garbia edo zikina, egi-egia dun behintzat! Ospitale publikoan ari naun lanean eta hondatzen ari ditun goitik gobernariak, eta pribatuari indarra ematen. Laster eraitsiko dituen urteetan zehar eraikitakoa.

-Eraitsi?

-Bai, behera bota edo zapuztu!

-Eta ez al duzu ba protesta latz bat egin?- galde Santxak.

-Ez, ez dinat egin, hori dun egi-egia.

-Nire egia ez dun oihuka aldarrika daitezkeen horietakoa.

-Hori arrazoa! Sekula entzun gabea ni, horrelako ateraldia.

-Ez dun, ez, nire-nerea, izan ere maiz, gure sentipenei zer hitz eman ez zekinagu, eta liburuetan irakurritz aurkitzen dizkinagu haientzako hitz edo berba egokiak.

-Eta nondikoa du ba berak oihuka aldarrika hori?

-Ba, errango dinat. Pausa gaitezen almendrondo horien itzalean eta testua irakurriko dinat, ez dun batere luzea, orri erdi bat hor nonbait.

-Hala bedi.

Eta hedeetatik tiraturik bai behorrari eta bai astemeari, almendrondo baten itzalean eseri ziren eta Dultzineak honako hau irakurri zion, astiro, hobeki uler zezan, nahiz eta jakin, zaila eginen zitzaiola:

—Atertu zitzaizkidan malkoak: niregana hurbiltzen zirèn handikiek ez zuten haboro beren begirada nire aurpegitik apartatu beharrik, ordura arte, negar egiteari likits edo lizun bat leritzaten, egiten zuten bezala. Berrito ekin nion eredu zko nekazal etxaldeak eta garastapen-ubideak bisitatzeari; bete egin behar ziren orduak, nola edo hala. Nire hondamendia zela eta ez zela, hamaika mila zurrumurru ergel hasia zen bazterretan barreiatzen; nirearen segizioko beste ontzietan beretan ere, kondaira itzel pilo bat zebilen ahoz aho, nire lotsagarri; utzi nien nahi zutena esaten, nire egia ez bait zen oihuka aldarrika daitezkeen horietakoa. Gezurrik maltzurrenak nolabait zehatzak ere baziren; mutila sakrifikatu egin nuelakoa salatzen zitzaidan, eta, neurri batean, halaxe egina nuen. Hermogenesen bidez, kanpotiko durundi guztien berri leialki eman ohi bait zidan beronek, enperatrizaren zenbait mezu ere iritsi ziren niregana; aski urguria zen haren mintzaira, kinka hartarako nahiko egokia; ia beti horrelakoxea erabiltzen dugu denok ere heriotzaren aurrean. Urrikalpen hura, ordea, oker-ulertze batean zegoen oinarriturik: dolumin-adierazpenak egiten zitzaizkidan, baina beti ere ahalik-eta azkarren kotsola nendin amoreagatik. Nik neuk ere, gutxi gorabehera, bareturik nengoela uste nuen; hori pentsatu eta beste gabe, ia gorritu egiten nintzen lotsaren lotsaz.

-Kontxooo!- Santxak.

-Hadriren Gomutak liburutik, Margarite Yourcenar andreak idatzia- Dultzineak.

-Neure ganbarako artale bakanentzat askotxo ere bada, bai, izan; baina, baditun bai egiak, erran ezin daitezkeenak. Neure ezagun adintsu batek erraten duena, Rosak alegia, gezurrarekin ez dela inora joaten eta egiarekin ere ez.

-Oraintxe bukatu dun!

Eta testu serio samar hura orekatzeko edo, antzerkirako hobea zirudien testua pasa zion

Dultzineak Santxari.

Elkarrizketa telefonoz, medikuaren eta pazientearen artean.

Osakun new age

-Ring-ring

-Zein da?

-Egun on, anbulategitik deitzen dizut. L medikua naiz.

- Ah, bai, egun on.

-Zer moduz zaude,... Angeles?

-Ondo baino okerrago eta gaizki baino hobeto.

-Almorranekin zabilta ezta?

-Bai, amorra eginda.

-Zer ari zara hartzen?

-Goizetan kafesnea...je je

-Je je, bai, eta atzean?

-Especialistarengana joan eta gero goi mailara heldu naiz.

-Goi maila?

-Rectogesil hartzen dut...

-Ulertzen dut, bai...

-Almorrane pomadak ez omen du ezertarako balio...

- Kasu hauetan, eraginkorragoa da rectogesil, baina kontuz...

-Buruko mina ematen du! Badakit! Hau buruko mina!

-Orduan badakizu...

-Bai, eta ezpainak okertzen dizkit...

-Ene!

-Eta oinetan ere nabaritzen dut zerbait.

-Zer zehazki?

-Nik baneki... aizu zuk ere eztarria hartuta daukazu, ezta?

-Je, je, bai, marranta pixka bat daukat.

-Medikuak ere gaixotzen zarete...

-Bai, gizakiak gara...

-Badakizu zer? Nire alaba medikuntza ikasten ari da, praktketan dabil.

-Ah bai, ze ondo! Ea suertea daukan!

-Inporta ez bazaizu, marrantarena artatuko dizu telefonoz, zuk lagundu pixka bat, ados?

-Ados, ados...

-Nekaneeeeeeeeeeeeeee! Zatoz! Paziente bat daukazu eta diagnostikoa egin behar diozu...

-Zein ondo... hamar paziente egin behar ditut...

-Kaixo, Garbiñe naiz, doktoregaia...zure izena mesedez?

-L, bere horretan (ele)...

-Ongi da, L,..eztarrian min duzu ezta?

-Bai, hala da, min handia...

-Txistua tragatzean min egiten dizu?

-Bai, dezenteko mina.

-Ezkerraldean ala eskuin aldean?

-Ba ezkerraldean gehiago...

-Defini dezakezu "gehiago" hori....

-Ba gehiago, bestean gutxiago...

-Zenbat gutxiago, % 2, % 5, % 20, % 25, % 50?

-Nik zer dakit....!

-Lasai, L, fakultatean programa berri bat garatzen ari gara... protokolo labur bat da, eta oso lagungarria.... Zure laguntza behar dut...

-Bai, ongi da,...

-Txistua tragatzean ezdarriko mina ezkerraldean baduzu sakatu 1, txistua tragatzean ezdarriko mina eskuinaldean baduzu sakatu 2, txistua tragatzean ezdarriko mina ezkerrean eta eskubian baldin baduzu sakatu 3.

(L-k 3 sakatzen du.

-Ongi etorri ezker-eskuineko ezdarriko mina argitzen duen sailera. Ezkerrean min handiagoa baduzu sakatu 12, eskuinean min handiagoa baduzu sakatu 21. Bietan min berdina baldin baduzu sakatu 33.

(Lourdeseak 12 sakatzen du)

-Oso ongi, L, orain badakigu ezkerrean min handiagoa duzula. Zer eragindakoa den jakin behar dugu orain.

-Adosssssssss!

-Izozki bat jateagatik baldin bada sakatu 1, euritan busti eta hoztu zarelako baldin bada sakatu 2, haize-korrante batek eragindakoa baldin bada sakatu 3, hozgailu barruan lotan geratu zarelako baldin bada sakatu 4.

-Hori txantxa izango da, Garbiñe!

-Hori pazientea arretaz entzuten ari den jakiteko da. Mesedez sakatu zure aukera!

-(L-k 3 sakatzen du).

-Haize-korrante horren zer-nolakoa aztertu behar dugu orain...ipar-haizea izan bada sakatu 1 hego-haizea izan bada sakatu 2, mendebala izan bada sakatu letraz g-a-l-l-e-go, ekialdekoa izan bada sakatu letraz j-a-p-o-n-i-a. Ziur ez bazaude sakatu almohadilla (trenbide gurutzatuak).

-Bueno, Garbiñe, asko falta da?, umore handia duzue fakultatean...

-Azken galdera txertoari buruz. Txertatuta bazaude sakatu BAI, txertatuta ez bazaude sakatu EZ. (Bai sakatu du)

-Oso ongi, txertatuta zaude. Zorionak! Astra Zeneca baldin bada sakatu 1, Pfizer baldin bada sakatu 2, Jansen baldin bada sakatu 3, Etxean zuk egindakoa baldin bada sakatu 121256.

(L-k 2 sakatu du)

-Zure elkarrizketa grabatua izan daiteke....Itxaron une bat eta zure diagnostikoa jasoko duzu.. (beti eskamak kentzen musika....)

-Angeles naiz, Garbiñe doktoregaiaren laguntzailea, diagnostikoa emango dizut, L: LARINGITISA daukazu!!!!

-Ah bai? Eta zer da hori?

-Laringitisa laringearen hantura da. Akutua denean, pare bat egun baino ez du irauten, kronikoa berriz, aste pare bat. Laringitisa, salbuespen oso bakanetan izan ezik, birusek eragiten dute. Urtero epidemiak egon ohi dira azaroa eta martxoa bitartean (ipar hemisferioan), baita kasu oso isolatuak ere

-Laringitisa orduan...ezaguna egiten zait izen hori...

-Goiko arnasbideetako infekzio bat da...

-Ah bai? jeje

-Goiko arnasbideetako infekzioak goiko arnasbideko hainbat gaixotasun infekzioso barne hartzen ditu: sudurrean eta sudurreko sinuetan eragiten duen sinusitisa, erdiko belarrian eragiten duen erdiko otitisa, faringean eragiten duen faringitisa, amigdala palatinetan eragiten duen amigdalitisa, laringean eragiten duen laringitisa eta guztiak edo horietako batzuetan eragiten duen hotzeri arrunta.

-Jolin...

-Infekzio horietako gehienak birusek eragindakoak dira, batez ere errinobirusa. Gaixotasun hauek laneko edo eskolako absentismoaren edo osasun-zerbitzuetan kontsulta egiteko arrazoi nagusietako bat dira.

-Kontxo, ba lehen aldia da hori entzuten dudana...jeje.. hotzeri hori...?

-Enfriamiento, resfriado, constipado, catarro.

-Ah, bale, ok.

-“Acute upper respiratory tract infections - outpatient diagnosis and treatment” artikulua gomendatzen dizut. Jornal de Pediatría dator, Rio De Janeiro argitaratua.

-Kontuan hartuko dut... Glub.

-Sanba eta ikerketa ongi ezkontzen dira,...

-Bai, bai...eta tratamendua?

-Zortzi ordutik behin txupito bat edan behar duzu, ginebra eta laranja zukua, erdia eta erdia.

-Hori bakarrik?

-Ondoren zazpi datil jan ditzakezu edo donuts bat.

-Ongi da, agur.

-E-postaz jasoko duzu telefono-zerbitzu honen gogobetetze-inkesta. Aldez aurretik mila esker... -Pi-pi-pi-pi-pi

-Bi fisura dauzkat, odol-uzkietan,...ezin dut lorik egin, recto ges hil

Osaky new age, to be continued

Santxak algara batzuk egin zituen eta zigarro bat piztu zuen, tarte hari ukitu bat eman nahian. Kalada bat eskaini zion Dultzineari, eta honek, oraingoan hartu egin zion, une hura hobeto konpartitzeagatik. Zigarroa hatzen artean zuela, ez zirudien hain doña, eta bai emakumeen aldele harrokeriarik gabekoa.

-Beti aitzina!- erran zuen Dultzineak.

-Beti!- erantzun Santxak.

Dultzineak aitortu zion, era berean, hilabete batzuk lehenago irakurritako artikulua batek lagundu egin ziola erabakiak hartzen. Bere karpetatxotik atera eta Santxari irakurri zion:

Bizitza ez da iraganean harrapatuta geldituz, etorkizuna islatzea By Magda Elena

Pentsamenduak kontrolatu egiten gaitu, iraganeko gertaerak zein etorkizuneko espektatibek betetzen dute kontrol guzti hau. Eta honek, zenbaitetan, min egiten digu, ez baitakigu unearen esentzia ateratzen. Zaila da hau gestionatzea, gertaera zehatz baten aurrean, iraganak pisua duen bezala etorkizunean islatzen ditugun beldurrek ere geure buruak astintzen baitzikigute.

Iraganeko esperientzietara lotzen da, datorren hori horren arabera aurreratuz, eta zenbaitetan beharrezkoa ez den sufrimendua eraginez. Hemen eta orain bizitza ahanzturara eramanez. Urrea balio duen, eta gelditzen zaigun denboran geldirik egotea bultzatuz.

Gure bizitzak horretara mugatzen ditugu, ohartzen ez bagara ere, pentsamenduek jokabideek eta sentitzen dugun hori baldintzatzen baitizkigute. Ezin baitugu pentsamenduak islatzen duen eta gertatu ez den gertaera bat landu, ez konpondu, oraindik gertatu ez denean.

Zenbaitetan, gure bizitzetako gertaera gogor batek (edo bat baino gehiagok) horren kontzientzia piztera bultzatzen gaitu.

Nire kasuan, gertuko pertsona baten minbiziak, denboraren garrantziaz kontziente izatera bultzatu ninduen. Nire aitaren gaixotasunak erakutsi zidan etorkizunean pentsatzen igaro izaten dugula bizitza, zenbaitetan hau iristen ez denean eta bizitza bere horretan joaten uzten dugu, benetan bizi gabe.

Gure jokabide guztiak horretara mugatzen ditugu, etorkizunean gure buruaz zer izango den kezka etengabearekin korrika biziz, benetan hurrengo pausoa eman nahi dugun eta horrek betetzen gaituen pentsatzen jarri gabe, orainari bere zuku guztia atera gabe, elkarretaz zein inguruaz gozatu gabe.

Bizitza ez da iraganean harrapatuta geldituz, etorkizuna islatzea. Bizitza segundu, minutu, ordu, egun... bakoitzari ahalik eta etekin gehien ateratzea baizik. Ohituta gaude uneoro besteen ibilbideetan epaile lanak egiteaz, dirua gastatzen duen horri aurrezten ez dakiela atxikituz, maitasun bat baino gehiago duenari "zerri" etiketa jarritz, bidaiatzen duenari etorkizunik izango ez duela oroitzuz, dantza eta parranda asko egiten duenari erotuta dagoela esanez,...

Agian, epaile lanak egiten ditugun horretan une batez gu geu bizi garen pentsatzen jarri beharko ginateke, zenbaitetan besteei begira zergaitik ote gauden ahazten dugulako. Eta bitartean, iraganean so, eta etorkizuna oinarri dugun horretan, denborak hegan egiten du, atzera bueltarik izan gabe.

-Horixe ta bera, Magdalena- erran zuen Santxak.

V. ATALBURUA

Jandelo aldean egin zuten geraldia eta erromatarren aztarnak.

Almendropetik altxa, eta ur pixka bat potixetik edanda, abiatu ziren berriro, behorrak eta astemeak belar puxka bat jana zutela ikusirik. Santxak, jakinmina zuen, non ote zegoen hurrengo helmuga, eta Dultzineak fite erantzun zion edo ihardetsi, alegia Jandelo aldera joan behar zutela, joan, han erromatarren aztarna ikusgarriak agertu zirela eta. Arkeologoak ari zirela azken urteetan han lanean eta mosaiko batzuk bazeudela ikusteko, eta irrikitan zegoela duela bi mila urte inguruko lan haiek ikusteko.

-Ez dute ba erraten erromatarrek ez zituztela garaitu basakoak?-galde Santxak.

-Egia garbia ez dun hori, izatekotan egia zikina. Andelo aldea dun, toki ona, hemen bertakoak erromatarrekin nola nahastu ziren ikusteko.

-Jandalo horretan janik eta lotarako etzangurik ez ahal zaigu paltako!

-Ez noski,han inor bizi bada, nik hitz egingo baitiot gure goi-asmoaz eta bidaia honen zergatikoaz. Baina ez dun Jandalo, baizik eta Jandelo, jan-de-lo, erromatarren ziutatearen izena, txit egoki eta aberatsa, erraten dutenez.

-Ikusteko dira, bai, begiak, eta neureak zain daude, jandalo-jandelo edo jaleo hori zer den ikasteko.

-Jakinmina gauza ederra dun, Santxa, horrek bila jartzen gaitin eta jakintsuago egiten.

Hala, abereak trostan jarri gabe, eta nekarazi gabe, Jandelo hur zutela adierazten zuen seinale bat zegoen hesiraino heldu ziren. Turista batzuk zebiltzan, zoko-miran , beren argazki-kamerekin, eta haietako batzuk japoniarrak ziren, gidariak zeraman nipon bandera egiazkoa bazen. Kixote eta Santxo jantzian ikusi zituztenean emakume biak, klik eta klik ekin zioten argazkiak ateratzeari, eta "Kixote""Kixote" oihukatzeari eta algaraz taldean inguratu zitzaizkien.

Dultzineak ingelesa poliki nola baitzekien, adierazi zien emakumeen aldeko martxa zela hura eta Kixoteren antzera jokatu nahi zutela, okerrak zuzenduz, eta beharrea zegoenari lagunduz. Emakumeei, bereziki. Hala, argazkiak ateratzea galarazi zien japoniarrei, emakumezkoen izan ezik, eta gizonezkoak zapuztuta bazterrera joan eta marmarka hasi ziren. Hauei dukat bana eskatu zien argazki bakoitzagatik, eta batzuek, gogo txarrez bada ere, eman zioten. Santxa poztu zen poztu, dirua ikusirik, eta astemearen gainera igotzeko aukera eman zien. Dultzineak, Jandeloseko gunea aztertu nahi baitzuen eta hango berri jakin, foileto edo esplikazio-orri bat bereganatu zuen. Honela zihoen:

Jandelo, Hiri Erromatarra Jandelosko Arkeologia Museoa Publikoarentzako irekiera-ordutegia:

Urtarrila, otsaila, martxoa, urria, azaroa eta abendua: ostiral eta larunbatak, 10:00-14:00 eta 15:00-18:00. Igandeetan 10:00-14:00.

Apirila, maiatza, ekaina eta iraila: ostiral eta larunbatak, 10:00-14:00 eta 15:00-19:00. Igandeetan 10:00-14:00.

Uztaila: ostiral eta larunbatak, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00. Igandeetan 10:00-14:00.

Abuztua: asteazkenetik larunbatara, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00. Igandeetan 10:00-14:00.

Zubiak eta jai egun bereziak, hemen begiratu.

Talde-bisitak asteko edozein egunetan egin daitezke, baina aurretik adostu behar dira.

Ordutegia – Urte osoan: museora eta aztarnategira bisita gidatuak egiteko zerbitzua aurretik adostu behar da.

Prezioa: 25 dukat taldeko + sarrera.

Jandelosko Arkeologia Museora sartzeko sarreren prezioa honako hau :

-Mendigorritzako herritarrak: doan.

Testuinguru geografiko eta historikoa da::

- Orokorra: 2 dukat.

Murritzua: 1 dukat. (6 eta 13 urte bitarteko haurrentzat, 65 urte baino gehiagoko helduentzat, europar gazte txartela dutenentzat eta 20 pertsona baino gehiagoko taldeentzat)

Talde bisita gidatua: 25 dukat

Ebroko harana erromatarren presentziaren lehendabiziko eszenatokietako bat izan zen iberiar penintsulan. K.a. 195.-194. urteetan Catón Numantziaraino iritsi zen, eta K.a. 178-177 urteetan Calahorra inguruan erromatarren eta zelta-iberiarren arteko borroka egon zirela jakin da. Horrez gain, jasota geratu da Graccok Gracuris hiria sortu zuela (Alfaro). Pompeyo eta Sertorioren arteko gatazkan, Pompeyo Handia gure lurraldeetara iritsi zen, eta bere izenez izendatu zuen hiria sortu: Pompaelo (Pamplona/Iruñea). Garai horretan Andelosen erromatarren presentzia egon zela guztiz dokumentatuta geratu da egindako indusketetan.

Antzinako autoreek aipamen gutxi egin zituzten Jandelosen inguruan. Pliniok, I. mendean, Historia Naturalean aipatzen ditu andelostarrak, Conventus Caesaraugustanori tributuak ordaintzen dizkioten herrietako baten gisa. Ptolomeok baskoien artean kokatzen du hiri hau eta, testu grekoan, bere izena aipatzen du: Andelo.

Andioneko hondakinak eta inskripzioak Andelo hiri erromatarrarekin lotu zituen lehena Aita Moret izan zen, XVII. mendean, eta bere urte-liburuan argitaratu zuen. Andelosko hiri erromatarra dagoen lekuan, beste kokaleku bat egon zen aurretik, Burdin Aroko elementu kulturalak gordetzen zituena, K.a. IV-III. mendeetako. Posiblea da, K.a. II. mendetik aurrera bertan baskoien eta erromatar munduaren arteko lehendabiziko harremanak eratzea. Ez da istilurik jasota geratu eta, beraz, harreman lasaia izan zutela dirudi.

K.a. I. mendean Andelosen opus signinum erako zoladurekin apaindutako etxeak ageri dira jadanik. Horietako batek alfabeto iberikoarekin idatzitako legenda dauka. Hispaniako beste hiri askok bezala, Jandelosek Vespasiano Ediktuarekin lortu zuen civitas kondizioa, K.o. 74. urtea.

Hiriak K.o. I. eta II. mendeetan bizi izan zuen bere une gorena, hiriaren garapenarekin batera ur-horniketarako sistema konplexu bat garatzen baitu. K.o. III. mendean zehar, inpultsua hartzen du

berriz, zenbait kaleetako zoladuran ikus daitekeen bezala. Hala ere, orain arte datu gutxi ditugu inperioaren menpe hiri honek izan zuen historiari buruz.

Erdi Aroan Jaurerriko villa gisa mantendu zen, bere eliza Iruñeko Santa Mariarena baitzen XI. mendean. 1330ean 64 su zituen eta 1366an jendez hustu egin zen. Hustutzearen arrazoia 1348an egondako izurritea izan zen, baita baliabide ekonomikoen eskasia ere. Gaur egungo ermita Andiongo Ama Birjinari eskainia dago, eta hiri erromatarraren izena mantentzen du. Egindako indusketek etxebizitzei dagozkien zenbait eraikin deskubritu dituzte, eta horietan harlanduak eta beste zenbait elementu arkitektoniko erabili zirela ikusten da, eroritako eraikin erromatarren jatorria dutenak.

Lurraldea eta komunikazioak

Andeloko lursailen hedapena, hiriak eskumenak zituen eremua, Arga ibaiaren arroa litzateke, Garesetik Miranda de Argaren inguruetaraino, Robo eta Salado ibaiadarren haranak kontuan hartuta. Posiblea da mendebaldetik Ega ibaiarekin egitea muga, hango zenbait lekutan miliarioak topatu baitituzte. Andelosek zuen garrantziak pentsarazten digu hiri hau bidegurutze batean kokaturik zegoela. Oteitzan, Añorben, Artaxoan eta Berbintzanan aurkitutako miliarioak K.o. II. eta IV. mendeen artean kaltetuta horietan egindako obrei dagozkie. Miliario horietan enperadoreen izenak ageri dira, eta hortaz, viae publicae kategoriakoak direla pentsatu behar da, Estatuaren kargu eraiki zirela, alegia.

Zalantzarik gabe, esan daiteke erromatar ibilbideetan aipatzen ez den kaltetuta batek Zangotza- Jaka korridorearekin lotzen zuela Andelo ekialdetik, eta mendebaldetik Vareiaruntz joan zitekeela, Logroñorekin batera beroien lurraldean zegoena. Bide hori beste batekin elkartzen zen Jandelosen, Argaren ibilbidea kontrara jarraituz Larraga, Berbintzana, Miranda eta Faltzes pasatzen zituena, gero Andelos eta Girgillaoko garaieratik igaro eta Belaskoain, Etxauri eta Iberoko bidean Iruñeraino iristen zena.

Bizimodua

Konkistaren ostean Erromak bere eredu soziala ezarri zuen lurralde berrietan, ez modu bortitzean, baizik eta bertako eliteak latinaren ezagutzan eta gizarte erromatarraren goi-mailetan txertatuz.

K.o. I. mendetik aurrera, Jandeloseko etxeek erromatarren patroik tipikoak jarraitzen dituzte espazioaren banaketari, pareta eta zoladuren apainketari, harrizko zutabeen erabilerari eta eraikuntza-materialei dagokionez. Bestalde, erabilera domestiko eta pertsonala duten objektuek ere Inperio Erromatarrean hedatutako moda jarraitzen dute, eta Hispaniako beste hiri batzuetan aurki daitezkeenak bezalakoak dira.

Terma publikoak

Termak erromatarren bizitza ezaugarritzen duten instalazioak dira. Hirietan, terma publikoak gizarte bizitzaren erdigunea ziren. Instalazio horiek erabilera espezifikotarako estantziak zituzten: apodyterium (aldagela), caldarium (bainu beroetarako), laconicum (aire beroko sauna), tepidarium (temperatura epeleko eremua ondoren frigidarium-era pasatzeko, bainu hotzetarako).

Antzinatean uste zen bainu bero baten ostean ur hotzarekin bainatu beharra zegoela, horrek gorputza indartzen zuen eta.

Praefurniuma egur-labe bat zen eta funtzio bikoitza zeukan: alde batetik ura berotzen zuen brontzezko galdaretan eta, bestetik, aire beroa zirkulatzen zuen zoladuren azpitik, hipocaustum.

Palestra ere termen eraikineko parte zen, eta arkupezu inguratutako patio bat zeukan, gimnastika-ariaketak eta jolasak egiteko.

Andeloseko termetara 1. kardotik sartzen da. Bi ate handiren orpoak mantendu dira, horietako bat palestraren sarbidea zen eta, bestea, bainuen eraikinekoa. 2. decumanusteik bigarren sarbide bat dago egurra deskargatu eta praefurniumera sartzeko.

Sinesmenak eta idazkunak

Erromatar erlijioak zentzu utilitarioa zeukan eta gizakien eta Estatuaren mesedetan erabiltzen zen.

Jandeloseko dokumentu epigrafikoek bi uneren kontzentrazio kronologikoa adierazten dute: lehenengoa garai errepublikar berantiarrari dagokio, eta idazkun epikorikoa duen mosaikoan eta Larrahi eskeinitako aldarean ikus daiteke. Horrek moda epigrafikoaren iritsiera goiztiarra eta onarpena agerian uzten du, eta ikusarazten du elementu garrantzitsua izan zela zonaldeko akulturazio-prozesuan. Jandelostarrek oso azkar hartu zuten erromatarren kulturako elementu formala: ara edo aldarea. Hasiera batean, bertako jatorrizko dibinitate baskoiei eskeintzen dizkiete: Larrahi (Mendigorria), Errensae (Andion). Baita inguruko herrietakoei ere; Losae (Zirauki). Ziur aski, ganadua eta uztak babesten zituzten dibinitateak ziren, baina beste jainko- jainkosa erromatarrek laster asimilatu zituzten.

Bigarren unea K. o. I. mende amaierari dagokio. Garai hartakoa da Bacoren mosaikoa, Lucio Emilio Seranoren epigrafeen multzoa eta edilek eskainitako brontzezko taula. Taula horrek erakusten du edilek taldean izaera munizipalarekin zuten harremana.

Horrela bada, hiriko edilek, ordezkari ofiziala agertuz, eskaintza bat egiten diote brontzezko plakan jainko erromatar bati, Apolori, eta kultu inperialari.

Hileta-ohiturak ere agerian daude, formula erromatarrek dituzten zenbait hilarri baitaude. Hiru dira azpimarragarrienak, familia-mausoleo batean daude eta eskaintzaile bera dute, LVCIVS AEMILIVS. Eskaintzaile horrek, hilarri bana enkargatzen du bere ama, emazte eta semearentzat. Horietako bi Andiongo ermitako atzealdean daude jarrita.

Hirigintza

Jandelosko hiriak 18 hektarea izan zituen gehienez, eta ipar-ekialdean malda handi batek babestutako goi-lautada bat hartzen zuen. Mendebaldeko aldea suabe-suabe egiten du behera bi koska handiren bidez. Hegoalderuntz ibar zabal bat sortzen da. Agerian geratu da harresi perimetral bat zegoela eta funtzio bikoitza zuela: hiriaren defentsa eta lurra eustea. Perimetrotik kanpo bi defentsa-dorre lokalizatu dira, bat ipar-ekialdean eta bestea hego-ekialdean.

Hiria eratzeko, oinplano hipodamikoa erabili zuten erromatarrek. Hiria bi ardatz nagusitan oinarritzen da: cardo maximus ipar-hego norabidean eta decumanus maximus ekialde- mendebalde norabidean. Bi norabide horiekiko kale paraleloak eratzen ziren, zenbait etxek osatutako etxadiak sortuz (insulae).

Orografiak erretikula ideala baldintzatzen du, Jandelosko konponbideetan ikus daitekeenez. Hiru decumani eta bi cardines deskubritu dira, eta horietako bat arkupeduna, insulae laukizuzenak sortuz. Indusketek baieztatu dute historian zehar zoladurak bata bestearen gainean gainjarri direla behin eta berriz. Goialdeko plataforman eremu erresidentziala zegoen kokatuta, eta han kaleak ongi zolatuta zeuden, etxeak zabalak ziren eta termen gisako eraikin publikoak eta dendak (tabernae) zeuden.

Hiriaren hego-ekialdean artisauen auzoa zegoen, bertan aurkitu baitira biltegiak eta garbitegia (fullonica), Castellum Aquaetik hurbil (izan ere, instalazio horiek ura beharrezko zuten).

UR-SISTEMA

Jandelosko deskubrimendurik garrantzitsuena ura hornitzeko duen sistema izan zen. Aparta da lan-hidrauliko honen aurkikuntza eta mantenua, zeinak bere gain hartzen baitu sistema osoa, ura jasotzen den unetik hirian banatzen den arte. Indusketetan honako hau aurkitu da:

Iturrandutzeko presa:

Mendigorria eta Ziraukiren arteko mugan kokatzen da Iturriandutzeko presa, eta "Deabruaren Zubia" izen herrikoiarekin ere ezaguna da. Indusketak agerian utzi ditu garai desberdinetan bi mantentze-lan egin zirela. Lehena silarrixka baten eraikuntza da, hamahiru kontrahorma eta ura irteteko kutxatila bat dituen. 150 metroko luzera du, eta K.o. I. mendekoa da. Iragazgaiztasun txarra zuenez, hormigoizko pantaila bat (opus cimenticiae) jarri behar izan zuten haren orde, bederatzi kanpo kontrahormaz indartua. Bigarren lan honek 102 metroko luzera du, eta horma- bularrak arrokan sostengatzen ditu. Eraikuntza-data K.o. II. mende hasierakoa izan daitekeela uste da.

Biltegi erregulatzailerak:

Induskatutako lursailean eremu zabala hartzen du: gehienez ere 85 x 37 metroko ardatzak ditu, eta 7.000 metro kubikoko biltegi-gaitasuna. Biltegiaren eraikuntzan bi fase ikus daitezke. Lehenengoan biltegiak dimentsio murrizagoak zituen, eta paretak eta zorua argamasa hidraulikoarekin inpermeabilizatuta zeuden. Bigarren fasean handitze-lanak egin ziren, eta murruiak 35 kontrahormaz indartu zituzten, biltegia hutsik egotean lurraren bultzada eusteko asmoz. Bigarren lan honi dagozkio ura ateratzeko kutxatila eta barnera jaisteko eskailera.

Ubidea:

Biltegiaren ekialdeko murrui ura ateratzeko kutxatila bat deskubritu zen, txorroten ganberara zeramana eta akueduktoaren hasieran uraren irteera kontrolatzen zuena. Behean ibarra egonik eta biltegiaren eta hiriaren arteko ur-maila desberdinak izanik, akuedukto bat eraiki behar izan zuten. Hartzeko kanal baten bidez (specus), ura presiopean iragaten zen berunezko hoditerian sifoi-sistemari esker.

Castellum Aquae:

Castellum Aquae uraren garraioa amaitzen den eraikina da, handik hiriaren ur-horniketa sarea hasten baita. Horrelako biltegiek ura hornitu eta emaria banatzeko balio zuten. Oraindik mantentzen da eraikin honen podio laukizuzena, molduratutako silarri handiz osatua. Barnealdea harri xehatuz osatua dago, eta haren gainean argamasazko hiru geruza ditu.

Podioaren gainean kamara nagusia edota biltegia legoke, eta hori kanoi-ganga edo ertz-ganga batek estaliko luke. Ekialdean kokatutako apainduraren, ildaskak daude silarri guztietan, eta horrek eraikinaren alde horretan iturri publiko bat edota ninfeo bat zegoela esan nahi du.

Bisita bukatu zutenerako, turista denak joanak ziren, eta bertako langileak bakarrik geratzen ziren. Jakin zuten, langileetako bat, Miguel Ecologoaga, hamabortz egunerako joana zela, klima-aldaketaren

arazoaz Glaschu hirian egitekoa zen goi-bilera hartara, Klimalda aldizkarirako kolaborazioak egiten baitzituen, Jandelon bisita gidatuak egiteaz gain.

Hori entzutean, jarri zitzaion buruan Dultzineari, Glaschura joateko asmoa, goi-bilera hartan parte hartzera, bera goitarra baitzen goitarretan. Klima-aldaketak munduko emakumeei eragiten zien eta han egon beharra zegoen. Escivias, Toledo eta bertze guztiek itxaron beharra zeukaten.

Rosy-ren gainean egun asko beharko baitzituen, nahiago izan zuen trenez joan, eta ez hegazkinez, karbono-lorratza ez uzteagatik, eta zalduntzak garaietara egokitu behar zuela eta, trenerako erabakia hartu zuen.

VI. ATALBURUA

Glaschu-ra bidaia, guztiz ezustekoa, baina premiazkoa, Santxak eta Dultzineak egin zutena, Orreagatik pasatuz. Barisen manifestazioa Argeliarrek.

Dultzinea eta Santxak Glaschu-rako prest egon nahi zuten eta klima-aldaketaz argitaratzenen ia guztia irakurtzen zuten.

Pirinioetako glaziarrak galzorian

Hibai Ricozano eta Arnaut Estibaritz geografo eta glaziologoak. Bigarren hau doktoregaia.

—Aurtengo neguan Filomena izan dugu hizpide, hain zuzen, erregistroen arabera duela hamarkada asko ikusi gabeko elur-denboralea. Elur-uzta oparoa utzi zuen Basquerrian eta ederki zuritu zituen Iberiar penintsulako beste hainbat eremu ere, tartean, penintsula bera Eurasiar kontinentetik banatzen duten Pirinioak.

Elurra eta glaziarrak [...]

Baldintza klimatikoak aproposak badira, glaziar batek neguan irabazten duen elur guztiaren zati bat ez da urtzen uda-sasoian, eta, hala, glaziarra loditu eta hedatu egiten da. Aldiz, baldintza klimatikoak aldatzen badira, hots, klima berotzen baldin bada, glaziarraren gainaldeko urtzea azalera osora hedatzen da eta glaziarra egoera berrira doitzen ahalegintzen da. Kasu horretan, litekeena da glaziarrak bizirauteko arazoak izatea.

Pirinioetako zentinelak

Gaur egun, European hegoaldeen dagoen glaziar-multzo handiena Pirinioetan dago, eta muga klimatiko batean daudenez, are azkarrago ari dira suntsitzen. Mendikatearen termometro aldakorrak balira bezala, ingurumenean gertatzen diren gorabeherekiko oso sentikorrak dira goi-mendiko elementu geografiko nabarmen horiek. Horrez gain, eskalageologikoan atzera eginda, azken milaka urteetan Pirinioak zizelkatzeaz gainera, egun ikus dezakegun paisaia landuaren erantzule ere badira (beste prozesu askorekin batera, jakina). Beraz, Pirinioetako goi-mendiaren ikur dira, aipatutako balio naturalak emateaz gain, goi-eremuko ekosistemetan ere eragiten dutelako, eta mendikatearen ondarean eta historian balio kultural bat ere sortzen dutelako. Esango genuke mendizaleontzat goi-mendiaren sinbolo sentimentala ere badirela.

Gaur egungo 21 glaziarrak Pirinioetako mendikatearen mazizorik garaienetako zirkuetan daude zokoratuta (2. irudia). Mendebalderen dagoena Las Neouseko glaziartxo da, gero eta gehiago txikitzen ari da, eta Balaitouseko mazizoan dago; ekialderen dagoena, berriz, Mont Valier mendiaren (Ariege, Frantzia) ipar-ekialdeko hegalean dirauen d'Arcouzan glaziartxo txikia da. Glaziarrik handiena, bestalde, Anetoko glaziarra da oraindik ere, 50 hektareakoa, baina ez du zerikusirik joan den mendeko mendizaleek mendikatearen gailur nagusira iristeko jarraitzen zuten glaziar-azalerarekin eta orduan zeukan lodierarekin.

Barisera heldu zirelarik, aski unatuak, nahiz trenean egin bidaia, afaldu eta tren geltokian bertan utzi zieten areto batean lo egin zuten. Abereak inguruko lorategietan larratu zituzten, baina belarra moztuz soilik, loreak ukitzeke. Rozinanta eta Ruzia asaldatu samar zeuden, abiadura handiko trenean egindakoaldiak eraginda.

Concours photo: Baris je t'aime. Lumières en seine' Light up your year. Baris passlib: le citypass 100% personnalisable. Incontournables pour un séjour a Baris. Découvrir Baris en visites virtuelles. Les horaires d'ouverture des banques. Shopping sans TVA: comment profiter de la détaxe? Tout savoir sur la taxe -obligatoire- de séjour. Quels tarifs dans le restaurants? Faut-il laisser un pourb...Où manger à Baris?

Biharamunean, abereak lasai utzirik, kale-jantzian osterata bat egin zuten eta manifestari batzuekin egin zuten topo. Oihuka ari ziren. Argeliarrak bide ziren, aldarrikapenen bat eginez. Geltokian, pantaila batean, eguneko albistek pasatzen zituzten. Hona Jenofaa news kateak zabalduakoa:

—Hirurogei urte pasa dira Barisen gertaturiko sarraskiaz geroztik. 20.000 eta 40.000 aljeriar artean aterata ziren karrikara, modu baketsuan, Frantziaren kolonia zen Aljeriaren independentzia aldarrikatzeko eta aljeriarrei bideraturiko etxeratze-aginduaren bukaera galdetzeko. Paretik, sekulako errepresioa jaso zuten: desagertuak, hamarnaka eta segur aski ehunka hildako, 12.000 atxilotu, ia 2.000 Aljeriako atxikitze-esparruetara kanporaturik eta ehunka ospitaleratu. Hamarkada luzeetan Frantziak isilean atxikiarazitako gertakizunari buruz argia egiten ari da poliki- poliki. Aitorpenaren eta erreparazioaren bidean, "estatu-krimena" aitortua izatea nahi dute biktimek eta haien ondorengoek.

Geltokian aldizkari bat zegoen utzita jarleku batean eta Santxak hartu zuen. Hellelle aldizkaria zen, eta berehala ekin zion irakurtzeari:

Berlene Mónago'ko berriz agertu da berri triste bat ematera, bera osatzen ari den arren. Printzesaren maskota, chihuahua zakur eme bat, ibilgailu batek harrapatuta hil da.

Berlene printzesa osatzen ari da belarri, zudur eta eztarrian izandako infekzio handitik; hegoafrikan zegoela hartu zuen gaitza udaberrian, eta ezin izan du atzera etorri Monago-ra. Sylberto printzearen emazteak hirugarren ebakuntza bat izan zuen joan den hilaren 8an. Kirurgia, programatua, arrakastatsua izan zen eta orduetik printzesa bere jaioterrian dago, bere onera etortzen, Printzerrira itzuli ahal izateko eta senarrarekin eta seme-alabekin batera egoteko, Bacques eta Nabriella bixkiak. Bazirudien berehala itzuliko zela, baina mementuko, ez daki inork noiz itzuliko den. Sendabidean dagoela, berri triste bat jaso du Printzesak: Montaigne bere txakurtxo emea, chihuahua arrazako, ibilgailu batek harrapatuta hil zen astelehen iluntzean.

Ez da jakin ea Berleneren maskota berarekin joan en jaioterrira ala Monagon egon den. "Nire aingerutxoak bart hil da, gorpulen azpian. Zure falta asko sumatuko dut. Atsedean har ezazu bakean", hori da Printzesak irudiarekin batera partekatu duen esaldia, non ere agertzen baita bere txakurtxoarekin, joan den Eguberrietan Palazioan ateratako argazkian. Hor ikusten da printzesa, zeina agertu baitzen ezustean ile-mozketa ausart batekin, burualde bat motz-motz eginda, musu emanaz bere adiskide maiteari. Carol eta Esteffy Dimaldik ateratako argazkietako bat da hori. Askok agertu dute dolu-mina, Berlene Printzesa Fundazioak esaterako.

Printzesa joana zen afrikar kontinentera maiatzean, errizoneronteen ehiza ezlegezkoaren aurkako kanpaina bat hasteko. Orduan sortu zitzaion infekzio otorrinolaringologoa.

Dultzinea paseotik itzuli zenean, malkoa zeriola aurkitu zuen Santxa eta zer gertatzen ote zen itaundu zion.

Santxak intzirika:

-Berlene printzesari txakurra hil zaio! Autoren batek azpian hartu du! Ene!

-Baina, baina, Santxa! Utz itzen kontu berriketoso horiek!

-Nik ere chihuahua bat nuen eta traktore batek zapaldu zidan Santa Brigidarako bidean. Badakit zer den hori, ondo jakin ere. Dolua ez zait pasatu oraindik.

-Mila chihuahua erosteko dirua badin horrek...

-Bai, baina Montaigne bakarra zen, hori seguru. Oraintxe besarkatuko nuke Berlene printzesa! Berlene, ulertzen zaitut eta maite zaitut!

-Bah, egon hadi ixilik, esne-mamitan bizi dun eta-Dultzineak.

-Bai, baina beti triste, Sylbertorekin ezkondu zenetik, nahiz eta bixki polit batzuk izan- Santxak arrapostua.

-Atsekabeen bizi da, ez al da gure egitekoa atsekabeen dagoen emakumeari laguntzea?- galdegin zuen Santxak, erantzunik espero ez bazuen ere.

Bariseko geltokian isiltasuna egin zen une hartan.

Dultzinea guztiz zalantzan geratu zen, zeren emakumeei lagundu nahi zien, eta Berlene emakumea zen, baina benetan ote zegoen beharrean? Laguntza beharrean?

Arrats hartan ez zuten ele gehiagorik egin, eta berandu baino lehen lotaratu ziren. Lo askorik ez zuten egin.

Biharamunean Dultzineak eta Santxak eurotunela pasa behar zuten. Eguna iritsirik, azkenean kamioi batean sartu zituzten, laurak, gauzak erraztearren. Kamioia Scavia etxekoa zen eta gidaria Rob Shelley gazte sendoa, Liverpoolekoa bera.

Londresera heldu zirenean, kamioitik jaitsierazi zituzten, zorte on erranez. Baimenak erakutsirik, hurrengo Bristolerako trena hartu zuten.

Santxak, arreta handia jartzen zuen, zeren bazuen asmo bizia ikastekoa eta bizitzan nor izatekoa, beti garbitzaile eta ezjakin izan gabe. Baina egiari zor, bere gogoan Berlene printzesarengana zihoan eta haren Montaigne chihuahua txakur zenduarengana.

Dultzineak berriro zizkion bidaia haren helburuak.

-Santxa maite, badakin bai, jakin, eta bai ongi jakin ere, Olytetik Zidacos pasatzen den bezalaxe, zerk ekarri gaituen Glashuko goi-bilera honetara, klima-aldaketaren aurkako batzar nagusi honetara, alegia, munduko emakumeen bizimodua kaltetzen duela klima- aldaketa horrek eta gu emakumeen aldeze izanik, hor esku hartzeri behartuta gaudela. Gure barru-barruko aginduari segiz, halere, eta ez inork guri agindu edo inposatuta.

-“Emakumeen aldeze” dio berorrek, baina nik neurekiko “emakumeen aldeko” nahiago dut erran, samurrago ulertzeko.

-Hik ikus, nola erran, baina ez dela berriketa gure goi-asmoaren zer-nolakoa!

-Ez, hori ez!

-Beti aitzina!- Dultzineak.

-Beti!- Santxak- nagusiari plazer egiteagatik, bere sinesmenez baino.

Erran beharra dugu, liburu honetan jasotzen ditugun albiste asko, Zide Hamete Benenjeli agentziak zabaltzen dituenak direla, eta kontakizunean gerta daitezkeen etenak eta pausaldiak haren ixilaldiari zor zaizkiola eta ez bertze inori edo ezeri.

Bristolen egin zuten geraldian, egundoko iskanbila eragin zuten. Bristolgo zubia igarotzen ari ziren, Dultzinea bere behor gainean eta Santxa astemearen gainean, eta auto ilada luzea gertatu zen han. Dultzineak, ikusirik eta ikasirik auto haiek botatzen zuten kea, eta kea hark klima-aldatzen zuela, eta klima aldaketa hark emakumea kaltetzen, suak harturik, lauhazkan jarri zuen Rozinanta eta ahaleginetan jo zuen aurrean zeukan auto baten kontra. Lantzarekin aurreko kristala puskatu eta doi-doi atera zen birzik gidaria, gentlemen peto-petoa.

-Ez horri laguntzarik- erran zuen zoroaren pare Dultzineak, gentlemen hori emakumeak akabatzen ari dun eta- Santxa gidari izutuari laguntzera zihoala ikusirik.

-Baina badira gidari emakumezkoak ere, nagusi andrea! Pentsa beza!- Santxak.

-Bai, baditun noski, baina gizona zuten aginduetara bizi direnak, eta patriarkatuaren mende daudelarik, ez dituen bertze erremediorik, asko eta asko beren gizonentzako bazkaria egiteko, aurrena erosketak egitera joatea baino...

Eta hala, ezpata zorrotik atera eta Dultzineak gentlemenari eraso egin zion eta lepoan jarriarik, belauniko jarrarazi zuen eta zin-eginarazi, ez zuela gehiago autorik sekulagidatuko, eta bizikletaz edo trenaz ibiliko zela, edo oinez, aurrerantzean, eguratsa kutsatzeari utzita. Eta auto hura birziklatzeak zuen kostua ordainduko zuela, lepoa ebakitzea nahi ez bazuen.

-Gentlemenak, izaturik, denari bai erran, eta autoa hantxe utzirik, lasterka aldegin zuen bere bizia salbatzera.

Egundoko iskanbila sortu zen Clifton Suspension Bridge zubian. Dultzinea eta Santxa atxilotu zituzten eta Rozinanta eta Ruzia ukuilu batera aldendu, jabeengandik bereiz. Bi emakumeak gatibu hartu zituzten, Bristolgo komisaldegian. Lotarako bi kamaina zeuzkaten, eta horman hau idatzirik zegoen: —Mundu garaikidea ikuskizun primitibo egin dago. Eta azpian egilearen izena, Liesenthal. Galdeketa zorrotz bat egin zieten, eta miaketa ezin zehatzago bat, eta hurrengo egunean, prentsaurre batean erakutsi zituzten Dultzinari eta Santxari atzemandako material arriskutsuak: Kixoteren bi liburukiak, Perez Garañón-en Olyt, historia, arte, vida; eta Santxak zeukan tabako-kaxa, zeinetan pharias markako zazpi zigarro purutxo baitzeuzkan. Atzemandako armen artean zeuden, Dultzineak azakalak apaintzeko zerabilen guraize txikia eta Santxak sagarrak zuritzeko erabiltzen zuen labana, Sopinel markakoa; izan ere, aitatzik erregalatua baitzion Koleraren Amabirjina eguneko bazkalondo batean. Knight-Errant dressed Women attack avoided by police in Bristol. Edo horrelako zerbait. Oso arriskutsuak zirela erraten zuten, eta klimaren goi-bileraz baliatu nahi zutela, baliatu, sistemaren aurkako eraso gogor bategiteko. Bristoleko zubian gertatua, prestakizun bat bertzerik ez zen, ondoren Glaschu hirian goi-mandatarien aurka saiatzeko. John Usadio american president safe and sound.

Bakartu zituzten gela banatan eta galdeketa zorrotzu. Biek gauza bera erran zuten, alegia, emakumeen aldeko kanpaina batean zeudela, inolako talderen babesik gabe, eta helburu bakarra, jendea kontzientziaraztea zela, munduan emakumeek bizi zuten egoeraz. Alferrik. Beti gauza bera:

“Berrondo weapons”, “dangerous attack”, “tell the truth”, “We will send you to Madagascar, if you don’t tell the truth. Urik eta ogirik gabe hainbat egunez. Behorra, Rossy, eta astemea, Russy, ez belar eta ez ale, goseak madarikatzen.

-Where are you from?

-We are from Olyte.

-Where did you buy this pharias weapons?

- Pharias is a cigar from Cuba

-Oh, Cuba, dangerous country, dangerous dynamite cigars.

-Pharias is for smoking, smoke, smoked, only for fun ...

Bi hilabeteren buruan askatu zituzten, eta abereak, aski plakatuak, jabeak bezalatsu, irten ziren Bristol hiritik. Ordurako klima-aldaketari buruzko goi-bilera amaitua zen. Eta goi- mandatariak nor bere sorterrira itzuliak. Safe and sound.

Santxa guztiz atsekabetua zegoen eta etxera itzultzeko desiratzen.

-Dultzinea, andrea, ez da hau neretzako bizimodua, lur jota nago. Nahiago nire erratza eta fregona hartuta, hiru etxe pasa eta arratsaldeetan lagunekin plazetan karta-jokoan aritzea. Iurren txokolatea hartu, eta kafea Hirur Coroan.

Dultzineak gogor erantzun zion:

-¡A Pompelo no de ir, moeta! Pompelora ez noala, ni!

-¡He de ir sola, pues, señora Dulcinea Mielgo Azcona! Ni bakarrik joango naiz. Y hasta Olyte, yo solica-Santxak.

-¡Por mi como si vas hasta la Bardena...! Nahi badun joan hadi Bardeetara! To the bardenas!

-¡A Carcastillo, a visitar a mi tía Morena! Zarrakaztelura, alegiya!

-¡A tomar por culo! ¡Que te ahogues en el Cidacos, con dos dedos de agua, por bruta, ignorante y fregasuelos ludópata, tahir, que ni sabes inglés ni sabes ná! De todo tiene que haber en esta vida, hasta matojos. Txotxola bat haiz! Ezjakiñ petral bat, eskertzarrekoa eta nolakoa!

-Putá Dulce, cállate, chochola, pija, que no has trabajado en la vida, sólo estudiar y ponerte moda de la cara, aurpegia beti apaiñ-apaiña, que no sabes dar una puntada, hija mía, yo sé coser y bordar, josten ondo dakit, y poner un guiso, asar pimientos, trabajar en la viña, ysi hace falta, hecho una mano arreglando el tractor- bota zion sututa Santxak, musua gorritzen zitzaiola, Olyteko klaretea bezala.

-Ignorante, ezjakiñ garbia, que no sabes dónde está Cascante, ni Oslo, ni Roma, que no has ido más allá de Agarroso. Zer dakin hik? Ni has visto el mar. Lodosa ya te queda lejos. Tuterara ez haiz sekula joan. Ignorante. Ya te pierdes, yendo de la plaza a la placeta, buruhaundi hori, sólo con pasar por el arco del pato.- Dultzineak, aurpegia suhar zuen, kasik Olyteko tintoa bezala.

Santxa negarrez hasi zen, eta “adios, puta de rastrojo” erranik, atera zen, hartu zuen hedeetatik Russy maitea eta aldendu zen berrehun bat metro eta hantxe geratu zen malko-jario.

Dultzineak utzi zion pixka batean, baina zentzuz jokatzeko asmo garbiz, deitu zion deitu, bere ezkutari maiteari.

-El mejor vino el de la cooperativa, kooperatibakoa onena- erran zuen Dultzineak- Santxo hango kidea zela kontuan hartuta.

-Mejor que el de vuestra bodega, que vendeis la uva pa'la Rioja, zuek bai naparrak, eskasak- bota zion Santxak, jada irribarre jaioberri batekin.

-Bakea behar diñagu, Santxa Landibar! Zer eginen diñat hi gabe? Hemen bakarrik! Bokata bat prestatzeko gai ez naun! Eta lotsa, adress bat galdetzeko ere!

-Eta nik zer? English ez dakit, "stop" bakarrik, eta geografia hain gutti, ez baitakit eurotunela harantz den edo harantz, edo harantz...-hatzarekin hiru alde adieraziz.

-Dena arantz minbera!

-Kaka zaharra ta garestia bera! La virgen de Ujué, Uxueko amabirjina!

-Bakea, bakean dagoenari!

-Bai, bakea. Y además de verdad. Puta de rastrojoooo! Puta zikiñaaa!

-Ignorante fregoneraaaa! Inozente halakoa! Mando zahar egoskorra!

Botila bat ardo eta gozo batzuk erosita, pretil baten ondoan jarri eta egundoko hamaietakoa egin zuten, bakeak egin eta lehengoratzeko. Poztu ziren, eta epeldu, edo alderantziz, eta jota batzuk kantatu zituzten, eta Erribera ere bai.

-Benytorena da musika eta Irigarayrena letra- adierazi zuen Dultzineak.

-Neuretzat beti izanen da osaba Manuelena, hark erakutsi baitzidan.

Siestatxo baten ondoren, Rossy eta Russy larratu zituzten green grass batean, nahikoa jan zuten arte. Laster lady bat etorri zitzaien englisherrosariyo batean eta ezentzunarena egin zuten, baina ladyak hango kartel bat adierazi zien: keep out, ez sartu, eta abereak handik ateratzeko alegia.

-Oh, my lady, we are Dultzinea and Santxa, from Quijote, you know?- Santxak.

-Oh, I see. And I am Juliet, from Romeo and Juliet. Keep out.

-You are welcome in Olyte, my dear lady- Santxak.

-Once upon a time, England was proud of Kixote the Knight-Errant- erran zuen Dultzineak.

-Castles in Spain...

-Shakespeare loved Navarre...

Lady han hurreko etxe batean sartu zen, bere etxebizitza izango zuen noski. Laster balkoian ikusi zuten.

Santxak, tabletean, bilaketa batzuk egin eta balkoi azpira joanik honako hau bota zion:

-Entzun, lady mylady, entzun eta aditu, Shakespeareren obra, It's the tempest, you know?

Ladyak, Santxaren erabakimen gogorra ikusirik, balkoi baten ixkiñara egin zuen.

Santxak orduan, ahots ozenez, Bristol guztiak entzuteko eran: Posper txabola-aurrea. Perdinanda aurrera, zubil dakarrela.

PERDINANDA: Yolas batzuk mingor dira, ta eurak dakarren nekeok eztautso egiten lekurik atseginari: zirtzilkeri batzuk gizonki yasaten dira. Eta zeregin apal-zirtzilik geienak elburu ta xede goikoetarako bide izaten dira. Nire zeregin ziztril au aztun-nekor egingo litxakit, aspergarri da-ta; baña ni otsein naiakon andereak ilek be biztuko leukez-ta, nire nekeok atsegindu egiten daustaz: eta aren aita asarrebera dan baño eun bider txeratsuago ta leunago da; eta aita laztasuna bera izan. Nik emendik au lango zugatz-zubilak millaka kendu ta pilatu egin bear dodaz, agindu gorriaren arauz: nire andera maiteak negar egiten dau ni lanean izerdi-bitsetan ikusita; eta onango zirtzilkerik onango egilerik egundo eztauela izan esaten dau. Aiztu egiten yat: baña oldozpen leunok nire nekeak arindu dabez; latzen oldozpenok gitxien dodazanean egiten yataz.

¿Do you understand? This is Shakespeare in Bilbao, The tempest! Ekatxa! Ekatxa!

Ladya, haserre aide bat erakutsiz, balkoitik etxe barrura sartu zen eta atea itxi. Santxak orduan: "Coward, Oiloa!"

Santxa Dultzinearengana bihurtu zenean, ahots bat entzun zen:

-Aupa Athletic!

Gora begiratu zuten, baina ez zen inor ageri.

-Aupa Osasuna!- Santxak.

Ladya joan zenean, jarleku bat bilatu zuten eta hantxe egon ziren, azken aste haietan gertatu berri zitzaiena gaingiroki gogoratzen, zubia, nahasmena, autoari erasotzea, atxilotzea, gatibualdia...ladyaren mespretxua. Lau menderen buruan nola aldatzen ziren gauzak, ene!

Andro Trappo-ren liburuan, "Zerbantesen bizitzak" izenekoan, azpimarraturik zeuden pasartetako bat irakurri zion Santxak Dultzinari, honek hala eskatuta:

—... Hortaz Espainian arbuia egiten zuten (Zerbantes) , baina haren izena, Herri Beheretako, Alemaniako eta Frantziako publikoarentzat jada ezaguna, Ingalaterran ari zen halako sona hartzen, ezen Jacoblen korteko ingeniorek handienek, Wilkins, Middlenton, Ben Jonson, Nathaniel Field eta Philip Massinger baitziren, bainarik gabe txalotzen zuten. 1905ean James Fitzmaurice-Kelly-k hau idatzi zuen: -Ingalaterra izan zen lehen arrotz herria Kixote aipatu zuena, liburua lehenbizi itzuli zuena, lehen herrialdea txukun aurkezturik bere hizkuntzan eman zuena, lehena egilearen jaioterria adierazi zuena, lehena haren biografia bat eman zuena, lehena Kixoteri buruzko iruzkina argitaratu zuena, eta lehena, testuaren edizio kritiko bat inprimatu zuena- Hori guztia egia da. [...]

Idazle ingeles horiek guztiek Kixotearen harrobian aurkitu zuten asko gertaera eta pertsonaia, beren antzezlan eta fartsetarako, eta horrek prestatu zuen lurra, argitara zedin, 1612an, Kixoteren lehen itzulpen osoa, The historie of the valorous an wittie Knight- Errant Don Quixote of the Mancha.

Egileak Thomas Shelton zuen izena, eta ziurtatu zuen, argitaratu zenean, itzulpen hori kaxoi batean zetzala lau urtez. Argitaratu hutsak arrakasta handia ekarri izango zuen, baina gainera liburua irakurri

izan zen eta txalotu, herrialde horretan bakarrik beren egileak txalotzen dituzten eran, Jonson-etik hasi eta Dickens-era.

Itzulpen ingelesaren ondotik, lau urteren buruan, etorri zen frantsesa. Mende hartan liburuak ondasun preziatua, gutxia eta garestia izanik, itzulpen horien bidez neurtzen zen egile baten loria literarioa, eta Zerbantesen kasuan, loria hori gorantz zihoan bizi-bizi.

Orduan, pasartea irakurri eta berehala, gizon bat geratu zitzaion, haien irakurketa entzunda, eta aitortu zien galegoa zela, urte asko eginak zituela Bristolen.

-Zer gizalarru, gizon?- galdetu zion Santxak.

-En ningún lugar é tan bo como fóra da casa.-galegoak.

-Hori duk arrazoa! Fala ingles?-Santxak.

-Yes, of course, otherwise you die- galegoak.

-Eta nola da hemengo jendea?-Santxak galde.

-Unos pican y outros non...-galegoak barrez.

-Padrongo piperrak bezala... padron peppers...

-Santxak -Oh, yeah, padron peppers- galegoak.

Eta diosal eginik, abant egin zuen gizonak, paseoan aurrera.

Ondoren Santxak bi zigarro erre zituen, eta bere karteran miaka hasi zen, zigarro-paper gehiagoren bila. Eta hor non agertzen zaion paper txiki bat, ui, Lumiere egutegiko orri bat. Txisteak: Amonari galdezka.

-Entzun hau, Dultzinea anderea, banago gustatuko zaiola berorri txiste hau.

-Erran ba, adi nagon:

Amonari galdezka. Haurra galdezka hurbildu zaio amonari:

-Amona! Nola esaten zaio gauza horri... bi pertsonak gela berean eta bata bestearen gainean lo egiten dutenean?

Amonak, zalantzazko lipar baten ondoren, hau erantzun dio:

-Ez dakit hau nola azaldu eta ez naiz txorakerietan ibiliko. Horri esaten zaio "larru jotzea". Biharamunean haurra haserre hurbildu da amonarengana:

-Amona! Gelako guztiek barre egin didate! Galdetu nizuna ez da "larru jotzea", "litera" da! A, eta irakasleak esan dit zurekin hitz egin nahi duela!

Dultzineak algara batzuk egin zituen eta erran:

-Literaaaaaaaa!

Santxak, nagusiaren umore onaz baliatuz, galdetu zion ea utziko al zion gauza bat erosten.

-Ea, zer dun ba?-Dultzineak.

-Eskuko telefono bat!

-Ezta pentsatu ere!

-Nik ordainduko dut, eta hileroko tarifa ere bai.

-Zerbait erostekotan, tablet bat erosten utziko diñat.

-Lupiiiiii!

-Baina, baldintza batekin, artxibo batean joango haiz jasotzen gure bidaiaren berri, eta bertetik, feminista taldeekin sare sozialetan harremanetan jarriko haiz. Horrela iragarriko zienagu gure etorrera, ea harrera on bat egiten diguten.

-Ados, nagusi jauna, ados. Hala bedi. Hitza ematen dizut, Larrahi, Errensae eta Losae-ren izenean.

-Zeintzuk ditun horiek?

-Ez al zuen berorrek irakurri Jandalosen euskal jainko batzuk zirela?

-Nik baino oroimen hobea daukan, noski, Santxa.

-Gauza horietarako bai! Ez galdetu neri mendeak eta erregeak! Erreginak berdin!

Karteran bertze txiste orri bat agertu zitzaion.

-Dultzinea maite, hona hemen bertze txiste bat:

Beti ni. Beti bere buruaz hizketan ari zen aktore batek, bere azken filmari, telesail batean izandako agerpenei eta etorkizuneko bere proiektuei buruz ordubetez etengabe hizketan aritu eta gero, honako hau esan zion zeharo aspertuta zegoen bere solaskideari:

-Barkatu, Josune. Denbora guztia nire buruaren inguruan ari naun. Orain hitz egin dezagun hitaz... Zer irudititu zitzaion nire atzoko interpretazioa telesailean?

Dultzineak muturra pixka bat okertzen zuela ikusirik, berehala heldu zion Santxak, Lumiere egutegiak zekarren esaldi bat irakurtzeari:

Eguzkiak gogoko du leiho txikietatik pasatzea.

Frederik van Eeden

Idazle eta psikiatra (1860-1932)

Santxak tabletan begiratu zituen munduko berriak eta "ardo-fabrika" irakurtzean, sorterriko giroa etorri zitzaion gogora.

-Hara, Dultzinea anderea, zer nolako aurkikuntza egina duten Iraken.

-Zer da ba? Aurrerapen teknologikoren bat?

-Ez, ez, upategi zahar-zahar bat, gure sorterrikoak baino zaharragoak askoz.

-Leitu ba- nik aditzeko moduan.

Eta Santxa leitzen hasi zen:

Iraken arkeologoek tamaina industrialeko ardo-fabrika bat aurkitu dute eta 2.700 urteko aintzinatazuna dituzten baxuerliebeak.

"Aurkitu genituen 14 prentsa ardotarako, mahatsa zukutzeko zirenak eta barruko likidoa ateratzeko", adierazi zuen ikertzaile taldeko zuzendarikideak, nabarmenduz aurkikuntza hori bakarra zela mota horretakoa arabiar herrialdean.

Aurkikuntza arkeologo italiarrek eta antiguetateen Zuzendaritzak aurkitu zituzten Dohuk-en, Kurdistan irakiarrean, Sarghon II erregearen aldiko bi gunetan, herrialde arabiarreko iparraldean.

"14 prentsa ardotarakoak aurkitu ditugu", esplikatu zuen Dany Moravi Bonacossi jaunak, arkeologo taldeko zuzendarikideak eta aurkikuntza aparta eta bakarra zela Iraken.

Harrizko baxuerliebeak irrigatzeko ubide baten hormetan aurkitu dituzte, bederatzi kilometro luze izanik ubidea, Faida gune arkeologikoan, eta da, errege asiriarren garaikoa, duela 2.700 urte ingurukoa. Hamabi harrizko panel dira, bost metro zabal eta bi metro altu, eta adierazten dituzte jainkoak, erregeak eta animalia sakratuak.

Arkeologo italiarrak erran zuenez, "irudikatzen dena da errege asiriarra otoitzean jainko asiriarren aurrean" eta nabarmendu zuen zazpi jainko nagusiak ikus daitezkeela, horien artean, Ishtar, maitasunaren eta gerraren jainkosa, lehoi baten gainean ageri baita.

Irak da, Sumeria, Acadia, Babilonia eta Asiriako zibilizazioen sorlekua, eta horiek egin zituzten lehen idazte moldeak eta lehen hiri egotekoak, eta horrela garrantzi handia du egiten den aurkikuntza orok.

Bukatu zuenean, puff bat atera zitzaion Santxari.

-Interesgarria, alajaina- bota zuen Dultzineak.

-Nik arkeologo izan nahi nuke, ipuineko Orodeak bezala, eta horrelako lanak egin- Santxak.

-Bai ote?- Dultzineak galde harriduraz.

-Txikitatik izan dut afizioa, aitatzirekin arrantzarako xixare bila joan eta urrezko txanpon bat aurkitu nuenetik.

-Ez ninan asko uste! Ba arkeologia ikasi beharko dun!

-Nire buru kasko gogor honekin? Ez dakit ba! Nik ez dakit ser diren Sumere, Akados, Babilono eta Azeri horiek.

-Ikastea asko dun! Aldiko pixka bat eginez, jabetuko haiz- Dultzineak erran.

-Hala bedi!

-Begira ezan, Santxa, errango dinat Babilonia hitzak zer erran nahi duen gure hizkuntzan "Urbitate", ur biren arteko saila alegia. Babilonia eta Urbitate lotzen baditun, beti gogoan izanen ditun, bai bata eta bai bertzea. Entrambasaguas erdaraz.

-Eta zer ur dira ba horiek?

-Eufrates eta Tigris ibaiak, neska! Mapan begira ezan.

-Hala egingen dut, Dultzinea andere, irakasle eta nagusia!

-Dena den, hitz eman behar didan, gure zerbant-ibilbidea bukatu artean ez haizela hasiko arkeologo lanetan, ni bakarrik utzita.

-Ene hitza dauka berorrek!- Santxak.

-Poza hartzen dinat, eta ez nolana hiko!- Dultzineak.

Santxa kantuan hasi zen:

Entre casa y Babylon Camino peleón

Entre tu mamá y Babylon Ni papa ni colchón

Entre colonia y Babylon No te vayas de resbalón

Entre casa y Babylon Camina la ilusión

Entre mamá y Babylon Camino sin perdón

Entre colonia y Babylon No te vayas de resbalón

Entre güato y bacha Camina la cucaracha

Entre poli y pelón Camina la represión

Entre casa y Babylon El camino está cabrón

Entre colonia y Babylon No te vayas de resbalón

Ingalaterra hegoalderantz zihoazen heinean, herriak pasatu ahala, laidoaren eztenak dagien mina ezagutu zuten. Bonapartek ezin hobeki deskribatu zuena:

Antzekoak dira gezur beltza eta olio-orbana. Biek uzten dute aztarna. Napoleon Bonaparte 1769-1821

Bazkaltzeko eta lotarako lekuri ez zuten aurkitzen, zerrenda-beltzean jarriak baitzeuzkan Europolok, eta gainera, zaldun ikusten zituzten orduko, jabetzen ziren herritarrak Bristolko zubian gertatutakoaz. Herrietara baino lehen arropaz aldatzen ziren, Dulce Maria eta Iratxe bihurtzen ziren, eta dendetan erosten zuten jan-edana.

Dultzineak, abiatzean zioen:

-Laidoa, laidoa! Sutara hoa!

-Zer da "laidoa" hori, andere, ez baitut sekulan entzun!

-Bila ezan, bila, hire tablet horretan.

Eta Santxak, "laido" hitza bilaturik, honako testu honekin egin zuen topo:

Joakin Lizarraga, Elkanokoa

ITZGÁIA MURMURACIOARÉN GÁIN, TA EMBUSTERIEN

—Explicaturic juicio gaichtoen gaizquia, baita murmuratze-guisabát biotz bárnean, seguitzendá explicátzea murmurációaren gaizquia mias, baita gaichstoágo, cerén bárneco venénoa atratzendén

mira, iltzecó bere arima, ta adizalearéna, infamátus proximoa urrundanic, edo ausencian. Cer dá murmurátzea? Izengónec adiarastendú marr marr egótea eztueláic aitzen arc, nóres dardúcan. Murmurátzea propioqui dá errátea proximoas auséncian edo guibeletic cerbáit arren cóntra, edo desohoretán. Preséncian errátea deitzendá deshonorácio, ta laidoa; dá honrarén, errespéto ta atencioarén cóntra. Auséncian dá famarén ta creditarén cóntra: Eta causatzendueláic edo dezaqueláic causátu adizálean sentimentu edo iranorbaitengána, deitzendá susurrácio, edo embusteria; dá caridadearen eta adisquidetasunarén cóntra. Guciétan mostratzendá biotzarén charrtasúna, ta miarén béltz gaichstoa. Jarducágun lenic murmuracioas. Nork eztacúsa viciogónen villau cárra emáteas proximoarén cóntra guibeletic, eztueláic aitzen, eztaiqueláic defénda? Ezta ori traiciobát itsúsia? Bere cóleran bátec errátea gaizqui aurquez aurque dá nola miarén ezpátas alcinetic tirátzea: Baña guibeletic edo saietsetic odól ótzean ustecábean descuidártean tiratzea becála dá murmurátzea.

Santxak, atsedeen bat harturik bere irakurraldian, erran zuen:

-Nola kostatzen zaidan testu zahar hau irakurtzea, redioss!

-Normala dun- Dultzineak erantzun- gaur ez bezalako grafia baitin!

-Izengonec, izengonec...charrtasúna, gaichtoa...uff- bai xelebrea! Banoa bigarren partea irakurtzera, andere.

— Au ezpada charqueria, eztáquit cer datéquen. Naiz usadezáten guizon bizardúnec, naiz chipi andi guciéc; bentzáit guizón prestuéc ez. Guizon préstu ta murmurazále ez datéque. Orgátic ere guizón urrín duénac bearlúque estúdio ta diligencia gucia parátu, eztáquion átra itzíc murmuracioscoríc, eta bere buruari penac eta peniténaciac, descuidatzen bálitz. Christiatzeco bát, paratucióte lenic gátz bedecátua agoán. Gaizqui empleátua, uztecós mia cebátzermurmuracioarén péstean. Christio-guisagóiec il-urrin dúte, ta ustél urrín. Costumbrátuas guéros, sendatzecó, medicu óna beaute. Lingua nigra et virulenta calamitosissima, dió Hypocrates famátuac: Mia beltz ta pozoisu señále charr chárria. Murmurazalearén mia dá beltz, ta pócioa dario, cerén utziric proximoen ónac, empleatzenbaita aién faltaetán. Baña goácin churitus. Lenic esca gracia. Ave Maria.

-Hori dun, hori, lingua nigra et virulenta!- -Calamitosissima!- Santxak

- Señale charr chárria! -Aupa Athletic!- Anderek.

-Aupa Osasuna!- Santxak.

Une hartan, gaiak eraginda, Dultzinea kantuan hasi zen, eta gogotsu gainera:

Ez diot harrokerian,

fama txarra dut herrian.

Mintzatu edo isildu

lotsagabe naute deitu!

Ez dut nehorri kalterik egiten

nire bidexka dut zintzo segitzen.

Baina jendeek ez dute maite

beren gisa bizi ez bazare,

nitaz dira gaizki mintzo,

mutuak ez bistan dago.

Pesta nazionalean

ni gelditzen naiz ohean,

musika militarri

gorroto diot aspaldi.

Ez dut nehorri kalterik egiten,

musika hori ez bazait gustatzen.

Baina jendeek ez dute maite

beren gisa bizi ez bazare,

denen erhi puntan nago,

beso motzenean salbo.

-Baina zer kanta da hori, andere, buruz dakizuna?

- Brassens Duhalde!

Eta kantuan segi zuen:

Iheslari bat ikustean

zakurrak bere atzean,

harrika haizatzen ditut, beharduna laguntzen dut.

Ez dut nehorri kalterik egiten

zakurrak niri ez zaizkit gustatzen.

Baina jendeek ez dute maite beren gisa bizi ez bazare,

lasterka ditut ondotik, denak zango motzak ezik.

Profeta ez izan arrenbadakit zer pentsatzen duten,

soka bat dute hartukolepotik dautate pasako.

Ez dut nehorri kalterik egiten beren bideak ez badituz hartzen.

Baina jendeek ez dute maite beren gisa bizi ez bazare,

zintzilik ikusiko naute,

itsuek ez hanbat hobe.

-Ederra da, gero, letra!- Santxak.

-Ez da ez makala! "Fama txarra" deitzen da "La mauvaise réputation"- Dultzineak.

-Baina jendek ez dute maite, bere gisa bizi ez bazare! Zer egia!- Santxak!

-Zintzilik ikusiko naute, itsuek ez hanbat hobe!- Dultzineak.

Barisera heldu zirelarik, berriro geltokian eman zieten ostatu, eta hala izan zuten tarte bat, inguruak ikusteko.

Dultzinea hormako turismo afixa bat irakurtzen hasi zen:

Photographes en herbe, cet automne, venez dévoiler vos clichés autour de la nuit à Paris ! Les réseaux sociaux de l'Office du tourisme de Paris Pros Je t'Aime et PhotoWeek en partenariat avec Leca et Initial Lab dévoilent leur jeu concours photos du 2 au 20 novembre. Jouez et tentez de gagner un appareil photo Leca D-lux 7 d'une valeur de 1220 euros ainsi qu'une séance de tirage professionnel chez Initial LABO,

Pour jouer au jeu-concours : Utilisez votre appareil photo, smartphone ou réservez un appareil Leca Q2 dans l'un des 3 Leca Store de la capitale. La réservation s'effectue par internet via les liens ci-dessous.

Baina berak nahiago zuen, arkatza eta papera hartu eta marraztu.

Santxak berehala "Pigalle" sakatu zuen turismorrian, portugesez:

O bairro, conhecido por sua alma festiva, continua animando as noites barisienses. Da praça d'Anvers à praça de Clichy, há várias opções para quem gosta da vida noturna: cabarés, salas de espetáculo, bares, boates, lojas para adultos, etc. Já para percorrer as ruas do SoPi (South Pigalle), não é preciso esperar o anoitecer: pode-se aproveitar as lojas badaladas, os restaurantes e cafés o dia todo.

9°, 18°. Metrô Place de Clichy, Blanche, Pigalle, Anvers, St-Georges.

Santxak bazekien, baina, bidaiaren zioa klima-aldaketa zela, emakumearenaz gain eta bertze atal bat klikatu zuen.

O turismo sustentável em Paris

Hotéis com selo ecológico, transporte sustentável, consumo orgânico... Paris, cidade verde, prática do ecoturismo.

Na época em que viver, consumir, viajar tomam um sentido ecológico, ético, social e solidário, Paris faz uma bela participação no turismo responsável. A cidade está envolvida em uma postura ecológica em diversas áreas; suas iniciativas contribuem para enriquecer a oferta sustentável do principal destino turístico mundial. Engajada em favor do turismo sustentável, a Oficina do Turismo e dos Congressos de Paris propõem aos visitantes a descoberta de um destino solidário e que respeita o meio-ambiente e as pessoas.

Transportes ecológicos e responsáveis

Com suas 7 estações e sua posição geográfica no coração da Europa, Paris é facilmente acessível por trem, um dos meios de transporte menos poluentes. Na cidade, toda uma gama de meios de transporte não poluentes lhe é oferecida. O metrô, com 16 linhas e 303 paradas, permite percorrer Paris e seus arredores próximos. Os 1.000 km de pistas transitáveis por bicicleta convidam os visitantes a utilizar uma Vélib' ou uma bicicleta de aluguel para descobrir a capital, praticando ao mesmo tempo uma atividade ao ar livre. Algumas empresas de táxis usam biocombustível ou propõem veículos híbridos.

Bertze hizkuntza batzuetan saltseatu zuen Santxak:

可持续性。致力于可持续旅游业的发展，巴黎旅游与会议促进署邀您体验一座富有责任、尊重环境与人的城市。

Eta aspertu zenean, klik klik batzuk egin eta albiste honekin egin zuen topo, Barisen elkar ezagutu zuten bikote bati buruzko jakingarri honekin:

“Erran ohi dute gizon handi guztien gibelean badela emakume bat. Gerda Taro eta Rob Capa adibide ezin egokiagoa lirateke esaldi horretarako. Ezagutu zutenean elkar, 1930eko hamarkadan, Barisen, gizona André Friedmann zen, faszismotik ihesi zihoan gazte hungariar bat, erreportari grafikoa lanetan bizimodua ateratzen ahalegintzen zena; emakumea, Gerta Pohorylle, jatorri poloniarreko gazte alemaniar judutar bat, Stuttgart-etik ihes egitera behartua ikusi zuena bereburua. Hasieran, Gerda Taro-k Andre berbataiatu egin zuen Rob Capa izenarekin. Izen hori ez zen inongoa eta nonahikoa izan zitekeen. Laburra, belarrira ondo ematen zuena eta erraten erraza. Alter ego bat. Gertak t horren ordez d jarri zuen eta Gerda bihurtu zen, Gerda Taro, izen bat judutar kutsua ez bertze edozerena izan zezakeena, unatua baitzegoen judutar izateaz. Emakume zirti-zartakoa baitzen, ez zen konformatu Capa-ren manager izateaz. Kamera hartu eta erabiltzen ikasi zuen.”

Barisetik abiatu zirenean Dultzineak eta Santxak soro eta zelaiak ikusteko gogoia zuten, hiriak puska bat ito baitzituen. Bizpahiru orenen buruan, village batera heldu ziren, eta gazta-fintzaile interesgarri bat aurkiturik Dultzinea.com webgunerako elkarrizketa egin zioten.

Françoise Lourgon: “Françan astero esne-ekoizle bat suizidatzen da”

Françoise Lourgon gasna-maistra

-Frantzia ez da, jadanik, gasnen paradisia?- galdetu zuen Santxak.

Lehen ia etxalde guztietan zeuden, zapore bereziarekin, behiak desberdinak baitziren eta milaka eta milaka gasna desberdin zeuden. Baina azken mende erdian gasna haien hamarretik bederatzi galdu dira, esne ekoizleek ez dutelako egiten gasna pittin bat.

Zergatik?

Gaurko helburua esnea ekoitzi eta saltzea da, eta egunetik egunera gehixeago produzitzea, litroaren prezioak behera egiten duelako. Hogeita hamar urteren buruan itxi egingo dira esnetarako diren hamar etxaldetik bederatzi.

Etxalde ttipietaz ari zara?

Etxalde oso handiak edo oso ttipiak daude, baina ez ertainak. Jatorrizko Deitura Babestuek jan dute dena, banaketa sarea eta prezio finko samarra eskaintzen dutelako. Haiek ari dira gustua estandarizatzen, zeren hartzidura bat hautatzen baitute eta produzitzeko modu bat, eta horrela aniztasunik ez dago.

Izendapenak al dira gaztandegien jabeak?

Jatorrizko Deitura Babesturik gehienak gaztandegi industrialenak dira. Nik, jada ez dut JDP horiekin lan egiten, marka bat baitira.

Haiek izan al dira benetako K'membert akabatu dutenak?

K'membertekin gertatzen dena zentzugabea da. Esplikatzan dizute JD dela "K'membert de Normandía", baina etiketa batzuetan erraten da "Normandian Fabrikatua", bertze batzuetan soilik dio Kmember. Nik egin nahi badut brie trufatu bat, erraten didate ezin dudala, briea babestua dagoelako, eta nik soilik nahi dut brie batekin lan egin eta trufa gehitu. Aldiz, industria handiek har dezakete kmembereta nahi duten bezala erabili.

Baina hasiera batean Jatorri-Deiturak onak ziren, ezta?

Gasnan zaharrena roq'fort-ena da, 1925koa. Hasieran oso interesgarria zen, lurralde baten ondare baliotsua erakusteko balio zuen, baina orain perbertitu egin da. Frantzia mundu guztiarentzat JDB kalitatearen ikur da eta horretaz baliatzen da industria. Azkenean fabrika bakar batek produzitzen du JDB horretako gazta guztia.

Jatorrizko zapoak galdu egin al dira?

Nola mintza daitezke zapo desberdinez eta jatorrizko deituraz, pasteurizazioa baldin badago eta esneak zeuzkan bakterioak ez badaude? Bakterioak hiltzen badituzu, esnea hiltzen duzu. Industriak hasieratik daki bakterio horiek beharrezkoak direla eta alergia ugaltzen ari direla, gure sistema immunologikoan dauden arazoengatik. Baina esne gordina nahita hil dute, jakinda, osasuna erabili dute aitzakia gisa eta Actimel erako produktuak sortu dituzte, gure digeritze sistemari bakterio horiek emateko. Akabatzen zaituzte eta gero salbatzen zaituzte. Enetzat hori bertze mundu bat da, ez zait interesatzen.

Etxaldeetan esne gordinarekin egiten denarekin lan egiten dut, ehunetik bost da, baina horiek lanaz eta gaztaz bertze kontzientzia bat dute.

Oraino França gazta-kultura handikotzat hartzen dugu.

Oxala! Baina atzera goaz eta oraindik borrokan ari gara esne gordinari eusteko. Sukaldaritza kultura sendoa dugu, baina McDon hazten ari da. Italian ez dago halakorik, ondo prestatutako jana jaten dute, eta slow food mugimendua sortu dute. Kontzientzia dute zer den ona, eta Frantzia aldiz, pentsatzen dugu jana garestiegia dela eta edozer aski dugu bizirik irauteko. Bada jende kopuru bat organikoa jaten duena, edo haragi gutxiago, kontzientzia mota hau duena, baina gutxi dira.

Zuek neurriak hartu zenituzten, jatetxean produktu prozesatuak ez ugaltzeko.

Zigiluak ditugu, "maître restaurateur" edo "fait maison", erdia edo gehiena etxean egiten dutela errateko, baina gatazka gogorra dago sukaldaritza-taldeen artean, dena egina erosten dute eta ez dute horrelako zigilurik nahi.

Eta orain industrialak diren gazta frantziar horiek artisautzat agertzen al dira?

Bai, zeren industrialak ekoizpen-plantakerosten dituzte eta izena bereganatzen dute eta etiketa mantentzen dute, helmugako bezeroak sinets dezan deus ez dela kanbiatu. Hor dugu Lactelmouse, munduko lehen taldea esnekietan, industria handi bat. Orain hiru urte arazo larri bat izan zen haurrentzako esne-hautsean. Haiek ez zuten salgaia erretiratu, eta ofizialki ez dago osasun- arazorik, nahiz umetxo batzuk ingresatu zituzten. Neure etxean gertatu balitz, dena hustu, desinfektatu, beharko nuen.

Esnea negozio ukiezina al da?

Urre zuria da, baina 34 xentimo ordaintzen da esne-litroa, eta ekoizpen-preziotik behera dago hori. Frantzian astero esnea ekoizten duen pertsona batek egiten du bere buruaz bertze. Urtero 50 suizidio dira, ez baitute bizimodurik ateratzen, gaizki bizi dira. Erosten dietenek diote gehiago produzitu behar dutela, gehiago irabazteko, baina ez diete xentimorik igotzen.

-Izango dira salbuespenak, ekoizlea gehiago errespetatzen diren lekuak.

-Bai, badira, zorionez. Barka, pixka bat itxaroten baduzue, berehala naiz zuekin, izan ere, aurki jokatzekoa den rugby partidako epailea nauzue. Katuen arteko norgehiagoka, Patriar eta Matriar katuak aurrez aurre. Nire ordeztzeko eskatuko diot lagun bati; gutxitan izaten dut zuek bezalako bi jende ilustrerekin mintzatzeko parada.

-Ongi da, itxarongo dizugu- erran zuen Dultzineak.

-Patriar katuen entrenatzailea Erick Zymmur duzue, aski ezaguna, eta Matriar katuen entrenatzailea, berriz, Simonetta entzutetsua. Partida gogorra espero da.

Dultzinea eta Santxa begi-belarri zeuden hango kontuak ikasten, eta inguru hartako baserritarren egoeraz jabetzen.

-Izanen da, bai, gure beharra duen emakume esnezalerik eskualde honetan!-bota zuen Santxak.

-Ondo erran dun, Santxa, emakumeak baitituen etxalde guztietan lanik zailenak, neketsuenak eta gogaikarrienak egiten dituztenak, seme-alabak izateaz gainera.

-Hemen nauzue berriro. Moldatuko dira ni gabe. Nehor ez da baitezpadakoa- erran zuen gasna-maistrak.

-Inor ez da ezinbertzekoa- erantsi zuen Dultzineak

-Zorionez badirela salbuespenak, erran duzu lehen- Santxak.

-Hala da, badira batzuk Comté aldean, gizarte antolamendu oso sendo batekin, XV. mendetik hona, eta lankidetzara dago, esnegile, esne-heltzaile eta esne-saltzailearen artean. Esnea gaur 60 zentimotik gora saltzen da, gasna egiten duenak erdia hartzen du, fintzen duenak erdia, eta azkenean comté gasnak prezio guztiz normala du eta gasnaren balioa banatuta dago prozesuan lan egiten duten guztien artean. Antolamendu eredugarria da, denak bizi dira, eta nonahi behiak ikusiko dituzu larrean.

-Normandía-rekin zerikusirik ez, ezta?

-Han bazoaz K'member zonara eta ez duzu behi bakar bat ikusten. Lan on bat egin liteke? Gazta da: animaliak gehi landa zabalak gehi inguru-pertsona-animalia harreman ona.

-Zer gertatzen da roq&fort-arekin?

-Zazpi ekoizle dira, hirur ttipi eta laur oso handi, baina hiru txikienak gasna horren produzkoaren ehuneko hamar baino gutxiago dira.

-Jendeak ez du ezagutzen artisau-janaren zaporea?

-Hara, Santxa, lehen janak lehentasun osoa zuen eta orai da telefono on bat ukaitea edo auto bat, eta jaten gastatzen den zenbatekoak behera egin du. Jatorrizko gustua galduta, erraz da ordezeko bat jartzen eta jatorrizkotzat sartzen.

Époisses gasna barietateak hiru ekoizle ditu eta granja bakarra. Nik uste nuen familia bat zela, belaualdi askotan jardundakoa, eta jakin nahi izan nuelarik duela ehun urte gasna horrek zuen zaporea, nehork ez zekien, zeren antigualeko époisses familiak gaur industrialak baitira eta gasna pasteurizatua da.

Jende arrabots handi bat entzun zen orduan, txaloak, bibak, Matryak aurretik markagailuan.

-Zer oroitzapen dituzu haur zinenekoak, zure familiarekin etxaldeak bisitatzen zenituenekoak?

Gogoan dut nola emakume batek besoa sartzen zuen esneontzian, hozberoa neurtzeko. Gasnagile zaharrek ez zuten termometrorik erabiltzen, gatzagia ukituz zekiten, uki, usain, beha... Esplikatzeko zuten arren, zaila zen jakintza transmititzea. Produktu bizi bat nola baiten, gasna egiteak egun batean oren bi behar ditu eta bertze batean lau, zeren lehen egunean eguzkiarekin bakteriak fite ibili ziren eta bigarreanean euria ari zuen eta mantsoago aritu ziren.

-Aurrerapenei esker prozesua hobetu egin al da?

Gauza askotan, bai, jakina, dakitenekin aurrerapen handiak egin daitezke, animaliei janari hau edo bertze eman,...baina arazoa da orai ez dela jenderik astean zazpi egun lan egin nahi duenik, sekula geratu gabe, jakinik beharrea daudenean nehork ez diela lagunduko, hilean mila euro irabazteko gehienez.

-Ez dago laguntza ofizialik?

Produktu kimikorik gabe lantzen baduzu, laguntza guztiak galtzen dituzu, ez duzulako JDBk ezarritako hartidura edo sulfito araua betetzen. JDB batean sartzen ezbazara, ez duzu laguntzarik.

-Espainian antzekoa da egoera?

Ene irudiz asko hobetu da azken urteotan. Orain hiru hamarkada ez zegoen apenas esne gordin produktorik eta gaur bada, eta sormen eta gogo handia dago gazta onak ateratzeko. Mantxakoak behera egin du, baina badira barietate berriak. Espainiara joaten hasi nintzenean, goi sukaldaritzan gasna frantsesak bakarrik ematen ziren eta orain alderantziz da. Gogoan dut Carme Rusnalleda-k erran zidana, Kataluniako interesgarrienak hautatzen joan zen eta kanpokoak murrizten. Hori oso ongi dago, eta Ingalaterran adibidez, esne gordina hil zuten eta gaur itzultzen ari dira.

Eta jende gaztea mendialdera doana eta eskuz gazta egiten hasi dena.

Jende asko, baita ere Frantzian, eta pandemiak lagundu du horretan. Bada jendea hiria utzi eta landara joan nahi duena, bere ortuak egitera edo bere gasna. Bortz edo hamar urteren buruan gauza interesgarriak ikusiko ditugu, ikasbidea poliki egiten baita.

Estimatzen al da gazta fintzen dutenen lana, zurea esate baterako?

Fintzaile hitza ez dago babestuta, edonork jar dezake bere denda aurrean. Fintzean pisuaren zazpitik bat gal dezake gasnak, eta nik prezio berean saldu behar dut, jende gehienak ez baitu ulertzen fintzeak zer lan duen.

Klima-aldaketak eraldatu egingo du gaztaren geografia, arnoarena alda dezakeen bezalaxe?

Ene iritzian gehiago aldatuko da animalien jana eta horrek aldaraziko du gaztaren gustua. Conte-a, herrialdearen zonarik hotzenean egiten baita, asko aldatu da, behiek kanpoanaskoz denbora gehiago pasatzen dutelako. Lehen apiriletik urrira ateratzen ziren, eta orain, aldiz, otsailetik abendura. Han ikasi dute belar lehorra bertze era batera lantzen, karotenoa mantentzeko, eta prozesu horrek guztiak hobetu egingo du conte-aren kalitatea. Animaliak egokitu egingen dira, ez dakit gu egokituko garen, baina gasna ekoizpena guztiz lotua dago hozberoari eta lurralde bati, zeren eta gasna geografia baita, klima, eta haren formak, tamainak eta egiteko erak adierazten dizu nondikakoa den. Lurraldea aldatzen bada, gasna aldatu egingen da. Nola? Ez dakit.

Askoz gehiago ordaindu behar genuke eskuz egindako gazta?

Balioaren banaketa aldatu behar da. Esnezaleari 10 xentimo gehiago ordainduko balitzaio litroa, gauza batzuk aldatuko lirateke eta apenas antzemango litzateke salneurrian, eta diferentzia horretan dago pertsona bat bizi ahal izatea. Ardura global bat da, gasna mundutik harago doana. Talde industrial batek erraten badu Ukraina edo Poloniatik ekarriko duela esnea,...dena hilko dut, homogeneizatuko dut, aterako ditut proteinak eta alde batetik saldu eta koipea bertzetik, homogeneizatuko dut eta kimika egingen dut esnearekin. Urtean beren burua hiltzen duten ekoizle frantziar horiengan ez dute pentsatzen, bat hiltzen da astero.

Diruzalekeria?

Batek pentsatzen du: —Hau ongi dago, irabaz dezagun dirua. Nago garrantzizkoa dela geratzen zaigun ehuneko bortz hori zaintzea eta laguntzea. Nolanahi ere, zuzenagoa da eskuz egindako gasnaren ezaugarri onak esplikatzea: gustua mantentzea, tradizioa, baserrien iraupena.

Partida amaitu zenean, adiskidetasunezko esku-emateak izan ziren, eta hirugarren parte desiratuari eman zioten hasiera. Garagarnoa, jatekoa eta besta.

Santxak sumatu zuen Alexak zerbait adierazi nahi ziela.

-Zer berri dugu, Alexa?- gonbit egin zion Santxak.

ALEXA:

Platonek zioen garagarnoa asmatu zuena gizon jakintsua zela. Oker zebilen. Egiaz, emakume bat zen. Bazekien. Bai, garagarnoa emakumeek asmatu zuten! Eta ez aurkitu bakarrik, garagarnogintzaren historian ekarpen handiak egin dituzte, gaur egun ezagutzen dugunera heldu ahal izateko.

Orain 7.000 urte eta gehiago, Mesopotamian hasi zen garagarnogintza garatzen; emakumeak izan ziren zereal aleak urarekin eta belarrekin nahastu zituztenak. Egosi zituzten eta senak eragindako nahasketa hartatik modu espontaneoan hartitzen edo fermentatzen zuen edabe bat lortu zuten.

Laster hasi ziren beren trebetasunak lantzen elikagai haren inguruan, gainera espiritua alaitzeko gai zen. Jane Briston historialari eta beer sommelier-ak dioenez, garai hartan eta milaka urte batzuz, bakarrak izan ziren hura ekoizten eta salerosten.

Ertaroan, garagarno ekoizpenak eta kontsumoak bide berria haru zuen, lupuloa gehitzean. Lore horrek ematen dio edariari mikaztasun-ezaugarri hori, eta propietate kontserbatzaileen eraginezaskoz denbora luzeagoan iraun zezakeen. Aldaketa berebiziko hori eragin zuen aurkikuntzaren arduraduna Hildegarda de Bingen abadesa izanzen. Maistra garagarnogilea izateaz gain, teologoa, idazlea eta botanikoa ere izan zen, bertzeak bertze. Azkenean santu egin zuten!

Ekoizpen prozesuen industrializazioarekin, emakumearen eginkizuna ez zen nagusia izan, baina egunetik egunera gehiago dira emakumeak, edari honekiko pasioaz gozatzen dutenak, ezagutzen eta erakusten dutenak, ez baita sekula izan gizonen gauza.

-Gora Hildegarda!- erran zuen Dultzineak.

-Gora!- denek.

Simonatarrak eta Eriktarrak garagarnoak edan ahala, ezitzen zihoazen beren suharrak, eta argudioak, eta gizakiaren alde komunak bilatzen, hurkoarekin konpontzeko. Neskarik gehienak Simonaren taldekoak ziren, eta mutilik gehienak Eriken taldekoak, baina bietan bazen bietarik. Pixkana, korro txikiak eginez zihoazen. Dultzinea Simonatar neska batzuekin aritu zen kalakan, eta Santxa, berriz, Eriktarren taldeko mutil beltz batekin. Senegaldarra zen, eta jakina, bere Olof mutila ekarri zion gogora. Inor konturatzerako, aldenduak ziren zuhaizpe batera eta ondoren etxalde bateko ganbarako lastadira. Erriberriko zuriak eta Senegaleko beltzak maridaje ederra egin zuten. Itzultzean Santxak harriduraz ikusi zuen Dultzinea besarkaturik zegoela bertze andere batekin. Ondoan Tintin eta Milú txakurra ziruditen mutiko bat eta txakur txuri bat...

VII. ATALBURUA

Olytera itzulera eta bigarren ateraldia Santxak eta Dultzineak. Marinne Agoitz-en olerki gogoangarria.

Santxak bere begi zoliarekin Olyteko gazteluaren gaina ikusi zuenean, honela mintzatu zitzaion nagusiari:

-Hara, Dultzinea anderea, hantxe dugu Olyteko gaztelua.

-Ez ba, Santxa mirabea, ez dun, ez, hura gaztelua, baizik eta itsasontzia, eta gudarakoa gainera.

-Nola diozu, baina, horrelakorik! Santa Brigidako artadiko ezkurak ere ikusten ditudala erranen nuke.

-Itsasontzi hori, soldadu askorekin, ... zer nolako hondamena!

Santxak bere nagusiaren eroaldiaz jabeturik, hariari tiratu zion.

-Baliteke, bai, hura itsasontzia izatea, eta hurreratu ahala, ikusiko dizkiogu mastak eta txalupak. Eta diosal egingen, marinelei.

-Hura "Castillo de Olyte" gerra-ontzia dun, zalantzarik gabe. Begira hire smartphone horretan, jar ezan "Castillo de Olyte.

-Santxak, barrez, googlen sartu zuen "Castillo de Olyte" eta hau atera zitzaion:

1939ko hastapenean, Espainiako Gerra Zibila bukatzeaz dago. Errepublikarentzat, Ebroko bataila erabakigarriak ekarri du Katalunia galtzea eta ia osorik bere armada galtzea.

Juan Negrín gobernuko presidenteak, azken ahalegin bat egiten du; gerra espainiarra luzatzea, datorkeen Europako Gerrari lotzeko eta hala II. Errepublika salbatzeko.

Negrin-en planak zapuzte aldera, nazionalek sekula egin gabeko lehorreratze-operazioa prestatzen dute. Hogeita hamar bat itsasontzik, 20.000 gizon eta gehiagorekin, Castellon eta Malagatik ateratzen dira Kartagenari buruz.

"Cartagenara espedizioa" deitutako horrek porrot egingen du eta ontzietako batek, "Castillo de Olite" izenekoak, ez du sekula itzulerarik egingen. Olite ontzian sartutako 2.112 gizonetatik, 1.476 hilko dira, 342 zaurituko dituzte eta 294 preso hartuko.

"Castillo de Olite" batería errepublikarrek hondoratzea, Cartagenako kostalde parean, 1939ko martxoaren 7an, Espainiako Gerra Zibilaren gertaerarik ilunenetakoa eta ezezagunenetakoa da.

-Zer, Santxa, erotuta al nagon? Erotua, guda zikin hura hasi zuena!

-Ene ba! Arrazoi duzu, ene anderea!-Santxak.

-Gu, Santxa maite, azken batean fikzioa gaitun, Zide Hamete Benengeliren asmamenaren emaitza, izan, baina "Castillo de Olyte" ontziaren hondamena egia benetakoa dun. Eta Urbasako amilduak ere bai. Eta Molaren gorrotoa ere bai.

-Gezurra ote da ba gure izatea?- Santxak galde.

-Egi-egia ez behintzat. Egia garbia ez, egia zikina, izatekotan- Dultzineak.

-Erraten zuen, bai, Errosa adintsuak: Gezurrarekin ez da inora joaten eta egiarekin ere ez.

-Entzun gabe neukanan- Santxa- hori ateraldia!

-Nigandik ere ikasten duela berorrek, aitor beza- Santxak.

-Bai, aitortzen dut eta gogo onez. Baina erne, mira-eragileen lanak direla, eta ez neure erokeriak.

Eta behorretik behera jaitsita, Berrondoaren bila joan zen, Don Kijote Mantxa'ko lanaren lehen liburukia hartzera, eta pixka bat orrikatu ondotik, honako pasarte hau irakurri zion Santxari:

-Begira Santxo, leen zuk zif-egindako itz ortan bertan egingo dizut nik ere- esan zuan Don Kijote'k-, sekulan ez da munduan zu bezaiñ buru eskaseko ezkutarik izan: zer! Nola liteke nerekin zabiltzan ontan guzian ez konturatzea, zaldun ibiltarien gauza guztiak, amets, zorakeri, ta burugabekeri diruditela, eta dan-danak batekoz-beste gertatzen dirala? Ez noski, ori horrela egiña delakoz, oso bestela baizik: ara, pillaka dabiltz gure artean beti mira-eragille oiek, gure gauza guztiak batekoz-beste aldaeraziaz, beren erara jarriaz, edo-ta guri laguntza edo kaltea emanaz, beren gogoa neurri; eta horrela, zuk bizargillearen baziña derizkiozun hori, Manbrino'ren yelmoa iruditzen zait neri, eta besterik besteri. Eta nire alde ari dan jakintsuaren zuur-zentzua izan da, Manbrino'ren egiazko yelmo ori, neri ez-beste guztieri bizarlari-baziña dala uste-eraztea; balio aundikoa bait-da izan ere, eta danak nire ondoren ibilliko bait-lirake kendu-naiean; baiña, bizargille-baziña besterik ez dala ikusirik, ez dira eskuratzen saiatzen; ongi agertu zan au, aako ark, austen asi-ta, lurrean bota-ta utzi zuanean; jakin izan balu, ez bait-zuan bein-ere utziko. Gorde zazu lagun, oraingoz ez dut-eta orren bearrik; nire arma guziak erantzi-ta billutsik jarriko bait-naiz jaiio nintzanean bezelaxe, baldin-ta, nire penitentzia egitekoan, Erroldan'en bidea artzen badut eta ez Amadis'ena.

-Bizargillearen-baziña eta yelmoa!-erantzun Santxak!

-Horixe! Ta harako hura Castillo de Olite-ren masta nagusia!

-San Pedroko dorre-orratza dela erranen nuke, andere, baina Itsasontziaren yelmoa dela erranen dut.

Olytera iristeko ordu edo oren batzuk falta zirela, Talla herrian pausaldi bat egin zuten, eta bertako emakume-taldekoak bidera atera zitzaizkien txaloz, aupa zuek, bibaemakumeak! Opari gisa, bidaia egitetik baitzetozen, Marianne Agoitz-en olerki hau oparitu zieten, urrezko marko batean jarria. Honela dio, hitzez hitz.

Bidaia

Maitasunerako bidaia

lan nekeza da.

Lehenik

esku bakoitzeko arrastoak sutan den izar urrun batean marratzu behar dira.

Han erre egiten zara eta lurrera itzultzen

begirada kiskaliarekin,

zoriontasun eta fruitu freskoen gose.

Gainera egunetik egunera txikiagoa zara

maitasunerako eta gardentasunerako bide horretan.

Isilarazi behar dituzu
barruko hamaika ahots
beldur, arrisku edo etsai hitzen xuxurlatzaile. Egitekoaren parte bat
legenardunarekin legenarra jasatea da
edo zumar gaixotuaren gaitz izatea.
Batzuetan, malkoak lehortu egiten dira
erdi-bidean
eta mina, animaliarena, landarearena edo mineralarena,
bertso baten gainean bakarrik da jasangarri.
Babesten gaituen maskara
iragaziz doa emeki
bere irmotasun korrosiboa azalerantz
harik eta, pitzaturik,
udazkeneko hostoak bezala erortzen den arte. Batzuetan,
itzalitako argiaren gure aurpegiak
gordetzen du
ipurtargiaren fosforeszentzia ñimiño bat.
Aski berriro bideari lotzeko
argi maitetsurantz.
Zenbat aldiz
hiltzen gara bidean?
Ezin konta ahala aldiz.
Putzu irideszente batean
edo zeharkatzen dugun zubi bakoitzaren
erdiko arkuan
jaiotzen garen hainbat aldiz.
Maitasunerako bidaiari,
aspisetik tximeletara mutatzen gara.
Eta besarka dezakegu jada
benetako heriotza.
Gori gu.
Dultzinea eta Santxa, bi-biak, hunkitu egin ziren, eta nola!

-Etxe-inguruan zirrarak handienak, ene, Santxa maite!

-Bai, horregatik, andere. Handienak noski!

Tallan festa pixka bat egin zuten emakume taldearekin, eta hauek konpromisoa hartu zuten “bi zerbanten” ibilerak medioetan zabaltzeko, eta haien ibilbidean zeuden herrietan emakume taldeei “bi idealistentzat” harrera goxo bat eskatzeko. Hartara, etzateko tokia eta jateko beroa izango zuten, bederen, ailegatzen ziren lekuetan. Gainera erabakia hartu zuten trenik eta halakorik ez erabiltzeko, “presa txarra baita”, pertsonentzat bezala animalientzat. Eta abiadura handiko trenak izan zela Glaschurako bidaia hondatu zuena, hala zeuden biak, eta hobe zutela, data jakinik gabeko hitzorduetara agertzea, bidean nola gerta.

Dultzineak, Tallatik Olyte alderako bidean, honela erran zion Santxari:

-Bi gauza izan ditun txarrak, bata abiadura handiko trenak, eta bertzea, armen belatzea gazteluan egin ez izana! Hurrengo ateraldian, gauzak ongi eginen ditinagu.

-Eta laurreko gozorik gabe geratu?

-Gaztelura aurrena, baraurik, eta gozotegira ondoren, gosaltzera!

Arma belatzen ari zirela, Dultzineak, emakume bortxatuak gogoan, Demetria operazioa abiarazteko, honako pasarte hau irakurri zuen ozenki:

Amama Demetria bortxatzen dute abuztuko egun batean (1874ko urtea) “Odola oroi” Paulo Antofñana Larrañaga

[...]

-Eskatu diat, esan zuen, umeak egin dituan ohera eraman nazaala.

Gainera beste ankerkeria eta laido bat ezarri zion atzerabideagatik zigor: bizkarrean hartu beharko zuen haren gorputza, ez baitzen zutik egoteko gai, ez pausorik egiteko ere. Aitajaun Pantxo zamari bihurtuta, aitajaun Pantxo harrizko mailak igotzen, soldaduek deiadarka kontatzen zituztela, hark anu noiz egingo zain. Tropako segizio edo eskolta, mozkortuta halaber, kontaktetan, bat, bi, hiru, aup, eta soldadu saritik ateratako erreal zilarrak jotzen zituzten aitajaun Pantxo baietz, ezetz iritsi logelaraino. Aup, beste pixka bat eta hantxe zegoen altxaturik amandre Demetriaren eskua, aurrerantzean desmasia hartan nagusi izango zen kandela-argiak inguratuta. Korridorean aurrera tximeleta geldi baten neurriko argi ñimiñoa zutela aurretiko, aup, bidea zabaltzen zuen Rodriguez kaporalaren ordenantzaren aginte-ahotsak gidatuta eta eramanda heldu ziren. Logelan zeuden jada, etxea altxatu zutenetik jaiotzen, erditzen, hiltzen, ezkontza (etxejauna eta etxandrea) ospatzen zen eta giza haziz ereindako gorputzak fruitua ematen zuenean. Hura klanaren kulturako sagaratutako kaperatxo bat zen, ez baitzen hartan inor sartzen (etxejauna eta etxandrea soilik) ondoez edo gaitzik ez bazen. Lekukoak: zur zaharrezko altzari astunak, ohazeruak, aulki satinezko hondodunak, maiolikazko eta lore pintzelkatuz apaindutako azpil-etxea. Sekula ez, sekula santan ez zen nehor han sartua. Rodriguez kaporalak bazekien hori eta, jakitun, garailearen gailentasuna eskatu zuen: etxandreak lo egiten zuen tokian egingo zuen lo, boilaska loredunean xukatuko zituen eskuak, eta andreak bere burua ikusten zuen tailla estofatuz apaindu ispiluan ikusiko zuen berak ere. Eroria zelarik, edo fardo baten gisan deskargatua aitajaun Pantxoren sorbaldetatik, Rodriguez kaporalak azken laido bat agindu zuen tropa hezteko ahots kaotikoz: —Ken iezadak uhaleria, aguretxo, aska nire jakako botoiak. Eta zur zahar eta zaindunaren koloreko osoko botak, eta gero praka maniki-ajustedunak, eta baita alkandora ere, libre utziz horrenbestez bularraldeko orban hitsa, gerrako edo tabernako liskarreko sastakaiaren orbainak eta ile-sorta ilun-ilun batek apaindua. Atzean eta irainaren zeremonia nabarmenduz soldaduen barre neurrigabea. Apustua ematen zuen. Kakorratzez egindako

ohazalean, perle-kotoi batez loreontzi bat eta petalo zabaleko hiru arrosa handi marraztu zituzten hartan, Rodriguez kaporalaren itzal zimurtua ere barrezko dardara batean zen. Are zailago egitearren, ezinezkoa eskatu zuen: —Orain, aitona, joan zaitetze eta etxandrearekin laga nazazue. Aitajaun Pantxok esan zuen ez zuela ulertu, edo ulertu bazuen ezezko plantak egingo zituen edo are plantarik ere egiteke (ez baitago erabat garbi) ez zuen agindua bete.

SANTXA: Zer dio, Alexa?

ALEXA: Kaporalak mozkortuta dago eta Pantxok bizkar gainean igo behar du gelara. Txaketako botoiak askatzeko eskatzen dio Rodriguez kaporalak Pantxori. Soldaduak barrez. Eta erraten die denei joateko eta bera uzteko etxeko andrearekin.

DULTZINEA: A zer pare!

Gutxi gorabeherako bertsio sinesgarri samar batek dio ezen aitajaun Pantxok amandre Demetriaren esku-argia hartu zuela eta Rodriguez kaporalaren aurpegin eraman zuela, bai aldarnioan zen ikusi eta amoniako-lurrinak eman behar ote zitzaizkion jakiteko, edo besterik gabe eta besterik ezean koltxa gainean txorimalo edo mandazain itxuran eroritako gizon mozkor haren aurpegia ikusteko. Ez ordea, Rodriguez kaporalak gogoan zuen agindua eta hura bete zedin hisitua zen: —Atera dadila zaharra eta gera dadila etxandrea. Aitajaun Pantxok esan zuenez bera ez sela handik irtengo hilik edo eskuak loturik ez bazen, kaporalak begiak argitu, erdi larrugorriak zutitu eta deiadar egin zuen: —Oso ondo, ez dadila zaharra irten. Berak galduko edo irabaziko du. Beste bertsio batek baztertu egiten du aitajaun Pantxoren erresistentzia gogorraren xehetasuna, berehala lotu baitzizkioten eskuak, eta zaintaldeko soldaduek bortxaketa ikustera behartu zuten aulkian kateatuta, tematuta baitzeuden antzerki-saioren batean edo omenka ikasitako errito zehatzegi bat betetzen.

SANTXA: Alexa?

ALEXA: Bortxaketa ikustera behartu zuten.

Xehetasun txiki orok ikasia ematen zuen, eta aitajaun Pantxo, ikaragarria begiratu nahi ez eta betazalak ixten baitzituen, baioneta-xaflaz behartzen zuten zabaltzera eta begiratzera. Zeremonia basaren barnean zen, halaber, aitajaun Pantxok deiadar egin behar zuela, izu-laborriz, eta blasfematu (lehenago sekula egin gabea zen), aurrez kabo batek erakusten zion kuarteleko jargoiz. Ezetz zioen, Hura, Jainkoa, garaiz iritsiko zen, Kristau Urteko mirarrietan legez, eta Rodriguez kaporalak eta zaintaldeko soldaduak, hura bezala mozkortuak, armada erregularreko tropa eta beronen koronela suntsituko zituen. Ikusgarri edo ikusezin agertzea eskatu zion, baina amama Demetriak laga zionean kandelen argi geldigaitzek hondatutako iluntasunean osindurik indar egiteari eta etsi gaiztoz negar egiteari, orduan bai, haserre blasfematu zuen, eta gero: —Ezertarakoez digu balio izan hainbeste barauk, hainbeste errezok eta hainbesteko eraspenak. Ezta ezertarako ere, esan zuen.

SANTXA: Zer da “osindurik” hori?

ALEXA: “Osin” da, hiztegi batuan...

—Urak, bereziki ibaietan, sakontasun handia duen tokia. Haitzarteetako osinetan. Handiak dira itsasoaren osinak eta bazterrak. Ibia duenak iragan, daki osina zein den barren (esr. zah.).

VIII. ATALBURUA

Olytetik ateratzea bigarrenez

Esquiviaserako bidaia, nahi baino lehenago egin ez zena, Dultzineak eta ezkutariak txit desiratua.

Andro Troppo-ren “Zerbantesen bizitzak” eskuliburutzat zeukan Dultzineak eta handik edan zuen Esquivias-ko arno-zurru literarioa:

Hirurogeiko hamarkada arte -XX. mendean- Espainia osoa zerbantinoa zen artean. Nik neuk hala gogoratzen dut. Orduetik hona akabatu dute txirotasun hori, haren aiurri nagusia baitzen, haren arima bera, eta egin zuten, hemen goitar eta berezi den orori zaion gorrotoagatik. Izugarria hau da, Espainiaren txirotasuna kendu zutela, baina ez zutela aberatsago egin. Orain Esquivias bisitatzean, depresio handi bat sentitzen du batek, bizkor ibiltzen da han eta atzera begiratu gabe alde egiten du. Hango kaleei deitzen diete La galatea edo Persiles eta Segismunda kalea, baina hortik at, ez dago ezer Zerbantes gogoraraziko duenik, ez izkina bat, ez haize-orratz bat ez arbazta batzuk. Ezta elortegi zurietako olibondoak ere, ezta hori ere. Inklusako olibondoak dirudite, mehe-meheak eta abandonatuak.

Zerbantesen garaian, ezaguna zen herria mahastiengatik, eta mahatsa biltzeko denboran heldu zen Zerbantes. Leku bakarti horietarik bat da, aldendua, gero bere liburuetan hizpide izango dituen isilaldietan doktoretza egiteko. Esquivias-i buruz, diosku eleberrigileak, Persiles-en hitzaurrean, leku hura —mila arrazoiengatik ospetsu zela, bat leinu ilustreak zituelako, eta bertzea, oso ardo entzutetsuak zituelako.

Herri hartan morisko eta konbertitu asko zegoen. Erraten egiten dut hemen, ez izkutatzegatik Zerbantes kristau berria zela sinesten dutenen tesirik bat ere. Baina erran behar da, halaber, nekez aurki zitekeela gaztelar herririk, moriskoak eta konbertsoak ez zeuzkanik.

Zerbantes hara heldu berritan, ezagutu bide zuen hogeitau urtera heltzen ez zen neska gazte bat. Ziur aski enkontrua egonaldiko lehen egunetan izan zen, Esquivias herri txikia baita eta zen, eta batek burua lihotik ateraz gero, herri guztiarekin kontzekuan dago.

Gaztea beltzez beztu zen, aita hil berri zuelako, eta ama arduratzen zen orduan, zenduak zerbait menostutako mahasti eta etxeak, ondare hori, oneratzen. Neska gazteak bi neba zeuzkan, Esquiviasen ikasten zuten herriko apaizarekin, osaba gazte haiena eta amaren anaia. Apaiz hori izanzen zen Miguel de Zerbantes eta Catalina de Salazar-en esposatzea bedeinkatu zuena, 1584koabenduaren 12an. Nobiotza bi hilabete eta erdikoa doi-doi. Zerbantesek hogeita hamazazpi urte zituen. Catalinak, errana dut, hogeitau bete gabe. Ezteiak baino hilabete lehenago, Madrilen jaio zen Zerbantesen alaba sasikoa, Isabel, eta pentsatzekoa da, Francaren senarraren alaba legezkotzat hartu zuten. Pentsa daiteke, emazte gazteari aitortu ez zizkion sekretuetako bat gehiago dela. Edo egin al zuen, berarekiko leialtasunak eraginda?

IX. ATALBURUA

Toledora heltzean gertatu zitzaizkien gauza harrigarriak. Pedro Josephe.

Toledon hamaika ikusteko bazuten nazioarteko bisitariek eta ez gutxiago Santxak eta Dultzineak. Hau berehala hasi zen hirian zeuden emakumeen arazoan galdez, hango okerrak zuzendu nahian, baina Santxari begiak joaten zitzaizkion erakuslehoetara, bereziki Toledoko damaskinatu lanetara. Dultzineak eskuorri batetik irakurri zion Santxari, damaskinatuaren berri:

Toledoko damaskinatua

Damaskinatugintza arabiarrengandik hartutako artea da, VII. mendean nagusi izan zirenean. “Damaskinatu” hitza Siriatik dator, Damasko hiritik, han sortu baitzen arte hori.

Toledok oso ongi menderatzen du teknika hori, zeina baita, metal finen hari edo xaflak sartzean datza, gehienetan urrea eta zilarra, burdinezko edo altzairuzko euskarri baten gainean.

Euskarri hauean marrazten dira kuxtala batekin ildoak eta ondoren metalak sartzen. Teknika honek praktika, pazientzia eta maitasuna eskatzen ditu.

Armadaren Museoan kontserbatzen dira damaskinoarekin apainduriko ezpatak, Domingo Sanchez eskulangilearen lana, balio eta edertasun handikoa.

Berpizkundean eta Barrokoan, damaskinatua erabili zen bitxikintza eta urregintzarako, eta hala, kaxa, bitxiontzi, arkoi eta kofre asko egin ziren.

Toledon damaskinatua berrindartu egin zen XIX. mendean, “Santa Barbara” arma-fabrikan, Carlos III erregeak fundaturiko fabrikan.

Orditik gaur arte, Toledo da munduan damaskinatu ekoizlekurik handiena, eta pieza aukera zabalena egiten den lekua.

Toledoko urrea, hórrela ezagutzen da eskulangintza honen industria garrantzizkoa, artisautza toledotar souvenirrak saltzen dituzten Espainiako denda guztietan.

-Nik damaskinatua ikasi nahi dut; gainera Eibarren egiten zuten- Santxak erantzun.

-Ez hintzen ba arkeologiaren zale?

-Bai, jakina, baina artisautza osagarri ona da.

-Tira, tira. Entzun Andro Troppo'k zer dioen Toledo:

Andro Troppo:

—Artxihoetan osasuna eta begiak utzi dituzten erudito eta zerbantistei esker dakigu, neurri batean, Zerbantes zer “bertze gauzetan” aritu zen. Puzzle bat da, baina, inor ez da ausartu orain arte guztiz osatzen, edo oker egin du. Zerbantes “bertze gauzetan” aritu zen, literaturan huts egin zuenean, eta literaturara itzuli zen “bertze gauzetan” huts egin zuenean. Argi errana. Itzuliko naiz horretara.

Zalantzarik gabe saiatu zen beren negozio finantzarioetan gora egiten, eta hasieran bere gauzak ez zitzaizkion gaizki bide joan guztiz. 1586ko abuztuaren 9an, El Escorialeko obrak bukatutzat ematen ziren egunean, Felipe II.aren etxe, bulego eta hilobi izanik, Zerbantesek Esquiviasen egin zuen bere emaztearen dote-gutuna, eta kopuru hari ehun dukat erantsiz. Data berberean amaginarrebak ahalorde bat eman zion non izendatzen baitzuen administrari absolutu, familiako ondasunetan, bai Toledoko finka eta etxeetan, bai Esquivisen bertan; ítem egiten zion enkargua, idatziz, pleituak eta kausak segitzekoa, zeudenean, eta horrek pentsarazten digu Zerbantesek bere familia berriarekin

zituen harremanak goxoak zirela, eta etorriko zela, ondarearen jabetzari dagokionez, aitagarreba zenaren lekua hartzera.

Horregatik hasi zen Toledora maiz joaten, familiako interesei loturiko gorabehera batzuetara, alokairuak kobratzera esaterako.

Toledo hiria ongi ezagutzen zuen Zerbantesek. Oso umetatik handik pasatua zen zenbait aldiz, Andaluziara bidean edo Alkalara bidean. Artean Madril baino hiri jendetsuagoa eta garrantzitsuagoa zen, baina ez Sevilla hainbat. Seguru asko, Zerbantesi Toledok balio zion Esquiviaseko asiloa hobeto eramateko, eta nobelistak bere zenbait obratan erretaratau zuen. Hiri zerbantestar guztien artetik, Sevilla edo Cordoba baino gehiago, Toledok du bere jatorriaren misterioa mailarik gorenean. Hiria japoniartrez husten denean eta gauak kalexka moriskoak hartzen, guztiak ospatzen du 1500eko gaua. Etxetako patioak, andaluzetatik oso bertzelakoak, estuak dira, ezpel usaina dute, ez dute surtidorerik ez jazminik, eta hango ixiltasun eta mehertasunak moja baten tornua gogorarazten du. (...)

Gustuko zuen Toledo Zerbantesek eta hiri hari eskaini zion bere "Ilustre fregona".

Toledoko pultsera edo eskuturrekoa eskuratu zuten, ailegatu eta berehala, monumenturik nabarmenenak ikusteko eta bisitatzeko. Dultzineak bi bisita jo zituen begiz. Bata, Santa Maria La Blanca sinagoga bisitatzea, eta bertzea, Cristo de la Cruz mezkitera ikustaldia. Santxak, aldiz, San Andres elizako momiak ikusi nahi zituen. Barruan zeraman Orodea arkeologoaren espiritua. Hauxe da Santxak eta Dultzineak izan zuten elkarriketa.

-Lehenbizi kale-jantzian ikusiko dinagu hiria eta gure ekintza-gunea hautatutakoan, Dultzinea eta Santxa lanean hasiko ditun- Dultzineak erran.

-Bai, hala egingo dugu, nagusi andrea. Ongi pentsatu du berorrek.

-Nik sinanoga eta mezkita ikusi nahi nizkiken.

-Ba nik San Andresko momiak!- Santxak.

-Bueno, ba hi hortik eta ni hemendik eta hiru orduren buruan hementxe bertan elkartuko gaitun.

-Ederki, andere.

-Begira ongi ea emakumeren bati lagundu behar zaion, dela ume, dela neskatxa, dela andre, dela atso...

-Bai, noski, andere- arretaz ariko nauzu.

-Gero arte, bada, eta ongi ibili!

Dultzineak sinagogara egin zuen aurrena. Gogoz irakurri zuen han idatzirik zetorren azalpena:

Santa María Zuria Sinagoga

Toledoko Aljamako sinagoga nagusia, 1180. urtean eraikia. Berreraiki egin zuten XIII. mendean eta 1405ean tenplu kristau bihurtu zen. XVI. mendean Silizeo kardenalak betekizun hau eman zion eraikinari, damututako emakumeen babesleku penitentziala izatea, eta garai horretakoak dira burualdeko hiru kapera eta erretaula bat, Berruguete edo Juan de Borgoña-rena izan daitekeena. XVIII. mendean koartel bihurtu zen eta XIX. mendean desamortizazioaren eragina jasan zuen, eta biltegi gisa erabili zuten. Espainiako arte almohadean onena da.

Argiaren Kristoren Mezkita

999. urtean eraikia, Antzinako Mezkita, gaur Argiaren Kristoren Ermita, Toledoko hiriak zutik duen eraikinik zaharrena da. Txikia, baina oso aberatsa historian eta artean. Kordobako mezkita handiarekin duen antza eta aldea kontuan izanik, erakargarri turistiko dira eta ezin dituzu ikusi gabe utzi, Toledora

etorri eta haren historia multikulturalaz ikasi nahi baduzu. Toledo islamiarra, oso ezezaguna askorentzat, eraikin honetan esanguratsu agertzen da. Hiru kulturen Toledo eraikin eginik: gure hiriaren historiaren parte handi bat protagonizatu zuen zibilizazio hurrenkera, hemen dago gauzatua, mezkita izandako eliza honetan. Argiaren Kristoren Legendak, ezagunenetako batek, ez du inor axolagabe uzten... ez duzu ezagutzen? Zatoz eta ezagutu!

Dultzinearen jakinminak laster izan zuen erantzuna:

Tradizioak dioenez, Alfontso VI hirian sartu zelarik 1085. urtean, haren zaldia belauniko erori zen leku horretan, eta erregeak mezkita barrura begiratzean, jabetu zen argi batzuk ateratzen zirela hormetako batetik.

Santxa pozarren zebilen, bere saltsan. Arretaz aditu zituen gidariaren hitzak:

San Andresen kontserbatuta dauden momiak, Toledon aurkitutako bertze asko bezala, prozesu naturalen ondorio dira. Momia hauek ez daukate baltsamatze prozesu artifizialik, nahiz eta mantendu ehunak (azala), hezur huts geratu gabe. Erraiak eta ehunik bigunenak (begiak esaterako)desagertu egiten dira eta horrela geratzen dira keinu eta imintzioak, mina eta terrorea gogorarazten digutenak, eta hala sortu dira hainbat legenda eta kontakizun, momien itxura dela eta. Ikertzaileek diotenez 1812-20 tartekoak dira.

Baina are handiagoa izan zen taldean entzuten zihoan beltz batengana jarri zuen arreta. Altua zen, gihartsua, irribarretsua eta hiztuna. Santxa berehala gerturatu zitzaion.

Hitzartu bezala, hiru orduren buruan, abiapuntura bihurtu ziren Dultzinea eta Santxa. Dultzinea puntu-puntu hantxe zegoen, eta Santxa bortz minutu berantago heldu zen, irribarretsu.

-Oso pozik hator- erran zion Dultzineak.

-Bai, hala da, gezurra esango nuke, erran, triste natorrela erranen banu.

-Bisita ona izan da?

-Bikaina! Eta bisitariak ere bai.

-Ez! Norbait ezagutu duzu!

-Bai! Senegaldar bat gaur ere!

-Ez gehiago erran.

-Ez dizut ba erranen. Fatou du izena.

-Fatou! Bertze Olof gizaseme bat!

-Jajaja...

Horretan zeudela oihu lazgarri bat entzun zuten, emakume batena noski. Ondoko etxetik zetorren, lehenengo solairutik edo. Dultzineak orduan:

-Goazeman Santxa, oraintxe zuzendu behar dinagu oker hau. Aurrera Matry!

-Bai, goazen.

Jantzi zituzten, jantzi, Dultzinea eta Santxaren jantziak, ostatua hur baitzuten eta etxe hartara abiatu ziren. Atea jo eta umetxo batek ireki zien. Barruan gizon bat bere emaztea jipoitzen ari zen, esku-zartaka.

-Geldi hor, gizatxar burugabe hori!

-Demetriaren izenean zaude geldi, ero egoskorra!- Dultzineak.

-Zeintzuk zarete zuek, komediante halakook, nire etxean ezer agintzeko! Kanpora!

-Ez, noski, oker hau zuzendu aurretik!-Dultzineak.

Gelditu zen jotzetik gizona eta emakumea oihu egitetik.

-Zergatik jotzen duzu?- galdetu zion Dultzineak.

-Afaria prestatu nahi ez didalako!- gizonak.

-Zeuk prestatzen ez al dakizu?-Dultzineak.

-Berak egin behar du, horretarako dago!-gizonak.

Orduan Dultzineak, aulki baten gainera igota, Simonaren liburua atera zuen eta ozenki deklamatu zuen gizonari begiratzeko ziola aldiro:

-Historiak erakutsi du gizonak izan dituztela beti botere konkretu guztiak; patriarkatuaren lehenbiziko garaietatik, gizonak pentsatu izan dute baliagarria zitzaiela emakumea mendean edukitzea; haien kodeak emakumearen kontra ezarri ziren; halaxe bihurtu dute emakumea Bestea, modu konkretu batean. Gizonen interes ekonomikoaren mesederako zen kondizio hori, baina komenigarria zitzaien, orobat, beren asmo ontologiko eta moraletarako ere. Subjektuari, bere burua berretsi nahian hasten denean, ezinbestekoa zaio bera mugatzen eta ukatzen duen Bestea: bere burua iristeko, beharrezkoa du errealitate hori, bera ez den errealitate hori. Horregatik, gizonaren bizitza sekula ez da betetasuna eta atsedena: falta eta mugimendua da, borroka. Gizonak, aurrez aurre,...

Gizona su batean honela hasi zitzaion:

-Ixo, komediante ero hori! Zer dakin hik etxe honetako berri?

Dultzineak entzungor eginez aurrera segi zuen irakurketan, lehen baino ozenago:

-Gizonak, aurrez aurre, Natura aurkitzen du; badu hari nondik heldu, eta hartaz jabetzen saiatzen da. Naturak, ordea, ez du gogobetetzen gizona. Natura, edo oposizio guztiz abstraktu gisa mamitzen da, oztopo da eta arrotz segitzen du, edo modu pasiboan sufritzen du gizonaren desira, eta asimila dezan uzten dio gizonari; kontsumituz egiten da gizona haren jabe, hau da, suntsituz. Batera zein bestera, bakarrik segitzen du gizonak; bakarrik dago harri bat ukitzen duenean, fruitu bat jaten duenean. Bestearen presentzia izateko, besteak bere buruarentzat presente egon behar du: hau da, egiazko bestetasuna nire kontzientziatik bereizirik kontzientzia bat da, nirearen berdin-berdina. Beste gizon batzuen existentziak aterarazten du gizon bakoitza bere immanentziatik, eta existentzia horrexek ematen dio modua bere izatearen egia mamitzeko, transzendentzia gisa, objekturantzko ihes gisa, proiektu gisa. Baina...

-Zer kontzientzia eta zer kontzientzia ondo, alde hemendik!-gizonak.

Ordurako Santxa hasia zegoen afarria prestatzen. Patata tortilla. Tipulak txikitzen ari zen, negar malkoa zeriola eta jadanik patatak zurituak zituen.

Dultzineak begiratu zorrotz bat egin zion eta irakurtzen segitu zuen. Sukaldeko atera hurreratuak zeuden umeak eta bizilagun batzuk.

-Baina...libertate arrotz hori, zeinak nire libertatea berresten baitu, gatazkan ere hasten da nirearekin: horra kontzientzia dohakabearen tragedia; kontzientzia bakoitzak nahi du bere kabuz subjektu subirano gisa agertu. Bakoitza horretan ahalegintzen da, bestea esklabotzara apalaraziz. Baina esklaboak, lanean eta beldurrean, esentzial sentitzen du bere burua, eta, itzuli dialektikobatean, nagusia ageri da inesentzial gisa. Drama gaindi liteke norbanako bakoitzak libreki bere burua

bestearen baitan ikusiz gero, bakoitzak objektu eta subjektu gisa hartuz gero bere burua eta bestea, elkarrenganako mugimendu batean.

Horrenbeste jende sukaldean ikusi zuenean, denak Dultzineari begira eta adi entzuten, gizona aulki batean eseri zen. Lasaitu zen, eta azkenean barrezka, txalo egin zuen besteekin batera. Santxak, zartagitik tortilla atera eta amen batean, mahaia prantatu zuen.

-Bakea bedi hemen, eta afal dezagun senidetasunean!-

Eta hain irmoki eta fermuki erran baitzuen, den-denak hurreatu ziren mahaira, Dultzinea izan ezik. Santxak tortilla pusketa on bat jarri zion ogi-xerra handi baten gainean eta bere nagusiari eman zion eskura. Honek Simonaren liburua zorroan sartuta, hortzak eta haginak erantsi zizkion, gosez amorratzen zegoen eta.

-Bai tortilla gozoa- erran zuen gizonak-. Nere andrearena baino hobea ateratzen zaizu.

-Tipulak garrantzi handia du, nola txikitzen den- Santxak.

-Hori izango da bai- erantsi gizonak-. Tori arno pixka bat!

-Eskerrik asko, gizon!- Nola duzu izena?-Santxak.

-Periko. Periko Matxin, zuri zerbitzatzeko, sukaldari bikain!- gizonak alegeraki.

-Nik behean itxarongo dinat, Santxa!- erran eta aldegin zuen Dultzineak.

-Eta zuk, andrea, nola duzu izena?-Santxak.

-Angustias, berori zerbitzatzeko!- andreak ahots apalez.

Atarian Rossy eta Russy zeuden zain eta gogo onez hartu zuten Dultzinea.

Santxari botila bat arno oparitu zioten, eta denak poz-pezik geratu ziren. Dultzinea izan ezik.

-Hau al dun, Santxa, gure goi-asmoa, Demetria operazioa, gauzatzeko modua? Negargarria dun edo parregarria, nola begiratzen zaion.

-Bakea etxe horretan eta sabela beteta gurean, nagusi- bukatu zuen Santxak.

Egun hartan, kasualitatez, Dultzinea-com webgunean honako artikulua hau argitaratu zen:

] פדרחווזה [Pello Joxepe

Pello Joxepe abestia txit ezaguna dugu gure artean. Pello Joxeperen andreak haurra izan du eta abadearena da haur hori, antza. Errua zeinek eta larrarteak! Kanta herrikoi honen melodiakinspiratu bide zuen Noemi Shemer abeslari israeldarra, YERUSHALAYIM SHEL ZAHAV [Urrezko Jerusalem] abestia egiteko, heriotza-aurrean lagun bati aitortu zionez, nahiz bizi zelarik hori ukatu, Joxepék haurra bezala. Urrezko Jerusalem abestia, Israelgo ereserki ez ofizialtzat jo daiteke, jendartean behinik behin. Denek ezagutzen dute. Gai honen berri Robermoso kazetariari irakurri diot "Pello Joxepe judua" artikulua interesgarrian. Berez, 2005ean jakin zen aitorten horren berri, Israelgo egunkari ezagun batean atera baitzen. Urrezko Jerusalem abestiaren letrak ez du euskarazkoarekin zerikusirik, soilik melodiak.

Pello Joxepe tabernan dala haurra jaio da Larraulen (Bis)

etxera joan da esan omen du: -Ez da neria izanen,

beraren amak topa dezala haur horrek aita zein duen.

Hau pena eta pesadunbria! Senarrak haurra ukatu (Bis)

Pello Joxepe bihotz neriahaur horrek aita zu zaitu
haur horrentzako beste jaberik ezin nezake topatu.
Zure semia besuan daukat senarra aldamenian (Bis)
orain denborik eztaukat eta zuazkit ordu onian
neronek abisatuko zaitut garaia datorrenian.
Fortunoso nintzela baina ni naiz fortuna gabia, (Bis)
abade batek eraman dizkit umea eta andria:
haurra berea bazuen ere andrea nuen neria.
Patzientzia hartu bihar da munduan Pello Josepe,
(Bis) andria ere zuria izanda haurra bestena diote;
gizonen faltan igarotzen da basoan zenbait larrarte.

Naomi Shemer-ek pena eta pesadunbrea zituen barrenean gordeak, urte askoan, eta azkenean aitortu egin nahi izan zuen. Paco Ibañezi entzuna ziola, esate baterako. Paco Ibañezek esana du ez dela plagioa, Pello Joxeperen abestian inspiratu zela Shemer, Urrezko Jerusalem sortzeko. Eta mundu mailan ezaguna den abestia egin zuela.

Naomi Shemer-i eskerrak emateko eta lasai egon dadin, beraren kanta-hitzak euskaratu ditugu.

Urrezko Jerusalem [YERUSHALAYIM SHEL ZAHAV]

Mendiko airea ardoa bezain garbia da

Eta pinuen usain gozoa

Dakar ilunabarreko haize leunak

Zintzarri soinuekin.

Eta zuhaitz eta harrien lo goxoan

Murgilduta haren ametsean

Bakarti jarria den hirian

Horma bat du erdian

Urrezko Jerusalem

Kobrezkoa, argizkoa

Begira, zure abesti guztien biolina naiz

Nola uharkak agortu diren Merkatu-plaza hutsik dago

Eta inor ez doa Tenpluaren Mendira Hiri Zaharrean.

Eta mendiko haitzuloetan Haizeak ari dira orroka

Eta inor ez da jaisten Itsaso Hilera Jeriko-ko bidetik.

Koroa:

Baina zuri abestera natorrela
Eta zu koroaz edertzera
Zure umerik gazteenetan txikiena naiz
Eta azken poetarena.
Ezpainak erretzen baititu zure izenak
baten musuak bezain
Ahazten bazaitut Jerusalem
Izanik guztia urre...
Koroa:
Itzuli gara uharketara
Merkatura eta merkatu-plazara
Ahari-adar batek deitzen du Tenpluaren Mendian
Hiri Zaharrear
Eta mendiko haitzuloetan
Milaka eguzkik diz-diz
Jaitsiko gara beste behin Itsaso Hileria Jeriko-ko bidetik.

Abesti hau ezaguna egin zen, besteak beste, Shuli Natan-ek bere ahots ederraz kantatu zuelako, eta ez naiz bakarria Lurdes Uriondoren antza hartzen diona kantatzeko eran. Honela erran dit batek: “Ez dakit elkarren berri izango zuten, ziur aski ez. Baina kantatzen ez du inork asmatu!”

Martinez Lezeak, Lumiere aldizkarian orain 20 urte inguru hau esan zuen elkarrizketa batean, La calle de la judería (Judu-kale) liburuak argitaratu zuenean:

—Gure juduak euskaldunak ziren, euskaraz hitz egiten zuten! Badira liburuak eta agiriak juduek euskaraz idatzitakoak. Pena handia da, zeren gure herria ez da izan kolore batekoa, gure herria bizia izan da oso. Gure herriak jaso, integratu eta bat egin du bere lurretara etorrita gelditu zirenekin. Franko asko etorri izan da (gehien bat okzitandarrak) arabiarren aurka borrokatzera. Iruñerrian bi auzo ziren: Nafarrerria (San Fermin), nafar komunitatearena, eta San Saturnino, frankoena. Lizarra, berriz, oso herri txikia zen, eta Nabarroako erregea zen Antso III.ak handitu egin zuen Lizarra frankoentzat, eta Estella izena jarri zioten. Zoaz orain haiengana nafarrak ez direla, frankoak direla esatera! —

[...]

—Gu oso zarratuak garenekoa gezur handia da. Nork esaten du zarratuak garela, nork? Integratu egiten ditugu, nola ez? Baina, baldintza bat jartzen diegu: gure bizimodua hartu behar dute. Jasoko ez bagenitu, desagertuta egongo ginatekeen. `Hemen bakarrik euskaldunak! Hemen bakarrik gu, gu eta gu!’ esan izan bagenu, desagertu egingo ginatekeen. Ez, ez. Guk beste jendea hartu egiten dugu, eta elkarrekin bizi gara. Eta pena handia da juduak gure artean hartu ez izana. Erlijio kontuengatik izan zen hori, garbi dago. Haiek ezin zuten kristauekin ezkondu, eta kristauek ere ezin besteekin. Kontu zatarra izan zen, benetan ere.

Luna sefardita (Ana Alcaide-ren diskoa) you tube, iruzkinak:

-Foi uma tragédia a expulsão dos sefarditas de Espanha e Portugal, mas ainda ficaram muitos por cá como cristãos novos.

-Luna sefardita en Samarkanda ? Wonderfull...Soy askenazi, pero parece que mi madre era de origen sefardita. Abrazos de Sud Africa !

Gai honi amaiera emateko, ipuin bat asmatu dut. Pello Joxepe kristau berria zen, etxean zituen arbasoen zazpi puntako gandelairua eta ahari-adarra. Haren emaztea, txit ederra, herriko abadeak gutiziatu zuen eta andreari buruan sartu zion Pello Joxepe ez zela kristau garbia, eta hori baliatu zuen andrea bere besoetara erakartzeko. Harreman horretatik jaio zen haurra. Eta hala bazan ezpazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Jerusalemeko plazan.

Aupa Pello Joxepe!

Toledotik joan aurretik, oroigarri bana hartzeko adostu ziren, eta zituzten dukatak kontatuta, oroigarrien dendara gerturatu ziren. Lau ezpata zeuden eskaintzan: Salomon Erregearena, Braveheart-ena, Printzearena eta Masonikoa. Santxak Braveheartena nahi zuen, baina damaskinatuak ere tira egiten zion. Dukatak kontatuta zeuden. Azkenean Braveheart-ena hartu zuen. Dultzineak eskumuturreko erloju damaskinatudun bat hartu zuen, oso erakargarria.

X. ATALBURUA

Toboso herrian egindako egonaldia. Non Dultzineak hartu baitzuen Dultzinea Tobosoko izena, Dultzinea Olyteco izena utzita.

Zide Amete Benenjelik ez du ematen atal honen berri, zergatia ez dakigula.

XI. ATALBURUA

Madrilera bidaia eta El Pradoko gertaera.

Andro Troppo:

—Esquiviasen bizi izaten jarri zenean, Zerbantesez, atzean utzi zuen, orduan inprimatu eta plaza publikora zabaldu zen pregoi bati esker dakigunaren arabera, Madril, non birao egiten zen epelkeriarik gabe, doluz eta arma-iskanbilaz betea hiria; izan ere, jendeak, tolestuak, arropa artean eramaten baitzituen armak. Jokoak gordea hondatzen zuen karta-joko, dado eta kartekin, eta jautregian bertan ere jokatzeko zen. Debekatuta zegoen armak ibaira eramatea, eta labaderoetara, eta emagalduek eta kale-ixkinatakoek, bertze emakume amorostuekin batera, gaizkileak (rufianak) edo ezkutariak ukaitea. Debekatua zeukaten amorostu horiek aurpegia estalita eramatea, eta ez zen arraroa, hiriko murrueen barnean, entzutea, arkabuz eta eskopeten etengabeko tiro hotsa, edo ezkutatuta arkulari eta baleztariak atzematea. Garia saltzean, nahasia eta pisu-faltan saltzen zen, ardoa urardotua edo bermuztututa, tabernariak eta bodegoietakoek uzten zuten joka zedin, zilargileek pisuan ebasten zuten, eta hiria ortulariz betetzen zen, abusuzko prezioak jartzen zioten beren salgaiari. Kalez-kaleko saltzaileak hiria ereiten zuten suplikazioekin (barkiloak), bunuelo, melkotx eta tostoiekin. Behartsu eta txiro kopurua amaigabea zen, eta baita elbarritu eta gaixo etxegabeena ere.

El Prado museoan dokumental bat filmatzen ari ziren egun hartan eta Dultzinea eta Santxari sartzen utzi zieten, antzezleak zirelakoan. Hauek, aurrera egin zuten eta abere gaineratik jaitsi gabe, esplikazioak irakurtzeari ekin zioten, Dultzineak ozen Santxarentzat:

El Prado Museoan badira Rubensek margotutako bortxazko eszenak, Hipodamia bahitzea esaterako, bere taileraren laguntzaz egina. Bere belaunaldiko emakumerik ederrenetako baten bahitzea erakusten du, Eurito zentauroak haren ezkontza egunean bahitua. Hipodamia erdibiluzik agertzen da, bularrak agerian eta arropak urratuta, ziurrenik bahitzaileari aurre egin nahian urratutako arropekin. Ovidiok honela deskribatzen du Metaformosiak lanean:

Zeren zuri, piztietan piztienari, Éurito, bihotzak bor-bor egiten zizun ardoagatik eta emazteak ikusteagatik, eta gailurrean zen mozkortasun bat, luxuria bikoizten zuena.

Hipodamia bahitzea (Rubens)

Dultzineak, margolanari begiratu eta berehala erabaki zuen Hipodamia salbatzea, bahitzaileen atzaparretatik. Rozinantari ezproiarekin eragin eta trostan margolanera zuzendu zen abiada bizian, eginahaletan. Hipodemiari heldzen dion gizona zioari eraso zion lantzarekin saihetsean eta guztiz hondatu zuen margolan-mihisea. Mihise atzeko horma ere zulo bat agerian zuela zegoen.

-Baina zer egin du, Dultzinea Andrea! Goi-mailako artelan bat da!!!!

-Zer arte-lan, eta arteondo. Hipodamia salbatzera noa ni, bai, ta bertze guztia bost axola. Ekin hik ere, erosi berria dudan ezpata zorrotz horrekin! Aurrera Demetria!

Segurtasunekoek berehala hartu zuten atxilo Dultzinea eta abereak hedeetatik helduta, lorategira atera zituzten. Santxa ere bazter batera eramane zuten, eta aulki batean jarriarazi, zerbait aitor zezan. Alarma guztiak dantzan eta ikusleak aztoratuta.

-Rubens bat da, eroa!- bota zioten museoko arduradunek.

Psikologoek aztertu zuten Dultzinea eta guztiz erotuta zegoela ondorioztatu zuten. Dultzineak etengabe:

-Oh, Hipodamia maitea, zure garaiko emakumerik ederrena, nork zaitu bahitu nahi? Hemen nago ni, Dultzinea bipila, zu salbatzeko, okerrak zuzentzeko eta zuri askatasuna bihurtzeko. Zoaz libre eta jantzi ederrenekin bezti zaitez!

Gela batean bakartu zuten arren, kanpotik entzuten zitzaion:

-Hara, jaun-andreok, zer erraten duen gure Simonak:

Jakina da zeinen garrantzizkoa den sexualitatea –beraz, gehienetan emakumea- portaera patologikoetan nahiz normaletan. Jakina, beste objektu batzuk ere feminizatzen dira; izan ere, emakumea neurri handi batean gizonaren asmazio bat denez, gizonak asma dezake gizon-gorputz baten bitartez ere: pederastian, eutsi egiten zaio sexuen bereizketari. Baina noski, izaki femeninoengan bilatu ohi da Emakumea gehienetan. Emakumearen bidez eta emakumeak duen onenaren eta txarrenaren bitartez ikasten du gizonak zer den zoriona, zer sufrimendua, bizioa, bertutea, gutizia, ukoa, sakrifizioa, tirania, eta haren bitartez ikasten du bere burua ezagutzen; emakumea josteta eta abentura da, baina baita proba ere; emakumea garaipenaren triunfoa da, baita gairikotik porrotarena ere, garratzagoa hori; emakumea galeraren zorabioa da, kondenaren lilura, heriotzaren lilura. Badago esanahiz osaturiko mundu oso bat, emakumea dela- eta bakarrik sortua; emakumea da gizonen ekintzen eta sentimenduen funtsa, haien askatasuna eskatzen duten balioen hezuramitza. Ulertzekoa da gizonak,...

Aste betez ospitale psikiatriko batean eduki ostean, zentzutu zen guztiz, eta oneraturik, egindakoak ordainduko zituela agindu zuen Dultzineak:

-Margolan hori ez ezik, emakumezko bat ageri den margolan oro museo honetan zaharberritzeko dirua emanen dizuet, eta hara, hemen dituzue lau dukat, hasteko. Munduz munduko gure ibilia egin osterako, eskuratuak izanen ditut hainbat ondasun, esker oneko emakumeek emanak noski, eta hona bideratuko ditut, zaudete ziur.

Behorra, Rozinanta, eta astemea, Ruzia, hedeetatik helduta oinez ekarri zituzten eta jabeei eskura emanik, erran zieten ospital psikiatrikoko arduradunek:

-Zabiltzate erne eta kontuz, fitxatuta zaudete, bai Bristolen, bai hemen, noranahi zoaztela, begi bat izanen duzue gainean.

Dultzineak orduan:

-Ordu onean goaz noski, orain, Valladolid aldera, eta hango emakume-taldeek agur egingen digute, gu ikusi orduko, hain da ta handia, gure goi-asmoa. Biba Demetria!

Eta ezproinari eraginez, abiarazi zuen Rozinanta behor esanekoa eta atzetik segi zion Santxak Ruzia asteme ezin leialagoak.

XII ATALBURUA

Valladolida heltzea. Azeri buztan-harroaren gertaera.

Andro Troppo-k “Zerbantesen bizitzak” liburu gogoangarrian dakar Valladolideko berri, gortea Madriletik hara aldatu zenekoa. Parentesi artekoak, Santxak egindako oharrak dira, lapitzez eginak.

Felipe II. aren heriotzak, bi urte lehenago gertatuak, 1598an, ohitura aldaketa ekarri zuen Espainiara.

Erraten dutenez, haren semeak, Felipe II.ak, aitarengandik jasoagatik izaera jainkozale eta obserbantea, utzi nahi izan zituen ordura arteko bizileku ilun eta austeroak. Erreei buruz mintzatzean, beti jo ohi da hiperbolera, intzentsura eta mirarra. Obserbante zela frogatu daiteke; baina, jainkozale izatea, egiaztatzen zailagoa gerta liteke, eta halere, era horretako espresioak errepikatzen dira liburuz liburu, historia liburuetan, egundoko erraztasunarekin, bertze kontu batzuetan historiagileek ez duten lañotasunarekin.

(Zer da zehazki obserbante?) (que observa o cumple lo mandado) (obserbanzian dagoena?) (agindupekoa?)

Errege berriak, hori bai, pietate eta obserbantzia guztia berekin harturik, erabaki zuen ez eramatea aitaren bizimodu tristea. Horretarako hasi zen ezkonduz, artean hogeitun urte bertzerik ez zituela, eta erabaki zuen, Lermako dukeak hala aholkaturik, gortea lekualdatzea, 1601 urtearen hasieran, Valladolidera. Horri aurka egin zioten noble eta elizgizon askok, zuhurtziagabetasun saihesgarria ikusten baitzuten, baina agidanez, Errege gazteak ihesi atera nahi zuen hildako erregearen irudi ilun eta argizari-itxurakoa gogorarazten zion guztitik.

(Zuhurtziagabetasun saihesgarria? Puff, puff)

Balidoa edo pribatuaren figura, politika espainiarrean tronuratzeak, Erdi Arotik baztertuta zenak, ondorio ezin txarragoak ekarri zituen. Askotan gertatu ohi denez, eta segiko da gertatzen, faboritoak hartu zituen inguruan aholkulariak eta kolaboratzaileak, beren irabazia bertzerik bilatu ez zutenak. Bi nabarmenen arteko batek, Pedro Franqueza izenez, aitortu zuen zigor-zaldian bere ebasgoa edo lapurreta, eta bertzeak, Rodrigo Calderón izenez, urkamendian bukatu zuen urte batzuen buruan. Lerma berari dagokionez, ikusi zuen bere fortunaren zenbatekoa, apal samarra bere gobernuaren hasieran, zeruraino goa zela urte gutxiren buruan, eta errentak berrehun mila dukat urtean bazirela.

(Franqueza abizena, ja ja ja...!) (ta bertzea Calderon, hortxe egon!)

Historia liburu guztiek ongi erretratatzeko dute garai hori, trazuak akuafortearenak baitira, izan. Zergapean zegoen herrialdea eta Sevillara heldutako aberastasun amerikarrak Espainia zehar zihoazen, bankari alemaniarrei ordaintzeko geratu gabe; haiei Koroak milioiak zor zizkien, eta herria, noraezean, galbideratzen zen, zorpetzen, emigratzen, engainatzen eta eskeko egiten bide- bazter guztietan. Gaixotasunek eta hilkortasunak herrietan hildako asko eragiten zituzten, elizgizonak eta mojak milaka ziren, eta arrakeroak eta ahoberoak hainbat. Espainiak beharko zituen gobernari honest batzuk eta abertzaleagoak ere bai pixka bat, baina ikusten denez, normalena lapurretak ziren, eroskeriak, sobornatzeak, alper-gastuak eta prozedura. Espainia herrialde prozesala zen, bertzerik ez bezalakoa, eta horrek bide ematen zuen bertze eroskeria, funtzionario sobornatze, eta abarretarako.

(arrakeroak, hiztegian dakar, tahures, ...)

[...]

Gortea lekualdatzearen lehen ondorioa baso komunikatzaileen teoria egiaztatzea izan zen: Madril hustu egin zen eta Valladolid, ordurako hirurogeita hamar mila biztanle inguru zituena, bete egin zen, nahiz eta hasieran trabak jarri hiri honetan, sar ez zedin golforik, bizio-damarik eta bizimodu halakoa zuen bertze jenderik.

(Bat hustu eta bertzea bete, normala!)

Jakina, horrek Zerbantestarrei ere eragin zien, zeren Miguelen arrebek, ilobak eta alaba Isabelek beren jostun-obradorea erreinuko hiriburu berrira aldatu baitzuten, Madril jende nabarmenez hustu zenean, tartean haien bezero-andreak, lanik gabe geratu baitziren.

Berandu gabe joan zitzairen atzetik Zerbantes, nahiz eta aurkitzen dugun oraino Toledon eta Esquivias-en. Catalinaren herrian baliteke berriro bere gain hartzea emaztearen kontuak, zeinaren ondasunak gora eginak baitziren, neskak oinordetzan hartu baitzituen anaiarik gazteenaren ondasunak, hau frantziskotarretan sartu zenean.

[...]

(oinordetzan hartu, ...)

Bertako plaza batean jarririk zegoen gizon prestu batekin egin zuten topo, eta honek, bazuela kontakizun bat idatzia erran zien eta etxea "hementxe bertan" zuela erranez, joan- etorri bizkor bat eginik, kopia bat ekarri zien.

-Zuentzat.

Azeri buztan harroa

Esamesa kontakizun honen bidez naturan animalia artean sortzen diren gatazkak nola kudeatzen dituzten erakusten da. Kasu honetan, ama batek bere alaba gaztetxoari sexu esnatzeari buruzkoaldaketen azalpenak ematen dizkio, ikaskide arteko harremanak eta bikotekidea aukeratzeko garaian, kontuan izan beharko lituzkeen egoeren azalpenak, begiak ireki ditzan. Eta Goi Herrietako basoetan ugari dagoen azeri maltzur eta gupidagabe baten portaera erabiltzen du gizakion harremanen adibide. Eta azeriren oroigarri gisa, Harragako Lehene baserria egondako orubean, Abeletxe baserri inguruan, azeri ugariko gunean, egurrean tailatutako azeri baten irudia dago ikusgai, istorio horren lekuko.

Bazunan inguru hauetan azeri prestu buztan harro bat familia osatzeko bikotekide bila zebilena. Baso zabal eta ilun hartan bizi zitunan animalia guztiak elkarren berri ondo zekitenan. Edozein bikote berri sortzean, edo zenbait familiatan jaioberriren bat izaten bazitenan, animalia guztiak parte hartzen zitena berri on hura zabaltzen. Hala ere, zenbait albiste ez zunan izaten animalia guztien gustuko. Animalia artean elikatzeko moduak, errespetua, jarrerak eta iruzurra izaten zitunan istilua gehien sortarazten zutenak. Batzuk belarjaleak zitunan; beste batzuk haragijaleak; eta beste hainbat omniboro edo orojale, bereziki intsektu eta belarra jaten zutenak. Beraz, naturak beharrezko oreka gorde zezan, elkarbizitza gatazkatsua izaten zitenan eguneroko zioa. Hala ere, kumeak hazteko eta hezteko axolagabekeriak izaten zitunan gehien arbuiatu eta zigortzea merezi zutenak.

Elezahar esanguratsu honetan azeri buztan-arroak zeresana ugari eman zinan baso honetako animalia guztiengan. Azeri emeen aurrean harro baino harroago azaltzen zinan bere dotorezia. Ez zinan nola-

halako bikotea aukeratu nahi. Bere kumeen ama, bera bezain dotorea, lerdena, langilea, eta kumeei animalien legea ondo irakatsiko ziena aukeratu nahi zinan; animalia artean familia-eredu izango zena. Hori horrela izanda, azeri kideen aurrean harrokeriaz jokutzen zinan. Azeri eme batzuegana ez zunan inguratu ere egiten, "niretzat gutxiegi haiz" esan nahi zitenan keinuak eginez aldentzeko ohitura zinan. Hala eta guztiz ere, azeri eme ezkongai gehienak txoratuta zeuzkanan, eta euren ondorengo umeentzat aita dotore, lerdan eta osasuntsua ikusten zitenan.

Arrakasta zuela jakinik, egun guztia bere dotore-keria erakusten igarotzen zinan. Bere ilajea atzeko hanketako azazkalekin orrazten eta harrotzen, bereziki isatsa, gizakiok artilea eta lastaira txarrantzatuz harrotzen dugun gisan. Bere kumeen ama izango zunan bikotekidea dotoretasun harekin itsututa ezkondu zunan.

"Nola txoratu daiteke horrelako senargai batekin, Ama!?", galdetu zion alabak.

Ezkonberritan oso zoriontsu zitunan; maitasunezko laztan eta fereka ugari jasotzen zitiztenan. Bi hilabeteko ernaldiaren ondoren, hiruko kumaldi ederra jaio zunan harkaitz-zulo batean. Animalia gehienak pasa zitunan bisitan: "A ze nolako kume ederrak daukazuen!" "Ondo hez eta haz ditzazuela opa dizuegu!" "Animalia artean eredu izan zaitezte!" eta horrelako zorion agurrak jaso zitiztenan. "Eskerrik asko, hala izan dadin nahiko genuke", erantzun zietenan zoriontzera etorri zitunan guztiei. Hala ere, familia bateko aitak esan zienak kezkatu zitinan gurasoak: "Kume horietako txikienak ez du zuen antzik; ilearen kolore grisa hori, nondik etorri ote zaio?"

Nahiz eta itxurak egin besteen aurrean, aitaren jarrera lotsagarriak eraginda, laster hasiko zitunan euren arteko ferekak liskar bihurtzen, eta desadostasunak sortzen. Amak kumeak edoskitzen zitunan bitartean, aitak hor nonbait igarotzen zitinan egunak. Baina ama argaltzen ari zunan, errepeko esnea urritzen, eta kumeak ahultzen ari zitzaizkienan.

Azeri buztan-arroak dotore-keria ikur zuela basoan zehar potrojorran igarotzen zitinan egunak. Auskalo nolako heziketa izan zinan, balorerik gabeko jarrera eta gupidarik gabeko portaera huraberegantzeko. Beharbada ez zunan gurasoen erru osoa izango, edertasunari etekin erraza eta oparoa ateratzeko ametsak ere, izango zitena eragina.

Haragia hornitu beharra zegoan amarengandik kumeek edoskitzen jarrai zezaten. Hiru azerikume haiek errepea geroz eta leunduagoa utzi ziotenan amari xurga eta xurga etengabe aritzen zirelako, baina ez zitena behar hainbat esne xurgatzen nonbait, eta ama errukitzen hasia zunan ume haien etorkizunaz, intziri errukarri haiek entzutean.

"Eta zergatik ez zuen senarra salatu animalien gida batzordean, ama?", alabaren itauna egoera larri hartaz jabeturik.

—Emakumeak txolin samarrak gaitun batzuetan. Aitaren kumeak ere bazirela eta, ausartu ez; aldatuko zelakoan, eta bestalde, familiarekiko lotsaizuna ezkutatu nahia edo...

Halaber, sexu egarriz buztan harroa amarengana hurbiltzen zenean, sututa bezala erantzuten zionan:

—Daukagun kumaldia aurrera ateratzeko erantzukizunik hartu nahi ez eta, beste kumaldi bat sortzeko kapaz izango zinateke zu, lotsagabe porrokatu hori. Joan zaitez lizunkeriatan ibili zaren horietara. Hemen ez duzu inoiz ere familiako epeltasunik aurkituko; alde hemendik!

Esanak esan, aita ez zunan arduratzen familiaren elikaduraz eta amak hartu behar izan zinan erantzukizun osoa. Umeak kobazuloan bakarrik utzi eta janari bila irten behar izaten zinan.

Egoera tamalgarria zeukanan kumeak aurrera ateratzeko. Ama saiatzen zunan umeek behar zitenan janaria ekartzen, baina geroz eta argalago eta ahulago ari zunan geratzen egun guztia janari bila ibiltzearen ondorioz, eta koba zuloa, ahituta, etortzen zenean umeek, besterik ezean, ez ziotenan bakean uzten errapeko esne lipar guztiak atera arte. Bizkar hezurra eta saihsak nabari zitinan. Aita, berriz, dotore-keria erakusten beste animalien aurrean, eta lizunkerian eta potrojorran igarotzen zinan denbora guztia.

Laster zabaldu zitunan basoan zehar berri mingarriak. Izan ere, azerikume bi gosez akabatu zirela jakitean, auzoko animalien arteko harremanak aldatzen hasi zitunan, aitaren jarrera axolagabea eta lotsagarria zela-eta. Azeri prestu buztan harroak ez zinan giro izan aurrerantzean, ez koba zuloan ez kanpoan. Edozein lekutan buztan harroa ikusten zutela ere, begirakuneak, irainak eta, ez hori bakarrik, harrika hasten zitzaizkien, inguru haietatik alde egin zezan.

Gauzak horrela, ezertarako indarge, hezur eta azal, geratu zitunan ama eta, ozta-ozta bizirik geratutako hirugarren kumea. Ama-kumeak ere akabatzeko arriskuan zeudela zabaldu zenean, inguru hartako animaliek, auzolanean ama-kumeak aurrera ateratzea lortu zitenan; aita, berriz, egoera hartan deseroso eta alderrai hasi zunan. Portaera oker hura zeharo aldatu behar izan zinan. Lizunkeriatan hain zalea izan bazen ere, orain ez zinan inoren onarpenik. Garai batean emeak zioten miresmen hura bukatu zitzaionan, eta kumeak akabatu zitzaizkiela zabaldu zenean, egurtua izango zenaren beldur igarotzen zitinan egunak.

Basoko animalien gida batzordeak biltzar batera deitu zitiztenan animalia guztiak, lekukoek ikusitakoa denei jakinarazteko eta bidezko erabakia hartzeko. Familia buru zunan animalia batek egin zezakenen hutsunerik handiena bere umeak gosez akabatzen uztea zunan. Horregatik, aho batez erabaki zitenan epaitua izango zela hurrengo egunean. Berehala zabaldu zunan basoan auzi horren berri. Basoko legeak ongien zekizkinan animalia izan zitenan auzi hartako gidari.

Lekutu zitunan animalia guztiak epaituaren bueltan eta eztabaida sakon baten ondoren merezi zinan zigorra aldarrikatu zitenan: Baso hartako arte-arbola bakarreko eremuan metro batekoluzeran enberrari kateatuta, bertaratzen ziren animalia txiki bakanak janez -satitsu, zizare, sugandila, inurri-bizi iraun beharko zuela. Eta hostoetatik erortzen ziren ur tantoekin busti beharko zuela mihia. Han igarotzen zitinan egunak etzanda. Inguru haietatik igarotzen zitunan kideak ez ziotenan ezer esaten, erdeinuzko begirakune mingarriak besterik ez zitunan jasotzen. Irainik ere ez. Merezitako amaiera-gabeko zorigaiztoko bizimolde malurra ezarri ziotenan.

Baina, egun batean ezusteko handia izan zinan. Ilunabarrean ahots ezta zetorkionan belarrietara. Ametsetan ari zelakoan, irribarrea atera zitzaionan, ezkonberri zeneko garaiak zetorkionan burura; ahots eztiak jarraitu egiten zinan, eta arreta berezia jarri zinan ahots gozo hura berarengana zuzendua zela ohartu zenean.

Arte-arbola bakar hartako adarretik garastarro eme baten mintzo-kantuz zuzendu zitzaionan. Hegazti hark urte guztian arbola hura zinan gaueroko babesleku. Izan ere, arbola mota horiek hosto iraunkorrak dituzten eta babesteko hobezinak. Arratsero hegazti errukior hura arte-arbola bakar hartara lekutzeraz etortzen zenean, ekartzen zionan jateko zerbait, eta animalien arteko iritzi kontrajarrien berri ere bai buztan harroarekiko. Batzuen ustez ez omen zunan egokia, erantsi ziotenan

zigorra, damutu eta birbasoratzeko ez omen zionan aukerarik ematen. Hobe ikusten zitenan kinka larrian zeuden animaliei edo familiei laguntzeko betebeharrak lanean jardunaraztea. Baina, zuhurtziaz debekatu egin zioten bikotekidea eta alaba bizi ziren inguruetara azaltzea.

Ezinbestean, bi ume zitiztenan guraso elbarri batzuei, zepoan erori eta hanka bana falta zitenan gurasoei, laguntzen jarri. Egunero, goiz jaikita joaten zunan basora familia elikatzeko behar zitenan janaria ekartzera. Gero kobazuloa atondu, eta kumeak behar zitenan garbiketarako egiten zitunan, besteak beste. Edozein guraso langile bezain ondo portatzen zunan, eta zintzo eta eredugarri betetzen ari zunan agindutakoa, bere kume bakarraren ama aitaordeko bat aukeratu zuela jakin zuen arte. Ezin zinan onartu egoera hura. Bizirik geratu zunan kume hura akabatu zinan amarenganako mendekuz, eta potrojorran ekin zionan berriro. Jarrera hura ikusita, animalien batzarrean epaitu ondoren, oraingo honetan erabaki gogorragoa hartu zitenan buztan harroarekiko. Zahartzaro arteko kaiola zigorra ezarri zioten birbasoratzeko aukerari uko egin ziolako.

Horren kausaz, garastarroa izaten zinan bisitari bakarra kaiolan. Hark eramaten zizkion basoko berriak, eta luma artean ezkutaturik zenbait jaki goxo. Eta, bueltan, buztan harroaren berri tamalgarriak ekartzen zitinan; gaixotzen, zahartzen, ilea erortzen, eta zeharo argaltzen ari zen kontuak. Gida Batzordekoek preso egoera tamalgarri hartan zegoela jakitean, presondegiko agintariei, libra zezaten eskatu zioten, geratzen zitzaion bizi-apurra kidekoen artean igaro zezan.

Baso aldera egin zinan. Ozta-ozta ezagutu zitenan bizilagunek. Zeharo zargaldua eta egoera tamalgarrian. Bizkarrezurra zorrotza eta ilaje mengela zeramatzan, eta sekula santan ikusi ez zitenan moduan aldendu zunan, garai batean nare izan zituen begiak lausotuak zituela eta zabuka, isatsa hanka artean sartu, eta buru makur kideek jaurtitzen zizkieten harriak eta iseka mingarriak jasan ezinik.

—Alde ezak bistatik, heure umeak bezala akabatuta eta saien bazka izan nahi ez baduk!-, zioten bide ertzetik edo arbola atzetik hainbat baso kideek. Presondegiko bizi-baldintzak eta kidekoen irainak eragindako oinazeak, etorkizunari begirada sakona egiteko ezinbesteko hausnarketan murgildu zunan. Garastarroa irten zitzaionan bidera animoak ematera, eta arbola adarretik bota zizkionan jaki batzuk dasta zitzaion eta indartu zedin. Eta behin betiko bakea nahi bazuen emazte ohiarekin hasi behar zuela, esan zionan hegaztiak.

Hala, bere emazte ohiari gutun bat bidali zionan, garastarroaren mokoan sartuta, barkamena eskatuz eta familian egindakoagatik eskertuz:

“Nik eskaini ez nizun maitasunagatik, zureganako mendekuz akabatu nuen kumeagatik, zure zoriontasuna oztopatzeagatik, nire axolagabekeriagatik akabatu ziren bi kume haiengatik, eta oro har, egin nizkizun barrabaskeriengatik, bihotz bihotzez nire damu osoa eta esker ona. Izan zaitezte zure zoriontsu urte askoan opa dizuet”.

—Eta, gutun hartzaileak senar ohiari erantzungo ziola esan al zion garastarroari? —galdetu zion alabak amari-.

-Ez zekinat nolakoak izan ziren barkatzen zuela zioten bihotzetik jaurtitako hitzak. Gizalegez jokatu gero zinkurinka ez, baizik eta errukitzeko eta barkatzeko gaitasuna dinagu-.

Bide beretik, garastarroak buztan harroari egoera latz hartan eskaini zionan laguntza guztiengatik eskerrak eman zizkionan:

—Hi izan haut lagun preziatuena behar izan dudanean. Hik erakutsi didan basoko araudia, orain ondo ikasita eta barruak lasaituta alde egiteko moduan nagon. Ez haut inoiz ahantziko. Gogoan izango ditinat hik irakatsitakoa! Ea ereduzko familia osatzen dunan! Zoriontsuak izan zaitezte! opa dizuet!

Ez zinan gutunaren erantzunaren beharrik..., zegoeneko jada bakean bizi zunan.

Gezurra badirudi ere, bai animalien arteko oreka, eta bai naturaren ingurumenarena ere, mantentzen ditene basoko biztanleek, eta elikatzeko batak bestea jan behar badu ere, ez ditene inoiz jateko behar dutena baino akabatzen. Beraz, animalia guztientzat sakratuak ditune edozein motatako kumeak. Horregatik animalia zaharrak eta elbarriak lehenesten ditiztene jateko, eta ezinbestean akabatzen kumeak. Katea etene ez dadine ahaleginak egiten ditiztene. Eta oreka horren ondorioz, naturak animalia guztiei eskaintzen ziene behar dutene janaria. Horregatik ditune munduan zehar daudene animalia guztiak hain beharrezkoak.

Laburbilduz, animalien legeak zorrotz zigortzen ditine alferkeria, leialtasun eza, lizunkeria, iruzurra eta norberarene kumeen elikadura eta zaintza falta. Naturan betidanik adostu dune animalien arteko harremanene lege orokorra, gizarterako ere baliagarria izango litzatekeena, baldin eta bizitza eta gizakione eskubideak errespetatuko bagenitu.

XII. ATALBURUA

Santxaren herri-mina.

Muino batean zehar zihoazen eta Dultzineak Santxaren intzeria eta hasperena aditu zuen eta berarengana bihurturik honela erran zion:

-Nagon, Santxa, ez dela gaurkoa, hiretzat egunik onena. Malkoa ere ez dun urrun. Esadan, minen bat al daukan?

Santxa isilik egon zen rato luze batean, eta ondoren, astoa behorraren pareraino ekarrita, Dultzineari begiratu eta haxe erantzun zion:

-Herri-mina, hitz batean esateko- familiaz, herriaz, asko ari naun akordatzen. Txoliñ bat naizela erranen didazu, baina, egiaz, neure erratza eta fregona ere faltan botatzen ditut.

Orduan, Dultzineak, Rozinanta gerarazirik, atsedean hartuko zutela bertan erran zion Dultzineari eta Perez Garañón-en liburutik pasarte batzuk irakurriko zituztela.

Haxe da Dultzineak Santxari irakurri zion pasartea, oso gogo-onez entzun zuena Santxak, erran dezagun bidenabar.

Oliteko negua: mahasti eta olibadietan barrena

INGURUNEA: LURRA, AIREA, URA

Nabarroa mendi, lehor eta ortuaren arteko batura da. Eta Olite, aniztasun lur horren topalekua. Zeru ona eta zoru ona.

Olitek, klima sanoa du, lehorra eta leuna; mahasti, ereintza eta olibadien artean dago, eta aitzia egiten dio ziertzoari, ezustean agertu ohi den gonbidatuari.

Zidakos ibaia, bertakoa, guztiz nafarra, txikia baina kunplitu, batzuetan menderaezina. Artzainak eta Mestako abeltzainak San Antonen. Dula, ahunztegia.

Olite, Nabarroako erdigune funtzionalean dago, lurralde honen bihotzean. Mugatzen du, iparraldean Tafallarekin; ekialdean, San Martin de Unxekin; hegoekialdean Caparrosorekin, eta mendebaldean, Marcilla eta Falcesekin.

Nabarroa, Espainiaren sintesi bat da: mendia, hezea eta basotsua, Erdiko Zona zereal, mahats eta olibaduna, eta Erribera, ortu, erregadio eta orografia bereziko basamortu ttipiduna -Bardeak-. Eta Olite, aniztasun horren guztiaren topalekua da.

Klima ona

Erdiko Nabarroa, non Olite dagoen, trantsizio gunetzat har daiteke, bizi baitira bertan otzandurik klima atlantikoa, piriniotarra eta mediterraneo. Klima atlantikoak du euri aunitz, negu leun eta uda ez oso beroa. Piriniotarrak, euri asko, negu luze hotz elurtsuak eta uda leunak. Mediterraneoak, euria eskas –udaberri eta udazken-negu-, jasa, negu leun samarrak, izotz gutxikoak eta uda lehorrak, oso beroak.

Klima sanoa, lehorra eta leuna da.

Nagusi da landaredi mediterraneo kontinentala.

Fauna aberatsa, ehiztarien atsegina. Garai batean basahuntzak, basurdeak, otsoak, azeriak,... Nekazaritzaren hirutasuna

Lur, ur eta klima hauekin, Nabarroan landu daitekeen lur sail handienetakoak dituen herria da Olite. Zereala, mahastia eta olibondoak dira hiru zutabeak, eta horri baratzea edo ortua gehitu behar zaio.

Historikoki, uste da erromatarrek ekarri zutela mahatsa; Teobaldo I eta Teobaldo II erregeek, Champagne Etxekoak, eta Carlos III Nobleak, Evreux-en haziak, Frantziatik mahats barietateberriak ekarri zituzten eta bodegak eraiki zituzten; Kontzejuak, mendeetan, taberna publikoak errentan ematen zituen, debekatu egiten zuen “ardoa kanpotik ekartzea” eta garapiteroa izendatzen zuen, nork gehiago eman hura, eta honek eskusiban saltzen zien mandazainei ardoa, eraman zezaten Mendi aldera, Bizkaiko Jaurerrira, Gipuzkoara edo Frantziara.

1892-1896 urteetan filoxerako birusak Nabarroako eta Oliteko mahasti guztiak hondatu zituen, eta horregatik mahasti “amerikarrak” ekarri behar izan ziren, bertako barietateetan txertatuta; eta horrela konpondu zen egoera. Victoriano Flamarique apaizak Bodega Cooperativa Olitense jarri zuen martxan 1911n, Espainiako lehenengoetako bat, eta haren atzetik sortu zen Cosecheros Reunidos, 1913an.

Mahats-biltzea mekanizatzen duten kosetxadorak erabiltzeak ekarri du mahastiak berrantolatzea, eta betiko kentzea neure haurtzaroko estampa haiek: mahats-biltzaileak sailean bere inautesteko igitaitxoarekin, mahats-karroak, bodega aurrean ilada...

Zereal eta jatekoen lurrek Oliteko sailen parte handi bat hartzen dute, 5200 Ha sekano Nabarroako Kanala egin aurretik. Mendia labakitzu sortu dira, jendearen beharrak eta Kontzejuaren diru-premiak eraginda.

Nekazari-bizitzaren aldaketa, eskuz lana egiten zutenena, zerealean ikusten da. Goldetik traktore klimatizatu informatizatura.

Olibondoa, Oliteko armarrarian dagoena, langitza tradizionala izan da, seguru asko erromatarren garaitik. Garai batean orain baino olibondo sail gehiago zeuden. Carlos III.ak olibondoak landatzea bultzatu zuen, 1399ko ordenantzarekin. Carlos V.ak 1520an, nafar bakoitza behartu zuen 10 olibondo-oin landatzera urtean, 10 urtean zehar.

Oraindik orain, azkar hazten diren olibondo barietateek animaturik, olibadi berriak jartzen ari dira. Urrun dago esaera hura, “olibondo bat landatzen duenak ez du hartatik janen”. Txiroentzat, beti zegoen olibak “buruxkatzeko” aukera, atzera utzitako galburuak eta mahats lukuak bezala.

Olite leku ona zen era guztietako animaliak larratzeko.

Oliteko abeltzainek, Mestán bilduak 1572tik, eta seguru asko lehenagotik, korliza eta larre zabalak zeuzkaten ganaduantzat. Kontzejuak bazeuzkan herri-lurrak, mugarriztatzen zituenak, herritarrek balia zitzaten.

Era berean, bazen Oliten ahuntz-taldea, eta hara uzten zituen bereak herritar bakoitzak, gutxienez pare bat familiako. Ez dezagun ahuntz ahuntza zela pobrearen behia, eta astoa pobrearen mandoa. 1605ean Kontzejuaren erabakiz ahuntz kopurua mugatu zuten: sei ahuntz familiako.

Beste erakunde historiko bat Oliten dula zen, honek zaintzen eta larratzen zuen herritarren ganadu nagusi guztia El Prado de El Fenero-n. Kontzejuak dulari bat izendatzen zuen, eta 1604an taia bat

ordaindu zitzaion buruko eta hilabeteko. Ondoren, 1776an, dulan 270 animalia zeuden: 64 behor, 10 zaldiko, 4 moxal, 1 zaldi aita, 5 zaldi hezi, 132 mandeme, 50 mandar eta 4 morroi haiek zaintzeko.

Zidakos, ibai errebelde bat

Diotenez Zidakos hitzak arabieraz (cid-acos) "igel putzu" erran nahi du, baina ez dakit ba sinistu ala ez, garai hartan igel-hanka goxoak guri eman zizkigun arren. Zidakos ibaiari ertaraoko testuetan Çedaquos, Çidacos edo Zidakos (ç hori z bihurtzen da) deitzen zioten; geografo askok Zidakos deitzen diote, errioxar Zidakos-etik bereizteko. Karraskal inguruan jaiotzen da, biltzen dituelarik Zemborain eta Leoz-eko erreka-stoen urak, Izko mendizerrakoak, eta Albusia-rena, Alaizko Mendizerrakoa, Untzueko Haitza duela.

Bere ibilbide laburrean, igarotzen ditu Barasoain, Garinoain, Puiu eta Tafalla herriak. Olitera heltzean, harresiak higitzeko lotsati edo, "balezta bihurtzea" egiten du Ekialderantz, Beire, Pitillas eta Murillo el Cuendeko bidean, eta isurtzen ditu urak Aragoi ibaian, eskuin aldetik, Traibuenas inguruan. Airetik begiratuta, haren ubide estua zeharka-meharka ezkututzen da ibar-baso eta erriberako makalen artean. Bertako erreka da, gurea guztiz, Nabarroan jaio eta hiltzen dena.

Zidakos-ek, urri baina konplitu, ase ditu ahal bezala edateko eta ureztatzekeo premiak, eta baita errotadun industriaren batenak ere.

Beraren urak, Ertarotik, auzigai izan dira herrien artean. Maiz Tafallarekin, presen giltzak baitzeuzkan, eta batzuetan San Martin de Unx-ekin eta Caparrosorekin.

Ur emari txikiko Zidakos horrek, baina, batzuetan, izotzak urtzean eta erauntsietan, gainez egiten du eta uholde historikoak sortzen ditu, gehienetan La Serna ingurutik, burdinbideko Burdinezko Zubiaren ondotik.

Oliteko mapa hidrografikoa osatzeko, Zidakosez gain, hor dira iturri asko eta putzu ugari, euri- idoiak eta noizean behingo azekiak. Nabarroako Kanalaren azpiegiturak, Oliteko 4.020 hektarea ureztatzen baititu, asetzen du ongi, lur hauen egarri betidanikoa.

Iturrietan ezagunena, urtsua eta osasungarria baita, 1818an gomendatua Joaquin de Miguel medikuak, El Chorrón iturria da, Gaixoena ere deitua garai batean, eta hartaz dio herriak: "Quien bebe agua del Chorrón deja en Olite su corazón" (Txorronen ura edaten duenak, Oliten uzten du bihotza) eta berriro etorriko da bisitan.

Hau da bidaiarako dirua ateratzeko, Dultzineak berri-orri bezala saltzeko atera zuen liburuxka. Itsas-lorea ez da lorea.

Itsaslorea ez da lorea

eta beste ezusteko batzuk

(Zaldiarrainaren istorio harrigarriak)

ZALDIARRAINA eta MENDIKO ZALDIA

Zaldiarraina uretatik mintzo zitzaion lehorreko zaldiari. Honek itsaspeko bizimoduaz jakin-min handia zeukan eta bazekien igerian, baina urpean ibili ezin zuenez, erne zegoen zaldiarrainak kontaktzen zion guztiari. Oso ttipia zen zaldiarraina, zaldiaren aldean, baina hiztuna arrunt, eta uretako gertaerak adierazten iaioa.

Biak ziren zaldi, baina bai desberdinak biak. Zaldiarrainaren isatsak itsasbelar bati heltzen zion, olatutxo bat zetorren bakoitzean. Zaldiaren isatsak, berriz, airoso uxatzen zituen inguruko eltxoak.

Zaldiarrainak, ur-lehorreko izanik, hots, ur-lurtar, arnasa uretan nahiz lehorrean hartzen zuen eta urtarra bazen ere nagusiki, gehiago zekien lehorraz, zaldiak itsaspeaz baino.

1. Erne adiskide: ITSASLOREA EZ DA LOREA

- Itsaspea ezustez betea zagok- bota zuen zaldiarrainak.
- Esan bat eta sinetsiko diat- zaldiak erantzun.
- Ikusten al duk horko harriari itsatsita dagoen itsaslore hori?
- Bai noski. Ez nagok itsua!
- Bada, loretik gutxi zeukak horrek!
- Izenak berak zioke eta, nola ez duk bada izango?

Zaldiarraina eta zaldia honetan zeudela izkira bat gerturatu zen itsaslorearen ingurura.

- Begira ezak ondo, zaldi, zer gertuko den!

Itsasloreak bere adarñoekin izkira inguratu zuen agurtuz bezala eta unetxo baten buruan izkiraren izpirik ez zen ageri han.

-Galdu duk sekulako, zaldi, izkira gaixoa!

-Nola? Zer?

-Itsaslorea ez duk lorea, animalia baizik.

-Ezin diat sinetsi, lagun, esaten ari haizena.

-Egon hadi horretan. Animalia ez balitz ez likek izango daukan ahoa, ez horixe! Belar- muturrak diruditen horiek ere, kasu, garroak dituk, ehunka garro zeuzkak eta horiekin atzematen ditik inguruko izkira ta arrain txikiak.

-Ez nian asko uste!

-Gainera, gezi pozoitsuak jaurtitzen zituk, oso gezi txiki ta pozoitsuak. Egundoko min- hazkura eragiten ditek azalean. Zuen asunak baino gaiztoagoak dituk.

-Ez dituk ba gozoak asunak.

- Hasieran, ongi-etorri dantza egiten dik bere garroekin; gero besarkatzea bezala, lagunkoi; eta azkenik, goxo-goxo hagoenean, zaust! Irentsi egiten hau. Heriotza txepelagorik! Hobe duk askoz marrazoaren hortz-artean ibili, lagun, hark ez dik enganiorik.

2. Nik zuri eta zuk niri: HAMARRATZ ERMITARIA ETA ITSASLOREA, BARRASKILO MASKORREAN MAIZTER

-Barraskiloa oskol berritu zenean, zaharra bertan laga zian eta orduan hamarratz ermitariak, berehala hartu zian oskola. Bizkor ibili huen! Orain hortxe bizi duk, estalpe horretan- esan zuen zaldiarraime iritsi berriak; eta ondoren galdetu zion zaldiari: -Zein uste duk bizi dela maskor horri itsatsita?

Zaldia isilik geratu zen.

-Itsaslorea! Ez duk hain erraz joango hortik!

-Zergatik hori?

-Alde batetik bestera mugitzea lortzen dik, karramarroari esker eta beste jaki batzuk ahoratzea. Ordainetan karramarroa babesten dik itsasloreak.

-Ondo konpontzen ditun hortaz.

-Biei zetorkiek ongi. Hala ez balitz, ez liketek egiten dutena egingo.

-Zer egiten dituen bada?

-Karramarroa aldi behin maskor berri handiago batera aldatzen duk eta itsaslorea ere harekin joaten duk. Ez zaiek hain gaizki joango! Azken batean, elkartu eta berezitu, maskorrak egiten zituk.

-Bai kontu bitxiak, itsaspe horretan!

-Oraindik onenak entzuteko hago.

-Galdera bat zaukanat. Nola ezagutu zitenan elkar itsasloreak eta hamarratzak?

-Kar, kar- egin zuen barre zaldiarraime- jakingo bahu! Behin hamarratza Olagarroagandik ihesi zebilean, estu eta larri, bizia galtzear. Itsasloreaki babesa eskatu zioan, erregutuz: —Arren, itsaslore, har nazazu. Itsasloreak baldintza bat jarri zioan eta hamarratzak onartu ezinbestean. Olagarroa inguratu zenean, itsaslorea gezi jaurtiketean hasi zuan. Ikaratu egin huen olagarroa eta bakean utzi zitian hamarratza eta itsaslorea.

-A zer nolako istorioa!

-Hamaika istorio honelako bazagok egunero!

Zaldiarraimeak “aio” esan eta aurrera egin zuen.

-Bada, orain, niri txikitan gertatutakoa kontatuko diat -esan zion zaldiarriainak zaldiari.

3. Zaldiarriaren aitorea: OFIURA IKUSI ETA BELDURTU EGIN NINTZEN

—Gaztetxoa nintzela, artean ikasi gabea eta itsaso guti korritua, pixka bat aldendu ninduan bizilekutik, inori ezer esan gabe. Itsasoa ezagutu nahi nian eta itsasokoak. Guztien artetik, bat: itsas-izar gorria. Ez zekiat zergatik, baina erakarri egiten nindian asko. Gauza gorrien bila zebiltzaan ene begiak, irten nintzenetik. Hala, egun batzuen buruan, ilunabarrean, izaki beltz bat agertu zitzaidan, haitz mutur baten ostean. Izar beltz bat huen. Bost beso zitian eta besoetan arantzak, ikara ematen zian. Ez nian balorerik ukan han geratzeko. Laster batean egin nian itzulbidea, atzera begiratzeko adorerik gabe. Bizitokira heldu nintzenean, estuasuna igarri zidatean berehala. Izar beltzaren kontua aipatu nienean, denek barre egin zidatean. Itsas-kabrak hartu zian beta niri zerbait argitzeko: —Izar beltza ofiura duk. Ez duk itsas-izarra bezalakoa, itxuraz bai akaso, biek bost beso luze zeuzkatek-eta, baina izatez, oso ezberdina duk. Ofiura ahula duk, hauskorra. Besoetan dauzkan arantzekin harrapatzen ditik kiziak eta hondoko muskuilu txikiak. Ez larritu! Ez dik ezer txarrik egingo, suge-buztan diruditen besoak ukan arren—.

Hala, askoz lasaiago geratu ninduan. Itsas-kabrak aholku bat eman zidaan bukatzeko: —Hauskorra dela eta, ez ezak sekula ofiura gutxietsi: beso bat hari kentzea ez duk zaila, baina kontuz, aise berritzen duk eta.

-Ai, gure sugandilak!

-Ezagutzen al duk izurdea eta itsas-belarriaren istorioa?

-Nola ezagutuko diat ba, txilar artean joaten zidak-eta eguna.

4. Dabilena eta dagoena: ITSAS ZABALEAN IGERI EDO HONDOAN GELDI

-Kontuz ibil hadi- esan zion Itsas-belarriak izurdeari- jakin ezak zeinekin topo egingo duan bidean.

-Bai, arretaz ibiliko naunk. Hik zer egingo dunk bitartean? Ez al haiz aspertuko hondo horretan geldi?

-Nahiago diat askoz itsas zabalean igeri baino, hondoan geldi egon. Ez haiz makala, dagoen arriskuarekin, itsaso guztiak korritzera bahoia. Nigatik ez hadi kezkatu. Egunez apenas mugituko nauk eta ilunarekin, belzten duenean, zertxo bat higituko nauk orain nagoen haitzarte ospel honetan. Hi hatorrenean, hementxe aurkituko naik.

-Bada, ni, ederraren bila noank.

-Bete hire eginkizuna!

Urak eta urak pasatu ziren. Ilargiak eta ilargiak. Izurdea, akiturik, itzuli zen. Hantxe zegoen itsas-belarria, utzi zuen lekuan. Gerturatu eta dei egin zion. Inork ez zuen erantzun. Astiro gerturatu eta oskolari buelta eman zionean, zilarrezko distira bat baino ez zuen aurkitu. Hura zen bila eta bila ibilitako ederraren distira!

* oharra: “naunk” (naun eta nauk batu ditugu itsas-belarria ar-emea edo hermafrodita delako). Arrazoi beragatik “dunk” eta “nijoank” aditzak.

5. Horrelakoa da bizitza: ITSAS-IZARRAK ITSAS-TRIKUA JAN ZUENEKOA

Berbetan zeudela itsas-triku bat ikusi zuten etortzen.

Agurtu eta “Zer bizi modu?” galdetzearekin trikua hizketan hasi zen:

Nik lagun bat neukan oso laguna. Lagun hori Triku zen, baina egun batean, itsas izarrak jan zuen. Eta ni, asko atsekabetu nintzen, Triku nire lagunik onena baitzen. Negar egin nuen asko, baina hemen urpean, ura urari, eta dena alperrik izan zen. Itsas izarra gorrotatzen hasi nintzen, higuina zerien nire begiei hura ikustean.

Irentsitako itsas trikuari esker, itsas izarrak seigarren besoa atera zuen eta are gehiago harrapatzen zuen. Ezin nuen nire laguna burutik kendu. Ezin nuen ahaztu itsas-izarrak nola irentsi zuen. Poliki eta emeki-emeki hurrendu zitzaion Trikuri eta bere beso artean harrapatu zuen; ondoren liseri aparatua, poltsa handi bat, kanporatuz Triku bil-bil egin zuen. Urdaileko “zukuak” isuri zituenean Trikuren giharrak zeharo indargabetu ziren eta hantxe galdu zen betiko.

Akabo Triku eta biok gauz egiten genituen irteerak!!

“Jaiotzen denak hiltzea zor” entzuten dut inguruan, baina niretzat hori esateak ez du ezertarako balio.

6. Denborari buruz: BELAKI ZAHARRAREN HITZALDIA

Oso antzinakoa da gure leinua, seiehun milioi urtekoa hor nonbait. Eta denbora guzti honetan ez gara ezertxo ere aldatu. Itsas zolan bizi gara, ilunpean. Itsaspekoek jaramon gutxi egiten digute, batere ez, esango nuke, baina bestetik, horrek badauka bere alde ona, bakean bizi gara, oso bakean. Gure erara, nahi badugu alde honetara eta nahi badugu beste aldera.

Itsaspean baino lehorrean estimu hobea egin digute beti. Hala dira gauzak. Baina ez goapoagoak garelako edo sinpatikoagoak. Ez horixe! Zerbitzari esanekoak izan garelako, horrexegatik! Zenbat lur-zoru eta tresna ez ote dugu garbitu, ene! Bainugela guztietan gaude, umeen kakak garbitzeko. Hauxe izan da beti gure eginkizuna: astuna eta iluna.

Gu zati txiki egin, eta ez tigan bustita, ahora eman eta hamaika umek utzi dio negar egiteari. Makina bat gurasok egin du lo guri eskerrak. Hala ere, jakintsu askok, hara nola diren gauzak, landareztat hartu izan gaitu denbora askoan. Nabari da gure sentimenduak ez dituztela batere ezagutzen. Une batez adituko balute sikiera! Zer esango dugu bada? Gure leinuak ez du presarik, jaioko dira jakitunagoak, zor zaiguna emango digutenak.

Oskol-berritzearen garrantziaz: ABAKANDOIA BOSTEN BAT HAZTEN DA OSKOL ZAHARRA UZTEN DUEN BAKOITZEAN

Belaki zaharrak esandako hitz haiek oso barrura sartu zitzaizkien zaldiari eta zaldiarrainari eta aldi batez pentsakor egon ziren biak, inguruari begira, isilik, hizketarako presarik gabe.

-Abakandoak asko maite dik bere eskola. Hori dik bere babesa eta hala ere, aldia amaitzean, utzi egiten dik oskol zaharra- ekarri zuen hizpidera zaldiarrainak.

-Zergatik egiten ote dik hori? Edonork maite dik bere estalpea- zaldiak erantzun. -Bai, baina hazteko beharrezkoa duk mudantza.

-Hori artista abakandoa! Atzean oskol-zaharrak utziz.

-Oskol-zahar horiek dituk haren arte lanak.

7. Biak elkarrekin: HARKAITZARI LAPATUTA BIZI ZEN LAPA

Bazen behin harkaitzari lapatuta bizi zen lapa bat. Oso estu heltzen zion harriari, ihes egitera balihoakio bezala, eta ez zuen askatuko, inola ere. Arroketan erantsita zeuden itsas-belarrak edo algak janez bizi zen.

Gehienen ustea zen, lapak ez zuela haitza sekulan uzten eta bizi guzian geldi egoten zela toki berean. Baina, egiten zituen bere osteratxoak, bai, itsasoak gora egiten zuen bakoitzean, bazkatzera joateko. Berrito itzultzen zen beti.

Urak beheratzen zirenean, itsas-apal zenean, ura maskor barruan gordez irauten zuen lapak, hertsiki loturik arrokari. Horrela irauten zuen, harik eta uraren zipriztinak bizkarraldean berrito sentitu arte.

Uda beteko beroaren garaia pasatuxe, ur-biziak heldu ziren. Urak inoiz baino urrunago alde egiten zuten beherakoan, eta luzetsita egon ohi zen lapa. Batzuetan pentsatzen zuen: —beharbada ez duk itzuliko ura eta hementxe itoko nauk. Eta etsipena gain hartzera zihoanean, zipriztinak sentitzen zituen bizkarraldean, adieraziz: “Hemen nagok berrito, konfiantza bakoa!”

8. Zer den iragana edo historia: ARRAIN FOSILAREN TESTIGANTZA

Zaldiarraik “zerbait” erakutsi nahi zion zaldiari. Isatsa belarretik askatuz, ertzetik aurrera abiatu zen. Zaldiak lehorretik segitzen zion zaldiarrainari, begirik kendu gabe.

-Hara hemen! Zer duk ikusten duana? – galdetu zion zaldiarraik.

-Arrain bat duk noski, baina zerbait arraroa sumatzen zioat- zaldiak.

-Ez duk harritzekoa zerbait arraroa sumatzea! Arrain harribihurtua duk-eta.

-Arrain harribihurtua!

-Jakin ezak zenbat denbora pasatu den bizi izan zen garaitik hona. Nire kumeek galdetzen didatenean noizkoa den esaten zieat “oso oso aspaldikoa” dela eta haiek honela kokatzen ditek: —atzo, atzo, atzokoa.

-Gure moxalak ere antzera ibiltzen dituk, haitzuloko arbasoak ikustera joaten garen bakoitzean.

-Harribihurtuekin zerbait ikas eta erakuts litekek iraganaz. Arrain mota hau, ez duk egundo itsasoan bizi, antzekoak bai, baina arrain mota hau galdu zuan betiko; eskerrak harribihurtuari.

-Zenbat ez ote dituk galdu, batere arrastorik, harribihurturik utzi gabe!

-Gehienak, adiskide.

-Eta zer gertatu ote duk inolako aztarnarik gabe sekulako ezkutatu diren horiekin?

-Bada, naturaren baitara itzuli direla, gure artean dabiltzala.

9. Zerbait jazo da: EGUNEZ ETA DENA BELTZ

Zaldia asko ikasten ari zen zaldiarrairekin eta desiratzen zegoen goi larretara joan eta bere behorrari, entzundako kontu bitxiak kontatzeko. Sinistuko al zizkion denak?

Gogoeta hau egiten ari zela, izua ikusi zion zaldiarrainari begietan. Itsaspea iluntzen hasi zen. Itsaso guztietako olagarro eta txibiek elkar hartu eta eraso prestatu ote zuten?

Hala zirudien, baina hura ezinezkoa zen.

Hizketarako gogo guztia kolpetik joan zitzaion zaldiarrainari.

Beltza are beltzago zetorren, bertarago.

Zaldiarrainak ez zekien zer egin. Ingurura begiratzen zuen eta izaki izutuak baino ez zituen ikusten.

Beltza bertarago eta bertarago.

Zaldiarraina hondoko itsas-belarren artean ezkutatu zen.

Begi bistatik galdu zuen zaldia bere laguna.

Ura beltz zetorren, ura gau bihurtuta legez.

Kaio batzuk igaro ziren, hegoak zikinduta.

Bat-batean, uretan, ur korronte garbi-garbi bat sartu zen eta zaldia zaldiarraina ikusi ahal izan zuen, une batez.

Zaldia irrintziaz agurtu zuen zaldiarraina, esan guran:

-Prest iges egiteko?

Zaldia bistatik galdu zuen zaldiarraina.

Ondo saldu zen eta sos batzuk atera zituzten biderako. Dultzineak idatzi eta Santxak saldu.

XIV. ATALBURUA

Napolira heltzea eta hango bizimodura igaro behar izatea.

-Alexa, zer dakigu Napolin emakumeak duen egoeraz?- galdetu zuen Dultzineak.

ALEXA:

De Luara klanaren barne gatazkak Napole odoltzen segitzen du. Atzo bertze hilketa bat izan zen, hogeita bi urteko neska batena, harreman sentimentalak zituen De Luara-ko disidente batekin. Gamorran bortxaz ehun eta hamabortz hildako izan dira urte hasieratik, eta Campanyako presidente erregionalak, Ando Assolino-k, onartzen du zenbait auzo napolitarretan Estatuak ez duela aginpiderik. Hegoaldeko bertze erregio batean, Basilicatan, poliziak berrogeita hamaika pertsona atxilotu zituen, horien artean Forzze Italiako diputatu bat, alkate bat, eta Zigor Auzitegiko presidentea, ustez Mafiarekin lankidetzan aritzeagatik. Napolen droga trafikoa kontrolatzeko guduaren azken biktima Belsomina Serde deitzen zen, hogeita bi urtekoa. Ez zuen aurrekari penalik. Camorrarekin zuen harreman bakarra sentimentera zen, izan ere senargaia...

-Belsomina Serde, gogoan zaitugu!!!! Hogeita bi urterekin erahila!- sutan Dultzineak.

-Ai, gaixoa!- Santxak.

-Goazeman hirigunera eta bila dezagun hiltzailea, eta kotsola dezagun hildakoaren sendia!- Dultzineak.

Dultzinea.com webgunera irakurle batek bidalitako testua.

Antaño idazleak bere lan batean, Pedro eta Ixabelen arteko harremanaz kapitulu hau dakar. Pedro edo Maxkarra.

Leen esan degunez, garai bateko gure lagun maitea izan zan au. Zortzi urtera arte gu bezelako bat, jostarienetakoa. Gero zearo aldatu zitzaigun. Maiz itzegiten degu ontaz, baiña ez degu garbi nolakoa zan agertu.

Esan bezela, zortzi urtera arte mutil alaia zan, jostaria, eta kaniketan onena. Ixabel-ta ibiltzen ziran elkar ezin menderaturik.

Gu asi giñan gora ta gora luzatzen, neska zer esanik ez, eta Maxkarra, berriz, enantxo bat bezela geratu zitzaigun, gero zerbait azi bazan ere. Soldaduskarakoan doi-doi arrapatu zuen tailla.

Atzeratuta utzi genduen eta benetako ezin ikusia artzen asi zitzaigun, bere ustez guk iseka egiten geniolako. Baina maite genduen. Aundi-txikian al dago gizon baten izaera? Baiña ala artu zuen. Sailleko parregarria zala ta errukiz artzen genduela gurekin.

Zortzi urtetan gure berdintsua zan. Amabietan etzan gure leporaiño iristen. Orduantxe erremindu zan gure Maxkarra. Ixabel zuen oso maitea. Ez neska zalako. Orduan guk orren berririk ez genekien. Denetan goxoena ura irudituko zitzaion eta arengana biltzen zan. Gu zakarregiak izango giñan.

Hamasei urteetan, bada, kaxkar eta maxkarra zan. Gaiñerakoan, etzuen gorputz aldrebesa. Arpegiz ere ez itxusia. Baiña maxkartu egin zan eta bere gurasoak ere azkenerako "gure maxkarra" deitzen zioten.

Ixabel zuen bere lagunik maiteenetako bat; eta, bere modukoa geratu bazan, etzan ainbesteraíño erreminduko. Baiña amabi urteetarako neskak azi-burua artua zeukan. Alare, gu bi mutillak utzita, arengana urbiltzen zan. Baiña bein eskua buru gaiñean jarri neskak eta iseka gaizto au egin zion:

-Etziñake, Pedro, nire bastoitarako aldrebesa.

Maxkarrari, beiñipein, benetako iseka iruditu zitzaion. Ala da, gaiñera, baiña batere malizi gabe esana, noski.

Ori entzutean, sumindu zan gure Pedro, eta pozik joko zukeena, gure beldurrak atzera egin zuen.

Bein Kasimirok eta nik sailletik aldegin genduenean, biak geratu ziran elkarrekin. Neskak, noski, errukia zion. Ordurako Kasimiroekin asia baitzan.

-Aizazu, Pedro: zu ta ni ez gera ondo etortzen. Bakoitzak bere modukoa artu bear du. Zu, berriz, nire leporaiño etzera iristen. Nik beste bat daukat neretzat aukeratua, eta obe dezu zuri ondo datorkizun bat billatu. Erri ontan ez dago emakume paltarik.

-Bazekiñat, bai, norekin abillen.

Eta masailleko bat ematen asi zan, leen esan degunez. Besteak, ordea, ez zion utzi, eta asarretu samarra ala esan zion neskak:

-Zuk nire arpegia arrapatu? Ez-ta anka-puntetan jarrita ere.

Orduan Maxkarrak labana eduki balu, bertan sartuko zion ondoraiño. Baiña amorratua ala erantzun zion:

-Oraindik nik kenduko dizkiñat ire arrokeriak. Eta betiko berexi zan neskarengandik ere.

Iruditzen zaigu, nobela honek, balio dezakeela, emakume-gizonezko harremanen zer-nolakoaz hausnartzeko, eta nahi bada, eztabaidatzeko. Baita gizakiaren berezko ontasun edo gaitza aztertzeke ere.

XV. ATALBURUA

Lepantorako itsas-bidaia, inork uste ez bezalakoa.

—Aurten izango dira ogei ta bi urte aitaren etxetik atera nintzala, eta, kartaren batzuk bidali dizkiot baiña ez dut bere berririk bat ere izan, ezta anaienik ere orrenbeste urteren buruan; eta itz gutxitan esango dut nire urteotako ibillia. Alikante'n sartu nintzan ontzira, eta oso bidaje atsegina egin nuan Jenoba'raiñokoa; andik Milan'era joan nintzan; an ornitu nituan gudariari dagozkion armak, eta apaingarri batzuk ere bai, eta, Piamonte'ra joan nai nuan, ango gualostean gudari-izena ematera; eta Pallako Alejandria'runtz bidean ni joala, Alba'ko Duke Aundia Flandes-aldera zijoala entzun nuan berria. Nire leengo asmoak utzi-ta, arekin joan nintzan eta an ibilli nintzan aren mendean gudari; an nintzan, aako Egemon'go eta ornos'ko kondeen eriotza artan; eta Urbina'tar Diego zeritzan Guadalajara'ko kapitan famatu baten alferez izateraño eldu-ere eldu nintzan; eta, Flandes'era etorri-ta denbora puska baten buruan, berriak zabaldu ziran, alegia, V Pio Aita Santu gogoangarriak, guda-elkarte bat egin zuala Benezia'rekin eta Espaiña'kin batera, , danok bat danen etsai zanaren aurka ekiteko, Turko'aren aurka alegia; egun aietantxe menderatu zuan onek Txipre-ugartea, ordurarte Benezia'tarren menpeko zana; galera penagarria benetan.

Jakin ere jakin zan, guda-elkarte onen buruzai, Austria'ko Don Juan txit garbia zetorrela, gure Don Felipe errege zintzoaren ixilleko-anaia bera.

Aoz-ao zebiltzan burrukaizun artarako preparaketak; eta barren guzia irakiten jarri zitzaidan, ekintza uraxe ikusteko gogo bizitan; eta nereko susmoak ezik, itza ere emana zidaten alde-alde, aurreneko egokieran kapitan-graduraiño jasoko nindutela, baiña naiago izan nuan, dana utzi-ta Italia'ra etorri; eta alaxen etorri nintzan, etorri; eta nire on-bearrez, jenoba'ra etorri berria zan Don Juan Austria'ko; napoles-aldera zijoan, Benezia'tarren armadarekin topo egitera; Mezina'n egin zuan gero. Azkenik bada, an izan nintzan zorioneko ekintza artan, eta kapitain egiñik ain xuxen, ez noski oorezko gradu ori merezi nualako, nire on-beharrak opa izan zidalako baizik; eta egun artan, zorioneko eguna bai Kristau-Erriarentzat, orduantxe ikusi baitzuten munduko jende-nazio guziek, oso oker zeudela turkoak itsasoz bentzutu-eziñak ziralñako ortan, egun artan, diot, otomanoen aundi-uste arroa xeeturik gelditu zan artan, hamaika doatsu izan zan (doai ohea jaso bait- zuten an ildako kristauek, bizirik eta garaille gelditutakoek baiño), ni bakarrik gelditu nintzan danen artetik doakabe; ara, itsas-koroeren baten jabe egingo nintzan, bear bada, erromatarren garaian izan bazan; baiña, batezkoz-beste, katez ta burniz atxiki-lotuak neuzkan nik nire oiñak eta eskuak, alako egun famatuaren ondoren gau artan bertan.

Don Kijote Mantxa'ko (XXXIX Atalburua)

Lepanto Brandy de Jerez izan ohi zuen buruan Santxak, "Lepanto" hitza entzuten zuenean. Eta Dultzineak, berriz, Lepantoko itsas-gudaldia, non ere Zerbantesek bere ezker besoa erdi-elbarritu baitzuen, hiru arkabuzkada jasota.

Dultzineak leziotxo bat eman zion Lepantori buruz:

-Aliantza kristaua turkoen aurka borrokatu zen, itsas-guda latz batean, historiako itsas-gudaldirik bortitzenean. Bartzelonatik, Veneziatik eta Erromatik joandako itsas-gudaloste kristauek, aita santuaren onespenearekin, bat egin zuten Mesinako estugunean, Juan de Austria buru zela.

Otomanoak, ordura arte Mediterraneoako jaun eta jabe, Ali Pacha buru zela, Lepanto ziutatetik itsas zabalera atera ziren eta han aurrez aurre talka egin zuten bi zibilizazioetako ordezkariak. Liga santuan 7.000 gizon baziren eta musulmanen artean 25.000 gizon. Odolez urak gorritu ziren, milaka gizonena isuri baitzen borrokaldi latz hartan. Ikustekoak izanen ziren galeazza haiek!

-Eta zeinek irabazi zuen?- galdetu zuen Santxak.

-Kristauek- erantzun Dultzineak.

Lepantora joateko asmo sendo-sendoa zuen Dultzineak eta Honela mintzatu zitzaion Santxari:

-Santxa esaneko hori, ordu dun benetako burrukaizun bat egin dezagun. Lepantora Joan behar dinagu, joan.

-Eta zer galdu zaigu han ba? – Santxak galde.

-Han jokatu zunan historian izan den itsas-gudurik bortitzena eta gure Zerbantes zauritu zuena. Gu “Zerbantak” izanik, nola ez zionagu ba omen eginen, gure goi-asmo honetan.

-Ai ene, baina orain ez dago Ali Pacha-rik han, ez gurutzadarik hemen, ez Venezian galeazzarik.

-Ongi erran dun, Santxa, orain urpean bila ari ditun gudaldi haren aztarnak, zenbait ikertzaile, eta doi aurkitu dine ontzi baten hezurdura, gila eta saiheitsak alegia, eta alde batekoa edo bestekoa den ezin erabakiz zabiltzan.

-Orduan?-Santxak.

-Bazagon orain Ordojan izeneko buruzagi bat, hara zer gauza erran dituen, Alexa, mesedez:

ALEXA: Ordojan buruzagiak dio, umerik izan nahi ez duten emakumeak “Osagabeak” direla. Hona hitzez hitz: Ama izan nahi ez duen emakumea, lan egiten duela aitzakia jarriz, bere emakumetasuna ukatzen ari da. Hori da benetan pentsatzen dudana. Amatasuna eta etxeko lanak baztertzen dituen emakumeak arriskuan jartzen du bereaskatasuna. Gizonezkoen eskubide eta betebeharrak berdinez lortzeko asmoz emakumeek lan egitea naturaren kontra doa. Ez dugu nahi planifikazio familiarrik, betoz umeak!

Santxak orduan:

-Eta gizon hori presidente al daukate? Ene, hango emakume gaixoak! Erruki!

-Bai, Santxa- Dultzineak erran- hango emakumeek gure behar gorria dine. Presta gaitzen!

-Ados! Lehenbailehen! Baina nola joango gara?- Santxak galde.

- Bartzelonako atarazanas horretan bazagon galera bat, Juan de Austriarena, eta hori hartuta joango gaitun. Demetria izena jarriko zionagu.

-Gu bakarrik joango gara?- Santxak galde.

-Ez noski. Deialdi bat egiten dinagu: Feminista ausartak behar dira Lepanton borroka egiteko. Eta ikusiko dun nola bilduko ditugun. Kamiseta lila bana emango zienagu, purpurazkoa, eta ezpata bana.

-Ondo pentsatua, nagusi anderea.

-Oraingoan ezustean harrapatuko dizkinagu, ta ebaindurik utziko.-Dultzineak.

-Hala bedi! Emakume guztiak aske!-Santxak.

-Aske eta libre!- Dultzineak.

Zide Hamete Benegelik ez digu beste berririk ematen bidaiaz, salbu eta arraunez eta belaz, galea batean heldu zela Mesinako estugunera, emakume talde handi bat, buruzagi Dultzinea zuela eta ezkutari Santxa.

Zabalera eginik, etsaiaren zain geratu ziren, bai baitzekiten lehorretik begiztatuak zituztela.

Turkoek, ez bat eta ez bi, urpekontzi nuklear bi eta bortz itsasontzi gudarako bidali zituzten, beren satelite, eta kainoirik onenekin. Tiro bakar batekin "Demetria" galeazari masta bat hautsi zioten eta ontzia dardar batean jarri. Bigarrena jaurtitzearekin ontziko emakume asko uretara jausi ziren eta igerian hasi gudontzi turkiar erraldoiari buruz. Turkoek barre egiten zuten karelean eta eskailera prestatu zuten emakume haiek salbatzeko.

-Zatozte, neska polittok, zatozte, zuen jantzi purpura busti horiekin!-zioten megafoniatik.

Dultzinea eta Santxa, beren behor eta astemearekin, ontzian geratu ziren, nahiz eta ura xukatu behar etengabe.

-Hau izanen da historiako itsas-gudaldirik bortitzena- Dultzineak oihu- eta emakume talde batek galeaza batekin altzairuzko gudontzidi bat gailendu duena.

Turkoek algaraka txistek egiten zituzten, egoera barregarri hartan.

Kainoi-zuloetan lore batzuk sarturik, jaurti zizkieten Dultzinea eta Santxari, eta konfetti baten gisa erori ziren bi emakumeen gainera zerutik.

-Zuen odola, nahiago, zuen loreak baino, emakume-bortxatzaileok! Emakumea nagusi izanen da zuen etxeetan! Alak txalo eginen digu emakumeoi. Guk ez dugu "Demetria" galeazza hau abandonatuko, sekula! Menderatuko zaituztegu!

Eta Simonaren liburua zorrotik aterata, ozenki irakurri zien pasarte hau Dultzineak, olatuen balantzak zerbait nekatzen baitzion ere irakurketa:

—Gaur egun, borroka beste tankera bat du: emakumea ihes egiten saiatzen ari da, ahaleginak egin ordez gizona ziega batean giltzapetzeko; utzia dio gizona immanentziaren eremuetara eramaten saiatzeari, eta transzendentziaren argitan zutitzen ahalegintzen ari da. Gizasemeen jarrerak sortzen du orain beste gatazka bat: gizonak gogoz kontra "ematen dio bide" emakumeari. Nahiago du aurrerantzean ere bera izan subjektu subiranoa, nagusi absolutua, izaki esentziala; uko egiten dio modu konkretuan berdintzat jotzeari emakumezko kidea; emakumeak, berriz, jarrera oldarkor batez erantzuten dio mesfidantza horri. Kontua jadanik ez da gerra bat, nor bere eremuan giltzapetutako gizabanako batzuen artekoa: kasta aldarrikatzaile batek erasoari ekin dio, eta kasta pribilegiatuak, berriz, mendean atxiki du hura. Aurrez aurre dauden bi transzendentzia dira; elkar onartu ordez, libere bakoitzak bestea menderatu nahi du.

Eta Dultzineak gorantz begiratu zuen, gudontziko karelean begira zeudenengana. Hauek imintziaz adierazi zioten ez zutela hizkuntza hura ulertzen.

Orduan Santxak:

-Alexa, itzuli erran duen hori turkora.

ALEXA: Oraintxe bertan, Santxa. Badaukat google translate. Hortxe doa, ongi edo gaizki:

—Bugün kavganın farklı bir türü var: Kadın, erkeği zindana kapatmaya çalışmak yerine kaçmaya çalışıyor; insanı içkinlik alemlerine götürmeye çalışmaktan vazgeçmiştir ve aşkınlığın ışığında ayağa kalkmaya çalışmaktadır. Erkeklerin tutumu şimdi başka bir çatışma yaratıyor: erkekler isteksizce kadınlara —yol veriyor. Kendisi egemen bir özne, mutlak bir efendi, özsel bir varlık olmaya devam etmeyi tercih eder; bir kadın üye ile somut bir şekilde eşitlenmeyi reddeder; kadın ise bu güvensizliğe saldırgan bir tavırla karşılık verir. Sorun artık kendi bölgelerine hapsedilmiş bazı kişiler arasındaki bir haykırış değil: Hak talebinde bulunan bir kast bir saldırı başlattı, ayrıcalıklı kast ise onu bastırdı. Onlar iki aşkın yüzleşmedir; her özgürlük birbirini kabul etmek yerine diğerine hükmetmek istiyor.

Turkoek irribarre eta harridura tarteko keinu bat egin zuten, baina halere, ez zirudien asko asaldatu zirenik. Berriro ere loreak bota zizkieten kanoi ttiki baten bitartez.

Ordurako emakume gehienak eskaileran gora etorrita zeuden gudontzi gainera eta turkoek adeitasunez tratatu zituzten. Denak txopa aldera eramane zituzten eta han zaintzapean jarri, armada turkoko iskilu batzuen mehatxupean. Laster, baina zirika hasi zitzaizkien, bati ipurdia ukituz eta beste bati kamiseta bustia altxatu nahirik. Orduan emakumeek, purpurazko beren soinekoen azpitik ezpata-motzak aterata, ekin zioten ekin suharki soldaduak sastakatzeari, eta Dultzinearen erokeriekin irriz zeuden soldaduak oro atxilo hartu zituzten. Ontziko zubian buru egiten zuen kapitainak lepoaldean sentitu zuen ezpataren ahoa.

-Lepanto, Lepanto- erran zuen emakume demetriak. Eta kapitaina behartu zuen Lepantoko portura eramane zitzan. Aurretik Dultzinea, behorra, Santxa eta astemea ontziratuta. Dultzinea, armadura astunarekin baitzegoen, kostata igo zuten, polearen laguntzaz.

Ontzi-kapitainari lepotik ezpata kendu gabe, agindu zioten dei zitzala Lepantoko emakume guztiak portura. Urpekontzi nuklearrek ezin zuten eragotzi gertaera historiko hura.

-Let's go to Lepanto.

-Naupaktos?

-Yes, that's all right.

-But now the port is greek. Nafpaktia. -Oh, then we go to Istanbul. -Istanbul is ... far...

-Let's go to Istanbul. We want to talk to Ordojan.

-Yes, madame.

Santxa, eta Alexia solasean aritu ziren. Turko bahitu batzuk jarri zituzten Rozinanta eta Ruzia lehortzen.

Santxak: Alexa, erran zerbait...ez daude begira Teodora eta Justiniana...

ALEXA: Luccia izeneko turista batek hau dio hiriaz...

Istanbuleko portua hiriaren gune historikoan dago, Galata zubiaren, mezkita ospetsuen eta Konstantinopla izandakoaren erakargaririk nagusienen ondoan. Handik ateratzen dira ferryak alde asiarrera, itsasontziak eta kruzeroak; guk txango bat hartu genuen Bosforo zehar eta goizean zehar ederretsi ahal izan genuen, haren mugimendu ohikoa, etengabea. (Luccia)

Santxak orduan: Ez al dago kruzero interesgarririk?

ALEXA:

Bosforo gaineko zubiak bi kontinente, bi kultura, bi mundu eta Gizateria bakar bat konektatzen ditu. Imaginatu eguzki-sartzea behatzen duzuela Bosforoaren gain eta Turkiako monumentu harranditsuen gain nola sartzen den; bitartean afari ahotik ezin utzi bat gozatuko duzu, hiru platerekoa, eta dantza talde batek ikuskizun bat emanen dizu. Afaria eta ikuskizuna duen kruzero honetan, Istanbuleko Bosforoa erakusten baititu, garrantzizkoena ez da itsasontzia, baizik eta inguratzen duen guztia.

Atseginena

- Afari erromantiko batez gozatuko duzu, non eta Itsaso Beltza eta Marmara Itsasoa bateratzen diren lekuan.

-Dantza ikuskizun bat izango duzu zuzenean.

-Erran ahal izanen duzu aldi berean bi kontinentetan egona zarela.

Bus batek jasoko zaitu hotelaren atean, han igoko zara kruzero berebiziko batera, eta hórrela biziko duzu esperientzia egundoko bat, "hil aurretik egin beharreko hamar gauza" zerrendan sar genezakeena.

Istanbulen zeharreko kruzero gaueko honetan kostalde europar eta asiarrak ikusiko dituzu urrutira, soegingo duzu nola eguzkiak urrez tindatze duen Mezkita Urdina, Kiz Kulesi dorrea, eta Dolmabahce Jauregia, eta itzultzean harro egongo zara Fatih Sultan Zubia ikusi izanaz (bi kontinente lotzen dituelako da ospetsu), ilargiaren argi epeletan dirdaitsu. Hori guztia behatzen zoazela, dastatuko duzu gastronomia turkoa, edarien barra librea, eta sabel-dantza ikuskizun entretenigarriaz gozatuko.

Eguzkia, hiria argiz betetzeaz unaturik, lotara joango da, zure ontzia porturatu baino minutu batzuk lehenago.

Ibilbidea bukatzean, bi aukera izanen dituzu, busean zure hotelera itzultzea edo bertze edozein gau-plan egitea zeure gustura.

Santxak orduan:

-Nik kruzero hori egin nahi nuke, baina aurretik arkeologia pixka bat. Zer dago, Alexa, ikusgai?

ALEXA:

Istanbuleko Museo Arkeologikoa

Museo hau Topkapi jauregiko lorategi barruan kokatua dago, eta Istanbuleko lekurik interesgarrienetako bat da, eta jende askorik gabea, lasaia. Bi oren behar dira ikusteko, baina behar den patxadaz ikus ditzakegu gure gustukoak.

Museoan nabarmentzekoa dukegu Sidon-en Nekropolia, Alejandroren Sarkofagoa, Aflijidas-en Sarkofagoa eta estatúen galería harrigarriak. Badu, baita ete, umeentzako toki bat, jostailuzko gaztelu bat duena, oso entretenigarria.

Ez du galdu behar, ez, leku hau, zibilizazioak eta arte antzinakoa maite dituenak!

Santxak eskua altxatu zuen. Alexak segi zuen etenik egin gabe:

Alejandroren sarkofagoa da Museo Arkeologiko guztiko puntu izarra. Hirugarren aretoan dago, haren edertasunak urrundik dei egiten du. Pieza klasiko bat da eta erakusten du Alejandro eta beraren armada borrokan pertsiarren kontra, goi-erreliebe liluragarri batzuetan. Taila marmolean egin zen eta K.a. IV. mendekoa da. Ezin hobeki dago, egon, kontzerbatua.

Erliebeetako eszena nagusia hau da, Alejandro zaldiz, burukotzat lehoi-buru bat eramanez – Herkulesen sinboloa-. Sarkofagoaren bertaldean, lehoi baten ehiza bortitz bat ikusten da. Gehien harritzen duena hau da, sarkofagoak oraino badituela jatorrizko margoaren trazu batzuk.

Datu garrantzizko bat: Izen hori duen arren, sarkofago hau ez zuten Alejandrorentzat zizelkatu. Abdalonimo de Sidón erregearentzat egin izan zen...

Museoko behe solairuan, haurrentzako museoaz gain, kafetegi bat dugu, denda bat eta Troyako zaldiaren zurezko erreproduzio bikain bat. Txoko politikak, indarberritu eta atsedean hartzeko, hainbeste kulturaren ondoren!

Une hartan Dultzinea hurreratu zitzaizen, solasaldiaren parte bat entzuna zuena. Dultzineak orduan, sumindurik:

-Ongi zagon, bai, Santxa, atsedena, atsegina eta kultura, baina ez ahantz gure goi-asmoa zein den, emakumearen egoera bihurtzea, oneratzeko eta Istanbul guztian dauden emakumeak salbatzea!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Eta ondoren, Alexari zuzenduz galdetu zuen:

-Alexa, zer dakigu emakume turkoen egoeraz?

ALEXA:

Emakumeen oihua Turkian hau da: —Geu hurrengoak izatearen beldur gara. Azken urteotan feminizidioek gora egin dute, eta Gobernuak ez du ezer ere egiten. Hedabide turkoek zabaldu duten bideoan gizon bat ageri da emaztea jipoitzen, ia hileraino, bortz urteko alabaren aitzinean. Beste gizon batek eskopeta batekin tiro egin zion emazteari; laurogeita hamar urteko emakume baten etxean sartu dira eta behartu egin dute. Emakumearen Nazioarteko Egunean gizon bat atxilo hartu zuten, bere etxeko sotoan hogeitaz urteko neska baten gorpua aurkitzean, urritik desagertua zegoena. Larehun bat emakume erahil dituzte azken urtean.

Urtero, martxoaren zortzian, milaka emakume kontzentratzen dira Istanbul erdigunean, eta poliziak kaleak ixten ditu eta borra, ezkutu eta gas negarrarazleekin ekiten du emakumeen aurka. “Gerra bat dago gure aurka” dio Aylin, neska unibertsitarioak. Ordojanek telefono aplikazio bat sortu du,

emakumeen aurkako erasoak salatzeak, baina genero-indarkeria salatuz gero, estigma eta aurreiritziak gailentzen dira. Istanbulko Konbentzioan, feminizida edo sexu-erasotzaileen aurkako zigorra gogortzeko erabakiak hartu ziren, baina orain gobernuak dio konbentzio hori "familia turkoaren tradizioaren" aurka doala.

Feministek diote ez dela deus aldatzen, dena berdin dagoela. Dultzineak orduan:

Eskerrik asko, Alexa. Ordojanekin goi-bilera bat exijituko dut, Mezquita Urdinean.

-Ondo errana, andere!- erantsi zuen Santxak. Turko hauei eskarmentu ona eman behar diegu. Okerrera, tartean badirela oso guapo batzuk!

-Hi beti berdin, Santxa!-Dultzineak. Zer dakigu, Alexa, mesquita urdinaz?

ALEXA:

Mezquita Urdina, Istanbulko mezkitarik garrantzikoena da. Haren izena turkoz Sultanahmed Camii, Ahmed Sultanaren Mezquita, da, Ahmed Sultanak eraiki baitzuen 1609tik 1616ra bitartean.

Arkitektura

Lehen begi kolpean Santa Sofia-ren antzeko neurriak dituela dirudien arren, neurri errealak ikusirik, erdia da gutxi gorabehera. Erdiko kupulak 23 metroko diametroa du eta 43 metroko altuera.

Mezquita urdinak sei minarete ditu, eta horrek, eraiki zutenean, eztabaida handia sortu zuen, Meka-k ere sei baitzuten. Ondoren, eta sinesdunak baretzeko, Mekan zazpigarren minarete bat eraiki zuten, aldea nabarmentzeko.

Barnea

Mesquita Urdinera sartzean ulertzen da haren izena: 20.000 azulejo urdin daude kupula eta meskitaren edo moskearen goialdea apaintzen. Azulejo guztiak Iznik (Nizea) hiritik eraman zituzten.

Meskitaren argiztapena 200 beirateetatik dator eta sabaitik zintzilik dauden armiarma-lanpargetatik.

Aholkuak

Mesquita urdinean sartzeko, hiriko bertze mesquita guztietan sartzeko bezala, arropa egokia eraman behar duzue eta oinetakoak kendu sartu aurretik. Emakumeek sorbaldak eta ilea estalirik eraman behar dituzte. Estaltzeko jantzirik ez baduzue, sarreran utziko dizuete, sartzeko behar duzuen guztia.

Kultua dagoen orduetan itxita dago turistentzat.

Mosaikoen, Veneziako beirate koloretsu distiratsuen eta lanparen arteko harremanak urpeko, zeruko giro bat sortzen du. Meskitako murrutan, Korango bertsikuloak datoz kiribilean Seyyid Kasim Gubari-ren kaligrafia estilizatuan. Korana dagoen mihrab-a, Mekari buruz dagoena, ederki zizelkatua dago marmolean, zeramikazko leiho eta inkrustazioekin inguratua. Azkenik, imam-ak otoitza zuzentzen duen mimbar edo pulpitoa, gorantz doa gorantz, urrezko eskailera gisa, bertan dauden guztiek errezoak segi ditzaketen leku batera arte.

Ordojan presidentea dotore agertu zen Mezquita Urdinera sei morrozko armadunekin, eta Dultzineak buruzut sei demetria lagun zituela.

-Tradizioa tradizioa da, Dultzinea anderea- Ordojanek.

-Traizioa dela erratea hobe, emakumeak azpiratzekoa alegia- Dultzineak.

-Gure emakumeak ongi bizi dira- Ordojan presidenteak.

-Ezta inola ere!- Dultzineak. Eskubidea dute umerik ez izateko eta etxetik kanpo lan egiteko!

-Umerik gabe, herrialderik ez dugu izanen urte batzuen buruan! Gainera, etxean badute aski lan!

-Bahituak dauzkagunak gogoan izan itzazu. Bihar goizeko zortzietarako presidente zure emaztea izendatu behar duzu. Emakume guztiek gona motxa eramateko eskubidea izanen dute. Umeen pardela, gizonezkoek garbituko dute. Egunero gizonezkoek otorduak prestatuko dizkiete emazteei. Lesbianeik parlamentuan omenaldi bat egingen zaie. Gizonezkoek kalean emakume bat ikustean, belaukatu eta oinetan muin emango diote, eta haren esanetara geratuko dira.

-Zu burutik eginda zaude, Dultzinea Auskaloko!

-Ordojan jauna, soineko bat josi behar diozu emazteari, lila kolorekoa.

-Bai, eta azazkalak margotu!- Ordojanek suminduta.

-Ez da ideia txarra, lilaz margotzen badizkiozu!- Dultzineak. Hara zer dion Simona gureak: —Baina norberaren baitan etxe bat aurkitzeko, lehenik nork bere burua mamitu behar duobretan edo ekintzetan. Gizonak erdizka baino ez du interesik bere barrenaren aldera, eskura baitu unibertsoa bere osoan, eta proiektuetan berrets baitezake bere burua. Emakumea, berriz, ezkon-komunitatean giltzapeturik dago: harentzat, kontua da presondegi hori erreinu bihurtzea. Emakumearen kondizioa definitu ohi duen dialektikak berak moldatzen du txearen inguruan duen jarrera: emakumeak bere burua harrapakin bihurtuz harrapatzen du, amore emanez askatzen da; mundu bat konkistatu nahi du munduari uko eginez. —

-Bueno, bueno...presondegia erreinu...- Ordojanek irri zuriz.

-Etxean sartu eta atea ixten du, bai, baina ez damurik gabe; gaztetxoak zenean, lur guztia zuen aberri; bereak zituen basoak. Orain, toki estu batean dago, handik atera gabe; Natura geranio-loreontzi baten neurrira murriztu zaio; pareta batzuek hesitzen diote zerumuga..... Geranio- ontzi batean sartzen dituzue emakumeak!

- Kaka!- Ordojanek.

Zirkin bat egin eta sei morroskoek Dultzinea eta sei demetriak atxilo hartu zituzten, eta ahoan espatrapuak jarri, ixilarazteko. Eskuak atzean lotu. Bi orenen buruan, bahitu guztiak askatuak zeuden eta demetria guztiak atxilotuak. Santxa ere bai. Rozinanta eta Ruzia berdin.

Alde biek akordio bat iritsi zuten. Egun batzuen buruan libre utziko zituzten denak eta ontziola batean Demetria galeazza konponduta, Neupakto aldera abiatuko ziren demetria guztiak, Dultzinea, Santxa, Alexa eta abereak.

Ordojanen emazteak idatzi hau helarazi zion Dultzineari:

—Dultzinea maitea. Istanbul ez da Bristol, eta legeak betearazi behar ditugun arren, jakin ezazu onesten dudala zure goi-asmoa, emakumeari zor zaion lekua aitorraraztekoa. Astiro bada ere, lortuko dugu. Zuri eta zure demetria-taldeari esker. Gonbidatuta zaudete Mesquita Berria ikustera, emakume sultanena deitua bera. Ontziolan, zuen galeazzakonpontzen bukatzeko eta kalapetatzeko egun batzuk

beharko dira. Gozatu hiriaz, joan aurretik. Nahi duzunean etorri berriro, baina eskandalurik gabe, mesedez. Adeitasunez agurtzen zaitut. Emina Ulbaran.

Dultzineak pozik hartu zuen mezua.

-Nola eskertuko zionagu, Santxa?- galdetu zuen.

-Olitoko plater tipiko bat prestatuko diot. Ajoarrieroa karakolekin- galdetu zuen.

-Bikain, Santxa! Eta nik Berrondoren Kijotea, oroigarri on-ona izan dezan.

Hala, tuper batean jarririk eta gaintetik lazo lila batekin apaindurik, demetria bi bidali zituzten, jakia eta liburua -bi liburuki mardul- presidentearen andreari eramatera. Honako idatzi honekin:

—Mila esker, Emina, zure abegiagatik. Har ezazu gure herriko jaki tipiko hau eta Kixoteren euskarazko bertsioa. Baita ere “Bigarren sexua”, Simonarena, euskaraz. Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da: Ezein destino biologikok, psikikok, ekonomikok ez du definitzen gizaki emeak gizartean duen irudia; zibilizazio osoak sortzen du gizonaren eta zikiratuaren tarteko emaitza hori, femeninotzat jotzen den hori. Berriro ere itzuliko gara, aurrerago, baina orain guda latzak ditugu aurretik, gure goi-asmo handi horrek eskatzen dituen bezalakoak. Eskuetan muin. Dultzinea-

p.d. Santxa

“Nahi duzunean etorri Olytera. Moete goapoak daude. Gaztelu bat daukagu. Pizina ere bai. Festak irailean dira. Arnorik onena kooperatibakoa. Agur. Tuperra zuretzat hartu.”

Gustura geratu ziren bi-biak, eta isiltasun-pausaldi bat eginik...

-Zer egingo dugu, andere?- Saltxak galde.

-Gure galeazza konpondu eta arraunean itzuliko gaitun- erabaki zuen Dultzineak-. Eta hala Neupakto-n, Lepanton, geratuko gaitun, Miguel de Zerbantesen estatuaren aurrean agur egiteko.

-Eta ez dugu joan aurretik juerga pixka bat eginen, andere?- Santxak galde.

-Zuek egin! Nere baimena duzue, ni ontzian geratuko naiz, Demetria galeazza begiratzen. Ea ondo kalapetatua dagoen! Zuek denok, goizeko ordubietarako ontzian ikusi nahi zaituztet!

-Ederki, nagusi anderea. Alexa, non dago martxa hiri honetan?

ALEXA:

Azken urteetan, Beyoglu-ri lehiakide gogorra atera zaio Bosforoko Itsasartearen bestaldean, hiriko auzorik coolena baita. Orain asko ez arte, Kalidoy auzoa, Istanbulko alde asiarrean, bizitoki bat zen, interes handirik gabea, eta ez zen mapa kulturaletan agertzen. Gaur, Kadikoy, Istanbulen gau-girorik gehien dagoen auzoetako bat da, nahiz eta hemen tabernak Beyoglu-n baino lehenago itxi, eta goizeko ordubata aldean asko jaisten den jendearen emana.

-Aupa Kalidoy, aupa Kixote Martxa'ko- Santxak oihuz.

-Ea Olof-en bat aurkitzen duzun!- Dultzineak.

-Baiiii, eta zure Kixote non da, andere?

-Kixotek Pompeloko Ospitalean kargu inportante bat du, altua da, oso atsegina, behin bakarrik mintzatu naiz harekin, lan-bilera batean, baina sekula ez bakarka. Ez dut uste sekula ausartuko naizenik berari deus erratera. Gainera, nago, ezkondua ez ote dagoen...

-Andere! Gaur arte ez didazu deus erran!

-Zoazte eta ondo pasa. Erruki Kalidoy zuekin. Demetriak, ez erokeriarik egin, eta kontuz gizonezko maltzur horiekin!

Kalidoy auzoan demasako giroa zegoen. Demetriak, denak lilaz beztiturik, atentzioa ematen zuten eta berehala hurreratzen zitzaizkien, argazki baten eske-aitzakian.

Mutilek izena galdetzean, arraunlari andrazko guztiek Demetria izena zutela erraten zieten, eta mutilek, jokoa segiz, denek Tarik zirela aitortzen. Tarik izenak "atera deitzen duena" erran nahi bide du.

Ordubietan denak ontzian zeuden, pena handiz baina. Santxa azkena heldu zen, atzerago, gizon bati azken musuak emanez.

-Agur, Özgür! Zer erran nahi du zure izenak?- Santxak galde.

-Libre erran nahi du, gizon nahiz emakumezkoentzat balio du, unisex- Ozgurrek.

-Biok özgür, hortaz! Itzuliko naiz!

Goizeko ordubietan, ordubi-ordubietan, eeeuuuppp batzuk eginez, galeazza atera zuten ontzilatik eta uretaratu. Xukatu beharrik ez zuten izan apenas. Rozinanta eta Ruzia ere igo zituzten.

Leman Dultzineak:

-Gora arraunak! Gurea da garaipena! Gora Demetriak!

-Gora!-erantzun zuten denek.

-Goazemazue Neupaktora, gure Miguel agurtzera!- Dultzineak!

-Seni seviyorum, Özgür!- Santxak. Breaveheart ezpata atera zuen eta oihukatu: Demetria operazioa amaitzen denean, zuregana itzuliko naiz, Özgür! Askok maite zaitut. Seni çok seviyorum. Zugatit egiten dut negar. Senin için ağlıyorum.

Haizea alde izan zuten eta arraunetan gehiegi behartu gabe hurreratu ziren Lesbos uhartera. Hala erraten digu Zide Hamete Benenjelik. Eta uharte hartan bi demetria ezkondu zirela.

-Alexa, zer dakigu Lesbos uharteari buruz?- Dultzineak galde.

ALEXA:

Lesbos uharte bolkaniko menditsua da. Iparralde eta erdialdean kokatutako Lepetymos (968 m) eta Olympo (968 m) mendiak dira gailurrak. Itsasertza oso malkortsua da. Bi badia nabarmen ditu, Gerasekoa hego-ekialdean eta Kallonikoa hego-mendebaldean. Uhartearen %40 olibondoek hartzen dute; guztira 11 milioi bat olibondo daude beste fruta-arbola batzuekin batera. Basoek, berriz, %20

okupatzen dute eta beste guztia lur landua edo hiri-lurrak dira. Uhartearen mendebaldean dagoen harri bihurtutako sekouien basoa munduko bigarren handiena da.

-Eta orain "Bigarren sexua" libururik gabe nagoenez, zer dio lesbianeiei buruz Simonak?

ALEXA:

Lesbiana

Askotan, feltrozko kapela buruan irudikatzen dugu lesbina, ilea motz, gorbata jantzirik; haren gizontasuna anomalia bat omen da, hormona-desoreka baten ondorioa. Ez dago oker handiagorik emakumezko homosexuala eta mari-gizona horrela nahastea baino. Homosexual asko daude odalisken artean, goi-prostituten artean, berariaz "femeninoenak" diren emakumeen artean; alderantziz, emakume "maskulino" asko heterosexualak dira. Sexologoek eta psikiatreek berretsi egiten dute ohiko behaketak aditzera ematen duena: emakume "kondenatu" gehien-gehienekbesteez bezalako osaera dute. Ez dago haien sexualitatea erabakitzen duen inolako destino anatomikorik.

Dudarik gabe, ezaugarri fisilologikoek egoera bereziak sortzen dituzte kasu batzuetan. Bi sexuen artean ez dago bereizketa biologiko zorrotzik; soma berdin-berdin bat gero aldatuz doa orientazio genotipikoki definitua duten jarduera hormonalen ondorioz, baina orientazio hori desbidera liteke umekiaren bilakabidean bertan; halaxe sortzen dira arren eta emeen tarteko norbanakoak. Gizaseme batzuek itxura femeninoa dute, haien gizon-organoak berandu heldu direlako: tarteka ikusten dugu, era berean, nola mutilitzen diren zenbait neska, batez ere kirolariak. H. Deutschek kontatzen du nola neska gazte batek gorrea egin zion, suharki, emakume ezkondu bati, hura beretu eta elkarrekin bizitzen jarri nahian: egun batean, ohartu zen egiaz gizona zela, eta horrek modua eman zion bere maitearekin ezkondu eta haurrak izateko. Baina ez da ondorioztatu behar emakume homosexual guztiak molde engainagarri batzuetan "ezkutatutako gizonak" direnik. Hermafroditak, zeinak bi sistema genitalak baititu, sexualitate femeninoa izan ohi du gehienetan: ezagutzen dut bat, naziengandik ihesi Vienara erbesteratua, atsekabaturik zegoena ez zutelako gogoko ez gizon heterosexualak, ez homosexualak, eta berak gizonak baino ez zituen maite. Hormona arren eraginez, emakume "gizonduek" bigarren mailako sexu-ezaugarri maskulinoak dituzte; haur-tankerako emakumeengan, hormona emeak eskasak dira, eta garabidea bukatu gabe dago. Berezitasun horiek joera lesbikoaren sorburu izan litezke, zuzenean edo zeharka. Bizitasun sendo, oldarkor, oparoa duen pertsona batek aktiboki jardun nahi du, eta pasibotasuna errefusatu egiten du normalean; itsusia, desegokia den emakumea saia daiteke gizon-ezaugarriak hartuz konpentsatzen gutxiaho izate hori; sensibilitate erogenoa garatu gabe badu, ez du gizonen laztanik nahi izaten. Baina anatomiak eta hormonek goera bat baino ez dute definitzen, eta ez dute zehazten zer objekturantz joko duen bere buruaz harago. [...]

Simona Beauvoir de A.

Dultzineak orduan:

-Ongi errana, Simona gurea, hori da gauzak ondo erratea, nik ez nuke hobeki erranen.

Santxak, isilune baten ondotik:

-Ongi errana eta esana, andere! Orain edo orain, ikusi beharko dugu uharte entzutetsu hau, ezta?

-Bai, zoazte, nik hausnartu beharra dut, eta Emoria horretara joan behar dut, erbesteratuen egoleku horretara. Hitzaldi bihotz-altxagarri bat egingen diet!

-Baina, andere- Santxak ihardetsi- sute baten ondoren joanak dira denak. -Neure begiz ikusi nahi dinat, eta neure belarriz entzun- Dultzineak.

-Jo, andere,...-Santxak.

-Jooooopeeeee- demetria guztiek batera.

-Alexa, esaien, zer duten uharte honetan ikusteko- Dultzineak.

ALEXA:

-Bai, andrea, oraintxe.

Mesotopos. Emakumeen Kooperatiba Agroturistikoa da Greziako emakume kooperatiba bizienetako bat.

Arazo asko izan dituzte, bertze emakume kooperatibek bezala, krisi ekonomikoa, legeria zalantzaz bete, hasteko dirua lortu ezina, leku eta instalazio egokien falta, eta batez ere kooperazio kultura baten falta. Halere, burugogor, tematu dira aurrera egiten.

Mesotopou ingurua, Mitilene hiriburutik hegoekialdera dago ordu eta erdira, eta bizirik dago, kooperatiba honi esker bertzeak bertze. Elikagaiak ekoitzi, erakutsi eta saltzeko leku bat prestatua dute. Neska gazteak ahalegin betean dira, zapora ahanztuak berreskuratzen.

Zonaldeko ezti eta sesamoarekin egindako pastelak edo pastizak, kalabaza pastelak... egiten dituzte.

-Gure herriko, Oliteko, gozotegia baino hobea ez da izanen, laurre onena!- Santxak.

-Zer dakin hik, Santxa, ez haiz kasik, hire herritik sekula atera eta. Uxuera doi-doi, eta gauez.- Dultzineak.

ALEXA:

Polichnitos-Mitilene ibilbidearen erdian, Santo-rako bidegurutzea parean, Rini Andrearen kafea dago, beharbada horixe izanen da Egeo artxipelagoko kafetegirik ederrena.

Hemen, garai batean bidaiariak atsedean hartzen zuten, jan, edan, bertako animaliak lastandu, edo gaua eman kafetegiko sofan edo ondoko ostatuan.

Rini andrea, Irini Karetou, kafearen "urregilea" izana, orain bizpahiru urte hil zen. Artea zuen goilara-dultzeetan eta kafean, eta orain alabak, Afrodita de Alamos-ek eta bilobak segitzen dute hartan.

Eta demetriei zuzenduta, erran zien Dultzineak:

-Nahi duenak gozogintza eta nahi duenak kafetegi lorategiduna. Zoazte. Goizeko ordubietarako hemen, beranduenera.

Hala, batzuk kafetegira joan ziren eta han txit ongi artatu zituzten.

-Teofilo margolaria ere etortzen zen hona- Afrodita erran-. Gure aitonak jana ematen zion eta hark margotu egiten zuen.

Kafea hartu, lorategia ikus-usaindu eta Afroditaren sendiarekin mintzatu ziren.

Itzuleran honea erran zuen demetrietako batek:

-Kafetegiko giroa oraindik ere, edo oraino, teofilikoa da, zurezko solairu hala-holakoak, zura urdinezko sabai ederra, kolore asko edo aunitz, leiho dirdaitsuak, pinu eta erretxin usaina berogailuan erregai, ... buff, bikaina!

Gozogintzako lantegitik etorritakoak ere irribarretsu zetozen:

-Zer nolako kuraia emazte horiek, ene! Dena aurka dute eta halere, gogor dihardute beren zereginean! Kooperatiba martxosoa dute.

Eta orai, erran dezagun Dultzineak eta Santxak bitarte horretan egin zutena. Santxa herri- minez zegoen, Santxo gogoan, eta olibadi batera hurreatu zen, eta olibondo baten itzalean jarri zen. Olyten zegoela iruditzen zitzaion. Zein ongi sentitzen zen zuhaitz sendo moztaka haren gerizean. Dultzineari ere ongi etorri zitzaion, nahiz eta aitortu ez, buru izateak dakarren erreserba horren eraginez.

-Bai ongi gaudela, andere, biok hementxe!

-Bai, halaxe gauden ba, Santxa!

-Un poco cansadas...- Santxak.

-Sí, algo de eso hay...- Dultzineak.

-Yo he de ir a Olyte a ver a Sancho,... cuando se pueda...

-No lo sé Iratxe, hay mucho trabajo por hacer...

-Ya, ya lo sé, Dulce María, que la tarea no es tan dulce...

- Para cambiar el mundo hay que perseverar...

-Ya tía, pero sin pasarse, ¡no vamos a hacer todo el curro nosotras!

-Guri dagokiguna, Santxa.

-Bai, guri dagokiguna- Santxak.

Besarkada goxo bat eman zioten elkarri.

Emoriara heldu zirenean, desolazioa hantxe zegoen dastagai. Errautsak eta zaborrak nonahi, kiratsa, erre-usaina, plastiko zikinak, ...

-Hemen ez dago inor, andere!- Santxak.

-Nehor ez dela hemen? Hor ezkutuan ditun denak, beldurrez eta ikaraz gordeak, gu etsai gaiztoak garelakoan. Baina oraintxe egingo zient hitzaldi sutsu bat.

-Adi-adi nauka, berorrek.

-Gordean zaudeten neskato, neska, andere eta andreak, zatozte beldurrik gabe, Dultzinea zuen salbatzailea heldua da eta. Orain arte izan baduzue nekea, pena eta ezina, hemendik aitzinat izanen duzue loria, indarra eta zuen bizitzaren gaineko jabetasuna. Ahaldundu zaitetze, emakumeok! Ez ezkutatu, zatozte, zatozte, nonahikoak zaretela ere, orain hemen behar dugu elkartu, nik emanen dizuet jaten, edaten eta janzten.

-Ez dute euskara aditzen- andere, gehienak arabieraz mintzo dira- Santxak. -Alexia, lagundu eta jar ene hitzak arabieraz.

ALEXIA:

-
الثناخ، الثناخ، السيداخوا السادجالزُهُرظرووك، ذعالماتلاخف، لأنتمقزدولر شاهدشخصتالغ
إراكيدقذعاو دمهاالرةوالحزنوالعجزحرباًن، فسكئندكالمجدوالقنجوملكيحجاذكامامك
!قتديوسفسكارهاالسءاء
لاذخريء، هءا، هءا، أودقكلمكان، أنوحهتجاجللاللقاءهءا، ساقدملكالطعاموالشرايواللساء

- albanat , albanat , alsayidat walsaadat aladhin yantazirunak , taealawa bila khawf , li'ana munqidh dulatsha hu shakhs bialighi. 'iidha kunt qad eanayt min altaeab walhuzn waleajz hataa alan , fasayakun ladayk almajd walquat wamilkiat hayatik 'amamika. qwwdy nafsuk 'ayatuha alnisa'u! la takhtabi , hayaa , hayaa , 'ant fi kuli makan , alan nahn bihajat lilialtiqa' huna , sa'uqadam lak altaeam walsharab wallabasa.

Haizea bertzerik ez zebilen han.

-Hemen ez dago inor, andere, joanak izanen dira noski- Santxak.

-Baliteke, bai, denak joanak izatea, seguru asko bahituak eta estekatuak. Gizatarrez betea eta gaizkilez mukuru baitago mundu zital hau! Zin dagit, ebainduko ditudala gaizkile eta hondatzaile guztiak. Oro!

Berriro ere demetrikien bat egin zutenean, honela mintzatu zitzaizkien ezkutaria eta nagusia:

-Berritasun bat dauka Dultzineak zuei errateko. Bidaia zoragarria egin dugu elkarrekin, baina orain, ordu da, zuek Bartzelonara itzultzeko, eta gu, gure bidean aurrera joan gaitezen, Olyteko gazteluan gure armak belatzean hartu genituen goi-asmoak betetzeko.

Oso harro gaude zuetaz, eta demetriad bete nahi genuke mundua, baina zuek bezalakorik inon ez!

Dultzineak orduan:

-Siziliaraino lagunduko dizuegu, eta gu han geratuko gara. Zuek aurrera egingen duzue, Bartzelonako portua jo arte!

-Bai, andrea!- erantzun zuten demetria guztiak batean.

Zide Hamete Benenjelik horretan utzi gaitu. Baina ez, hau erran gabe:

—Azeituna jasotzeko garaia izanik, demetrik lagundu zieten bertako nekazari eta sasoirako etorritako biltzaileei, eta ordainetan jaso zituzten olio botila batzuk, ouzo kaxa bat, eta kooperatibako gozo batzuk. Demetria batzuk hilekoarekin zeuden, ilargi betean, minberatuak, eta egun batzuetan pausatutako egon ziren.

XVI. ATALBURUA

Sizilian bizi izandako uneak.

Dultzinea.com webgunea aldiro begiratzen zuen Santxak, eta zerbait interesgarria aurkitzen zuenean Dultzineari irakurtzen zizkion pasarteak. Barisetik zetorren berriaoraingoan edo oraikoan. Rachel Chusk idazle angelesa Barisera aldatua, bizitzera, bryxitaz nazkatu.

—Rachel Chusk indarrez gainezka dago eta ikusten da. Duela urtebete Norfolk uztea erabaki zuen brexit-arekin zuen desadostasun sakonaren aurka. Bizitza berria hasi du Barisen bere bikotekidearekin, Simon Scarnell-Katz artista bisualarekin. Hondarrak, aita alabengandik banantzean oinarritutako autofikzioaren gako eleberri oso gogorra argitaratu ostean, Chusk kargura itzultzen da Bigarren Etxearekin, urtean hartzen diren erabakiei buruzko liburua. bizitzaren bigarren zatia, 50 urtetik aurrera emakume izateak zer den, gure bizitzan arteari ematen diogun nahia eta papera.

—Izugarri askatzailea da Barisen bizitzea, oso zorionekoa sentitzen naiz horretarako askatasuna dudalako. Nire alabak zaharragoak dira eta unibertsitatea amaitu dute. Bete izanaren sententzia daukat: lan egin dut, zergak ordaindu ditut, orain heldu diren bi herritar duin hazi ditut, eta azkenean libre nago nahi dudana lekura joateko. Berpizkunde bat bezalakoa da. Ondo menperatzen ez duzun beste hizkuntza batean egotea erronka da. Hala ere, denei gomendatzen diedan zerbait da: gainbehera sentitzen hasten zarenean, maila honetako abentura bati ekitea zaila baina oso zirraragarria da. Alde triste bat ere badu, Ingalaterrako jende guztiaz pentsatzen dut askoz hobeagorik merezi dutenak baitira...

—Ilarak eta gabeziak irakurtzen ditudan bakoitzean poztu eta pentsatzen utzi ezin duen zati bat dago: hala esan dizut! Baina errealitatea da biztanleriaren erdiak ez zuela brexit-aren alde bozkatu eta horren ondorioak jasaten ari direla. Usadyetan bezala da, ehuneko 52 -ehuneko 48, ehuneko 51 -ehuneko 49ko politika bera, biztanleria zatituta duena. Hori da jende asko ados ez dagoen zerbaitekin bizitzera behartuta. Uste dut ezkerren aldetik adetasun handiegia dagoela, berdin pentsatzen dut Usadyko demokratek Strumpekin. Oso zaila da brexit-aren aurka bozkatu duten pertsonen haserrea adieraztea, hau ez baita haserrea. Baina azkenean badirudi benetako oposiziorik gabe gertatu zela, dimisioarekin ezarri zela. Izugarri bidegabea da nire alaben belaunaldiak ezin izatea nik haien adinean egin nuena, esate baterako, atzerrian denbora batez bizi eta lan egitea. Hilabeteak daramatzate bisaren zain eta ez da iristen, lortutako lanpostuak desagertu egin dira. Guztia 1950eko hamarkadan bizi nahiko luketen agure gutxi batzuegatik. Ingalaterra herrialde basati bat bihurtu da.

—Ez nekien benetan zer norabide hartu trilogia itxi ostean eta bat-batean feminitatearen fase berri batean aurkitu nintzen, adin ertainekoa edo erdi-adinaren ondokoa, biologikoki eta sexualki hitz eginez. Trantsizio horretaz hitz egin nahi nuen eta zein sumaezina den: ez dago jarraibiderik edo egiturarik atxikitzeko, objektu gisa balioa galdu dutela sentituz dabilzan emakume asko besterik ez dago, zaharkitze sententzia moduko batekin.

—Galdetzen duten emakumeak: Zer egiten ari naiz hemen? Hamarkada ezinbesteko haietan zehar zure energia ia guztia haurrak zaintzera doan eta dena amaitzen denean, barregarria da nola atzera begiratzen duzun eta nolabaiteko harridura ematen dizu dena zein azkar gertatu den ikusteak, zein kateatu zinen, zenbat lan egin duzun eta zure feminitatea nola lurrundu den. Hori guztia sentitzen duzu baina ez duzu ezer esaten, ez duzu adierazten. Orduan sortu zitzaizkion eleberria idazteko ideia.

—Askatasuna diziplina da. Teknikoa da. Gauzak egiten ez jakiteak ez zaitu inora eramaten. Haurra libre dela esan dezakezu, baina ez da horretarako gai, gauza asko behar dituelako. Aristotelesek esan zuen jada.

—Emakumezkoen elkarrizketa zahar baten parte da dena: nahi duzun ala ez norbaitek zure buruaren kontrola hartzea nor zaren sentitzeko. Zer aitortzen dugu gizon gisa? Boterea nahi dugu ala menperatuak izan nahi dugu?.

—Denborarekin eta adinarekin, generoak gutxiago menderatzen zaitu. Eta horrek berdintasunera pixka bat hurbiltzen gaitu. Gizon gehienek gaztetasuna berriro irentsiz ihes egiten dute, baina emakumeek ez dute horretarako gaitasunik.

—Eleberrian menopausiari buruz hitz egiten du protagonistak, baina andropausia pasatzen ari dira bi gizoneko pertsonaiak ere, aipatu ez duten arren. Izan ere, gizonek idatzitako edozein liburutan inoiz agertzen ez den zerbait da.

-Zer ote da xuxen Andropausia, andere? Ez zaiela zutitzen ezta?- Saltxak galde.

- Begira ezan heuk, tablet zorioneko horretan!- Dultzineak.

Minutu batzuen buruan...

-Hara, hemen, Dultz, galdetegi bat, ikasmlen aurkitu dudana.

Emakumeei buruz estrogenu—eskasia aipatzen bada, gizonzkoek kasuan androgenu—eskasia aipa dezakegu, hormona androgenikoen urritzea baita andropausiaren funtsa. Testosterona gizonzkoen hormonaren produkzioa gutxitu egiten da eta hori odolean antzeman daiteke. 60 urtetik aurrera goizeko lehen orduetan testosterona mailaren beherakada nabarmenak antzematen dira odolean. Beste hormona androgeniko batzuen urritzea ere jaso da, baina badirudi adierazlerik onena dela. Adamen sindrome ere deitu izan da Andropausia, baina ez da Bibliako aipamena, Androgen Deficiency Aging Male ingelesaren siglak baizik, Gizonzkoen Zahartzaroko Androgenu Eskasia edo antzeko zerbait izango litzatekeena.

San Luis Unibertsitatearen galdetegia

Beste edozein osasun-egoeratan bezala, garrantzitsua da gaitza garaiz diagnostikatzea eta pertsonak lehen sintomei erreparatzea. Andropausiaren agerpena ikertzeko galdetegi eta protokolo ugari dagoen arren, errazena eta fidagarriena San Luiseko Unibertsitatearena da. Gakoa lehen eta zazpigarren galderetan dago, sexu-bizitzaren kalitateari eta horren gainbeherari dagozkion galderetan hain zuzen, horiexek baitira sintoma erabakigarrienak. Galdera bien erantzuna baiezkua baldin bada, edo beste galderetako hiruri baietz erantzunez gero, ez dago zalantzarik: Adam sindromearen aurrean gaude. Testosterona neurtzeko azterketak ere badira, baina garestiak dira eta gehienetan ez dira beharrezko izaten, sintomekin aski izaten baita andropausia antzemateko.

— Sexu-gogoa gutxitu egin zaizu?

— Energiarik gabe sentitzen zara?

— Sasoia eta indar fisikoa gutxitu egin zaizkizula antzeman duzu?

— Altueran txikitu egin zara?

— Bizi izateko gogo gutxiago duzula antzeman duzu?

— Triste edo haserrekor zaude?

— Zure erekzioak indar gutxikoak dira?

— Kiroletarako gaitasuna gutxitu egin zaizu?

— Afalostean lo hartzen duzu?

— Lanerako gaitasuna gutxitu egin zaizula antzeman duzu?

-Ene Santxori egingo diot galdetegia!- jeje- Santxak.

-Bai, bai, ea zer erantzuten duen uharteko gobernariak!- Dultzineak.

-Ezentzunarena egingen du!- Santxak erran.

-Tira, Santxa, Sizilian gauden, eta oraindik ez dinagu deus ere egin hemen. Emakumeren bat ohoratu edo oinazetan den andrazkoren bat salbatu... - Dultzineak hitz beste eginez.

-Demetria batek Anjichola, Sofasola edo antzeko margolari bat aipatu zuen, Palermon zendua... - Santxak.

-Bai, entzuna dinat, bai! Ez zakinat ez ote zuten Urybaon obraren bat erakutsi... Alexa, lagunduuuu!!!!

-ALEXA:

-Lasai bikote, hemen da Alexa orotarikoa, oraingoa eta betikoa:

Sofonisba Anguissola (Cremona, c. 1535–Palermo, 1625) Cremonako familia noble batean sortu zen. 1546. eta 1549. urteen bitartean ikasi zuen pintura, Bernardino Campi eta Bernardino Gatti margolarien eskutik. 1559an, Filipe II.aren gortera gonbidatu zuten, Madrilera. Han, Elisabet Valoiskoaren, Elisabet Klara Eugenia infantaren eta Filipe II.aren emazte berri Ana Austriakoaren dama izan zen. Hala, errege familiaren eta gorteko kideen hainbat erretratu margotu zituen. Horietako batzuk, gaur egun Prado Museoan kontserbatuak, Juan Pantoja de la Cruz eta Alonso Sánchez Coello margolariei egotzi izan zitzaizkien, eta 1972ra arte ez zen finkatu Anguissolarenak zirela; hain zuzen ere, garai hartan egiten hasi ziren margolari honi buruzko lehen ikerketak eta hasi zen haren lana aitortzen. Luzaro ezkutuan egon den arren, ordea, Anguissola oso aintzat hartu zuten bere garaiko beste artista handi zenbaitek, hala nola Michelangelok eta Van Dyckek, eta beste emakumezko artista batzuen mailako sona lortu zuen, Lavinia Fontana edo Artemisia Gentileschirenaren mailakoa, besteak beste.

Dultzineak orduan: Horixe!!!! Anguissola, Anguissola! Izenez Sofonisba...!

-A zer nolako izena! Igualekoa da Iratxe- Santxak.

-Edo Dulce Maria!- Dultzineak.

-Safo eta Sofonissa! Que me da la risa! – Santxak.

-Eta jan irriz!- Dultzineak.

ALEXA:

Urybao-ko museoan obra bat eskuratua dute eta hau da hari buruz diotena:

Eskuratu berria

Sofonisba Anguissolaren margolan hau aspaldi ez dela aurkitua da, eta berrikuntza handizat har daiteke, oso urria baitzen egilearen ekoizpen erlijioso ezaguna. Anguissolak berak sinatuta eta datatuta dago, eta kontserbazio egoera bikaina du; hala, esku-hartze arin bat besterik ez zioten egin behar izan Historia de dos pintoras. Sofonisba Anguissola y Lavinia Fontana erakusketarako. 2019an egin zen erakusketa hori, Prado Museoan, Leticia Ruiz komisarioaren gidaritzapean, eta hartan erakutsi zen koadroa lehen aldiz jendaurrean.

Kristoren eta Alexandriako Santa Katalinaren arteko ezkontza mistikoa irudikatzen du obrak, Jacopo da Varazzek bere Santuen bizitzak obran jasotako pasarte batetik hartua. IV. mendeko printzesa bat izan zen Santa Katalina, eta martiri bihurtu zuten bere fede kristauagatik. Irudian, ezkon eraztuna ematen ari zaio Jesus Haurra, bertan direla Ama Birjina eta emakume heldu bat, santa Ana izan litekeena. Oso gai herrikoia den arren, zalantza ugari daude hari buruz, eta zalantzan jarri izan da goimailako printzesa dotore hura –hari estira emateko erabilitako gurpil horztunarekin eta martiritzaren palmondoarekin irudikatua– benetan izan zenik ere.

Obra 1588an datatuta dago, eta, hala, Genovan margotu bide zuen Sofonisba Anguissolak, hiri hartan bizi izan baitzen 1580. eta 1615. urteen bitartean. Urte haietan, estuasunik gabe bizitzeko moduko egoeran zegoenez, osorik pinturari emanik bizitzeko aukera izan zuen. Hortik ondoriozta liteke han bertatik bertara ezagutu bide zuela Genovako eskolako ordezkari nagusietakoa zen Luca Cambiasoren izen bereko obra, eta artista haren lanaren erreproduzio leiala dela Bilboko Arte Ederren Museoaren bilduman sartu berria den mihise hau. Litekeena da Sofonisba Anguissolak interesa sentitu izana ikonografia berritzaile harekiko; edonola ere, aipatzekoa da Haurra jada kozkortua eta amaren antz handikoa irudikatu zuela, eta horrek humanizatu egiten du haren irudia eta protagonismo handiagoa ematen dio eszenan.

Cambiasoren jatorrizko obrari leial jarraitu zion arren, Anguissolaren lanak baditu ñabardura bereizgarri zenbait. Santuaren janzkera, esaterako, oparoagoa da hemen, eta Cambiasoren irudian ageri ez diren isla batzuk ditu oihalean eta zetazko mahukan. Era berean, xehetasun eta luxu handiagok irudikatu zuen Anguissolak koroa, eta perlak erantsi zituen burukoan eta mantuaren mahukan.

Margolariaren ekarpena da, era berean, zoruaren konposizioa; maila bat du beheko ertzean, irudia marko batean sartuz bezala, eta lore mordo txikiak ateratzen dira hartatik. Bere koadroetan, Anguissolak ez ditu landareak erabateko zehaztasunez deskribatzen, baina honetan zenbait ale bereiz daitezke: bioleta usainduna (*Viola odorata*), urrabortoia (*Tanacetum parthenium*), lore bikoitzeko txiribita (*Bellis perennis*'Plena') eta Gaztelako arrosa (*Rosa gallica*'*Officinalis*'), Ama Birjina eserita dagoen harlanduaren ondoan, beharbada Kristoren Nekaldiaren aipamena eginez.

Kromatismo finak, modelatu leunak eta proportzio apur bat luzatuko irudien arteko intimitate dotoreak halako gozotasun eta baretasun berezi batez hornitzen dute konposizioa: Leticia Ruizen hitzetan: "... Correggioren dolcezza sfumata ... sumatzen da Sofonisbaren garai hartako obra erlijioso apurretan". Eta ezaugarri horrexek nabarmentzen du berriki eskuratutako obra eder hau, zeinari esker aurrerratu baita Urybaoko Arte Ederren Museoan emakumezko artisten kronologia XVI. mendera.

Sofonisma margolariaren hilobira heldu zirenean, haren senarraren idatzi hau begiratu zitzaion:

«SOPHONISBA EMAZTEARI, ANGUISSOLAKO ETXE NOBLEKOA, EDERTASUNAK ETA NATURAK EMANDAKO DOHAINEK EMAKUME ILUSTREEN ARTEAN KOKATUA, ETA HAIN NAGUSI GIZA IRUDIAK ERRETRATATZEN, BERE GARAIKO INOR EZ ZITZAION HURRERATU. HORACIO LOMELLINOK, TRISTEZIA

SAKON BATEKIN, AZKEN OHOREZKO SEINALE HAU DEDIKATZEN DU, TXIKIA HORRELAKO EMAKUME BATENTZAT, BAINA EDOZEIN HILKORRENTZAT HANDIENA »1632.

-Hunkigarria dun benetan!- Dultzineak Santxari.

-Bai, bai, halaxe da ba!- Santxak- malko bat xukatuz. Neuri Santxok horrelako bat egingen balit...!

Eta herriminak erabat joa, tabletean Olyteko berriak jakin beharrez aritu zen Santxa. -Hara, hara! Pelikula bat filmatu behar dute Olyten- Santxak erran.

-Bertze bat?- Dultzineak galde.

-Hemen duzu, andere, Udalaren oharra:

"Vampire Academy" serie filmaketa. Nola erasango duen.

Karlos III Noblearen Plaza eta Rúa Mayor

- Klean eszenak prestatzea eta filmaketa antolatzea:

Muntaian eta desmuntaian makineria eta kamioiak egongo dira Carlos III El Noble plazan eta Rúa Mayor-en. Lan hauek ez dute Plazako egunerokotasunean eragingo.

- Filmaketa:

Azaroak 4 eta 5 gauez: 16:00etatik 06:00etara gutxi gorabehera.

- Azaroaren 12ko gaueko ordutegia: 16:00etatik 06:00etara. • Azaroak 15 egunez: 11:00etatik 23:00etara gutxi gorabehera.

- Apaingarriak desmuntatzea Azaroak 5 ostirala eta 6 larunbata.

- Azaroak 13, larunbata. • Azaroak 16, asteartea.

Proposatutako datak eguraldiaren menpe daude, beraz, kontrakoa bada aldatu egingo dira, grabazio-data berrien alde aurretik jakinaraziz.

Filmaketa orduak gauez izango dira azaroaren 4tik aurrera, beraz, Udalak ekoiztetxeari gainerako auzoak bermatzeko eskatu dio.

Aldizkako mozketak adierazitako kaleetan eta/edo ondoko kaleetan egingo dira alde aurretik jakinarazi eta seinaleztapenarekin. Kartel eta seinaleztapen batzuk aldatuko dira.

Bide seinaleak egunero aldatuko dira filmaketa amaitzean.

Filmaketak establezimendu batean eragina izango badu bere eguneroko jardueraren garapenean, ekoiztetxea dendarekin harremanetan jarriko da.

Vampire Academy taldea Erriberriko herritarren esanetara egongo da edozein zalantza edo argibideetarako, posta elektronikoa bidez ekoiztetxearekin harremanetan jarri ahal izateko.

-Banpiroen akademia, alajaina!- Dultzineak erantzun.

-Gu etxetik kanpo eta banpiroak gure etxean, hau komeria!- Santxak.

Ondoren Dultzinea.com webguneara iritsitako azken berriak ikusatu zituen.

-Hara, Dultzinea, Simonari buruzko lan bat argitaratu du mutil batek!- Santxak erran. -Ah bai? Hori bai interesatzen zaidala! Adi nagokin hiri!

Eta Santxak, poliki irakurri zion, abisu emanez:

-Zuk ulertuko duzu, bai, nik baino askoz hobeki. Nik Alexaren beharra izanen dut mamiaz ondo jabetuko banaiz. Hasteko "beregainago" zer den ez dakit,...Tira, hastera noa. Alexa, zuk nahi duzunean sartu.

ALEXA: Ados, Santxa! Zu ezkutari eta ni mirabel! Gogo onez.

Sozialtasunean beregainago

Michael Urdazgain ikerlariak 'Simone de Beauvoir. Norbanakoa eta burujabetza' saiakera plazaratu du. Filosofo feministaren subjektu eredutik abiatuta, gaurko zenbait eztabaidari heldu die.

ALEXA: Beregain. Hiztegi Batuak dio: Bereiz; bere kontura, inoren mende egon gabe.

Simone de Beauvoir, XX. mendeko filosofo existentzialista eta autore feminista ezaguna. Hark landutako norbanakoaren eta burujabetzaren erudian oinarrituta, egungo hainbat eztabaidari heldu die Urdazgainei Simone de Beauvoir. Norbanakoa eta burujabetza saiakeran; Jakintzak plazaratu du, «bestelako logika bat eta bizitza horiek pentsatzen segitzeko ekarpen bat egite aldera, filosofiatik».

«Bidaia bat». Horixe proposatu dio Urdazgainei irakurleari, editorearen hitzetan, burujabetzaren, klasearen, aitortza kulturalaren, subjektu ezberdinen artikulazioaren eta beste hainbat gairen ingurukoa. «Modernitateko subjektu maskulino jainkotuari, egin zaizkion inpugnazioen berri ematen digu; iristen ari gara, iritsi beharrean gara, beste subjektu batera, den eta besteen beharra duen batera. Hortik formulatu daitezke mundu hau bizigarriago egingo duten proposamen politikoak».

«Neoliberalismo patriarkaletik» eta «erantzun kontserbadoretik» aparte, Michael Urdazgain ikerlariaren ustetan, bada beste pentsalari multzo bat, garaia eta garaiko galderak bestela harilkatzen ari dena: «Bestelako logikak, bestelako subjektuak eta, oro har, bestelako bizitzak planteatzeko ideiak ekartzen». Eta bada horien artean erreferentziazko autore bat harentzat: ...

ALEXA: Zaurgarri . Zauritzen duena, min egiten duena. Mingarri, laugarri. Buruaski. Ez dakar Elhuyarrek eta Hiztegi Batuak ere ez. Buruhandi badakar.

Askotariko pentsalarien ekarria baliatu arren, testuaren abiapuntuan De Beauvoirren Bigarren sexua (1949) jarri du Urdazgainei; lan horretako aipu famatu batek ekarri zuen paradigma aldaketa: emakume ez dela jaiotzen, egin egiten dela.

«Lan honek ez ditu De Beauvoirren ideiak laburbiltzen bakarrik», erantsi du; «horiek izandako garapena aztertzean dago lanaren ekarpena» erran du editoreak.

ALEXA: Paradigma. Zerbaiten adibidea edo eredia.

Trantsizioen txirikorda

Hala zapalkuntza nola emantzipazioa ulertzeko eta gaurko eztabaidei argi emateko De Beauvoirren lanak zer-nolako ahala duen azpimarratu du Urdazgainei. «Hark esan zuen gizona dela bata, absolutua, eta emakumea bestea, erlatiboa. Hori ikusita, emakumeen norbanakotasuna eta burujabetza garatuko ditu; hor, eztabaida indartsu bat sortuko da filosofian: hori egitean zenbateraino pitzatzen eta zenbateraino birsortzen du De Beauvoirrek norbanako buruaskiaren ideia?».

Ikerlariaren ustetan, eta ekofeminismotik eta korrante dekolonialetik egindako kritikekin bat etorrira ere, pitzatu egin zuen batez ere: «Birsortzen badu ere, ederki pitzatzen du, eta bestelako subjektu bat aurkeztu: hezur-haragizkoa, eginean egiten dena, baldintzatua, kokatua, irekia eta, gorputzetik abiatuta, bizitzako dimentsio orotan bere norbanakotasuna eta burujabetza gauzatzeko gaitasun material eta formala izan behar duen proiektu gisa ulertzen duena [subjektua]».

ALEXA: Dekolonial. Ez dakar Hiztegi Batuak.

Oinarri horretatik abiatuta, De Beauvoirrek irekitako arrakalek izandako sakontze batzuk aztertu ditu egileak; Butlerrena eta Wittigena, batik bat: gizon eta emakume egiteko prozesuak auzitan jartzea eta kategoria horiek «desagerrarazi beharreko klasetzat» aurkeztea, hurrenez hurren. Teorizazio berri horiei segika, beste ertz bat ere garatu nahi izan du: gizon eraikuntzarena. «De Beauvoirrek bi kritika egin zizkion gizonari: gorputza ukatzea eta horri lotutako elkarrekikotasunik eza. Horiek horrela, saiatu naiz planteatzen nola artikulatu dezakegun gizontasunaren trantsizioa premiazko beste trantsizioekin: feministarekin, sozioekologikoarekin, euskaltzalearekin, dekolonialarekin...».

ALEXA: Artikulatu. artikulatu, artikula, artikulatzen.

1 . Ahotsaren organoen bidez, hizkuntzaren hotsak sortu.

2 .. Teknol. Piezak giltzadura bidez lotu. Ikus giltzatu.

Santxa hatsanka heldu zen testuaren amaierara, eta hori puska batzuk salto egin zituenik...

-Bikaina, bikaina!- erran zuen Dultzineak ojuz.

-Monaco dosi bat behar dut! Uffff!!! Ene txihuagua maitea!- Santxak musua gorrituta puzka. Alexa, mesedez, laburpena.

ALEXA: Olyten bihar eguraldi ona egingen du, eguzkia, eta ifarraldeko haizea...

-Alexa, faborez!- Santxak.

-Gizon eraikuntza nola artikulatu dekolonial abiatuta elkarrekikotasun, baldintzatua, kokatua, dena buruaski buruaski, piiiinii, piiiinii

-Bateria kargatu beharrean gaude, andere- Santxak.

-Bai, hala dirudi, Alexak burua galdu duela dirudi. Kargatu ostean.

ALEXA: Ni Alexa naiz, nor zara zu?

-Santxa naiz eta laburpena nahi dut- Santxak.

ALEXA: Zerena?

Santxak:

-Sozialtasunean beregainago txirikorda korrante dekoloniala pitzatu...

- Ba érrateú, hauxe: emakumeak berea egin behar duela, nor izan behar duela.

XVII. ATALBURUA

Erromara bidaia, Erroman sartzea. Artemisia Gentileschi, Erroman jaioa.

Dultzineak faltan botatzen zuen “Bigarren sexua” liburua, Simonarena, eta damu zuen Ordojanen emazteari eman izana, baina tira, egina zegoen hura, eta orain herrietako liburutegiak geratzen zitzaizkion, edo bertzenaz, Alexa orotarikoa.

-Alexa, irakur, arren, Gizonak oker larri bat hasten den pasartea!-Dultzineak.

ALEXA:

-Bai, andere, oraintxe egingen dut bilaketa.

Santxa ezkutaria eta Dultzinea nagusia, entzueko prestatu ziren.

ALEXA:

—Gizonak oker larri bat egiten du ohaideari bere erritmoa inposatzen saiatzen denean eta hari orgasmo bat ematen tematzen denean: askotan, ez du lortzen emakumea bere era berezian bizitzen ari den atsegin-moldea haustea baino. Molde hori plastikoezia da termino batez bataiatua izateko: baginan edo sistema genital osoan kokatuak edo gorputz guztian sortuak diren zenbait espasmok bururatze bat osa dezakete; zenbait emakumerengan, orgasmo batekin parekatzeko bezain erregularrak eta bortitzak dira espasmo horiek, baina emakume maitemindu batentzat bukaera lasaigarri eta gogobetegarria izan daiteke gizonaren orgasmoa ere. Eta gerta liteke, orobat, forma erotikoa lasai-lasai urtzea, tai gabe, talkarik gabe. Hainbat gizon arretatsu baina sinplistik bestela uste badute ere, arrakasta izateko ez da plazeraren sinkronizazio matematikorik behar, baizik eta forma erotiko konplexu bat ezarri behar da.

Askok imajinatzen dute denbora- eta teknika-kontua dela emakume bat “gozaraztea”, hau da, indarkeria-kontua; ez dakite egoerak bere osoan zenbateraino baldintzatzen duen emakumearen sexualitatea. Haren boluptuositatea, esan dugun bezala, lilura moduko bat da; abandonamendu erabatekoa eskatzen du; hitzak edo keinuak laztanen magiarekin bat ez badatoz, galdu egiten da lilura. Besteak beste horregatik ixten ditu begiak hainbestetan emakumeak: fisiologikoki, erreflexu bat da begi-niniaren dilatazioa konpentsatzeko, baina ilunpetan ere beheratu egiten ditu betazalak; dekoratu guztia ezabatu nahi du, singularitasuna ezabatu uneari, bere buruari eta maitaleari, eta galdu amaren sabela bezain bereizezina den gau haragizko baten bihotzean. Eta batez ere, gizasemea gaintetik jartzen dion bereizketa hori deuseztatu gogo du, harekin bat egin. Esana dugu emakumeak objektu bihurtuz subjektu segitu nahi duela.

Gizona baino sakonago alienatua dagoenez- bera desira eta durduza delako bere gorputz guztian-, ezinbestekoa zaio ohaidearekin bat egitea, subjektu izango bada aurrerantzean ere; hartzea eta ematea gauza bera izan behar lirateke bientzat; gizonak hartu baizik ez badu egiten, eman gabe, edo plazera ematen badu baina hartu ez, emakumea erabilia sentituko da; Beste gisa mamitzen den bezain laster, beste inesentziala da; horren ondorioz, bestetasuna ukatu beharra dauka. Horregatik zaio penagarria, ia beti, gorputzak bereiztea.

Gizonak, koitoaren ondotik triste zein pozik sentitu, naturak engainaturik zein emakumearen nagusi sentitu, haragia ukatzen du zernahi gisaz; gorputz oso bihurtzen da oster, eta lo egin nahi du, bainu

bat hartu, zigarreta bat erre, aire zabalera atera. Emakumeak, berriz, haragizko harremana luzatu nahi luke haragi bihurtu duen lilura guztiz desagertu arte; bereiztea atsekabe mingarria da, beste bular-kentze bat balitz bezala; sumindu egiten da maitalea brastakoan apartatzen bada. Gehien mintzen dutenak, ordea, hitzak dira, instant batez sinetsi duen bat-egitea gezurtatzen duten hitzak.

Simona B. de A.

Artemisia Gentileschi, Erroman jaioa 1593an eta Napolin hila 1652-53an, Orazio aitaren ikaslea izan zen, zeina, era berean, Caravaggiorengandik gertuen zegoen margolarietako bat baitzen. Bere gaztaroko lanak 1612 eta 1621. urteen artean egin zituen Erroman eta Florentzian; lan horien artean, Florentziako Pitti Jauregiko Maddalena eta Capodimonte Museoko Giuditta e Oloferne obrek Orazioren eragina erakusten dute, duten estilo caravaggioar handiagatik. Aitarekin Genoan egonaldi labur bat egin ostean, Erromara itzuli zen 1622an, eta hantxe egon zen lau urtez.

1627an, Napolira joan zen bizitzera, eta han eman zituen bere karrerako urterik oparoenak. Gainera, Napoliko bildumagile eta margolariak asko estimatzen zuten. 1639 eta 1641. urteen artean, Ingalaterran egon zen, gaixorik zegoen aitari laguntzen. Izan ere, Orazio Ingalaterran zegoen bizitzen.

Koadro honetan Judith ikus daiteke, alargun hebrear gazte eta aberatsa, Holofernes jeneral asiriarrari burua mozteko puntuan dagoenean. Holofernes Betuliako gotorlekua erasotzen ari zen bere armadarekin, eta hiri txiki hori errenditzekotan zegoela, Judith, bere soinekorik ederrenekin jantzita, Holofernesen kanpamenduan sartu zen Abra neskamearekin batera, bere senarraren hilketaren gaineko bengantza hartzeko, baina, batez ere, hiria etsaiaren atzaparretatik askatzeko.

Baina zentinelek harrapatu egin zuten, eta Holofernesen aurrera eraman zuten, zeinek oturuntza batera gonbidatu baitzuen bere dendan. Afarian, jeneral asiriarra mozkortu egin zen, lo geratuz. Orduan, Judithek gerlariaren ezpata hartu zuen, eta, Abra esklaboaren laguntzarekin, burua moztu zion. Asiriarren armadak, buruzagirik gabe, setioa altxatu eta alde egin zuen. Lan honetan, Judith heroiak kastitatea eta indar morala sinbolizatzen du, nahiz eta sarritan, batez ere Kontrarreformaren garaian, Elizak heresiaren gainean izandako garaipena sinbolizatzen zuen.

XVI. eta XVII. mendeen artean Bibliako pasarte hau landu zuten margolari gehienek emakumeen ihesaldiaren unea aukeratu zuten, Holofernes hil ostean; bestela, Judith margotzen zuten, Holofernesen buru moztua erakusten zuen bitartean. Hala ere, Artemisia Gentileschik unerik dramatikoa islatu nahi izan zuen, hau da, burua mozteko unea. Hautaketa horren aurrekaria Caravaggioren gai bereko mihise ospetsu bat da: Giuditta Coppi izenarekin ezagutzen da eta Barberini Jauregian dago ikusgai. Artemisia Gentileschiren lana eta bizitza aztertu duten adituek beti nabarmendu izan dute pintatutako gai honek lotura estua duela margolariak 1611. urtean (19 urterekin) bizi izan zuen gertakari traumatikoarekin; izan ere, Agostino Tassi pintoreak bortxatu egin zuen. Honako hau gaztaroko lana da, Erroman egindakoa 1612 eta 1613. urteen artean, hau da, indarkeriazko gertakari hori sufritu eta denbora gutxira.

Lan honen bertsio autografoa Florentziako Uffizi Galerian dago gordeta. Adituen arabera, ikusgai dugun lanaren ostean egindako bertsioa da.

Dultzinea, eldarnio batetik jaiotz bezala, honela mintzatu zitzaion Santxari:

-Hara, hemen, Santxa, benetako Demetria bat, karlisten gerran bortxatu zuten haren antzeko zoritxarra izan duena. Gora Artemisia, gora! Goratua bedi! Eta zin dagit, zin, nik Agostino Tassi pintorea bilatu, aurkitu eta ezpataz menderatuko dudala.

-Ondo errana, andere, baina kontuan har beza, eta ohar, lau mende joanak direla gertaera hori jazo zenetik, eta ondo ezkutuan izanen dela Tassi hori, eta erranen nuke, lurpean gordea ere bai.

-Ba hemen nago ni, lur gainerako bezala lurperako, berdin eginen zetunat zaldizkoaren lanak eta satorrarenak, baina zerua eta izartegia lekuko, Tassi hori atzeman arteko onik ez dudala izanen, eta atzeman, atzemango dudala.

XVIII. ATALBURUA

Arjel, egonaldia. Mundua irakurtzeko alfabetoak. Eta Kena Burguleren elkarrizketa. Santxak nahi du Senegal, Dultzineak etxera.

Gatibu hitza edo berba entzuten zuen bakoitzean Gatibu musika taldearen "alkandorie" etortzen zitzaion jakon burura burure gure Santxari.

Musturrek sartunde

Erdi lo hartu nindun Zure telefono deixek Ez dau inor etxien

Eta, pasatu zaitez. Geldi egon ezine

Sartu eustan gorputzien Eta nerbixoso pareu Segundo bakarrien.

Ta prakak ezin sartu Helduko nazela berandu Ezin lotu alkondarie

Eskilarak beherantz banoie.

Eskutik heldu ginen Eskuak sutan ziren Di-da gure artien

Sortu zan rollotxue Portaleko atien Lehenengo kalentoie

Igogailu barruen Fuera lotsa guztixek.

Ta prakak ezin kendu

Ezin izango dot inoiz ahaztu Ezin kendu alkandorie

Sofaren ganien etzunde. Bildur barik

Irrintzika

Erropak etxien ziher botata Ta zu bilusik.

Zoro moduen

Maitatu ginen

Eta probatu gendun estixen Musturrek sartunde.

Zoro moduen

Jarri ginen

Ta gozatzen heldu zan Goixa.

Erdi lo hartu nindun Zure mutilaren deiek:

Hortxe aparkatu dot Laster gorantza noie.

Ta prakak ezin sartu

Ezin ixengo dot ahaztu inoz Ezin lotu alkandorie.

Eskilarak beherantz banoie. Agur esan barik

Banoa,

Banoa.

Deitu nahi duzunien.

Eta zoro moduen

Jarriko gara

Ta probatu gendun estixen

Musturrek sartunde.

Zoro moduen

Jarriko gara

Ta gozatzen goiza helduko da Alkarrerri lotuta.

Andro Troppok hau dio Arjeli buruz:

Arjelen sartzea, Zerbantesentzat, etsipen eta tristura handi batekoa izan zen, bertso hauetan dakarrenez:

Heldu nintzen gatibu eta ikusi nuen lur hau

hain ospetsua munduan, bere baitan

hainbeste pirata estaltzen, onartzen eta ixten dituen,

ezin izan nion lantuari eutsi...

El trato de Argel liburuan lanean idatzi zituen eta berez mintzo dira, oharren beharrik gabe.

Arjeleko ziutatea idoro zuen Zerbantesek Erroma edo Palermo baino jendeztatuagoa, ehun mila eta gehiago biztanle baitzituen (horietatik hogeita bost mila esklabu), eta Napoli bezain animatua edo gehiago.

Merkataritzara baino gehiago bidaiariak eta kostaldeetako biztanleak preso hartu eta gero saltzetik zegoen negozio berebizikoan zebiltzan.

Horretarako zeuzkaten hogeita hamar bat galera bizkor eta maneiagarri, kristau kostaldeak eta ontziak ehunka astintzen zituena, eta milaka gizagaixo hartzen zuten atxilo, eta horien bahiaren ordainarekin eta kendutako salerosgaiekin, Mediterraneoko hiririk oparoenetako bat izatera heldu zen.

Arjelera heltzean gatibuak saltzen ziren esklabuen merkatuan, baina Miguelek zortea izan zuen eta ez zuen tramite hori pasa, esleitu baitzioten Arnaute Mami-ren bigarrenari, Dali Mami-ri, zeinak, Sessako dukeak eta don Juanek Felipe II.ari egindako kartak ikusirik, soldadu ohiari aurkitu zitzaionak, pentsatu baitzuen, pertsonaia garrantzizkoa zela, eta erreskatea jarri zuen bost mila ezkututan, erabat neurritz gain, baina halere, bostehun dukatera jaitsi zuten, eta guztiarekin, bertze gatibuen truke eskatzen zutena kontuan hartuta (berrehun eta hirurehun dukat) dezenteko kopurua zen.

(...)

Horrela hasi zen borts urteko gatibualdia, informazio zehatzak dezente dira hartaz, familiaren eskariak eta bertze gatibu batzuen lekukotzengatik, baina deus ez dakigu.

Dultzinea eta Santxa kontu handiz zebiltzan, bahituko ote zituzten; baina artista batzuk baitziruditen, gehiago ziren umeen barregarri, bertze deus baino.

Arjelen, emakumeen egoeraz jakin nahi izan zuten eta suertez, Raysa aurkitu zuten eta honek eman zien hango berri.

«Nire asmoa etxekoandrea izatea baino askoz gehiago zen. Ezin nuen ideiarra ohitu eta ezin nuen imajinatu egunero lau hormen artean giltzapetuta. Berehala dibortziatu nintzen, nire lehen umea izan ondoren »

Bere seme-alabak lan eginez eta zainduz bakarrik independizatu zitekeen. Gero, irakasle laguntzaile gisa aritu zen unibertsitate batean; zentroko langile bakarra zen. Ez zitzaion gustatzen egiten ari zena, baina jakitun zen menpe egon beharraren inposizioaren kateak hausteko aukera emango zion ekintza iraultzailea zela.

-Nirea herri matxista da. Ez duzu emakumerik ikusten kalean. Orain, azken urteotan, dagoeneko badaude batzuk eskolan edo anbulatorioan lan egiten dutenak. Baina oso gutxi gara. Kaleak haientzat dira eta etxea guretzat», dio haserre. Ziurtatzen du bileretan bera dela hitz egiten azkena eta, hasieran, etxez etxe familien beharrak ikustera joaten zenean, bazeudela atea ireki eta ez zutela jorratu esaten zioten gizonak. Emakumeekin- Raysak adeitasunez erran.

Raysari agur erran, eta ziutatean barrena ibili ziren, eta Zerbantekin argazkiak ateratzen uztearen truke, txanpon batzuk jaso zituzten. Ondoren mokadu bat egitera joan ziren txit gustura. Berdindu zirenean, honela mintzatu zitzaion Santxa bere andereari:

-Berorrek errana da, Dultzinea nagusi burutsu horrek, gure sentipen eta sentimenduei hitzak jartzeko gai ez garela, eta horregatik irakurtzen dugula. Eta hara, gaur ezin ninteke horrekin desados egon.

-Zer bada?- galdetu Dultzineak.

-Aurkitu baitut, zoko horretan aldizkari zahar bat, eta bertan "Mundua irakurtzeko alfabetoak" deituriko artikulua, biziki gustatu zaidana, Daisuke izeneko batena, eta uzten badit, hurrengo pausaldian, itzalik badago, irakurriko diodana.

-Bai, Santxa, arretaz entzungo dizut, elikagaia behar baitu buruak, nola behar duen sabelak.

-Ederki, bego bada nire zorroan, aldizkari hori, letrak ez baitira aldatuko lekuz, ez aditzak bihurtuko zenbaki.

Eta, hala, berandu gabe heldu zen, toki aproposa irakurketarako. Santxak orduan, ekin zion ekin, bere irakurketari:

Mundua irakurtzeko alfabetoak

Irakurtzeko modu asko dago, mundua irakurtzeko modu asko. Argazkilariak bere begiz irakurtzen du lehenbizi paisaia, aurrean daukana, eta kameraz hartzen du instant hori, kameraz idazten du. Guk begi kolpe batez irakurtzeko moduan.

Arrandegi batean erosleak arrainak irakurtzen ditu.

Auto baten motorrari begira eta entzunez, mekanikariak motorra irakurtzen du. Giza soinari begira, mediku batek gizakiaren gorputza irakurtzen du.

Tabernariak aurpegiei begira, bezeroaren aldartea irakurtzen du.

Belarzialeak zelaiko belarrak irakurtzen ditu, eta behar dituenak hautatzen.

Flysch bat irakurrita geologo batek hamaika jakingarri ateratzen ditu.

Liburu bat irakurrita, han idatzitakoa jakiten da, hizkuntza eta alfabetoa ezagutuz gero. Txori doinua irakurrita, txoriak ezagutzen dira.

Arlo bakoitzak du bere alfabetoa.

Arrandegian alfabetoa arrainez eratua da. Autoan pieza eta zaratez. Medikuek soinaren alfabetoa ezagutzen du, mina, hazkurea, ... Tabernan tristura, poza, nahigabea,.. dira alfabetoaren parte. Zelaian kalendula, zainbelarra, ... Flysch-ean geruzak, tolesak, formak... Liburuan a, b, c, d...letrak (gure alfabetoan). Abestietan notak,...

Ia ezinezkoa da pertsona bakar batek alfabeto guztiak ezagutzea.

Eta ia ezinezkoa, pertsona batek alfabetorik batere ez ezagutzea.

Guztiok gara alfabetatuak eta guztiok alfabetatu gabeak edo analfabetoak. Aldi berean.

Oharmena behar du argazkilariak eta oharmena argazkia ikusten duenak ere. Xehetasunez jabetzeko begi ernea.

Ez, ez dago guztia liburuetan. Ez da dena ikasten Salamancan. Ez behintzat unibertsitatean. Beharbada bai Kalixto eta Melibearen lorategian. Lorategi hori marraztu zuen Luis Goitiak.

KALIXTO ETA MELIBEAREN LORATEGIA

La Celestina liburuan agertzen diren pertsonaiak dira Kalixto eta Melibea. Argitaletxearen webgunetik atera ditugu honako jakingarri hauek:

Zelestina da, On Kixoteren ondoren, zabalkunde eta osperik handiena lortu duen idazlan espainiarra, eta antzerki modernoaren hastapenetako obra dramatiko garrantzitsu eta sakonena. Obra paregabe eta errepika ezina da, ez dago sail edo genero jakin batean katalogatzerik; ez da ez antzerkia eta ez eleberria, ez dagokio ez Erdi Aroari eta ez Errenazimenduari, ez da ez estoikoa eta ez moralizatzailea.

Fernando de Rojas, La Puebla de Montalán herrian jaio zen, Toledon, 1470 urte inguruan judu kristautuen familia batean. Inkisizioaren jazarpena jasan zuen, ezkutuka judaismoa praktikatzen zuelako salakuntzaren pean, eta dokumentu horietako batean esaten da, hain zuzen, Melibearen autorea dela. Legeak ikasi zituen Salamancako Unibertsitatean; halaxe dio Rojasek berak lagun bati idatzitako gutunean eta, gainera, ikasle urte haietan, oporraldi bat aprobetxatuz idatzi zuela obra hau, oso gazterik alegia, 25 bat urterekin. Legeetako Batxiler titulua lortu ondoren, Talavera de la Reina finkatu zen eta han jardun zuen abokatutzan. Hiri hartan ezkondu zen eta uste da bertako alkate ere izan zela. Ez dakigu beste ezer idatzi ote zuen eta idazle garaikideen artean ez dago Rojasi buruzko aipamen bakar bat ere. 1541ean hil zen.

Asko dira alfabetoak, asko irakur daitezkeen gauzak. Argazkia da idazbide eta irakurbide horietako bat, gaur den egunean txit erabilia, argazki-kameren bidez eta eskuan edo eskura dagoen smartphonaren bitartez. Milesker argazkilariei, eta bereziki Juan Luis Aizpuru Beristaini, kostaldean atera dituen argazkiengatik. Hurren arte!

-Bejondeiola, Daisuke horri, arrazoi-arrazoia dauka, inork baldin badauka, eta Segurolaren baimenarekin, baitio ez dagoela arrazoia edukitzerik, txalo bat merezi du noski- ihardetsi zion Dultzineak, eta bere esku finekin esku zartatxo batzuk eman zituen.

-Txalo egiten dut nik ere, andere, baina hainbeste liburu eta kulturarekin, ez al zara nekatzen eta aspertzen? Nik nahiago gauza arinak, dibertsioa, eta...

-...Turkoak gauzez- erantsi Dultzineak.

- Horixe ta bera, erran duzuna berbera- Santxak-. Gorputzak zerbait eskatzen dit. Berorri ez?

-... Zaldun ibiltariak goi-asmoak zetun eta ez beheko pasio mundutar horiek! Ez al dun oroitzen Olyteko gazteluan hartu genuen asmoa? Horrenbesteko bidaia, demetria olde eta gorabeherekin, nagon, ez ote dugun iparra pixka bat galdu, nahiz eta hura bere lekuan egon beti.

-Ez, andere, ez. Baina....-Santxak.

-Baina...zer? Zer eginen huke orain? Nora joango hintzateke?-Dultzineak galde.

-Nora? Egia erran dezaket?- Santxak.

-Egia ez erratekotan, hobe isilik egon!- Dultzineak.

-Ba, oso gustora, Senegalera joango nintzateke!- Santxak.

-Senegalera? Tokitan zagon!- behordun nagusiak.

-Ez hain urruti ere! Kontinentez aldatu beharrik ez!- ezkutariak.

-Gure Rozinanta eta Ruzia gaixoak! Egarriz eta gosez hilko lirateken eta nekeak eraginda!

-Bilatuko genuke modua, haiek arintzeko, gameluekin edo...-Santxak.

-Nik etxerako gogoia dinat, ba, Santxa maite- Dultzineak.

-Zergatik halako presa etxeratzeko? Etxean ez dun bere lekutik mugituko...!- Santxak.

-Hori hala dun bai, baina...

-Norbait zain daukazu? Don Kijote ospitalekoa?-Santxak.

-Nahiago niken hori hala balitz!- Dultzineak.

-Animatu, andere,...!- Santxak.

-Hoa heu, askatasun osoa ematen dinat, hoa eta Olyten kontatuko didan zer moduz joan zainan beltzerri hartan...han betiko geratzen ez bahaiz behinik behin...

-Ez, hori ez, nik ez zintuzket utziko sekula?

-Zergatik ez? Bilatuko ditun lagunak biderako!

-Dultzinea bakarra da... Dultze Maria Mielgo Azkona, maite zaitut. Behordun zaldunak, harriduraz entzun ondoren:

-Baita nik hi ere, Iratxe Landibar Azkarate. Aspalditik gainera.

Besarkatu ziren, musukatu eta gau hartan, batera etzan ziren lehen aldikoz, lastaira berean.

Goizean Santxa lehenago itzarri eta gosaria prantatu zion Dultzineari.

-Senegalera joango gara, andere?

-Bai, joango gaitun, maitea. Baina ez ahantz gure goi-asmoa, emakumea salbatzea dela!

-Bai, eta salbatuko dugu!

XIX. ATALBURUA

Senegal. Dakarrera heltzea.

Baoberoa liburua, Kena Burgule

Egun batean jatetxe batean, Jean Wermer ezagutu nuen, arabiar printze bat bezala jantzita. Nitaz lehen unetik interesatu zen. Berehala egin ginen lagun, Leonoraren laguna baitzen. Ni limurtunahian aritu zen diskrezioz, begia kliskatuz disimuloz, belgikarrek egiten zekiten eran. Negua zen. Hotz bikain bat egiten zuen beso bero batzuen artean hondoratzeko eta zorionaren zirrara sentitzeko. Markatu ninduen proba batetik atera berria nintzen, hortaz, pentsatu nuen Jean Wermer-ekin egonkortasuna aurki nezakeela. Denborarik gehiena berarekin ematen nuen. Bakarrik bizi zen etxe batean, lantegi, etxebizitza eta erakusketa galeria zen hartan: Jean Wermer margolaria zen. (...)

-Badakizu dantzan?-galdetu zidan haietako batek. Ezustekoan hartu ninduen galderak eta ezetz erantzuteko zorian egon nintzen.

-Dantzan ba al dakidan? Jakina baietz!

-Ah, bai, beltz guztiek bezala. Guk kontrata zaitzakegu. Dantzari gisa, soldata finko bat irabaziko duzu, astero ordainduko dizugu, eta ehuneko bat jasoko duzu likore eta txanpainetan, animatzaile izateagatik. Gau hartan bertan hasi nintzen. Dantzaren bidez bilatzen nuen nahita, biltzen ninduen zarakar hartatik libratzea, larraren kurruska, beroaren murmurioa naturalki aurkitzea galerazten zidan hartatik. (...)

Frantses kolegioa, gure arbaso galoak, kooperazioa, trukaketa, herrien arteko adiskidetasuna; horiek guztiek dimentsio berri bat sortua zuten: atzerritarra.

Zeure etxean aitortua ez izatea, destinoak molda eta gida zitzakeen lotura benetakoen artean. Zalantzarik gabe, beharrezkoa zen naretasun eta onarpen aura hura. Nik gehiegitan jokatu nuen paper berbera: emakume beltz bat, denbora askoan bere arbaso galoetan sinetsi zuena, eta aitortua ez izatean, pentsatu zuena errudunak hauek zirela: haurtzaro ez bizitakoa, kolonizazioa eta ama-aiten arteko bereizketa.

Babesle bat bilatu eta hura baztertzea, ez justifikatzeagatik amak gu bion artean ezarri zuen isiltasuna, emakume izan nintzen egunetik.

Egileari elcational.cat –ek egindako elkarrizketatik pasarte batzuk:

Zona beltz askotatik pasa naiz ene bizitzan, eta oraindik pasatzen naiz bakarren batetik. Niri beharrezkoa zait hori idazketaren bidez ateratzea. Bestetik, egile afrikarrek beren kontinenteari buruz idazten dutenean, beti daukate polizia-ukitua, intriga, gauzak ikusteko gure ikusmolde kosmogonikoarekin lotura daukana. Afrikan beti dago sekretu bat, ezagutu beharreko misterio bat...Ez da dena dirudiena. Gauzak ikertu behar dira, genero beltzaren erara nolabait.

Nago orain hasten dela egiaz ene bizitzako marginalitatea. Gauzen bazterretan bizitzea gustatzen zait, periferian, ekilibrista izateko bi munduren artean. Bizi naizen eran bizitzeak, pertenezia sentimendutik liberatua, beste era batera sentiarazi dit marginalitatea. Baina marginalitate era hau atsegin dut, uzten baitit ezberdin adierazten eta bizitzen. Ezberdina naiz. Eta gero eta gehiago.

Neure adinean, berdin dit. Egun bakoitza jaio berri banintz bezala da....

-Lehen idazle afrikarrek, independentzien aurrekoek, salatu egin zuten kolonizazioa eta kolonizatzaileekiko lankidetzak. Ondorengo idazleek, Sony Labou Tansi-k eta Ahmadou Kourouma-k esaterako, independentzien erregimenak salatu zituzten. Garai bat zen... Ilusioen garaiaren ondotik desilusioena etorri zen. Baina Afrika mugimenduan dago. Eta ez dut gustuko nola tratatzen duten maiz garaiotan.

Ezin duzu gizarte bat osorik salatu... ezin dira sistematikoki kritikatu afrikar gizarteak. Europarrek gustatzen zaien bakarra da eurek Afrikaz espero dutena idazten duten egileak; eurentzat Afrikari buruzko literatura soilik izan daiteke salaketa, salaketa, salaketa... badira egile afrikarrak talentu handia zutenak, baina europar argitaletxeek bazter utzi dituztenak, William Sassine esaterako... Europan bizi direnak bakarrik ezagutzen dira eta hedabide europarrek nahi dutena esaten dutenak.

Afrikak bizirauten du, gatazkak gatazka, baina Mendebaldeak badirudi ez duela aditu nahi gauzak aldatzen ari direla. Ikusmolde ezkor baten klitxean irau nahi du. Horrek egiten dit minik gehien. Ez nago ados sistematikoki gure gizarteak kritikatzearekin. Ustelkeria, europarrek manipulaturako politikariak eta espolio sistematikoa egon arren, afrikar asko dira kontinenteari irauarazten diotenak beren duintasunarekin. Guk, Afrikan bizi baikara, badakigu, trabak traba, jendeak irau egiten duela. Atsekabe eta txirotasunagatik ere, ez dago miseriarik. Miseria arimaren pobrezia da, baina Afrikan mantentzen da partekatzearen, egindako lanaren sentimendua... jendeak energia handia du, eta dinamika oso baikorra, itxaropen handikoa.

Afrikar kontinentean bada txirotasunik, baina ez miseriarik. Miseria da, egoera txarrak espirituari eragiten dionean, bihotzari, gizakiaren beraren muinari... Egiaz, miseria handiagoa dago Europan eta Estatu Batuetan, Afrikan baino. Afrikan mundu guztiak pasatzen du eguna, beti, konponbide bila, ez arazoak sortzen. Mendebaldeko gizarteak itxiak dira, elkertasunik gabekoak. Jendeak ez du elkar agurtzen... Sistemak itxi egin ditu. Mendebaldeak arazo espiritual bat dauka.

Salatu behar litzatekeena da gauzen munduko ordena. Kolonialista zirenak neokolonialista bihurtu dira, baina ez da hori bakarrik, klase politikoa klase ustela bihurtu da Planeta guztian, ingurumena suntsitzen ari da, eta orain mugak itxi dira, baina europarrak mundu osoan ibili dira, dena okupatu dute. Europarrak mugi daitezke, baina gu ez...

Hemen esan ohi da emakume afrikarrak otzanak direla, gizasemeek agin diezaieten uzten dutela. Baina usu emakumeak dira etxeaari eusten diotenak, eta juxtu horregatik, ez dute ezergatik justifikatu behar... Emakume afrikarrak oso harro daude familia sostengatzeaz, nahiz eta diru gutxi irabazi. Emakume afrikarrak ez dira zorigaitzezkoak... Ederrak dira, alaiak, erakargarriak, kementsuak...

XX. ATALBURUA

Sevilla.

Andro Troppo:

Sevillan Zerbantesek antzerkiko bere lagun zahar baten ostatuan hartu zuen ostatu, Tomas Gutierrez zen lagun hori, gaztetan aktore izana, eta taularen ordeztalaritza hartua zuena.

Tomas Gutierrezen posada Sevillako alojamenturik garrantzitsuen eta luxuzkoena izanen zen ziur asko. Komiko izanak fortuna bat gastatu zuen harizko izaretan, eta bezeroentzako kuberteria zilarrezkoa zuen. Establezimendu horretan pausatzen ziren noblezako, finantzatako eta politikako pertsonaje handi guztiek, eta baita hiritik pasatzen ziren merkatari aberats eta itzal handikoek ere.

Lau hilabetez egon zen Zerbantes batzorderen batean sartu nahirik edo negozioren bati ekin nahian, Tomas Gutierrez lagunak zeuzkan harremanen babesean seguraski, Sevillako gizonik ahaltsuenekin baitzuen harremana, bai bertan ostatu hartzen zutelako bai haiekiko harremana zuelako ezagunak.

Espainiak, Tercera uhartean garaitu ostean, pretendiente portugaldarraren aurka, ez zuen baztertua Ingalaterra herejeari eraso egitea. Orduko giroa, dioskue historialariek, euforia handikoa zen, eta gerra ingeles kostetaraino bertaraino eraman nahi zen, bengatzeko, besteak beste, egin berria zuten exekuzioa, Maria Estuardo katoliko eta espainiarrentzat txit maitatua zenarena. Herri sumindura giro horri harturik, Felipe II.ak baliatu zuen, eta bere planak prestatzen hasi zen.

Andro Troppori behin eta berriro eskerrak eman behar dizkiogu, Zerbantesen bizitzari buruzko argibide hauek emateagatik.

Sevillan gauza txit xeble bat gertatu zitzairen, izan ere, abereak ura edaten utzi zituztelarik eta bi andrazkoak itzalean eseri, mutiko bihurri batzuek bai Rosyri eta bai Russyri eranskin edo pegatina bat jarri zieten, kamioiei eransten zaien bezalakoa. Attention, angles morts.

Dultzinea amorratu egin zen:

-Ume zikiñ arraioak! Harrapatzen bazaitzuet, ez da izango amarik semea ezagutuko duenik! Aurpegia bestelakotuko dizuet!

Umeez urrutitik barre egiten zuten. Santxak ere irriz zegoen, berak ere hamaika horrelako eginak baitzituen gaztetxotan.

-Lasai bego, lasai, andere, mutil koxkorak dira eta jolas egin nahi dute. -Nik kenduko zienat jolas egiteko gogoa!- Dultzineak.

-Honek ere izanen du alde onik, nagusi! Turistak arrimatzean, are gehiago emango digute poltsarako, edonork izan nahiko baitu gure argazki bat, hain xeblea eta irrigarria.

-Ez zidan ba grazia handirik egiten, Santxa!- aitortu Dultzineak.

-Ez al gara gu ere, gizakiok, angelu itsuak ditugun jendeak? Gauza batzuk ikusteko gai gara, baina bertze batzuk ezin ikusi, edo ikusi nahi ez!

-Bai, horretan zuzen habil, Santxa leial eta maitea, hire ganbara horretan badirela artaleak eta ez gutxi!

- Irina egin behar eta gero taloa!- Santxak.

-Oroitzapenekin ere gauza bertsua gertatzen dun, gauza batzuk oroitzen dizkinagu eta bertze batzuek ez!- Dultzineak.

Arratsalde hartan, hiriko eskaintza kulturalaz jabetu ziren eta honako ikastaro hau aurkitu zuten:
—Emakumeak Odisean.

Emakumeak Odisean

Odisea, bere eszenatoki aberatsekin, bere pertsonaia anitzekin eta bere abentura ahaztezinekin, mendebaldeko kulturako klasiko ezagunenetako bat izan da eta izaten jarraitzen du. Hainbeste bertsio eta egokitzapen egin dira Ulisesen abenturen gainean, non denok dugu buruan obrako protagonisten irudia. Hala ere, kasu askotan, irudi hori ez dator bat jatorrizkoarekin.

Manipulazio horien aurrean bereziki sentikorrek izan dira emakumezko pertsonaiak, eta horietako asko geroko egileek senarrari itxaroten dioten emakume ezkonduak —pazientzia, pasiboa, fidela— izan beharko luketenaren estereotipo bihurtu dira; borondatez emakume bakarti eta autosufizienteak - gaiztoak, arriskutsuak; erreginak —erregeen bigarrenak—; printzesak — gerlariaren saria—, edo esklaboak — desjabetuak eta otzanak. Baina zer esaten digu haiei buruz Odiseako testuak?

Tailer honetan Odisearen irakurketa arretatsu eta alboragabearen agertzen diren emakume ausart, autonomo eta ezohikoen eta herri-irudimenean irauarazitakoen artean, beraiek inspiratutako geroko lanengatik eta gizarte aurreiritziengatik, dagoen kontrastea aztertuko dugu. biktima izan direnen artean.

Carmen Estradak Medikuntza ikasi zuen AEBetan, Giza Fisiologiako irakaslea izan da UAMn eta UCAn, eta Neurozientzietan ikertzailea unibertsitate horietan, City of Hope Neurozientzien Institutuan (CA) eta UCLAn. Erretiratu zelarik, greko klasikoa ikasi zuen, Odisea-ren itzulpen eta egokitzapenaren egilea izanik, Miguel Brievak (Malpaso) ilustratutako edizioan. Sevillako memoria historikoari buruzko liburuaren egilea da "Turning Thirty Years in the Thirties" (Aconcagua) eta "Odiseo. Emakumeak Odisean » (Seix Barral).

EGITARAUA

Lehen hitzaldia, 17:00etatik 19:00etara.

- Sarrera orokorra. Beste Helena.

Bigarren hitzaldia, 17:00 - 19:00

- Itakako emakumeak: Penelope eta Eurikleia.

Hirugarren hitzaldia, 17:00 - 19:00.

- Jainkosa bakartiak: Zirze eta Kalipsoa. Atenea

Laugarren hitzaldia 17 - 19 h.

Emakume feaziarrak: Arete eta Nausícaa. Munstroak: Sirenak eta Scylla

Dultzineak bien izenak eman nahi zituen ikastarorako, baina Santxak nahiago zuen bertzelako zerbait egin. Sevillako auzo txiro bat bisitatzera joan zen, nagusiaren baimenarekin. Bazekine, jakin,

ikastaroan gauza goitarrak erranen zituztela, eta berak lurrean egon nahiago zuen, gauza arrunt eta ulergarriekin.

"Pobreziak eta ahultasunak emakumearen aurpegia dute"

- 40 urteko emakumea, ezkondua eta seme-alabak dituena, prestakuntza akademiko eskasa eta familia ardurak dituena. Hau da aurrera ateratzeko Láritasera jo behar duen emakume zaugarria Láritasek emakumeei laguntzen die bere buruan hazten eta autoestimua hobetzen trebatuz / M.S.

Marta Miyares

200 emakume baino gehiago prestakuntzan Parrokiako Láritasen eta Elizbarrutiko Enplegu Zentroan 13 proiekturen bitartez. Horrela lan egiten du Láritas Diocesana de Sevillako autosufizientzian hazten eta autoestimua hobetzen laguntzeko, batez ere gizarte bazterketa arriskuan dauden emakumeei. Eta horregatik, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakume ahulenen ahalduntzearen aldeko apustua egin beharraz ohartarazi da.

Entitateak azpimarratzen du emakume izatearekin lotutako arrisku-egoeraren okerragoa dela familia-erantzukizunagatik, prestakuntza egokirako sarbide eskasagatik, familia bateratze zailagatik, matxismo- eta indarkeria-egoerek eta "pobrezia eta ahultasuna emakume baten aurpegia" egiten duten lan-segurtasun egoerak. "

Hori dela eta, Láritasek oinarritik sustapena lehenesten du bi ekintza oso zehatzen bitartez: Láritas parrokiako 13 emakumeen proiektuak eta Elizbarrutiko Enplegu Zentroa (CDE).

Nola dago emakumea ahultasun egoeran

Egoera zaugarrian dagoen emakumeak "40 bat urte ditu, ezkondua, seme-alabak ditu, prestakuntza akademiko gutxi ditu eta familia ardurak ditu". Bi baliabideetara joaten direnemakumeen profila oso antzekoa da, bai Parrokiako Láritas-en proiektu zehatzetara, bai Elizbarrutiko Enplegu Zentrorara.

Láritas parrokian 40 urteko batez besteko adina duen emakume espainiarrari buruz hitz egiten da, ezkondua, 3 edo 4 seme-alaba dituena, bere prestakuntza akademikoak mugatuta, lan duinerako aukera gutxiarekin eta etxean arazo larriak dituena, langabeziatik hasi eta zamaraino. senide batena».

CDEra joaten den emakumea espainiarra da (% 60), lehenengo taldean adina barne hartuta, 24 eta 36 urte bitartekoa seme-alaba txikiekin eta, bigarren talde batean, 38 eta 46 urte bitartekoa 2 edo 3 seme-alaba handiagoarekin, bananduta eta etxeko zamak bakarrik bere gain hartuz. Familia- laguntza gutxi izan ohi dute, eta horrek zaildu egiten du edozein behar arintzea.

Láritasen 13 emakume proiektuak

Emakume hauekin lan egiten duten teknikari eta boluntarioen esperientziaren arabera, zirkunstantzia metaketa horrek askotan frustrazio pertsonala eta autoestimu falta dakar, eta horrek, batez ere, ansietatearekin edo depresioarekin lotutako osasun arazoak ere ekartzen ditu, Láritasek lan egiten duen arazo nagusia. , emakumeak pertsona gisa baloratzeko helburuarekin, egoki eta edozein esparrutan funtzionatzeko gai dena. Horregatik da lehentasuna edozein akonpainamendu prozesutan, bakoitzak balio duela ikusi ahal izateko eta emakume gisa, denetik eraikitzeko egin dezakeela eta betebeharra duela, justuago, duinagoa. eta berdintasunezko mundua.

Lan hau Láritas parrokiak hiriburuaren eta Sevillako probintziaren artean garatzen dituen 13 emakumeen proiektu zehatzen bidez gauzatzen da eta 200 emakume inguruk parte hartzen dute. Horietan, beren gaitasun pertsonalak zaintzeko eta garatzeko eta familia-etxeko zutabe gisa kokatzen dituzten inguruabarren aurrean laguntza eta akonpainamenduaren aldeko apustu garbia egiten da.

Hala, emakumeen beharretara eta norbere interesetara egokitutako jarduerak eskaintzen dira. Helburua zure errealitate pertsonala norberaren balioetik eta nortasunetik eraldatzea da eta hortik diru-iturri bat, lana edo zure etxeko zailtasunak kudeatzeko gaitasuna lortzea.

Bestalde, CDEra etortzen diren emakumeen profila dela eta, prozesuaren hasiera berdina da. Lanbide-prestakuntzaren jarrera, ohitu, gaitasun pertsonal edo trebetasun osagarrien hasierako lan bat ezartzen da, lanpostu batera sartzeko oztopoak hausteko aukera ematen duena.

XXI. ATALBURUA

Olytera itzultzea

Olentzeroren egunerako heldu nahi zuen Santxak, nahiz eta hori umekeria iruditu andere Dultzineari. Umeei bezainbat ilusio egiten zion egun horrek, eta onartzen zuen, inolako lotsarik gabe. Covid kontua pasaxea zegoen, eta aurreko urteetan ekitaldia bertan behera utzi zuten arren, eta umei Olentzeroren bideotxo bat erakutsi zieten arren, orain aukera zuen.

-Behor hau ez al dago ernai? Oso lodi ikusten dut – Santxak erran.

-Bai, hala nago, gau turko bat izan zuela honek ere- Dultzineak erantzun.

-Hori ere emea izan, gu bezala!- Santxak.

-Bai, ta eme-emea, alajaina!- Dultzineak.

-Tira ba, zaindu egin beharko dugu, pixka bat gehiago erran nahi dut.

-Bai, merezi du, bai, gure Rozinantak.

-Umea arra bada Rozinante jarriko zionagu...-Dultzineak.

-Eta emea bada Donella- Santxak.

-Ez al da Ruzio tokatzen?- Dultzineak.

-Izen hobe iruditzen zait Donella, neure lagun Karlesek izan zuen behorraren oroipenez.

-Ongi dun, ba, Santxa, hala bedi.

Behozale batzuekin egin zuten topo eta behorzale bat ari zen lagun batzuekin hizketan. Kostatu zitzaien haren hizkera aditzea, baina harrapatu zuten, harrapatu, mamia bederen:

-Mazkakatako 'ta iatzik kartzeko 'ta

- Gio hasi ziñan bihorrak

- Bihorra karri nun ta bihorra ez ernai gelditzen 'ta

- Gio nerbioso ikarriya 'ta gue anaya joka hasi zen muturretik

'Ta esan niyon: " Ez yojkela jo manduai muturrin!"

Gio besukin hasi zion. 'Ta ordun saldu in ganun.

- Ostra!

- Karo peligrosua

- Gio jon nitzan zaldiyan eamatea 'ta "Hi eamantzak! hemen bait bihorra erra nik hietzako 'ta hoi utzi zak hemen 'ta katzi zortzi milla duro!"

- Kaguen!

- 'Ta zortzi milla duro man 'ta betzi ume kendu!

- San Dios!

- Bai betzi umee batzu dirurier alde berrogehita hamabosten alde itten zin umik.

- Haraittako?

- Haraittako.

Bai hogehita bo sei milla duro hartzen nittun.

- Jode!

- Gio haren umia utzi nun

- 'Ta nik jaten 'ta bu jaten erruz ematen 'ta iñon ezin errendituik!

- Ostra

- 'Ta horrei 're kendu nizkan zortzi ume 'ta gio gio ya utzitzea heldu nitzan

'ta geo gizon bat torri " Hi bihorra eostuna bait nik Hondarrabiyan!" "san tortzeko." 'ta torri zen 'ta san niyon:

"Beira honbeste ume kenduzkat nik 'ta ni aproxtu naz 'ta zu 're aproxtu hogehi milla duron saldukoizut"

'ta

"- Ooo ezta pentsatu 're!

- Zuk egiya satanzut zuk hogehita hamar milla duro patu bihorra 'ta etzu hau bezelakoik karko e!

- Zer dik ba honek?

- Honek hau duk pizkorra honek gizona ber dik fuertia.

- Bai nik honei seituko yot aixax!

- Bai seittu bai honek e' zuri! Eaman pruebako 'ta ezba konforme karri berri itxea." - Miño ez zun karri ! Harek e' beak e' hiru ume kenduzka!

Emea suertatu zen jaiotzean eta hala, Donella izena jarri zioten.

-Gora emeak!- Santxak.

-Gora!- Dultzineak.

Dultzinea etxeko negozioan sartu zen, baina ez buru-belarri. Kontuak eramaten zituen, eta bertzelako zuzemenak, baina guztiz sartu gabe, salmentan, bezeroetan, mahats-bilketan... Olio-errota antigualeko bat jartzea otu zitzaion, errotarri eta guzti, berezkotasun hori gorde nahian, eta gazteei erakutsi nahian. Santxa guztiz ados zegoen, arkeologia eta gauza antigualak maite baitzituen. Trujal las Cervantas/Zerbantak olio-errota jarri zioten izena. Moulin à huile. Oil mill. Yağ fabrikası.

Olive Old Times aldizkarian honako albistea irakurri zuten:

Greziako Lesbos uhartean dagoen Thermi-Pigi-Lambou Mylon probintzia errepideko eraikuntza lanetan olio errota zahar bat aurkitu zuten. K.o V. mendeko baserri baten ondoan aurkitu zuten eta osorik zegoen.

Zaharberritzean, aurkitu zen olio-errota zerealak, olio edo ardoa bezalako tokiko produktuen ekoizpenarekin eta erabilerarekin lotutako multzo handi baten parte zela eta K.o II. mendetik VI. Garraio eta zaharberritze lan guztiak bi hilabete behar izan ziren olio errota zaharra jendaurrean erakutsi aurretik. Proiektua Europar Batasuneko Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen (ESPA) bidez finantzatu zen, gogoratuz kulturari lagundu behar zaiola herrialdeko garai zailetan ere. "Oliba olio errota zaharra aldatu gabe eraman zen. Arkeologia Museo berriaren patioan jarri dugu berriro, eta bertan zaharberritze lan guztiak egin genituen", esan zuen Paul Triantaphyllides Lesbosko Antzinateen Bulegoko buruak, uztailean, The New-n inaugurazio ekitaldian. Mitileneko Arkeologia Museoa.

Errota zaharraren aurkikuntzak tokiko ahaleginak lagunduko ditu Lesbos uhartea Greziako oliba olio ekoizle nagusi gisa sustatzeko. Lesbosek bere lurraldearen ehuneko 28 inguru olibondoen azpian dauka eta olioaren ekoizpena ekoizle txikietatik dator batez ere. Uharteko urteko batez besteko ekoizpena 25.000 eta 30.000 tona oliba olio ingurukoa da eta bere kalitatea Grezian ez ezik atzerriko merkatuetan ere aintzatetsi da, Hego Amerikan eta Asian bereziki.

Uhartea Oliba Olioaren Ekoizpen Industrialaren Museoagatik ezaguna den arren, oliba olio errota zaharraren aurkikuntzarekin, Lesbos saiatuko da bere industria-ondarearen testuinguru arkitektonikoak, sozialak eta kulturalak integratzen, bai oliba sektorean. eremu teknologiko zabalagoan bezala.

-Oh, gure Lesbos maitea!- Dultzineak.

-Gogoia ematen du hara bueltatzeko!- Santxak.

Dultzineak bazuen arterako zaletasuna, eta beti gogoko izan zuen margotzea. Horregatik berriro heldu zion gaztetxotako grina hari. Eskola batean izena eman-ez eman egon zen zalantzan, eta azkenean bere kasa ekin zion. Aurrerago beharbada joango zen klase batzuk hartzera, baina momentuz ez. Arkatza eta papera aski zituen zirriborroak egiten hasteko, eta Olytek ematen zion nahiko marrazgai, gaztelua bera, hasteko.

Ezizen bat hartu nahi izan zuen sinatzeko, eta Sofonisba Argenssola-ren omenez, Sofia Ansola hautatu zuen, eta hala sinatu zuen aurrerantzean.

Santxak arkeologia ikasi nahi baitzuen, bazuen oztopo hani bat, oso oinarrizkoak zituen ikasketak. Historia eta arkeologia unibertsitatean ikastea oso urrun zegoen berarengandik, saturno eta jupiter baino urrunago. Hala, Dultzineak lagunduta, Andelora joan zen, eta bertako arduradunarekin mintzatu zen. Michael Ecologoa ezagutu zuten, eta asteen hirutan joatea hitzartu zuten, aurreago ikusiko zen gauzak nola zihoazen. Santxa pozik zegoen, zuzenean arkeologian murgilduko zelako.

Arkeologa feministen taldearekin bat egin zuen Dultzinearen gomendioz, eta hala argudio hauek entzun zituen: Historiaurreko jendeetan nork ehizatzen du? Nork margotzen leize barruko abereak?

Lan Talde honek asanblada parte hartzaile eta berdintasunezko batean funtzionatzen du, eta kide bakoitzak ahots eta boto berdinak ditu. Denboran jarraitzeko bokazioarekin jaio zen eta parte hartzeko interesa duten arkeologia ataleko edo CDLko beste ataletako kide guztientzat zabalik dago.

Feminismoa Justizia Sozialeko gaitzat hartuta, taldea arkeologoen eta arkeologoen eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea du helburu nagusi, bai orainaldian, bai iraganaren interpretazioan gure jardunean. Lanbidea, helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren aldaketak sustatu eta sustatzera zuzendutako ekintzen bitartez.

Hauetako dira Lantaldearen helburu orokorrak:

- Arkeologia profesionalen sektorean emakumeak ikusaraztea.
- Arkeologia eta historiako foro ezberdinetan emakumeen ordezkariak sustatzea.
- Parekidetasuna bermatu CDLko Arkeologia Atalak parte hartzen duen edo elkarlanean aritzen diren jarduerak guztietan.
- Arkeologoen ahalduntzea eta lidergo postuetara iristea helburu duten prestakuntza sustatzea eta laguntzea.
- Beste talde feministekin harremanak sustatu eta lankidetzan aritzea eta ekintza bateratuak sustatzea.
- Arkeologia eta Historiaren ezagutzan sakontzea genero ikuspegitik.
- Laburbilduz, emakumeen askatasuna eta berdintasuna sustatzea arlo guztietan: juridiko, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletan.
- Gure lanbide-sektorearen barruan helburu zehatz gisa, honako hauek zehaztu dira:
- Erakundeen, enpresen, ikerketa-taldeen barruko funtzionamendu-ereduak aldatzea, gu baztertzen jarraitzen dutenak.
- Ahalduntzea lantzea gure lanbide-jardueran bigarren lerroan egotea eragozten duten tresnekin hornitzeko.
- Zergatik gelditzen dira hainbeste arkeologo bere ibilbidean zehar bide bazterrean? Fakultateetan gehiengoa garestia eta zuzendaritza postuetan gutxiengoa garestia kontuan hartuta, zeintzuk dira sistemak berak jartzen dizkigun oztopo eta zailtasunak eta nola konpondu dezakegu hori?
- Gure ereduak sortzea, geure errealitateak.
- Zergatik da beharrezkoa Arkeologo Feminista gisa Lantalde bat? Taldearen garrantzia ahizpatasunean eta sareetan oinarritzen da:
- Ezin duzu Gizarte Justiziako proiektu batean bakarka landu.
- Sorority sareak. Gizonezkoen sareak ez diren beste kode batzuetan oinarritzen diren sareak.
- Loturak eta harremanak norabide berean lanean ari diren emakume talde eta kolektiboekin.

Nor bere etxean bizi ziren Dultzinea eta Santxa, baina nola elkarrekin egon nahi zuten, batera bizitzen jarri ziren Villavieka auzo musulmana izandako karrika meharrean. Zeresana eman zuten gogotik.

-Zerbantak lesbianak dira, batera bizitzen jarri dira! -Orain hiru beltz afrikar adoptatuko zituzte! - Zidakoseko uretan etsaia, norbera

Egun batean Santxa eta Dultzinea Txorron-go ura edatera joan ziren, paseo bat emanez, behorra eta astemea hartuta, izan ere hauei ibilarazteagatik ere bai, guztiz nagitu ez zitezen ukuiluan, eta hurrengo irteeretarako sasoiari egon zitezen.

Iturrian preskatzen zeudela, Zidakoseko ur emariari begira geratu zen Dultzinea, eta erreka ertzetik aurrera pauso batzuk egin zituen. Itzal-argitan, haixe fin bat zebilen eta eguzki izpiak sartzen ziren, eta irudipena egiten zuen, leku berezi batena. Hala, lasbegi bat topatu zuen, ur loa, eta hantxe begira-begira jarri zitzaion osinari. Bere burua ispilaturik ikusi zuen han, eta bere ederrari begira ari zela, hosto bat jausi zen makal batetik eta osinean pausa. Horrek mikrouhin batzuk sortu zituen eta Dultzinearen aurpegi ederra guztiz zimurtu eta itxuraldatu zen, bere burua ez ezagutzeraino. Aurpegia guztiz zimurtua ikusi zuenean, iruditu zitzaion aurrean zuen hura etsaia zela, eta ez nolana hikoia, munduko emakumeen edertasuna zapuzten zuen etsaia baizik. Orduan, erreka-harri bat eskuan harturik ekin zion eginahalean osineko etsai haren aurpegi zimurrari kolpeka, eta osinera erori zen eta guztiz busti, erraten zuela oihuz:

-Etsai gaizto nazkagarria, emakumeen ederra kentzen dabilena, akabatuko haut!

Santxak, oihu haiek entzun eta nagusia urten txipli-txaplaka ikustean, berehala joan zitzaion lagun egitera.

-Baina, zer du berorrek, andere, horrelako oihuak ateratzeko? Laban egin eta putzura erori al da oharkabean? Izan ere hemen *verdin* asko dago.

-Berdin berdin eroriko nintzen ni, verdin hori egon gabe ere. Etsaiarekin borroka egin baitut, eta zorionez garaitu, ihesi joan baita ihes, alu hura!

-Baina zer etsai, andere, hor ura eta arrairen bat, bertzerik ez dagoke.

-Nik ikusi dudana ikusi bahu, neure antz antza izanagatik aurpegia zimurtu, zimeldu eta etsaitu zaio istant batean.

Santxak besotik heldu zion eta musu bat masailean emanik, abereak zeuden lekuraino eramanez, eta besarkada bat emanez erran zion:

-Andere, joana da bai urrutira, etsaia, eta lasai bedi. Goazemazu Elenaren iturrira, han bake onean edango baitugu.

Eta halaxe egin zuten. Bertan pausaldi bat egin, eta andereren soinekoa eguzkitan jarri zuten lehor zedin. Hala Santxak, beperan irakurria zuen gai bat hizpidera ekarri zion, poltsikotik periodiko zati bat aterata:

Luisa Miralles, erbesteratu errepublikanoaren istorioa: bere bizitza kontzentrazio-esparru batean 10 urte zituela Francotik ihesi

Ume bat besterik ez zenez, Luisa Miralles Espainia atzean utzi zuen frankismotik ihesi. Behin Frantzian, hainbat hilabetez bizi izan zen errefuxiatu-esparru batean baldintza gogorretan.

Luisa Miralles frankismotik ihes egiteko Frantziako muga zeharkatu zuen 10 urte besterik ez zituela. Jada 91 urte zituela, kontatu zion Gonzion kateari nola bizi izan zuen erbestea eta hunkitu egin zen bere haurtzaroa gogoratzean: «Oso zaila da horretaz hitz egitea, berehala hasten naizelako negarrez», esan zuen.

Bere aita PSUCekoa zen eta Espainiatik alde egin behar izan zuten "fusilatu zutelako", erbesteratu errepublikano honen arabera. Berak eta bere amak oinez zeharkatu zuten muga, arropa maleta bat baino ekipajerik gabe. Espainiako errefuxiatuentzako kontzentrazio esparru batean amaitu zuten, non baldintzak gogorrak ziren eta gizon-emakumeak bereizita bizi ziren. «Ezer jatekorik», gogoratu du Mirallesenek, eta, hala ere, «herritarren arteko elkartasuna» azpimarratu du.

-Hor ere ibili zen etsaia franko!- Dultzineak erran.

-Bai, desherrira joan behar eta gorriak ikusirik, betiko han geratu, asko eta asko!

-Bitxia dun, Santxa, baina herrizaleenak direnak, biizia jokoan jarri dutenak, haiek herririk gabe geratzen ditun; eta lotsagabeenak, zikoitzenak herriaz jabetzen ditun.

-Bai, egia. Baina egia hauek triste jartzen naute. Iloba Moirenek pasa didan olerki bat irakurriko dizut:

PUBER MAITASUNA

Menderatuko dut zure amesgaiztoetako Golema Kosta ahala kosta, (piztiagoak diraene play stationean maiz topatzen ditudan munstroak)

Erauziko dut martirologia eta matxozentrismoa, Kaudillo misoginoa, bufoi gozoa, führer mediumikoa.

Ene Juana de Arko miretsia

Askatuko zaitut su falozentrikoaren laztasunetatik. Ene Anna Frank negartua,

Paseatuko gara tankeei inmune zaien parkeetan.

Ene Alizia ederretsia ispiluaren aurrean,

Bentzutuko ditugu Bihotzetako Erreginaren ostalariak.

Galdu zenuen zure duintasuna Paleolitikoko leizeetan, Galdu zenuen zure ingenioa Industri Iraultzaren ukiluetan, Denborapasa eder bihurtu zintuzten, objektu mutu.

Prezioa jarri zioten zure borondateari eta zure gorputzari.

Arduradun nagusiak aurkituko ditut,

Eta behartuko ditut gonbitoaren ontzian usnatzera, Gosea, masakrea, amorrua, tristura irenslea.

Aldatuko ditut, beharrezko bada, joko-arauak, Kenduko dut klase-borroka, kasta-sistema, Indarraren diktadura eta zenbakien obszenolatria,

Zure izenean ezartzeko mendiko

Sermoiaren aginduak,

Shakespeare-ren sonetoen erotika kosmikoa, Cristina Peri Rossi-ren Hizkuntzalaritza orokorra, Kamasutra, Tantra Yoga, sexuaren taoa

Eta Rilkek Lou Andrea Salomeri idatzi zizkion maitasun gutunak.

Jakina, zure gurasoen baimenarekin. Edo baimenik gabe.

Quer Anchusteguy

-Ba, gustatu zaidan olerki hori. Olerkaria ona dela ziudin.

-Hemen bertze bat, egile berarena:

Reina de corazones Bihotz erregina

Ukitzen duen guztia urre bihurtzen du.

Ateetako heldulekuak

Bere etxeko hormak, Moda-osagarriak.

Guztia urre bihurtzen du.

Harrokeriaren andamioak

Urre bihurtzen ditu;

Nagikeriaren sugeak

Urre bihurtzen ditu;

Inbiriaren koartadak

Urre bihurtzen ditu;

Iraren jaurtigaiak

Urre bihurtzne ditu;

Lujuriaren manikiak

Urre bihurtzen ditu;

Gularen presupostuak

Urre bihurtzen ditu;

Eta urre bihurtzen du

Diru-gosearen bihotza.

Bere soina ukitzen duenean ere Urre bihurtzen da.

Salbuespen bakarra dago:

Gizonaren bihotza ukitzen duenean Hauts bihurtzen du.

- Kontxo- erran zuen Dultzineak. Urre asko eta azkenean hautsa!

Haize goxo bat zebilen. Dultzineak galdetu zion:

-Zer moduz hire irakurketak? Ari haiz ikasten?

-Bai, andere, arkeologiako gauzak ez ezik, baita zientzia arlokoak ere, baina egia errateko, bai xebreak, irakurtzen ditudan artikulua batzuk, ipuinak dirudite...

-Errate baterako,...

-Izotz beltz beroa ba omen da, aurkitu omen dute...!

-Bai ala? Nola dun hori?

-Alexak irakurriko balu...

-Ai, nagi ikusten haut, ene! Tira, Alexa, zer da ba izotz bero horren kontua?

ALEXA:

-Andere nagusia, oraintxe irakurriko diot berorri.

Izotz beltza oso beroa aurkitu dute, materiaren egoera berri arraroa

Zientzialarien arabera, edozein ur motatik oso desberdina da eta Lurraren barnean ugaria izan daiteke.

Izotz arruntak ez bezala, izotz superiorikoak argiarekin elkarrekintza ezberdina du, horregatik kolore iluna du.

Dultzinea: Elkarrekintza harremana da.

Naturan, ura hiru fasetan behatu daiteke: likidoa, solidoa eta gasa. Hala ere, hamarkadetan zehar, zientzialariek uste dute Lurraren barnean elementu honen molekulek logika oro desafiitzen duten forma bitxiak har ditzaketela.

Orain, materiaren egoera berri arraro bat aurkitu da lehen aldiz Chicagoko Unibertsitateko esperimendu batean. Izotz superiorikoa da, Lurraren erdialdean eta izoztutako beste planeta erraldoien barruan tenperatura eta presio baldintzetan dagoela uste dena.

Hozkailuko edo poloetako izotz arrunta ez bezala, izotz superiorikoa beltza da, oso beroa eta normala baino are gehiago pisatzen duela dio Vitali Prakapenka geofisikariak, ikerketaren egile nagusiak.

Duela hiru hamarkada teorizatu zen materiaren egoera hau, nanosegundoz iraun zuen 2018ko esperimendu batean frogatu zen lehen aldiz. Hala ere, azken saiakuntzan mikrosegundoetarako forma egonkor batera iritsi zen, bere eraldaketa balioesteko eta zehatz-mehatz aztertzeko nahikoa denbora zati batean.

Dultzinea: balioetsi da baloratu.

Muturreko presio eta bero baldintzak

Nature Physics aldizkariko artikulua batean zehazten den esperimenduan, zientzialariek ur tanta bat estutu zuten bi diamanteren presiopean -Lurreko mineral gogorrena- eta, ondoren, laginari laser bidezko beroa jasanarazi zioten.

Dultzinea: lagina da mostra

Simulazio hau muturrekoa izan zen, presioak Lurraren atmosferarena baino 3,5 milioi aldiz gainditzen zuelako eta beroa Eguzkiaren gainazalekoa baino are handiagoa zen. Pauso horren ostean, X izpien bidez atomoak izotzaren barruan nola antolatzen ziren detektatu zuten.

Izotz superionikoaren existentzia 2018an egiaztatu zen lehen aldiz. Hala ere, haren agerpenak hain denbora gutxi iraun zuenez ezin izan zen aztertu. Taldea harrিতa geratu zen: egoera horretan izotza gutxiago trinkotu zen eta beltza zen. Horrez gain, ziurtatzen dute fase hau aurreko ikerketan erakutsitakoak baino presio baxuagoetan agertu zela: 20 gigapaskaleko presiotan 50 baino gehiago.

Dultzinea: trinkotu da estutu

Materiaren egoera berria ala uraren fase berria?

Definizioz, ura bi hidrogeno atomo eta oxigeno baten banaezina den multzokatzea da, horregatik bere izen kimikoa H₂O. Hala ere, tenperatura eta presio desberdinetan, planetaren barnealdean adibidez, ura muta daiteke.

Dultzinea: mutatu da aldatu, mudatu, zerbaitek mutazioa izan

Adibidez, zientzialariek orain arte Lurraren barruan egon daitezkeen 18 izotz fase deskribatu dituzte. Baina izotz superionikoak ez du beste ur formen antzeko ezaugarriarik partekatzen eta, horregatik, batzuek materiaren egoera berri gisa sailkatzen dute.

Paprenkaren arabera, hemen bi ur molekula hausten dira eta hidrogeno-atomoak oxigeno-atomoen sare kubiko baten barruan isurtzea eragiten dute. "Oxigeno atomoen sare solido bat bezalakoa da, flotatzen duten hidrogeno atomoen ozeano bat biltzen duena", esan du ikerketaren buruak.

Hidrogeno atomoen "kaiola" horren ondorioz, argiak ezin du izotza igaro eta horrela itxura iluna ematen dio.

Taldearen arabera, izotz superionikotik datozen hidrogeno ioi askeak funtsezko eginkizuna dute gure planetako eremu magnetikoak mantentzeko, eguzki-erradiazio arriskutsuak saihesten dituztenak. Horregatik, orain, Neptuno, Urano edo are urrunago dauden beste planeta batzuetan egoteak estralurtar bizitzaren arrastorik iradoki dezakeen galdetzen dute.

Dultzinea:

Ioia da elektroio bat edo batzuk galdu dituen molekula

saihestu da ebitatu iradoki da sugeritu

Santxak ufako batzuk egin zituen, baina interes handiz entzunda.

Alexa, laburpena mese!

ALEXA:

-Ur tanta gogor estutu ondoren, sua ematen zaio, eta izotz beltza sortzen da, beroa.

-Milesker, Alexa- Santxak esker onez.

-Azgonatarren finkara bisita, bi neska zezenen artean.

Egun haietan hitzaldi baten berri izan zuten, Poppelon bi ahizpek egingen zuten solasaldiarena:

Azguna ahizpak: ganadutegi bat XXI. mendean Parte hartzaileak: Yolanda eta Beatriz Azgona
Aurkezleak: Mario Pascual, Onda Huts

Gaurko hitzaldian XXI. mendeko abeltzaintzara hurbilduko gara.

Erriberriko udalerrian, "El orfanato" etxaldean, orain hamabortz urte zezen –ganadutegi bat sortu zen zezenketarako, bi ahizpa gaztek zuzenduta, Yolanda eta Beatriz Azgonak hain zuzen.

Basa-aziendaren hazkuntza batik bat jai herrikoietara bideratzen den lurralde honetan, bi ganaduzale hauekin partekatuko dugu nolakoa den zezenketetarako zezenak hazteko ganadutegi bateko eguneroko bizimodua: hautaketa, animalien maneiua, Nabarroako klimara ganadua egokitzea edo bere zezenketen munduan bizitakoak.

Sarrera doan eserlekuak bete arte.

Hona hemen egunkarian irakurritako bertze notizia bat:

Azguna Ahizpak garaile Aldeanueva de Ebro plazan Zezenketan 6 belarri moztu zituzten

Joan den ostiralean, abuztuak 27, berriz ere garaile izan zen Azguna ahizpen Ganadutegia.

Ebroko Aldeanueva plaza izan zen 4 zezen eraman zituzten zezenketa honen agertokia, ziztadarik gabeko zezenketa egiteko.

Zezenei aurre egiteaz arduratu ziren toreatzaileak Carla Oterol eta Miguel Losanna izan ziren, lehen zezenari 2 belarri moztu zizkieten eta bigarrenari beste belarri bat.

Zezenketa 6 belarri moztuta amaitu zen eta Azguna Ahizpak Plazatik sorbalda gainean atera zituzten txalo artean.

-Ba egun batean joan behar dinagu ganaduteghi hori ezagutzera, Olyten bertan zagone eta.-
Dultzineak erran.

-Bai, andere, gustu haundiz, emakumezkoak dira eta gainera hemengoak; beti gabiltza urrutikoa
"balioesten" eta bertakoa azkena beti.

-Oso ongi, Santxa, "balioesten" hori, fite ikasten dun!- Dultzineak.

Bertze albiste bat.

Oliteko talde memorialistak fondo dokumental baterako testigantzak bildu ditu

NUPEk koordinatu duen ekimenaitzindari honen bidez beste herri batzuetara zabaldu nahi da ekimena.

OLITE - Erriberriko Memoria Historikoaren Aldeko Taldeak, NUPEkin egindako lankidetzaren hitzarmen aitazindari bati esker, uda hasieratik Gerra Zibilean eta ondorengo frankismoan Erriberriko herriak jasandako errepresioaren aldeko testigantzak grabatzen ditu. diktadura.(1936- 1975). Asmoa da beste herri batzuk ekimen honekin bat egitea, Sartagudak laster egingo du, bidean ikertzaile eta ikasleen lana errazteko, Nabarroako Parlamentuak sustatu eta NUPEk kudeatzen duen Dokumentu Funts honetara sarbidea izango duten bidean.

Tuterako Emily Majuelo Gilek zuzenduta -Geografia eta Historia Saila-, Fernando Mendiola Gonzalok – koordinatzailea- eta Memoria Historikoan Gotzon Garmendia Amutxastegi eta Juan Carlos García

Funes espezialistek parte hartzen dute Memoria Berreskuratzen izenarekin bataiatutako proiektu honetan.

. Haiek dira, Erriberriko memorial taldearekin batera, garai hartako «azken ekarpen zuzenak» aprobetxatzen saiatzen ari direnak, protagonisten adin aurreratua ikusita, artxibo hau sortzeko.

Elkarrizketak, gainera, «fitxa batekin osatu dira datu pertsonalekin, jasandako errepresio mota (hilketa, erbestea, isunak, lapurretak, ilea moztea, etab.)», azaldu du taldeak, baita argazkiak, gutunak ere.

Santxori traktorea hondatu zitzaien eta Santxak lagundu behar izan zion konpontzen. Santxo pixka bat utzia zen, eta ez zion arta handirik egiten tresnari. Santxak gogorarazi zizkion traktorea ondo mantentzeko egin beharreko lanak, eskuorri batetik:

Nekazaritzako traktore baten mantentze-lanak egiteko urratsak

Traktorea da lanetan lan egiten duen edonork duen tresnari garrantzitsuenetako bat. Nekazaritza-makineria honen mantentze-lanak ondo irautea ahalbidetuko du bere bizitza erabilgarria luzatzeko eta, beraz, kostuak aurrezteko. Amancio Motor-etik zure nekazaritza traktorea egoera ezin hobean mantentzeko eman behar dituzun urratsak adierazten dizkizugu.

Mantendu garbi

Egun bakoitzaren amaieran, kendu parrillan geratu diren lokatza eta hondakinak. Ez utzi traktorea zabalik, babes ezazu eurtik eta eguzkitik, batez ere.

-Egina dago- Santxok.

-Bai zera- Santxak.

Egiaztatu uhalak, mahukak eta iragazkiak

Fluidoak garraiatzen dituzten lineetan hutsegiteak zuzendaritza edo sistema hidrauliko arazoak sor ditzakete. Bestalde, aire- eta erregai-iragazkiak nahikoa garbi ez badaude, zure baserriko traktorearen errendimendua murriztu dezakete.

-Egina dago- Santxok.

-Bai zera- Santxak.

Ez ahaztu adierazleez

Olioaren presioa ez da 2,7 - 4 bar (40 - 60 psi) gainditu behar; takometroak ez ditu zure motorraren arabera onartzen diren bira/min-mailak gainditu behar; tenperaturak, berriz, ez du 90°C-tik gorakoa izan behar.

-Egina dago- Santxok.

-Bai zera- Santxak.

Egiaztatu fluidoak aldizka

Isuri batek zure baserriko traktorearen beste atal batzuk kaltetu ditzake eta matxura garestiagoak eragin ditzake.

-Egina dago- Santxok

-Bai zera- Santxak.

Zaindu balaztak

Egiaztatu lotura ondo koipeztatuta dagoela, baita behar bezala egokituta eta saretuta daudela ere, batez ere errepidera aterako bazara.

-Egina dago- Santxok. -Bai zera- Santxak.

Lubrifikazioa

Baserriko traktoreek marruskadura sortu behar ez duten pieza mugikor asko dituzte. Jarri koipea zati mugikor bakoitzean eta arazoak saihestuko dituzu lanean ari zaren bitartean.

-Egina dago- Santxok. -Bai zera- Santxak.

Neurtu pneumatikoen presioa

Ziurtatu traktorearen pneumatikoek airearen presio egokia dutela: aurrealdean, gutxi gorabehera 2,2 bar (32 psi) gomendatzen da; atzeko presioa, berriz, 0,8 eta 1,3 bar (12 eta 20 psi) artean egon behar du.

-Egina dago- Santxok.

-Bai zera- Santxak.

Azkenik, beti eskura izan fabrikatzailearen eskuliburua, nekazaritzako traktore bat modu egokian mantentzeko argibideak baitaude: erabili behar den olio mota, erabili beharreko pisua eta presioa. motorra sostenga dezake, zein potentzia duen... Zalantzarik baduzu oraindik, jarri harremanetan gaiaren inguruan aholkatu diezazuten profesionalekin.

-Egina dago- Santxok.

-Bai zera- Santxak.

Argindar eta telefono fakturekin batera, letra oso apainez idatzitako gutun bat heldu zitzaion Santxari. Bihotzak jauzi egin zion.

Ene Santxa maitea, Ala zurekin:

Egunero galdetzen diot neure buruari ea zer nola ote zauden, eta erantzuna jaso arteko onik ez dut izango, ene maite atsegin hori. Mezkita urdina baino ederragoa zara, alaia bertze inor ez bezala, eta zure irribarreak gehiago balio du Otomandar inperioko urre eta zilar guztiek baino. Zure eposta helbidea galdu nuen, eta horregatik egiten dizut gutun hau, esperantzarekin, ailegatuko dela Olyte ziudade chit ezagunera, non gaztelu eder bat dagoen, eta ez nolana hikoia, diotenez. Egunen batean aurrez aurre ikusi nahi nuke gaztelu hori, zure konpainian. Bosforoko haizeak ezin du sendatu nire baitan daukadan arregura eta ondoeza, zu ikusten ez zaitudanetik.

Arren, gutun hau jasotzen baduzu, egin itzazu letra batzuk honat, jakin dezadan behinik behin, onik zaudela eta zure anderea ere onik dagoela, eta zuen abereak ere osasunonean. Zuen oinetara belaunikatzen naiz eta musukatzen dizkizuet oinak eta oinetakoak, eta adierazten, nahi duzuenean ongietorriak izanen zaretela Istanbulen, lehenago Constantinopla eta lehenago Bizanzio izandako hartan. Erdojan presidentearen emazteak erran zidan zuri errateko ajoarrieroa karakoletik txit gozoa zegoela, ahotik ezin utzia, eta nahi lukeela jaki horren errezeta ukan. Era berean, goraintziak igortzen dizkizu. Batzuetan gerraontziko marinelekin elkartzen nauzu tabernan eta irriz egoten gara kainoietatik loreak botatzen zituztela aipatzean. Barka, Demetria operazioa ez zaigu sekula ahantziko. Hemengo bazarrean zerbait erosi eta zuri eskuikusi bidaltzea pentsatu nuen, baina hainbeste bidelapur dago, egon, bidean, nahiago izanen dut zuri eskura eman, aurrez aurreko batean. Zure musu eta eskuetan muin emanik, agurtzen zaitut, neure Istanbul honetatik. Agur, maite. Özgür.

Bertze albiste bat, lazgarria.

Matrizidio hozgarria La Platako: amari burua moztu zion gizonari buruz dakiena

Uste dute hiltzaileak "atzeritarrengandik jaso zituela uste zuen aginduen arabera" jokatu zuela. La Platako zalaparta Monasterio auzoan gertatutako Matrizidioaren ondorioz. 41 urteko norbanakoak, 74 urteko ama erail eta burua moztu ziola aitortu ostean bere burua atxiloaldian utzi zuen, atsoa hil eta burua moztuko zion atsoari, zeren, Justiziako arduradunen arabera, "Estralurtar talde batek aginduko zuen", akusatuak adierazi zuenez.

Martín Alberto Fallico Lopez gisa identifikatutako subjektua errenditu zen joan den igande gauean, Polizia-etxeko uniformedun agenteen aurrean, eta bertan esan zuen bere gurasoa, Marta Susana Hernandez, 74 urtekoa, hil eta burua moztu aurretik.

Kasuaren lehen frogaren arabera, etxeko ateak giltzarrapoa zuen eta gizonaren gela "estralurtarrei buruzko kondairak" inskripzioz beteta zegoen.

Ertzainek egongelan pareta batean odol orbanak zeudela ikusi zuten eta biktimari kolpatu zioten gas hodi horia, 16 zentimetroko xafladun ehiza-labana bat eta berak egingo zuen beste bat atzeman zituzten. burua moztu dute.

Iturrien arabera, Lopez Buenos Airesko polizia zen, baina "jokabide-nahasmenduak" zituenez, 2018an profesional batek eskatuta karpeta psikiatriko bat ireki zitzaion, eta horretarako borondatezko alta eskatu zuen.

Horren ostean, La Platako San Pedro neuropsikiatrikoan ingresatu zuten, nahaste bipolarra zuela diagnostikatu eta, handik gutxira, alta medikurik gabe ihes egin zuen.

Hilketa kasurako, UFI 1ek hartu zuen parte, Sylvia Corfield fiskalaren ardurapean, zegozkion peritu-txostenak agindu zituena.

-A zer nolako gertaera lazgarria!

-Bai, ez da nolanahikoa, andere. Eta begira zer nolako komentarioak egiten dituzten ondoren:

-Alfek esan dit gaur kaka egin behar duzula.-

-Ez dakit non geratuko den.... zer arriskua dela badakit.... ez baldin badago hiru barrarekin giltzapetu egiten dute...!!

Ama hiltzeko eskatu zion ET-k, esan zuen... logika izango luke begi beltzak dituzten "grisak" berez deabruak dira, terroreko pelikula bat baino okerragoa da

-Iruzkin negatiboa, hiltzeko aholkatzea oso degradagarria Deabruak dira!

-Gaixotasun bakarra falopa da.

-Hil ezazu tipo hau mesedez ... pentsatu zer egin zuen .. beldurtzekoa da.-

-Hiltzea beti gaizki dago.

-Ez pentsa. Zu hiltzea plazer bat izango litzateke.

-Utzi berarekin bizitzera eramaten. JUAAAAZZZ

-Utzi honelako astakeriak izateari... gero inuzenteak hiltzen dituzte. Espero dut ez zaizula inoiz gertatuko, baina badakizu zenbat gurasok kalean zegoen ero batek bere seme-alaba bat hil zuen. Segur aski bestela pentsatuko zenuke.. zoroak, bortxatzaileak, hiltzaileak ez dute bizitza merezi

-Gaixo dago ... errealitatearen nozioa galtzen du ... ez da "hiltzearekin" konpontzen !!! Ospitale neuropsikiatriko batean sartu zuten eta altarik gabe ihes egin zuen... eta inork ez zuen ezer egin !!! Osasun mentalaren legea eztabaidatu beharreko gai garrantzitsua da eta inork ez du ezer egiten!!!!!!

-Eraman ezazu zure etxera bizitzera

- Ikusten dut ez duzula ulertzen egoeraren benetako arazoa, gaixotasun hau duen jende asko dago, irakatsi, irakurri, ikertu gaia eta gero zure iritzia eman, baina ezjakin bezala jarraitzen duzu. Osasun mentaleko legea... arazo nagusia da.

-Erretiratua Blokeatu zaitut. Begiak min egiten dit zure iruzkinak irakurtzean.

-Klinika hau behin eta berriz ez da eraginkorra mediku altarik gabe uzten duten barneratuen prozeduran.

XXII. ATALBURUA

Pompelo-ko gaixoei laguntzera

Zaray elkartearen berri bazuten, izan, biek ere, bai Dultzineak eta bai Santxak, minbizia pasatako emakumeen elkartearen berri hain zuzen. Eta Pompelora helduta, galdetuz galdetuz, elkartearen egoitza aurkitu zuten eta han Maria izeneko andre batekin egin zuten topo. Hona hemen Mariak erran ziena:

Minbiziak min egiten du. Mariaren lekukotasuna.

2003ko abuztuan Nabarroako Gobernuaren Prebentzio Programaren ohiko mamografia bat egin zidaten.

Urte bereko abenduan, eskuineko bularra minez hasi zitzaidan eta besapean irtendako nodo bat.

Medikuarengana joan nintzen eta esan zidan menopausiaren aldaketa hormonalengatik izan zitekeela, (urtebete nuen) eta ez kezkatzeko mamografia bat egin berri nuela.

Mina ez zen etengabekoa, baina egunerokoa zen, batez ere eskuinaldean etzanda nengoenean.

2004. urtearen hasieran, sendagilearengana itzuli nintzen hilabete baino gehiago iraun zuen katarro batengatik, eta berriro ere gogoratu nizkion eguneroko mina eta maiz nituen sentsazio txarrak. Emakumeen Arretarako Zentroan kontsulta ginekologikoa eskatu zidan, oraindik goizegi zela uste zuelako mamografia errepikatzeko.

2004ko maiatzean artatu ninduten eta ginekologoak ni esploratu gabe esan zidan lehenengo gauza hau da: Zorteko zaude minbiziak minik ez duelako. Miatu ondoren bularreko eta besapeko ekografia bat egin zidaten eta gauza bera esan zidan berriro: aldaketa hormonalak zirela eta minbiziak ez duela minik egiten.

Oso lasai irten nintzen bulegotik, baina egunak joan eta "gauza bat ez nuenean bertzea nuen". Pisua galdu nuen eta oso nekatuta sentitu nintzen, A bitamina errezetatu zidaten eta 2. pilularekin urtikaria lortu nuen.

Abuztuan gehiegi iraun zuen beste katarro bat hartu nuen eta Homeopatia eta Terapia Neuralak egiten dituen Mediku batengana joan nintzen (lizentziatua). Bere tratamenduak hantura sortu zidan aurpegi osoan.

2004ko urriaren amaieran, mina jasan ezin zituen astindu bihurtu zen.

Nire medikuari, homeopatarari eta nire ginekologo pribatuari deitu nion eta denak adostu ziren mamografia bat eskatzen dudala premiazkoa.

Hurrengo egunean egin zuten eta handik zuzenean Ospitalera bidali ninduten. Denok ezagutzen duzuen kalbarioarekin hasi nintzen, probak, biopsiak, analitikoak, ganglio zentinela, etab. Medikuntza erradioaktibora bidali ninduten hezur-metastasirik ote nuen ikusteko... 2 ebakuntza 13 egunetan, kimioterapia, irratia eta 5 urteko pilula.

Ondorioa: MINBIZIAK MIN EGITEN DU, HALA ESAN NIZUN, ginekologoak ezetz esaten jarraitzen badu ere.

Istorio honek emakumeei, minaren aurrean, ni baino askoz lehenago (10 hilabete) diagnostikatzen laguntzea nahi dut.

Besarkada handi bat guztioi.

Santxak lagun bat zuen Zaray elkartean eta batzuetan bileretara laguntzen zion.

Horrela minbizia izandako emakumeen egoera hobeto ezagutu zuen, eta Frančan "Beyo" zaldia egiten zuen mediku-lanaz hitz egin zien.

Santxak, kostata bada ere, aitolarazia zion Dultzineari "Don Kixote"ren benetako izena, Julian Orcoyen doktorea, eta haren galde egin zuen. Bideratu zuten, bideratu, harengana, eta hitzordua eskatu zion medikuari, eta honek eman. Aurrez aurre, bere burua aurkeztu eta "Beyo" zaldia ospitaleetan gaixo terminalak goxatzen egiten zuen lana aipatu zion, Françako bidaian ikasia noski.

-Beyo zaldiarekin txit pozik daude Françako ospitaleetan. Hemen ere ez legoke gaizki beharbada...- Santxak.

-Badut zerbaiten aditza, baina xehetasun handirik ez. Zuk erran...-Orcoyen doktoreak.

Santxak paper bat eman zion eskura.

Julian Orcoyen doktoreak arretaz irakurri zuen:

Beyo zaldia mundiala da. Gaixoei laguntzen die. Miazten ditu, begiratzen ditu eta uzten du bera fereka dezaten. Minbizi aurreratua, alzheimerra eta beste gaixotasun larri batzuk dituzten gaixoengana hurreratzen da, senez. Ez du gaixoa sendatzen, baina aldartea hobetzen laguntzen dio eta medikazio gutxiago harrarazten. Ospitalera sartzen denean, ez du eragozpenik igogailura sartzeko. Zaldiek leialtasuna eta maitasuna adierazten dute beti. Hassen Boutakour du hezitzailea. Dioenez Beyo animalia urduria da eta ez du oso maite uki dezaten, baina pertsona oso gaixoei harremanetan sartzean, dena aldatzen da. Distantea eta hotza izatetik goxoa eta jendekoia izatera pasatzen da zaldia. Gabry Olivek dioenez "zaldiek zoriona, askatasuna, indarra eta honestasuna ematen dute.

-Interesgarria dirudi, bai, Santxa! Eta nork egingen luke ba hemen hori?

-Ezagutzen dut nik andere bat, Dultze Maria Mielgo Azcona deitzen dena, Erriberrikoa berau, eta neurekin batera "Zerbantak" bikotea eratzen duena. Bera da nagusia eta ni ezkutaria. Nahi baduzu hurrengoan berarekin etorriko naiz.

-Primeran iruditzen zait, benetan. Zuek erran noiz ahal duzuen. Hona ene telefonoa.

-Ados, Orcoyen doktorea. Laster izanen duzu gure berri.

Elkar agurtu eta Santxak Olyterako bidea hartu zuen. Dultze Mariari erran zion doktore batek "Beyo" napar bat nahi zuela eta haiekin mintzatu nahi zuela. Baina, erran gabe, Julian Orcoyen zela doktore hori.

Hala, handik astebetera jarri zuten hitzordua eta hantxe agertu ziren bi zerbantak, kale jantzian oraingoan.

Bulegora sartzean Dultzineak bihotz kolpe bat izan zuen eta musua erabat gorritu zitzaion, baina ahalik eta gehien disimulaturik, Beyo zaldiaren jarduna agertu zion doktoreari.

Ordu betez edo mintzatu ziren, eta elkarrizketa aurreratuxea zegoenean, Santxak komunera alde egin zuen, biak bakarrik utziz.

-Oker ez banago, Dulce Maria, ezaguna egiten zait zure aurpegia. Ez al duzu ospitalean lan egiten?

-Bai, hala da, administraria naiz, izan ere.

-Kontxo, banengoen ba ni, ez zaizkit hain erraz ahanzte neska atseginen aurpegiak! Dultzinea pixka bat durduzatu zen.

-Neska atsegin asko izanen dituzu inguruan, mediku eta erizain- Dultzineak.

-Tira, ez uste, ...-Orcoyen doktoreak.

-Dena dela, Santxa honek edozein saltsatan sartzen nau...

-Ongi egina, zuek pozik, ni pozik, eta gaixoak, suerterik bada, pozik eta hobeki behinik behin. Departamentuan aztertuko dugu gai hau eta luze gabe jakinaraziko dizuegu gure erabakia. Zuen zaldia prest duzue hortaz?

-Egia errateko behorra da, baina lan hori berdin edo hobeki egingen duelakoan nago.

-Ez dut, zalantzarik, Mielgo andrea....edo anderea.

-Anderea.

Elkarri bostekoa adeitasunez eman eta agur erranez, nor bere bidean abiatu ziren. Santxa ospitaleko atean zegoen nagusiaren zain.

-Akabatuko haut, Santxa zikiñ bazter-nahaslea!

-Ez, mesedez, ez, zure onerako da! Ezin da bizi guztia pasa, zain eta zain! -Hik egin didan ona!- Dultzineak.

Eta horretan uzten gaitu Zide Hamete Benenjeli idazle zuhurak.

-Donibane Lohitzune. Louisburgeko gutunak. Partitzean ternuara...

Zokoan zebiltzala, itsasoari so, bertako herritar batzuekin egin zuten topo. Haiek ere argazki bat nahi zuten eta poltsara sos batzuk eman zituzten. Ondoren, batek Louisburgeko gutunen berri eman zien. Ez zuten deus ezagutzen eta harriturik geratu ziren. Ondoren etxera heldurik, sarean begiratu zuten.

... Alabaina, Le Dauphin izeneko itsasontzi batean izan ziren gutunen atzemateko merezimendua izan du X. Lamikizek. Londreseko artxibo batean dauden dokumentuak biltzeko zortea izan zuen, bere tesiarako ikerketa ereman zuen denboran.

Historiaz bi hitz

1757. urtean, apirileko 4an, Baionako portua utzi zuen Le Dauphin itsasontziak. Martin Lermet deitu kapitainak eta beste marinelek Ameriketako Louisbourg hiria ikusi nahi zuen aste zenbaiten barne. Orduko postarik ez baitzen, Lapurdiko jendeen ohitura zen Louisbourgen bizi ziren askazieri gutunak igortzea itsasontzietako marinelen kondu: 50 euskarazko gutun igorri zituzten 48 lagun lapurtarrek. Frantsesez eginak ziren gutunak ere bazeramatzan untziak, baina liburu honetan haietaz ez gara axolatu. Bertzalde, itsasontziak ardoa, arropak, oihalak eta zapatak bazeramatzan eta, zernahi gerta,

artillerazko « peza » batzuk ere, erran nahi baita kanoiak. Agiri ofizial batek frogatzen zuen kortsuan ibiltzeko baimena bazeukala kapitainak, Frantziako erregek emanik. Bainan fortuna ez zuten alde izan eta garai hartan Zazpi Urteko Gerra baitzen hedatu, marinel angelesek Le Dauphin harrapatu zuten. Kapitaina galdezkatua izan zen High Court of Admiralty deitu auzitegiaren aitzinean. Almirantegoko Auzitegi Goren horren paperak artxibatuak izan ziren Londresen, ondoko dokumentazio guziarekin eta, erran bezala, han hatzeman zituen X. Lamikizek duela zenbat urte. Dokumentu horiek Londreseko Dorre famatuan egon ziren 1856 arte baina egungo egunean beste auzo batean atxikiak dira, The National Archives instituzioaren magalean. Egia erran, gutun horiek Kanadako lagun ikerlari batzuek eskuztatu zituzten bainan sobera kasurik eman gabe, ez baitzuketek berek euskara ulertzen. 2003. urtean X. Lamikizek begiztatu zituen, bere tesiaren osagarriak bilatzen ari zela. IKERko taldekideak abisatu zituelarik, erabaki genuen gutun horien berri eman behar zitzaiola euskaldun jendeari. Laguntza ere eskatua izan zen ikerketa proiektu hau bururatzeko; laguntza hori etorri gabe ere, testua argitaratzea beharrezko zela iduritzen zitzaigun.

-50 euskarazko gutun daude, hortaz!- Santxak.

-Bai, hala da, noski, interesgarria benetan!- Dultzineak.

-Kortsuan ibiltzen zirela!- Santxak.

-Louisbourg hori non den badakin, maite?- Dultzineak.

-Ez noski, erran beza, andere!- Santxak.

-Kanadan!-Dultzineak.

-Kanadan?- Santxak galde.

-Bai, halaxe dun, izan ere!- Dultzineak.

Dultzineak gogoan zituen bertso maite batzuk, garai urrunxe hartako bizimodua erakusten zutenak, baleetara joaten ziren mariñelena:

Partitzean Ternuara, Untzia prest da belara: Berga haut dago arradan, Denbor-onaren paradan.

Txuri garbi zeru gaina, itsasoak eder maina: Haize ona belarako, Denbor ona partitzeko.

Untzitik artilleria, Atean mandataria, Enbarg-hadi marinela, Untziak dagian bela.

Adios aita, adios, ama, Behar handiak narama: Neure buraso zaharrak, Zuen hasteko beharrak.

Adios neure emaztea, Esposa maite gaztea; Tristeia dut partiada, Sekulakotz beharbada.

Bizi beharrez bizia Benturatzen dut guzia; Bizi ustean hiltzera, Banoa hirriskatzera.

Itsasoak nau bizitzen Hark berak nau ni izitzen; Bizi laburra emanen Gero berak eramanen.

Adi neure haur xumeak, Seme alaba maiteak; Galtzen baduzue aita, Ama alarguna maita.

-Bai bertso ederrak- erran zuen Santxak- gainera ia dena ulertzen dut!

-Benetan onak eta hunkigarriak, eta bertso gehiago ere badira Partiada Ternuara horretan- Dultzineak erantzun.

-Donibane Garazira –Emazten fabore- Emazten fabore dakar Zide Hamete Benenjelik

Emaztiak ez gaiz erran ene amorekatik Gizonek uzi balizate elaidite faltarik.

-Alexaaaa! Zer erran nahi du?- Santxak.

ALEXA:

Hemen Ipar-alexak dioena:

Emaztez ez gaizki mintza, ene amoreagatik,

Gizonek bakean uzten balituzkete, ez lukete faltarik egingo –andreek-.

-Milesker, Alexa! Segi!- Santxak.

Anhiz gizon ari bada andrez gaizki erraiten Arhizki eta desoneski baitituzte aipazen Ixilika egoitia ederrago lizate

Andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite.

Zuhur gutik andregatik gaizki erran dirote Haiez hongiri erraitea onestago lizate Emazteak zerengatik gaiz erranen dirate Handi eta xipi oro haietarik girade.

Balentia sinplea da andren gaiz erraitea Bat gaiz erran nahi badu oro bardin sartzea Ixil ladin nahi nuke halako den guzia Damu gaizik emazteak hari eman dithia

Andren gaiz erraile orok bear luke pensatu Bera eta bertze oro nontik ginaden sorthu Ama emazte luiten ala ez nahi nuke galdatu Amagatik andre oro behar luke goratu

Gizonaren probexuko emaztia bethi da Oro behin haietarik sortzen gira mundura Sorthu eta hil ginate hark haz ezparginiza Haziz gero egun oroz behar haren aiuta.

Behorlegittuturru mendia

Bidean topatu zuten emazte batek erran zien esaldi hau, eta gogoan iltzatua zitzairen: - Behorlegittuturru mendia ezagutzen ez duena ez da nabarra edo uskalduna.

Eta hori erranik aurrera egin zuen bere zereginetara.

-Ezagutu beharko dugu ba, mendi hori- Dultzineak Santxari.

-Bai, noski, andere, bagoazke hara buruz, behorrik ez da eta han faltako!- Santxak.

Dultzineak orduan:

-Zer dakigu Behorlegiz, Alexa?

ALEXA:

IM-HE norabidean luzatzen den gandor harritsu da mendi honen ezaugarri nabarmenena, izan ere 2 km.tik gorako luzera du karaitzezko ertz luze horrek, Apanizeko larreetatik hasi eta Olhazarreko

ibarreraino. Honela, oso itxura desberdina erakusten du ikuspegiaren arabera: oso mendi zorrotza eta zaila ematen du Garazi aldetik begiratuta, zailtasun handirik gabekoa Irati aldeko errepidetik begiratuta. Arbailako mendialdeari dagokion tontorra da eta altuena ez izanagatik (Hauskoak berak metro batzuk gehiago ditu) bera da gehien nabarmentzen dena, Txindoki Aralar aldean bezala.

Ibilbide luzeak egin daitezke Behorlegi edo Mendibe herrietatik abiatuz gero, baina bada asfaltatutako bide pare bat Apanizera igotzen dena, 1000 m.tik gora. Bata Behorlegi aldetik dator Hauskoarekin lotzen duen Landerreko lepora eta bestea Mendibe aldetik abiatzen da, Armiagako hegi luzea zeharkatu eta Egurtzeko lepotik gertu paseaz. Neke handirik gabe egin daiteke Landerre nahiz Egurtze aldetik tontorrerako bidea, baina zuzenean igotzea baino hobea da Haritxarteko lepoa bilatzea lehendabizi, Mko gandorrean gora igotzeko gero, harkaitzari helduz nahiz larre errazetan gora. Ibilbide luzeagoa nahi izanez gero, hauxe duzue aukera polita: Mendibe - Armiaga - Egurtze - Haritxarte - Behorlegi tontorra - Landerre - Hauskoa - Behorlegi herria - Mendibe (6 ordu inguru).

-Harkaitzari helduz?- Santxak ikaratuta.

-Ez da horrenbesterako izanen, Santxa!

ALEXA:

Hara zer dioen Behorlegira igo den mendizale batek:

Kaixo lagunak,

Gaur mendi honetan egon naiz egun pasa, egun eguzkitsu zoragarria ere izan dut.

Abiapuntu bezala Behorlegi herria izan da, bertan autoa aparkatu eta elizaren ondotik doan errepidea hartu dut, behin eliza igaroz hiru aukera daude, bata mendebaldeko bidea, bi ondotik doan bidezidorra eta hiru errepidea bera, nik lehen zatia errepideaz egin dut, bidezidorra ez dudalako argi ikusi eta beste bidea ere asfaltatua zenez... esan bezala errepidea jarraitu dut 700 metroko garaiera arte, herria 400 metrora dago, hemen ezkererako pista bat hartu dut, antena baterantz daramana, "Orkatxoa ordokia" deitzen da, eta aurrerantzean mendian zehar egin dut bidea zelaian zehar, Elhortako sarioiara lehenik (1.000m) eta hemendik Hauzkoa mendia (1268m) igo dut IM-ko senda jarraituz, mendi hau gain gaineraino dena zelaia da.

Hauzkoa tontorra zapaldu ondoren Landerre Lepoara jeitsi naiz Behorlegi (1268m) igotzeko, hau zuzenean igotzen da zelaian gora malda gogor samarrean baina astiro hartuz zailtasun handirik gabea. Goian harkaitzeko gandor luze bat irekitzen da ekialdetik-mendebaldera. 3 ordu eta 15 minutuko igoera.

Zerbait jan eta atsedena hartu ondoren, jeitsiera edo itzulera bidea egin behar.

Honetarako Egurgiko Lepoara jeitsi naiz gandorra mendebalderantz jarraituz eta Harrizarte aldetik esandoko lepora heltzeko, inguru zoragarria hau benetan. Egurgiko lepotik (910m) beheerako bidea Olhazar-eko bordak (700m) aldera doan pagadian barrena egin dut, Otsabeeta(500m) izeneko tokirantz jeitsiz bidezidorrean. Hemendik aurrera jadanik herriaren inguruan gaude eta bideari jarraitu besterik ez dago abiapuntura iristeko. 2 orduko jeitsiera.

Ibilbide gomendarria, egun pasa lasai bat egiteko.

-Gomendagarria bai, baina luzeaaaaaa! Ez nago ohituta hainbeste ibiltzen!- Santxak.

-Ez da horrenbesterako!- Dultzineak!

-Astoak ez dakit nahiko duen...- Santxak.

-Hori agindutako lekura joanen da- Dultzineak.

Eta hortxe uzten gaitu Zide Hamete Benenjelik...

Eta ekartzen gaitu Urybaora...museora:

Sofonisba Anguissola (eskuratu berria)

Sofonisba Anguissolaren margolan hau aspaldi ez dela aurkitua da, eta berrikuntza handizat har daiteke, oso urria baitzen egilearen ekoizpen erlijioso ezaguna. Anguissolak berak sinatuta eta datatuta dago, eta kontserbazio egoera bikaina du; hala, esku-hartze arin bat besterik ez zioten egin behar izan Historia de dos pintoras. Sofonisba Anguissola eta LaviniaFontana erakusketarako. 2019an egin zen erakusketa hori, Prado Museoan, Leticia Ruiz komisarioaren gidaritzapean, eta hartan erakutsi zen koadroa lehen aldiz jendaurrean.

Kristoren eta Alexandriako Santa Katalinaren arteko ezkontza mistikoa irudikatzen du obrak, Jacopo da Varazzek bere Santuen bizitzak obran jasotako pasarte batetik hartua. IV. mendeko printzesa bat izan zen Santa Katalina, eta martiri bihurtu zuten bere fede kristauagatik. Irudian, ezkon eraztuna ematen ari zaio Jesus Haurra, bertan direla Ama Birjina eta emakume heldu bat, santa Ana izan litekeena. Oso gai herrikoia den arren, zalantza ugari daude hari buruz, eta zalantzan jarri izan da goi-mailako printzesa dotore hura –hari estira emateko erabilitako gurpil horztunarekin eta martiritzaren palmondoarekin irudikatua– benetan izan zenik ere.

-Zer da estira hori?- Santxak.

-Tormento, tortura, suplicio,...-Dultzineak.

Obra 1588an datatuta dago, eta, hala, Genovan margotu bide zuen Sofonisba Anguissolak, hiri hartan bizi izan baitzen 1580. eta 1615. urteen bitartean. Urte haietan, estuasunik gabe bizitzeko moduko egoeran zegoenez, osorik pinturari emanik bizitzeko aukera izan zuen. Hortik ondoriozta liteke han bertatik bertara ezagutu bide zuela Genovako eskolako ordezkari nagusietakoa zen Luca Cambiasoren izen bereko obra, eta artista haren lanaren erreproduzio leiala dela Urybaoko Arte Ederren Museoaren bilduman sartu berria den mihise hau. Litekeena da Sofonisba Anguissolak interesa sentitu izana ikonografia berritzaile harekiko; edonola ere, aipatzekoa da haurra jada kozkortua eta amaren antz handikoa irudikatu zuela, eta horrek humanizatu egiten du haren irudia eta protagonismo handiagoa ematen dio eszenan.

Cambiasoren jatorrizko obrari leial jarraitu zion arren, Anguissolaren lanak baditu ñabardura bereizgarri zenbait. Santuaren janzkera, esaterako, oparoagoa da hemen, eta Cambiasoren irudian ageri ez diren isla batzuk ditu oihalean eta zetazko mahukan. Era berean, xehetasun eta luxu handiagoz irudikatu zuen Anguissolak koroa, eta perlak erantsi zituen burukoan eta mantuaren mahukan.

-Mahuka mahuka, mucha mauka- Santxak.

Margolariaren ekarpena da, era berean, zoruaren konposizioa; maila bat du beheko ertzean, irudia marko batean sartuz bezala, eta lore mordo txikiak ateratzen dira hartatik. Bere koadroetan,

Anguissolak ez ditu landareak erabateko zehaztasunez deskribatzen, baina honetan zenbait ale bereiz daitezke: bioleta usainduna (*Viola odorata*), urrabortoia (*Tanacetum parthenium*), lore bikoitzeko txiribita (*Bellis perennis*'Plena') eta Gaztelako arrosa (*Rosa gallica*'*Officinalis*'), Ama Birjina eserita dagoen harlanduaren ondoan, beharbada Kristoren Nekaldiaren aipamena eginez.

Kromatismo finak, modelatu leunak eta proportzio apur bat luzatuko irudien arteko intimitate dotoreak halako gozotasun eta baretasun berezi batez hornitzen dute konposizioa: Leticia Ruizen hitzetan: "... Correggioren dolcezza sfumata ... sumatzen da Sofonisbaren garai hartako obra erlijioso apurretan". Eta ezaugarri horrexek nabarmentzen du berriki eskuratutako obra eder hau, zeinari esker aurrerratu baita Urybaoko Arte Ederren Museoan emakumezko artisten kronologia XVI. mendera.

-Lore bikoitzeko txiribita? Zer lore da hori?- Santxak galde.

-Horrek ez din garrantzirik, Santxa! Ideia orokorra dun garrantzizkoa!- Dultzineak.

-Nik loreak maite ditut, eta zergatik ezin dut hori galdetu?- Santxak galde.

-Arrazoi dun, Santxa!- Dultzineak

-Alexa, zer lore dugu hau?

ALEXA :

Basabitxilorea edo txiribita (*Bellis perennis*, latinetik: *Bellus* = polita eta *perennis* = iraunkorra) Asteraceae familiako landare belarkara da. Lore apaingarria da.

- Uff, ba hala ere, ez dakit akklaritzen naizen, andere, aurrez aurre ikusiz gero beharbada...- Santxak.

-Ikusiko dinagu aurrez aurre, hitza ematen dinat! Urybaora joanen gaitun!

ALEXA:

Badaude ondo bukatzen diren istorioak, eta gaur egun koadroari buruz hitz egiten duguna horietako batean. 2019ko ekainean Alexandriako Santa Katalinaren Ezkontzak Goya etxean XVII. mendeko Espayniako lan anonimo gisa salgai jarri zutenean, inork gutxik imajina zezakeen, bi urte geroago, Urybaoko Arte Eder Museoan sartzen amaituko zenik. . Inizialak S. Ama Birjina esertzen den harrizko bankuan agertzen diren L. A »k bizkor eman zuen bere egileaidentifikatzeko giltza, Cremona Sofonisba Aguisolaren ohiko sinadura baitzen (1535-1625 inguruan). Caylus galeriak eskuratu ondoren jasan zuen zaharberritzeak ez zuen inolako zalantzarik utzi bere egiletasunaz eta exekuzio dataz: «S. L. A. / P / 1588 ", hau da; "Sofonisba Lomelina Anguisola / Pinxit / 1588".

-Lomelina!- Santxak.

-Bai, ez al da izen polita?- Dultzineak.

-Bai, alaba bati jartzeko, adibidez- Santxak begiak lurrean iltzatuz.

Eta hemen uzten gaitu Zide Amete Benenjeli handiak.

Dultzinea eta Santxari ez zieten utzi Urybaoko museoan sartzen. Madrileko museoan gertatua eta Bristoleko atxiloketa bizkor heldu ziren Urybaora ere. Dultzineak, haserre, honako hitzaldi hau egin zuen Rozinanta behorraren gainetik, Doña Kaxildaren parkean:

-Beti izan du emakumeak fama txarra, baina gizonek jarria, beti emakumea gaiztoa, eta hórrela, ez diozue uzten kulturara heltzen. Hemen gaude gu, Erryberrytik etorriak, bidaia neketsu bat eginda, Sifonisba gure gidariaren koadroari ohore egiteko, eta zuek, ez diguzue uzten sartzen. Hau bidegabekeria! Ateak zabaltzen ez badituzue, neure lantza honekin kristal bat hautsi eta sartuko naiz, sartu, eta zin dagizuet, belaunikatuko naizela Sinfonisbaren margolanaren aurrean.

Dultzinearen eroa sumatu zutenean, museoko zuzendaritzak bi zaindariaren laguntzarekin sartzen utzi zieten, baina abereak eta lantza-ezpatak kanpoan utzita, barruraino sartu nahi baitzituzten.

Dultzineak isilik eman zituen hainbat urrats, koadro honetara heldu zen arte. “Bahiketa” irakurri zuenean eta ikusi, asaldatu zen, El Pradon bezalaxe. Baina zaindarien, adi-adi baitzeuden, besotik heldu zuten berehala, irmoki.

De Vosek margo honetan islatzen duen gaia Ovidiok kontatu zuen bere Metamorfosiak lanean. Jupiter jainkoa, Feniziako Agenor erregearen alaba zen Europaz maiteminduta, zezen bihurtu zen, Europa bahitu zuen, Kretara eraman eta, han, bere egin zuen. Beste alde batetik, neskatoa, bahitua izan baino lehen, hondartzako ur-bazterrean ari da jolasten bere lagunekin, Merkurio zerutik dabilen bitartean aingerutxo inguratuta. Horietako batek Jupiterren tximistak ditu eskuetan.

Martin de Vos, bere estiloaren heldutasun betean, Tizianok 1559 eta 1562. urteen artean pintatutako konposizio batean inspiratu zen. Gaur egun, Tizianoren margo hori Bostongo Isabella Stewart Gardner Museumen dago. Margolariak abilezia handia erakusten du, eta ez soilik, tradizio flandestarrari jarraituz, hondoak eta xehetasun anekdotikoak pintatzean, ezpada emakumezkoaren biluzia islatzean ere. Biluzia sfumato bikainarekin izan da modelatua, eta badirudi argia haragi-koloreetatik sortzen dela, gardentasun lausoen bitartez. Tunika horiak eta zapi gorri uhindunak kolorea eta mugimendua ematen diote konposizioari. Azken batean, De Vosen kalitate eta interes handienekoa den lan honek, sintesi perfektua erakusten du estetika italiarraren eta bere prestakuntza flandestar finaren artean.

Martin de Vosek, seguruenik, Pieter de Vos aitaren tailerrean hasi zuen bere karrera. 1552. urtearen inguruan, Italiara bidaiatu zuen Pieter Brueghel Zaharrarekin batera, eta Erroman eta Florentzian egon zen bizitzen. Venezian, Tintoretoren tailerretan aritu zen lanean, paisaia-pinturako espezialista gisa. 1558an, Anberesera bueltatzean, hiriko artista italianizatzaile garrantzitsuena izatera heldu zen. [A.S.L.]

-Zenbat “Kultura” jakin behar den koadro bat ikusteko... ene! Ovidio, Merkurio, Cinzano, Tinttoreto, Vaporetto... nik emakume bat eta abere bat ikusten ditut, atzean behi batzuk eta itsasontzi bat.

-Jakiteak ez din kalterik eginen, Santxa maite!

Barrutik kanpora begiratu eta abereak falta. Eta hara non entzuten dituzte irrintzi eta arrantza batzuk.

Rozinanta eta Ruzia hantxe zeuden, lasai lasai, Zuloagaren zaldiari begira, hipnotizaturik.

Museoak Ignacio Zuloaga (Eibar, 1870–Madril, 1945) margolariaren obra garrantzitsu bat jaso du gordailuan: Festako biktima da lanaren izenburua, eta New Yorkeko The Hispanic Society of America erakundetik dator. Museoko Eraikin Zaharreko Mogrobejo Hallean egongo da ikusgai 2019ko urrira arte.

Izenburu anbiguoarekin, mihisean pikadore bat agertzen da (Francisco Segoviarra, Zuloagaren ohiko modeloa), nekatuta, zauritutako zaldi baten gainean, zezenketa baten ostean.

Eszena paisaia goibel batean dago kokatuta; itxura denez, Sepúlveda da leku hori, eta argi ikus daiteke Zuloagak El Grecoren pinturagatik zuen mirespena eta arte horrekiko lotura. “Rozinante” izeneko prestaketa-marrazki batek indartu egiten du Don Kixoteren pertsonaiarekiko konparazioa.

Atzealde ilun baten gainean, Lukreziaren emakume-figura agertzen da, maisu alemaniarraren ohiko zehaztasun teknikoaz irudikatuta, erdi biluzik eta hiru laurdenetan. Lepoan apaingarri aberats bat dauka, eta, bular gainean, kate-mailaz egindako idunekoa, biak ere nobleziaren ikurrak. Eskuineko eskuan daraman dagaren heldulekuak agerian uzten du, lehen aipatutako bi elementuekin batera, margolana egiteko modua osoa zaindua dela, urregintza-lanak irudikatzeko orduan. Beste elementu apaingarririk edo atzealdeko paisaiarik gabe, arreta guztia Lukreziaren pertsonaian eta haren anatomiaren edertasun zurbilean pilatzen da; izan ere, Cranachek nabarmendu egiten du emakumearen anatomia, argi indartsu bati esker.

-Baina zein zen Lukrezia?- Santxak.

-Alexa, lagunduiguzu pixka bat- Dultzineak.

ALEXA:

Lukrezia [(latinez: Lucretia) elezaharretako erromatar emakumea izan zen. Tito Livioaren narrazio klasikoaren arabera, Sexto Tarkinio Erromako erregearen semeetako batek Lukreziarekin maitemindu eta hura seduzitzen saiatu zen, baina, ez zuenez lortu, bahitu eta bortxatu egin zuen. Lukreziak bere aitari eta senarrari aitortu zien desohore hura, eta mendekua hartuko zutela zin eginarazi zien, euren aurrean bere burua hil baino lehen. Sexto Tarkinioaren jokaera gaizkina, erromatar herriaren atsekabearen puntu gailena izan zen, eta erromatar monarkiaren amaierarekin eta Erromako Errepublikaren sorrerarekin amaitu ziren matxinada batzuk sortu zituen.

-Mila esker, Alexa. - Dultzineak.

-Bahitu eta bortxatu!- Santxak!

-Sexto Tarkinio! Akabatuko haugu!- Dultzineak.

-Breaveheart ezpatarekin!- Santxak.

Zaindarien berehala heldu zieten biei, gehiago asalatu baino lehen.

ALEXA:

Orain segi dezagun koadroaren ezaugarriak aztertzen.

Elementu horien ukimenezko ezaugarriez gain, emakumeak bere gorputzaren zati bat estaltzeko erabiltzen duen belus granateko mantuaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan, bai eta askoz ere finagoak diren beste batzuk ere; adibidez, ilea edo belo arina, zeintzuen bitartez Cranachek biluziaren sentsualtasuna nabarmentzen baitu, besoak eta eskuak kokatzeaz gain.

Marrazketa bikaina, forma biribilduak eta siluetaren erritmo uhintsua erabiliz, Cranachek konposizioa osatzen du, eta, ondorioz, figura osoa begiradarekin zeharkatu beharra dago, aurpegiaren edertasun liluragarrira eta hiltzearen emakume heroiaurrean aurpegiaren ameslarira heldu arte. Hori guztiori dela eta, artelan hau Lucas Cranach Zaharraren ibilbide oparoko eder, fin eta dotoreenetakoa da.

Honaino Zide Amete Benejeliren mintzoa.

Santxak entzuna zuen bazela Karola izeneko garabi bat eta jakin nahi izan zuen gehiago.

-Alexa, zer dakigu Carola garabiaz?- Dultzineak.

ALEXA:

Carola Garabia da gelditzen den bakarra beste garaitan Bilboko Kaian zeuden guztietatik. Itsas Museoaren aurrean kokatuta dago, gaur egun Euskalduna Jauregia dagoen lursailetan. Aipatu lursailak Euskalduna ontziolen egoitza izan ziren. Garabi sendoa 1. harmailaren buruan jarri zen eta bere lana tailerretan landutako kroskoaren edo makineriaren elementuak altxatzea, tokiz aldatzea edo biratzea zen. Azken finean, itsasontzian doitu behar ziren.

(doitu –intralexa-: egokitu, kokatu, sartu...)

Indultuaren arrazoia izena ematen dion istorio ederra da. Ontziolen aurrealdean ontzirezalekua zegoen itsasadarra gurutzatzeko. Arratsaldero Deustuko gazte ederrak, Carolak, itsasadarra ontziz gurutzatzen zuen Jesusen Bihotza plazan lan egiteko. Xede horrez, Euskaldunaren instalazioak zeharkatu behar zituen. Langileak zain egoten ziren eta fabrikako turutak joarazten zituzten pasatzen zen bitartean. Emakume eder horren omenez bere izena jarri zioten garabiari. Carola garabiak lanean jardun zuen Euskalduna ontziolak 1987an itxi zirenera arte.

-Emakume eder batek salbatu du garabi hori !- Santxak- Gainera etxetik kanpo lan egiten zuen.

-Bai, hala dun, Santxa maite, baina ez al da hori emakumearen gorputza erabiltzea?- Dultzineak galde.

-Nire omenez garabi bat jarriko balute, ni pozik oso- Santxak.

-“Santxa Garabia!”- Dultzineak.

-Horixe!- Santxak.

-Gizon guztiak txistuka, sirenak jotzen, hori jazarpena da, nik langile horiek denak astinduko nituzke hire breveheart ezpatarekin- Dultzineak.

-Ez pasatu, andere!- Santxak.

- Buahhh! Goazenan parkean gure abereekin jiratxo bat egitera. Casilda de Iturrizar-en parkea. Alexa, erraiozu nor zen Santxari:

ALEXA:

Casilda de Iturrizar y Urquijo, Epaltzaren alarguna

Data Horretan inauguratuko iturri zibernetikoak 600m²-ko azalera du eta emaria 26.000 litro/minutukoa da. Ordenagailuak gidatzen du eta argiztapena nahiz ur-jokoak musikarekin sinkronizatzen gai da ur- eta argi-irudiren 420 milioi konbinazio eratu arte. Parkean kokatuta dago, Pedro Guimón arkitektoak proiektatutako pergolaren alboan.

Thomas Joshep Joaquin de Epalza y Zurbaran (1798-1873) bigarren aldiz ezkondu zen Casilda de Iturrizar y Urquijorekin. Orduan 33 urte zituen eta seme-alabarik utzi gabe hil zen. Alargunak, 1818ko uztailaren 20an jaiotako emakume bilbotarrak, bere senarraren oinordetzan hartutako diru-kopuru handia erlijio-, gizarte- eta hezkuntza-jardueretarako erabili zuen. Basurtuko Ospitale Zibila, Misericordiaren Etxea, San Frantziskoren Klaretarrak, Josuren Mirabeak, Deustuko Unibertsitatea,

Tivoliko eskolak eta Portugaleteko Agustindarren umeetzako eta langileentzako eskola; horiek guztiek, besteak beste, laguntza jaso zuten. Agustí Querolek egindako brontzeko monumentuak oroitzen gaitu bere izena daraman parkean. 1900ean hil zen Bilbon.

-Begira, hark umerik ez izateak nolako ona ekarri zion hiriari...!- Dultzineak.

-Egia da, bai, hori...-Santxak- Zer da musika hori?

-Abeslari bat kantuan parkean, bere gitarrarekin... ezaguna egiten zait abestia..-Dultzineak. -Horixe, Iñaki Camerun- Santxak.

Abereekin hurreratu ziren abeslariarengana.

Ahal guztiz kantatzen ari zen.

-Robermoso da! Zaramakoa!- Santxak.

-Ah bai, egia! Bera da!- Dultzineak-. Eta izerditan blai. Adu diezaiogun:

Abeslariak irribarretxo bat egin zien Dultzinea, Santxa, Russy eta Rossyri, abesteari utzi gabe:

Martzianoak bezala kalean galdurik ibiltzen. Hogeitamalau gradu eta izerditan blai.

Nerbioi ertzetatik Santurtzitik Bilbora non ibiltzen ziren lehengo sardinerak, inork ez dakien nondik irten den arrantzaz.

Tabernaz taberna:

"vendo barato"

goizean eta gauez:

"mucho barato"

askotan baraurik:

"todo barato"

izenik ez dute soilik Iñaki:

Iñaki, zer urrun dagoen Kamerun.

Santxak eta Dultzineak:

-Iñaaaaki, zer urrun dagoen Kamerun....! Bai abesti ezaguna, Robermoso... lanaren emaitza...

-Aupa neskek. Egia esateko entsegu bakar batean atera zen,...- Robek.

-Bueno, baina lan asko dituzue.... adibidez sexkalextrik....- Santxak.

-Bai, lagundu kantatzen- Robermosok.

Sexkalextrik

Gehiegitan bakarrik etxeratzen da Txabi mutil azkar eta bizi zori gabe neskekin

Txabi dabil aspaldian bere gelan etsirik tresna zaharren artean zer ote dauka buruan?

Egiten ari da Sexkalextrik

ez al dakizu zer den? atsegin gailurra! Sexkalextrik Sexkalextrik

Hor dago makina bai lan bikaina barruan sartu plazerra sortu!

Garaia ailegatu da: Sexkalextrik konektatzeko ordua atsegin hutsa da: Sexkalextrik Sexkalextrik

Mailaz igotzen den neurrian urtzen da gaztai antzera zerbait oker dabil barruan tresna ez da geldituko inoiz!!!

Ezin goxuago Sexkalextrik bidaiarik onena ongi lehertu arte Sexkalextrik Sexkalextrik.

Argazki bat atera zuten elkarrekin. Robermoso behor gainean eta Dultzinea gitarrarekin. Santxa bere astoarekin dantzan.

Orduan Yora Renderiya andere abeslaria agertu zen eta Robermosorekin kantu hau eman zuen, bi gonbidatuen laguntzarekin.

-Oraindik ez da negua joan, baina kanta dezagun —Negua joan da eta...

Elurrak joan direnean nire mendien artean Eguzkia teloian atzekaldean da

Ateratzeko beldur da, beldur eszenikoa Aspaldi antzeztu ez duen obra honetan

Izpi txiki txikiren bat agertuz doa gaurkoan Poztasun handi batek besarkatzen nau Mesedez ozen esan negua joan egin dela Nire arima hotzak ez du sinizten eta

Laztandu nazazu orain, ur urdinen artean Orain lainorik ez da, aurpegi biluziak

Ta larrua jotzean garrasirik ozenena, Gordin amaigabea, negua joan da ta.

Jaio berrien antzera taupaden beharra dut orain Belarriekin ikusteko nire begiek entzuten ez dutena Mesedez ozen esan negua joan egin dela

Izara guztiak erre ditut eta

Soinu bakar bakarra zure bularraldean Negua joan da ta

Borobildu zaizkit ertzak zure ondoan Izpi lasaigarri bat

Negua joan da ta, negua joan da ta

Bertze argazki bat atera zuten denek elkarrekin eta laster arte...

Zide Hamete Benenjelik erraten digunaren arabera, parke hartatik dendak ikustera joan ziren nagusia eta ezkutaria, eta honako elkarrizketa hau izan zuten:

-Hara zer asmatu duten! andere, frijigailu bat, baina oliorik gabekoa...-Santxak.

-Horixe falta zitzaigun!- Dultzineak.

-Horrela salduko dugu guk olioia, ene! Gure olio-errotak!- Santxak.

-Bai, egia. Zer dakigu traste hauetaz, Alexa?

ALEXA:

Oliorik gabeko aire-frijigailuak: Ostiral Beltza honetan sukaldaritza osasuntsurako lau eskaintza onenak

- Sukaldeko tresna mota hau egunero gero eta ezagunagoa da, bai frijitzeko ekintza errazten duelako, bai olioaren zatia murrizteko osasungarria delako.

Oliorik gabeko aire beroko frijigailua

Nola funtzionatzen du oliorik gabeko frijigailuak?

Gero eta ezagunagoak diren gailu hauek tenperatura altuetan frijituak sartu ohi diren olioia ordezkatzeko dute, frijitu nahi dugun janaria uzten den ontzi batetik zirkulatzen duena. Espazio horrek produktua irabiatzeko espatula bat izan dezake, airea noranahi hel dadin, edo olio-frijigailuen antzeko saretan baten gainean dagoen saski batez osatu daiteke, airea igarotzen uzten duena.

-Frijigailuak!- Santxak.

Aire beroarekin olio frijituaren antzeko kalitateko frijituak eta arrautzatuak lor daitezke, baita denbora behar duten platerak ere, baina baita tenperatura altuak ere, hala nola, saltsa murriztuko gisatuak.

Azken kasu honetan, frijigailu batekin baino gehiago labe batekin aldera daitezke, nahiz eta prozedura erraza den: osagaiak erretiluan jarri -kasu honetan ezin da parrilla bat izan- eta gailuak adierazitako denbora aplikatu. argibideak edo interneten exekutatzeko diren errezetak.

Orain, nahi duzuna arrautzeen frijitzea emulatzea bada, kroketak edo milanesak adibidez, espatula baztertu eta saretan formatua aukeratu behar dugu. Gainera, komeni da janaria aurretik olio spray batekin arin botatzea, testura kurruskaria emateko.

Sukalde denda nagusietan eta interneten aurki ditzakegu frijigailuak 100 euro gutxitan gaintzen dituzten prezioetan. Eta hala egiten badute, kontrol handiagoak, edukiera handiagoa edo Wi-Fi sarbide gehiago sartzen dituztelako da, mugikorrekin kudeatu ahal izateko.

-Milesker, Alexa- Dultzineak. -Ez da zeren!- Alexak.

Urybaoko karraketan zebiltzala, horrenbesteko jende eta trafikoaren erdian, asaldatu ziren abereak eta ez gutxiago jabeak.

-Ez zakinat, jakin, Ury handi hauek guretzat eginak diren,... ez dinat uste...-Dultzineak.

-Nago ni ere, andere, ez direla guretzat eginak, hobeak direla Erriberri aldeko sailak, beren mahasti, almendro, olibondo eta arte-arbolekin- Santxak.

-Ongi errana, Santxa maite, han gure eginak agerpen hobea izango din, hemen miloika pertsonen artean baino- Dultzineak-. Halere, gure ongintza hemen ere egin behar dinagu. Ea non eta nola. Alexa, info pixka bat mesedez:

ALEXA:

Bada elkarrizketa interesgarri bat Urybaoko puntu ilunei buruz.

“Estrategiak eraiki behar dira gunek ilunak denonak izateko”

Urybao Feminista Saretzen taldekoek salatu dute erasoek gora egin dutela. Urybaoko "gune ilunak" identifikatu dituzte, eta neurriak eskatu, leku horien arriskua murrizteko. Kaleak hartzeko eskatu dute berriz ere.

Jawest Arrañaga

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen atzo. Aurten andreak egunerokoan sufritzen dituzten erasoetan jarri du arreta mugimendu feministak. Urte osoko erasoak salatu nahi izan dituztela esan du Iraty Sienna (Urybao, 1990) Urybao Feminista Saretzeneko kideak.

Urybaoko Iturribide kalean egin zenuten prentsaurrekoa joan den astean. Lekua ez zenuten ausaz aukeratu, ezta?

Ez. Azken urte honetan kaleko eraso asko salatu behar izan ditugu, eta nabaritzen dugu gorakada bat egon dela. Adibidez, apirilean astero mobilizazio bat egin behar izan genuen erasoak salatzeke, eta, batez ere, antzeko guneetan gertatu dira: Iturribide inguruan, Solokoetxen, Urazurrutia inguruan, eta Uribarriko eskailera eta arrapaletan. Etengabe erasoak leku beretan gertatzen dira, eta ez da inongo neuririk hartzen.

Zelako neurriak behar dira?

Neurriez ari garenean, prebentzio neurriez ari gara, ez Polizia indartzeaz. Gainera, jende bat gertaera horiek aprobetxatzen ari da diskurtso arrazistak erabiltzeko, segurtasun faltaren izenean. Sortu nahi dizkigute atzerritarrekiko beldurra eta segurtasun faltaren sententzia gure kaleetan ibiltzeko, baina beldurrak aspalditik datoz, eta erasotzaile gehienak bertako gizonak dira. Gezurretan oinarritutako diskurtso bat ari dira eraikitzen, eta horri ere buelta eman nahi diogu. Ez dugu inondik inora onartuko feminismoa erabiltzea jarrera arrazistak justifikatzeko.

Aspaldikoa da kaleak hartzeko deia; aurten ere baliatu duzue.

Bai. Aurten lelo hori erabili dugu mobilizatzea asko kostatu izan delako pandemia hasieratik hona. Ezin dugu ahaztu iazko Martxoaren 8an eztabaida egon zela manifestazioa egin behar zen edo ez erabakitzeke. Ikusten duguna da erasoen gorakada bat gertatzen ari dela. Eraso transfoboe gora egin dute, baita Eusqal Herryan ere, nahiz eta batzuetan dirudien kanpoan bakarrik gertatzen direla. Etxe barruko erasoen gorakada ere ikusi dugu. Alde batetik, diskurtso batek esaten du erasoak gertaera bakanak direla, baina guk salatu nahi duguna da etengabe gertatzen ari direla, eta icebergaren punta direla. Hau da, erasoak dira mikromatxismo askoren azken etapa. Ezin dugu utzi jendartearentzat onargarria den zerbait bihur daitezen, eta ezinbestekoa da horren aurka oihukatzea kalean. Mugimendu feministak nahiago luke beste gauza batzuk egin, erasoak salatzen aritu beharrean. Lan handia edukiko genuke zerbitzu publikoeta politika feministak aldarrikatzen eta proposatzen... Eta ez gara hori egiteko gai, erasoak salatzen ibili behar garelako etengabe.

-Mikromatxismo eta makromatxismo!- Santxak.

Zenbait hiritan gune ilunen inguruko lanketa bat egin dute. Pedagogia ona da leku horiek saihesteko eskatzea?

Gune ilunak markatzen ditugunean, ez gabilta inori esaten hortik ez pasatzeko. Boteretze eta autodefentsa ikuspegi batetik egiten dugu: gune horiek arriskutsuak izan daitezke, baina gune horiek

zureak ere badira. Joan erne, joan lagunduta, joan adi, baina joan. Ez utzi inora joateari. Guk ez genuke inola ere planteatuko emakume batzuek leku batzuetara joatea utzi behar diotenik. Kontrakoa: esaten ari garena da estrategiak eraiki behar direla gune ilun horiek denonak izan daitezen, baina horretarako garrantzitsua da jakitea zeintzuk diren.

Esan duzue erakundeek txapa morea ipintzen dutela azaroan, baina gero kendu egiten dutela.

Bai, hala da. Egin den lanaren ondoren, gaur egun dauden eraso guztiak baldin badaude, hori da erroan ez delako lanketarik egin. Gizonek uste badute boterea dutela emakumeon gainean, eta gu jipoi gaitzaketela, etxean utzi edo erail, arrazoi batengatik da: hezkuntzan ez direlako behar besteko neurriak hartu, aurrezaintza politikarik egin ez delako, ez delako behar beste inbertitu maskulinitatearen lanketan edo emakumeen autodefentsan. Era berean, zerbitzu sozialak edo eraso egin dieten emakumeak lagundu behar dituzten erakundeetan ez dagoelako baliabide nahikoa, ez dagoelako diru nahikoa, ez dagoelako benetako politikarik erasoak salatu dituzten emakumeak ekonomikoki autonomoak izan daitezen eta haien erasotzaileak utzi ahal izan dezaten. Horren ondorio dira erailketak.

-Ez dago baliabide nahikoa!- Santxak.

Guri ez digu balio azaroan udaletxe guztietan puntu more erraldoi bat jartzeak, haiek dituztenean erantzukizunak eta baliabideak egoera aldatzen saiatzeko. Badakigu hamarkada askotako bidea dela, baina ez dira hasi ezta bidea hasten. Udalek, foru aldundiek eta Euslaritzak politika feministetan egiten duten gastuaren zatirik handiena ez dira benetako politika feministak, propaganda baizik; publizitatea. Horretan gastatzen da diru publikoa, eta ez guk eskatzen ditugun politiketan. Horretarako, aurrekontuetan errotiko aldaketa bat egon behar da. Gure ustez, txapa moreetan dirua gastatzea, behar den tokian inbertitu beharrean, eskuak garbitzea da.

-Bai, txapa more asko!- Santxak.

Maguette Mbeugouren hilketa epaitu berri dute Urybaon. Zer ondorio atera daiteke?

Maguettek salatu egin zuen eraso egiten ari zitzaiola, baina, egoera pertsonalaren ondorioz, harremanean jarraitu zuen. Zerbitzu sozialek bazekiten zein zen egoera, eta guk salatzen duguna da erakundeek utzikeriarekin jokatu zutela. Ez bera artatu zuten profesionalen erruz, baizik eta zerbitzu sozialetan lan egiten duten langileek eta berdintasun teknikariek ez dauzkatelako eskura behar beste baliabide. Kasu horretan, ondorioa Maguette hilketa izan zen, eta, kasu zehatz bat izan arren, momentu honetan ehunka emakume egongo dira egoera berean, eta ez da aldaketarik egon hiru urte geroago.

-Maguette gaixoa!- Santxak.

Baliabideak gehitzeaz gain, protokoloak berrikusi behar dira?

Protokoloen inguruan eztabaidak egoten dira, eta gure artean ere zenbait kontutan ez gaude ados. Zailtasun handia dugu erabakitzeke zer egin beharko litzatekeen erasotzaileekin. Zelan egin punitibista ez den lanketa bat? Eraiketa matxista gogorren ostean, Espayniako Estatuan espetxealdi iraunkor berrikusgarria aldarrikatu dute biktimen zenbait gurasok. Urybaoko mugimendu feminista osatzen dugun emakume gehienak ez gaude ados horrekin. Benetan nahi ditugu zigor gogorrakoak? Kartzela gizon maskulinizatuak are gehiago maskulinizatzen dituen eremu bat da, eta erasotzaileak are erasotzaileago bihurtzen ditu.

Zein da alternatiba?

Beste era bateko lanketak behar ditugu. Hori inbertsio publiko handi batekin egiten da, eta ez dira ari egiten. Erasotzaileak kartzelara bidaltzen dituzte hor egon daitezen ez dakit zenbat urte, eta behar duten berreziketa prozesua bete gabe ateratzen dira.

-Bai elkarrizketa interesgarria, Alexa, mila esker!- Dultzineak.

-Ederki dago, andere!- Santxak.

-Bagoazken puntu ilun horietako baten argitzera!- Dultzineak.

-Bai, gaur bertan eta oraintxe, andere!- Santxak.

Hala Iturribide aldera jo zuten eta hango jenderi galdetuta, puntu ilun batean jarri ziren gauaren zain. Ilundu zuelarik, handik pasatzen zen gizonetako oro geratzen zuten eta ohartarazten:

-Zabiltza zuzen eta honetara, bestela egingen zaitugu eseki.

Gizonetakoak apal-apal pasatzen ziren kixota-pantza haiek zaldizko ikusirik.

Emakumeei, aldiz hau erraten zieten:

-Zoaz ongi eta onik, emakume, zu begiratzeko eta babesteko baitaude hemen Demetria operazioko bi kide nagusiak!

Neska gazte bat solaserako geratu zitzairen, musika entsegutik zetorren etxe aldera, bakarrik. Hauxe da Alexak solasaldi hartatik ateratakoa, eta laburbildurik ematen diguna:

Azken urtean oso zaila izan da musika ateratzea eta musikaren alorrean pertsona aktibo izatea. Neure burua gauza batzuk egitera behartuta ikusi dut. Esaterako, Instagramen edo Youtubean zuzenekoak egin behar genituen, argazkiak atera, bideoak bidali... Konfinamenduaren ostean kalera itzultzean, jendea gauzak egiten hasi zen berriro. Ni oraindik ez nengoen prest. Egoerari buruz hausnartzen eta inguruko musikariei erreparatzen hasi nintzen. Ondorioztatu nuen batzuetan behartuta sentitzen garela gauza batzuk egitera. Ez badituzu egiten, badirudi ez zarela kulturaren parte. Badirudi aktibo egon behar dugula egunero, eta sare sozialak egunero elikatu. Nahiz eta musikaria izan eta neure burua musikari moduan ikusi, batzuetan sentitzen dut era horretako gauzak ez egiteagatik ez naizela horren parte. Banaiz, ordea. Izan gaitzke artista eta kulturaren parte gaur egun egin behar diren gauza horiek egin gabe.

Zaila da emakume izatea, baina Euskal Herrian, oro har, oso ondo zainduta daude emakume musikariak. Diskriminazio positiboa ere sentitzen dut. Babes handia sentitzen dut, baina gertatuzait kontzertu batera joan eta kontratatu nautenek nire musika inoiz entzun ez izana, eta ia ez jakitea nor naizen. Bakarrik emakume izateagatik deitu izan naute. Horrek kontraesanak sortzen dizkit. Zaila da. Hala ere, gero eta emakume gehiago gaude; baita elkarlanean aritzen ere. Politika da. Nik uste dut hemendik oso urte gutxira nahiko parekatuta egongo garela. Hori espero dut.

Gau hartako lanaldia bukatuta, egunsentiarekin, San Mames aldera egin zuten, eta katedralaren kanpoaldetik pasa ziren.

-Hor izanen dira lehoiak- erran zuen Santxak.

-Bai, arrak nahiz emeak- Dultzineak.

-Aupa Athletic-eko nesak!- Santxak.

-Aupa!- Dultzineak.

-Olyteco gazteluan ere ba omen zen lehoiren bat...-Santxak.

-Bai, halaxe dun, Marzot eta Mona, Pérez Garañonek erraten duenez.

-Hara!-Santxak.

-Ea zer dioen Pérez Garañonen liburuak, Alexa...-Dultzineak.

ALEXA:

Nabarroako erregeek bazuten Olyteco palazioan parke zoologiko anitz bat, eta ertaroko korteetako ohiturei jarraiki, animalia exotikoak hartu eta ematen zituz auzo-erreinuetako bisita eta enbaxadetan. Piztiak eta hegazti exotikoak ongi dokumentaturik daude Olyten, zaintzaile eta elikadura, palazioko osagarri gisa.

Ertaroko erregeek lehoia izaten zuten ahal eta erregetasun ikur gisa. Carlos II erregeak, 1384ko dokumentuan erraten denez, lehoi bat zuen, izenez Marzot “zeina eman baitigu gure anaia Aragoiko erregeak...” Pedro IV.ak, koinatuak, lehoi eme eta tximu eme batekin batera (Mona izeneko lehoiaz gain?). Abere bikaina izanen zen, zeren erregeak “gure Lehoi handia” deitzen baitio eta ezagutzen baita, halaber, animalia heriotz eguna, 1414ko apirilaren 7a, seguruenik zaharrez zendua.

Piztiaren zaindari eta gordetzaille agertzen da Juce Zayet (Enzayet edo Enceyat) judutarra eta Erregeak agintzen du behar dena emateko “haren emaztea Zaragozatik etor dadin”, 25 eguneko jornalaz gain, hiru sueldo eguneko.. Ordaintzeko ardura Levi-k izan zuen Estellan Erregearen Errezibidore zenak, judutarra berau ere, konfiantza osokoa.

Marzot eramana izan zen Erregearen Dorrera, iruñera eta gordea Palazioko kapera zaharrea, eta geroztik deitzen zaio, Lehoiaren Ganbera. Oliten Erregearen zerbitzura lan egiten zuten orgazain batzuek egin zuten zerbitzu hori.

- Bai ona, kontu hori!- Santxak.

- Txoritegi bat ere bazegoen, eta Laranjondoen Lorategia,...-Dultzineak.

- Zergatik ez ditugu berriro jartzen lehoiak, txoritegia eta laranjondoak...?-Santxak.

- Gure esku balego...!- Dultzineak- batek zekin, agian egun batez...

Fregonaren historia

Santxak maiz aditzen zituen emakumearen garapenari lagundu dioten aurrerapenen kontuak, baina berak, bere garbitzaile bizitzan, fregonari eskertu behar zion, eskertu, gerriko minik ez izatea eta belaunikatu beharrik ez izatea. Fregonaren historiaz galde egin zion Alexari.

ALEXA:

Hogeita zazpi urte igaro ziren, 1957tik 1984ra, Espaynian zoruak beti eta nonahi lurra belauetan garbitzen ari zirela, fregona beti zutik egon zen arte.

Lehen, belauniko, emakumeak bakarrik. Gero, zutik, gizonak ere.

Aldaketa honek emakumeen hasierako askapenean eraginkortasunez lagundu zuela onartzen da. Moparen historia hiru fasetan bana daiteke:

I.- 1957-1960 Manuel Jalón Corominasek Rodex sortu zuen, Europako lehen fregonaren industria arrakastatsua, eta zutik sastraketan hasi zen Espainiako probintzia guztietan.

II.- 1960-1966 Rodex fregonak jarraitzen du aldaketaren buru izaten, baina lehenengo lehiaketa agertzen da, Mery.

III.- 1966-1984 Rodex Europako etxeetako eta garbiketako plastikozko industria nagusietako bat da. Bere GAVIOTA fregonak bazter guztietara iristen dira eta hogeita hamar herrialdetara esportatzen dira. Mery ere hazi eta garatzen da batez ere Katalunian. Beste fregonak ere badaude, Mik de Alchemika, S.A. Rodex-en lizentziapean fabrikatua.

1984an, belaunak garbitzeko ohitura Espayniatik desagerrarazi eta zutik sastraka egiten hasi zenaren istorioa, fregonen erregistro nagusien bizitza juridikoaren hogeitaz beteta: Manuel Jalón Corominas No. 298.240 eta Rodex 60.299, 60.300, 60.301 eta 70.893 zk.ko erabilgarritasun- ereduak, Martí Mascarelen lizentzia eta Juan Gunfaus Navarro-ren erabilgarritasun-eredua 75.168 zk. Beraz, 1984. urteaz geroztik, agertu ziren, plastikozko etxeetako industriei dagozkien fregona ugari. Fregona.com

-Mila esker, Alexa, hori bai dela txosten konpletoa!

Santxa gauza asko batera egitekoa zen eta aldi berean jarria zuen radixua. Irratian Pariseko rapero batzuk jarri zituzten:

Rap de Assassin's Creed Unity (part. Dan Bull)

Seré la ley que nunca me ayudo

Seré la cura para la traición

Desde versalles hasta las calles donde azota la revolución Seré la vida

Seré la muerte

Empiezo a donde se acaba la suerte

Tengo en la mente grabado el asesinato de esa gente inocente

Bajo mi daga se esconde el terror de reyes y presidentes

Bajo mi miedo florece la furia para dejarlos sin dientes

Quien quiera que venga para matarme que no lo intente

La rabia recorre mi cuerpo

La furia que ciega mi mente

Desde pequeño he sido fuerte

Me ha acompañado la muerte

He sido un estorbo
Toda una lacra
Con el orgullo de frente Orgullo de mi familia De mis amigos
De toda mi gente
He decidido que seré el castigo para todo aquel que me miente
Alouette, gentile alouette, alouette Je te plumerai
Je te plumerai la tête
Je te plumerai la tête
Et la tête, et la tête
Je te plumerai la tête
I'am an assassin
One with a passion
For innovative rapping Dropping so fast
You're probably having
A problem to follow the captions I'm so ahead of my time
I'm probably rapping backwards Said I'm
I'm so ahead of my time
I'm probably rapping backwards
Estoy viviendo una mentira desde que era un crío
De traiciones, de bandos, de engaños
Miro en quien confió
Mi familia no está
Como tampoco estarán
Esos cabrones que mataron a mi gente a maldad
Me llaman justicia, ojo por ojo, diente por diente
Yo lo que quiero es que gane el pequeño
Que llore el mas grande
Que corra el valiente
Seguir la corriente

Sacar la fuerza de donde no tengo porque yo lo prometí Que la gente salga a la calle y luche por lo que está por venir Me siento solo ¿por qué tuviste que irte papá?

No puedo con todo

El peso que cargo no podré dejarlo jamás

Cansado de la miseria, de la pobreza en cada rincón Cansado de esta batalla

Cansado de este dolor

Alouette, gentile alouette, alouette Je te plumerai

Je te plumerai la tête

Je te plumerai la tête

Et la tête, et la tête

Je te plumerai la tête I'am an assassin

One with a passion

For innovative rapping Dropping so fast You're probably having

A problem to follow the captions I'm so ahead of my time

I'm probably rapping backwards Said I'm

I'm so ahead of my time

I'm probably rapping backwards

La rabia recorre mi cuerpo La furia que ciega mi mente

Alouette, gentile alouette, alouette Je te plumerai

Je te plumerai la tête

Je te plumerai la tête

Et la tête, et la tête

Je te plumerai la tête

I'am assassin

One with a passion

For innovative rapping Dropping so fast

You're probably having

A problem to follow the captions I'm so ahead of my time

I'm probably rapping backwards Said I'm

I'm so ahead of my time

I'm probably rapping backwards

Donibaneko ontziola

Neurri-neurrira egindako ontzi bat nahi zuten.

Ontziolara heltzearekin solas hau izan zuten ontziolako jabearekin, deitzen baitzen Piarres:

-Ah, ongi etorri, zuek zizte zorioneko "Zerbantak"! hain ospetsuak, hemen ez ezik mediterraneo guztian, Turkiako egunkari batean ere atera omen zizte...

-Ez dugu ezer jakin, zuk badiozu...-Dultzineak.

-Ba, ba...-Piarresek.

-Ez genuen uste halako oihartzuna izango izanen genuenik..-Dultzineak. -Zerbantesen liburuaren hasiera buruz dakita... nahi duzue entzun?- Piarresek. -Ah, bai, gustu haundiz!- Santxak.

- Mantchako herri batean, zeinaren izenaz ez baitut orhoitu nahi, bizi zen, ez delarik aspaldi, aitorenseme bat, lantza krakoan daukaten heyetarik eta oraino erredola, zamalko ihar bat eta charlengoa ihiziko.

-Ez da horrela, Piarres jauna, da Mantxa aldeko herri koxkor batean...koxkor da, eta gero bere izenik ez nuke gogoratu nahi,...

-Niretako da herri batean, zeinaren izenaz ez baitut orhoitu nahi... buruz ongi hartua dut, nahiz ene oroimenak batzuetan huts egin, puska hori mila bider errana eta berritua dut.- Piarres ontzigileak.- Duvoisin kapitainak zuen eskararat bihurtu...

-Ba gu Berrondorenak gara!- Santxak.- Haren bi liburukiekin heldu ginen Turkiaraino eta Ordojan presidentearen emazteari opari emanak dizkiogu, eta ez gure nahigaberik gabe, halako edizio ederra eskuetatik galtzea baitzaigu.

-Ba nik bertzea dut maiteago, neure hizkeratik da hurrenago...-Piarresek.

-Alexa, entzun dezagun Duvoisin hori Zerbantes jantzian...-Dultzineak.

ALEXA:

Bai, anderea. Hona zure agindua betea...

Mantchako herri batean, zeinaren izenaz ez baitut orhoitu nahi, bizi zen, ez delarik aspaldi, aitorenseme bat, lantza krakoan daukaten heyetarik eta oraino erredola, zamalko ihar bat eta charlengoa ihiziko. Eltze bat, maizago bethea behikiz ezen-ez zikhiroki gizenez, arrax gehinenetako haragi hotz pozika zerbait, larumbatetan azienda zango eta muthurkiak, ortziraletan ilharrak, igandetan bertzeen gainera usokume bat, horiek aski ziren iresteko haren onthasunetako bilkinen hirur laurdenak. Chahutzen zuen ondarra igande bestetako eginez aldagarri bat oihal finez, galtza pare bat belurez eta zapata mehaxak oihal beretil, eta astelegunetan bere buruari ohore ematen zion tela politenezko chamar batekin. Etchean bazuen gobernant bat berrogoi urthez goitiko, neskatcha gazte bat bere iloba hogoyetara hurbiltzen zena, eta mutil bat kampo- barnetako, zaldi zelatzen hain ongi hari zena nola egur chehatzen. Berrogoi eta hamar urtheren inguruxuan zabilan gure aitorensemearen adina. Gorphutzez hazkar zen, haragiz ihar, mokoz mehar, goizetan goichtiar handi eta ihicerat emana. Batzuk diote Kijada zuela izengoitia, biltzuk Kesada (ezik horren gainean makhur

zerbait bada etche hartaz mintzatu diren iskribauen artean) nahiz ara gehiago duen uste izateko Kijana deitzen zela. Bainan horrek mengoa guti gure istorioarentzat, gauzen erratean ez bada ile batez egiatik urruntzen.

- Ze zamalko eta zer charlengo....Santxak asaldaturik-. Charlengo charleston.

ALEXA:

Txarlengo da....ez dut aurkitzen...

-Ikusteeeeeennnnn, ez dakarrrrrrr- Santxak.

-Begirune pixka bat izan ezan, ezjakin horrek- Dultzineak.

-Hitz arraro batagertzen denean, gehienetan "iparraldekoa" izaten da eta inork ez du ezagutzen.

-Hik ez dun ezagutzen- Dultzineak.

-Ba ni pertsona normal bat naiz, andere.

-Gure literatur tradizioa iparraldean dago, batik bat- Dultzineak.

-Ba, hori hala da...-Piarresek. Biblia ere eman zuen eskararat Leizarragak...

-Alexa, ea pasarteren bat Leizarragarenetik- Dultzineak goxo.

ALEXA:

GUZIZKO ANDRE NOBLE Ioana Albrete Nabarroako Regina Bearnoko Andre gehien &c, denari, bere zerbitzari guzizko xipiak eta guzizko obedientak, Ioanes Leizarraga Beraskoizkoak, Iesus Kristen gratia eta bakea desiratzen.

ANDREA, zeren ni zure ezagun gabea bezala naizelarik, Testamentu berriaren heuskarazko translatione hunen zure Maiestateari dedikatzeraz ausartu izan naizen, merezi onez arintasunez akusa ahal neinde, baldin neure ausartgoa hunez zerbait exkusa berereren eman ezpaneza. Bada, niri haur eragin draudaten anhitz berze razoinen artean izan dirade, zure humanitate handi jende prestu guziez laudatua, eta lainkoazko zure zelo handia. Zure humanitateaz den bezenbatean, ene manera halako bazen ere, non ezpaitzuen irudirik ere zure humanitatea sekulan enegana hel ahal leitela, guziagatik ere anhitz alde hura baliatu izan zait, eta prinzipalki, zure maiestatearen plazera hala izanik gaje ordena lekidan, zure Bearnoko herrian entretenitu izan naizen bezenbatean: ezen halaz eman izan zait, ithoa bezala azpitik nendukaten gogo-arranguretarik, eta orhoitzeak ere buruko biloa latz eraziten drautan kaptibitatezko suiektionetik ilkiteko okasione eta moien. Eta zure zelo lainkoazkoaz den bezenbatean, hark du enjendratu zu baithara jende prestuen bihotzetan halako reberentia bat, non are zure ezagutzea ez tutenek ere ezin asko mirets baitezakete zure berthutea, zuri zuzen onez emaiten zaizkizun laudorioakgatik zeren hain afektionatu erakusten zaren lainkoaren tenpleko gauza gaizkituen drezatzen, eta zeren hark, kuasi desegin eta arrasatu izanik, orain zure moienez reedifikatzen delarik, rekrubatu baitarama bere leheneko edertasun Apostoluen denboran ohi zuena. Hunetakotzat exenplutan frangoki allega ahal dezaket zure Bearnoko herria: hura behin berze erran...

-Buahhh txabala, zer da horiiiiiiii!!!!-Santxak. Draudaten, hori alemana da.

-Ezjakintasuna! Ezjakintasuna!-Dultzineak.

ALEXA: Txarlengo hori da orain orai now Xarlango... Nola erran-en aurkitu dut.

[lévrier] (zakur) xarlango

[lévrier] aipatu zakur ihizikoez kanpo, haien lan bera ere zeremonia berekin egiten zuten Libertateko arbolaren kontra, gure herriko etxe zakur, artzanor handi, zakur alano eta zakur xarlango guziek. En plus des chiens de chasse mentionnés, venaient accomplir la même tâche avec les mêmes cérémonies sur l'arbre de la Liberté, les chiens de maison, les grands chiens de berger, les chiens mâtins, et tous les chiens lévriers du village.

-Bon, niri ere kostatzen zait aditzea parte batzuetan...-Piarresek- orain laurehun urte eta gehiago egina da! Artaz irakurri behar da! Bo, mintzatuko gira zuen untziaz?

-Bai, mesedez- Dultzineak- ordu da horretarako, zeren itsasorat egin behar baitugu, itsasoz bestaldetik dauden emakume beharrean direnei laguntzeko...

-Hobe hemengo itsashegian hasten bazizte emeki-emeki, ez duzue uste?-Piarres ontzigileak. Barrandariak ere baditugu, antza, guri behar daude han gizon batzuk.

-Ba, ez larritu, Piarres, gu Bristolen izan ginenetik atzetik gibeletik ditugu, gure urrats guztiak dituzte zainduak.

-Europollo horiek izanen dira, andere!- Santxak. Zergatik esaten duzu barrandari? Ni naiz barrandera!.

ALEXA:

Barrandari -Zelataria. Ez da on barrandari izatea, ez da on zelatan egotea.

-Milesker, Alexa- Santxak.

-Txalupa handi bat nahi genuke, Piarres-.

-Badakizue nolako den txalupa handia?

ALEXA:

Txalupa zen itsasbazterreko arrantzarako ontzietan handiena; 13 metro inguru zuen luze. Abendutik martxo bitartean bisiguaren arrantzarako erabiltzen zuten. Jarduera honetan 20 bat tripulatazailek hartzen zuten parte, eta tretza bidez aritzen ziren.

-Zer da tretza?- Santxak.

-Hari luze bat amu askorekin- Dultzineak.

-Ah, ongi da- erantzun Santxak.

Txaluparen ezaugarriak ez ziren oso garrantzitsuak arrantzaldi honen garapenean. Alabaina, maiatza eta urria bitartean, ontzi bera hegaluzea eta atuna arrantzatze erabiltzen zuten, tripulazioa bisigutakoaren erdia baino txikiagoa zela.

Arrantza lanetan xaxiango teknika erabiltzen zuten, aparailuak zabalean hedatzen zituztela pertxa edo botabera luzeekin. Aparailuak, bere aldetik, amu bakun edo bikoitza edukitzen zuen, lumaz edo artostoz estalita eta kolorezko oihal edo artile zati batez apainduta, maluta egina alegia, arrain baten

itxura ematearren. Amuak bizi-bizi mugitzeko eta atunak- eta engainatzeko beharrezko lastertasuna erraz hartzeko moduan zegoen diseinatuta txalupa.

-Zer da xaxiango teknika?- Santxak.

-Zabalean jarri haga luze batzuk eta haietatik haria eta amuak, amu horiek arta-hostoz jantzita...

-Hobe izanen duzue batel bat, hastapenean, gero emeki joanen zizte handiagoetara...- Piarresak.

ALEXA:

Euskal kostaldeko batel tipikoa. Euskal Herriko arraun eta bela ontzi tradizionaletako txikiena. Batela, itsas tradizio baten oinordeko zuzena da, portuetako barra hareatsuak zeharkatzeko eta balea ehizatzeako arraunerako ontzi azkarrak behar zituen.

Gaur egun, batela itsasertzeko arrantzan eta aisialdirako ontzi gisa erabiltzen da. EZAUGARRIAK:

Gehienez 4 pertsona. Bakar batek ondo arraun dezake.

Oso azkarra arraunean

Erraza nabigatzen

Botadura erraza du

20zm-ko zingoa

Haritzegindako estruktura, pinuaz estalia. Bankuak haritzekoak ere.

-Zer da zingoa, Alexa?- Santxak ahots apalez galde.

Nautikan, zingoa ontzi batek flotazio-lerroaren eta gilaren artean duen distantzia bertikalari esaten zaio, kroskoaren lodiera barne hartuta.

Herri eta hiri handietatik herri koxkorretarako jauzia nola egin zuten kontatzen digu Zide Amete Benenjelic.

ZORISOAIN

-Entzuna dugu Zorisoainen jende gutti bizi dela, beharbada hara joan gitezke, herri ttiki horietako emakumeei laguntzera, herri eta hiri handietan samurrago eskuratuko baitute behar dutena- Santxak erran!

-Ongi errana, Santxa! Ez ditun guretzat eginak, hain gutxi gure abereentzat, porlandi jendetsu eta burrunbatsu horiek. Zer dakigu Zorisoain herriari buruz?

ALEXA:

Zorisoain aizkora baten moduan irekitzen da Valgorbako goialdean, harrizko etxeak pilatzen dira eta, bailarako herri arruntetan bezala, nafar erromanikoaren oroimena nabarmentzen da, hemen, Gourseko San Martinen omenezko elizarekin. Monumentu historikoaren magalean, udalerriko punturik altuenetako batean, koadrilak entzuten dira, zalapartan, inguratzen dituen mendialdean oihuka, izan ere, «herri batean faunaren kudeaketa oso garrantzitsua da. bestela hemen izanen

genituzke basurdeak jaten». Pompelotik 20 minutura dago Zorísoain, Erdi Aldean biztanlegutxien duen herria, erroldatutako 79 pertsona baino ez dituen, eskualdeko despopulazioaren kezka, arazoak eta irtenbide posibleak biltzen dituena.

-Laurogeira ez dira iristen, andere!- Santxak.

Lurraldeko gainontzeko herriei urrutitik begiratzen die Zorísoainek, atzetik Unzué baitago, 154 biztanlerekin bikoiztu duena, eta Ujuelek 175ekin jarraitzen du. Eskualdeak, Nabarroako Estatistika Institutuaren datuen arabera, biztanleria du guztira 26.174 pertsona, Al'Talla liderra izanik, biztanleriaren %40,5 hartzen baitu.

Erdi Aldea Garatzeko Partzuergoaren txosten eguneratu batek dio despopulatzeko arrisku handiena duten herriak, dentsitatearen arabera, Leonz (224 biztanle), Oslóryz (204), San Martyn de Unax (389), Ujuél (175), Unzuél (154), Beyrel (287), Murilla el Cuento (673), Zorysoayn (79) eta Pytyllos (502).

Zentzu horretan, nabarmendu behar da herri hauek hazkunde moteleko joera orokorra dutela eta baita populazioaren beherakada ere 1980ko hamarkadatik aurrera. Garapen Partzuergoak azpimarratzen du, nahiz eta zahartze orokorra beste eskualde batzuetan bezain kezagarria ez den, zahartze "handia" dagoela, batez ere herri txikietan.

-Gazteak behar dira!- Santxak.

"Landa ingurunean bizitzea desberdintasun egoeran egotea da", hausnartzen du Alain Duryó Bazorlak, 9 urtez Zorísoaingo alkateak. 23 urterekin heldu zen Nabarroako herrira, Lleidako hamasei mila biztanleko herritik joan zenean, bikotekidearen lan proiektuak bultzatuta. —Txikitan herri txikiagoz inguratutako hiri batean bizi nintzen eta Nabarroara heldu nintzenean landa- inguruneari buruz nuen haurtzaroko oroitzapen horren antzeko zerbait bilatu nuen]], hausnartzen du Duryók. Kalitate hobea den arren, herri batean bizitzea «konplexua» dela aitortu du. Duryórentzat, Zorísoaingo errutinak bizimodu horren bi alderdiak aintzat hartzea dakar, positiboa eta negatiboa, eta bakoitzari zer gustatzen zaion jakitea aukeratu ahal izateko. "79 biztanle dituen toki bateko alkatea izatea, dena kudeatzea da, literalki, herriak iraun dezan", dio Duryók, guztira 75.000 euroko aurrekontua besterik ez duen Udal baten gidaritzapean.

-Dena kudeatzea!- Santxak.

Biztanleriaren gabeziak urteen poderioz iristen diren pertsonen ahalmen ekonomiko eta behar txikiagoak dakartza, izan ere, orain Duryók adierazten duen bezala, ez baitute saneamendu eta ur hornidura sareak berritzeko gaitasunik, dagoeneko ia batuta. mende erdi bat. "Nabarroako Gobernuak finantzatzen duen zerbait da, baina beharbada ehuneko 70 edo 80 egiten duena, eta ezin ditugu gainontzekoa eta herritarren gainontzeko gastuak ordaindu", dio eta uste du "horiek baino 100 biztanle baino gutxiago dituzten tokiak". 5.000 "rekin.

«Zerbitzu asko behar ditugu, bistan denez, baina arazo handia da nola finantzatuko diren», sakondu du Duryók, eta konponbidea «fiskalitate ezberdindua» dela nabarmendu du. «Landa ingurunean bizitzea desberdintasun egoeran egotea da, horregatik balantzea nolabait orekatu behar da eta zergaren gaia funtsezkoa da despopulazioari aurre egiteko», dio.

-Saneamendua eta ur hornidura!- Santxak.

-Herri txikiei zerga txikia! Eta laguntza!- Dultzineak.

Herriko motor ekonomikoa lehen sektorea da, gaur egun hiru familia-unitate onartzen dituen, eta Zorisoainen dagoen ustiapen turistiko txikiarekin osatzen dena. Ez dago azpiegiturarik, ez dago udalen jabetzako baliabiderik, —Udalera joaten den diru bakarra zergetatik ateratzen dena da. Duryók agerian uzten du zentzu horretan «eskuak lotuta» daudela. Dena den, zerbitzuen hornikuntzarako erreferentzia-nukleo gisa funtzionatzen duten ondoko udalerrietan, Garínnoainen eta Barásoainen, ekoizpen industrialak dago, tokiko sektorea «gehiago ustiatu beharko litzatekeena». "Hemen garrantzitsuena ez da industria sortzea, baizik eta Valgorban ehunindustrial sendo bat sortzea, hori familiak erakartzeko eta gure herrietan bizi daitezen lortzeko modu bat izango da", argudiatu du.

-Ehun hori zer da?-Santxak.

-Sare industrialak, azpiegitura industrialak erran nahi din-Dultzineak.

"Herrian bizi eta lan egin ahal izateko aukera gutxi daude", dio Jesús Martínez de Cirizak, Zorisoaingo jauregiaren jabeak, herriko bi landa-ostatuetakoa bat. Jesusek, Artaxgoakoa, Zorisoaingo jauregian oina jarri zuen lehen aldian, eraikinak Leinu-Sorburu zahar gisa bere historiari eutsi zion baina, era berean, birgaitu eta arreta handiz zaindu beharra nabarmendu zuen. Horrela joan zen. Herrira bizitzera joan zenean, familiarekin bizitzeko espazio egoki bat bilatzeko ideiarekin egin zuen, baina denborak hasierako asmoak aldatu zizkion eta espazioa ere lan bihurtu zen eta "bertako negozioak sustatzeko modu bat" bihurtu zen. Belaunaldi aldaketa, aitortzen du, korapilatsua da eta herriek euren burua abandonatu ez dezaten konponbidearen zati handi bat komunikazio onak ezartzea dela adierazten du.

-Komunikazio onak!- Santxak.

"Oinarrizko bi gauza daude, errepideko komunikazioa eta konexio digitala", aipatzen du Martínez de Cirizak, eta zehazten du are gehiago orain telelanaren aukerak abantaila duela lan ingurune askotan. "Jendeak hirian bezala komunikazioa izango balu, Nabarroako landa ingurunea ez litzateke kaltetuena izango, komunitate txikia garelako eta hiri nagusiekiko distantzia ez baita handia", laburbildu du, eta oraingoz gaineratu du. "Garraio publikoaren eskaintza aldatu eta azkarrago eta maizago izan beharko litzateke".

-Alexa, laburpentxo bat mesedez- Santxak.

"Landa ingurunean bizitzea desoreka izatea da"

"Hiriarekin komunikazio ona egongo balitz, jende gehiago etorriko litzateke"

-Mila esker, Alexa!- Santxak- Jarrai dezakezu.

ALEXA:

Emakumeak dira euren herriak gehien uzten dituztenak

Partzuergoak dio emakumeen landa exodoa handia dela -by Eujolpress

«Aukera berriak bilatzeko» herrietako biztanle-irteerarik handiena emakumeen artean gertatzen da, eta, Gala García Erdi Aldeko Garapen Partzuergoko teknikariaren ustez, nabarmen baino nabarmenagoa da. Gaur egungo populazio-piramideetan ikusten da hori, non antzematen den gazte edo heldutasunera iristen direnean emakumeek toki txikienei «aukera desberdinak» uztea erabakitzen dutela.

«Gizonetan ere gertatzen den arren, emakumeen artean gehiengoa den zerbait da», berresten du García. Egoera honen balizko kausen artean, teknikak dioen moduan, herrietan ez dituztela gizonak dituzten aukera berdinak eta errotze sentimendua ere ez, horregatik entitateak hainbat ekimen kudeatzen ari da geldiarazi ahal izateko landa-emakumeen exodoa, eta hori da baita ere "herrietako anonimotasun faltagatik". Horrek guztiak dakar biztanleria maskulinoagoa eta zaharragoa.

-Herrietako anonimotasun falta!- Santxak.

-Herrikan kanpo bezala inon ez, galego hark erran zuena- Dultzineak.

-Emakume gazteak, zatozte!- Santxak.

Dultzineak eta Santxak Zorysoaingo jauregian hartu zuten ostatu. Leinu-sorburu izanik, etxe dotorea zen, guztiz zaharberritua, baina bere arima galdu gabekoa. Bi gau pasatzeko dirua ozta zuten, eta sartzean ordaindu zuten, arauak agintzen baitzuen hori.

Erreserbak baliogabetzea edo aldatzea

Erreserba guztiak Nabarroako Turismo Kontseilu Nagusiak onartutako baliogabetze edo aldatetaren berrerearen menpe daude, zeinaren bidez bezeroak erreserba baliogabetu edo alda dezake inolako kosturik gabe erreserba data baino zazpi egun lehenago arte. Establezimenduan sartu ondoren, bezeroak erreserbatutako gauen guztizko balioa ordainduko du; jan-edanaren ordaintzea irteeradarako utz daiteke.

Behor-astoentzat korta bat eskaini zieten eta hantxe eman zuten gaua abere ibiltari biek.

Santxa txoratuta zegoen leku harekin eta esku-orriko aukera guztiak irakurri zituen:

Ekipamendua

Guztiak bere xarma bereziarekin, baita bainugela, telebista, DVDa, Wi-Fi ere. Gelak erabilera bakarreko eta bikoitzeko dira.

Kanpoko bistak dituzte, ohe bikoitzarekin edo bi oherekin.

Taldeentzako afari bereziak

Sasoian hazten diren produktuak, hala nola zainzuriak eta orburuak, eta basokoak, hala nola, perretxikoak eta Valgorbako boilurra, dira gure sukaldean lehenetsitako osagai naturalak. Euskal, Nafarroako eta Kataluniako gastronomiako errezeta tradizionalak dituzten platerak. Pentsio erdia. Bezeroentzako jantoki pribatuak. Ardoaren Ibilbidea.

Taldeko jarduerak

Logela bat alokatzen dugu taldeko jardueretarako, yoga, meditazioa... etab.

Sinbolismo erromanikora sarrera

Bisita gidatua San Martin Zorysoaingo Kriptara. XII. mendea. Igandeetan 10:30ean. Doako zerbitzua.

Enologia praktikorako sarrera

Ardo destilatuaren artisau-elaborazioa, uxuala destilatzea. Denboraldian bakarrik. Aurrez erreserba.

-Andere, mila aukera dauzkagu hemen, mila!- Santxak oihu.

-Ez gaitun hona etorri turismoa egitera, baizik eta goi-asmo batekin, herri honetako emakumeei laguntzea, eta hori izanen dun gure boilurrik onena- Dultzineak erantzun.

-Enologia praktiko hori....mmmm!- Santxak.

-Alkatearekin hitz eginen dinagu eta emakumeari nola lagundu hemen galdetuko- Dultzineak.

-Idea bikaina, andere, zertan ibili asmatzen...-Santxak.

Alkatearengana joan ziren, joan, ez zebilen urruti, hain herri txikia izanik. Honela mintzatu zitzaion Dultzinea:

-Agur, jauna, agur, agurtzen zaitugu Zorysoango alkate zaren hori! Entzuna izanen duzu noski gure ibileren berri, Turkian izanak gara, era berean Lesbosen eta Toledon, gure goi-asmoari segika, hau da, emakumeari lagun egitea eta emakumeari egiten zaizkion okerrak zuzentzea. Hury handietan ibiliak gaituzu, eta gaude, gure abereak eta gu, hobeak garela herri txikietan eta trafiko gutxiko tokietan ibiltzeko, eta hala, herri entzutetsu honetara etorriak gara, herri honetako emakumeei laguntzera. Esate baterako, Simona Beauvoir-en "Bigarren sexua" liburuari buruzko hitzaldi bat egin nezake, txit interesgarria eta baliagarria.

Alkateak irribarre txiki bat egin eta ihardetsi zion:

-Entzuna da, bai, zuen jarduna, ta oso txalogarria deritzot. Dultzinea eta Santxa zaretela badakit, zuek erran aurretik, izan ere, zuen ospea zabaldua baita lau haizetara. Feminismoak gaur arte izan duen ordezkartzarik nabarmenena zuengan dagoela erranen nuke, okertzeko beldur handirik gabe. Gainera, zer umek ez du ezagutzen attention angles morts eraskailua itsatsia duen aberea? Nolanahi ere, erranen dizuet, nire eskerrik beroenarekin batera, honako hau:-Hemengo emakumeek behar dutena da, saneamendu eta ur hornidura sarea berritzea, horrek bai hobetuko du emakumearen egoera herri honetan. Mende erdi bat bada kasik, ubide horiek jarri zirela, eta ordu da alda ditzagun. Eta zuen besamakilak ikusita, ziur naiz, herri honek uste baino lehen eskuratuko duela saneamendu berria jartzea.

-Nik badakit masa egiten- bota zuen Santxak. Gure etxaldean usatua naiz.

-Ederki- erantzun alkateak- bihar edo etzi hastekoak gara eta abisua pasako dizuegu landetxera. Bi aitzur zuentzat, lehen zanga egiteko.

-Ongi da-erantzun Dultzineak, pixka bat arduratuta, bere esku guriei begiratzuz.

Dultzineak emakumeren batekin hitz egin nahi zuen eta loreak txukuntzen aurkitu zuen bat. Herriko emakumeen beharrez galdetu zion eta emakumeak:

-Saneamendua egingo bagenu, horixe aurrerapena denontzat.

Hala, etsi zuen Dultzineak eta saneamendua egiten lagundu bertze aukerarik ez zegoela erran zion bere buruari.

Bortz gizonezko eta bi emakumezko, Santxa eta Dultzinea, bildu ziren hitzartutako orduan, zanga egin behar zen lekuan.

-Hemen ditugu, gaur- erran zuen alkateak- emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunean sinesten duten bi emakume, gure herriko emakumeen ongizatearen alde lanean aritzera etorriak, ezizenez "Zerbantak", aski ezagunak, Dultzinea eta Santxa.

Gizonezkoek txalo egin zuten. Eta hasi ziren, hasi, aitzurrean. Sutsu hasi ere. Dultzineak tresna arrotz hari kirtenetik heldu zion bere esku guri finekin, eta zazpi eraztun patrikan sarturik, ekin zion berak ere lanari. Dozena bat aitzurkada egiterako baba bat egin zitzaion eskuan, eta "aieneka" hasi zen. Santxa, berriz, baserri-lanetan usatua, gizonen pare edo gehiago aritu zen, eta harriturik utzi zituen denak, bere sasoi eta trebetasunarekin. Batekoz bertze egin zuten beraz, nagusiak eta ezkutariak. Herriko-etxeak salda eta mokadu eder bat eman zien denei. Zanga eder bat egina zuten denen artean.

-Arratsalderako ere badugu ba, zeregina, andere maiteok- alkateak erran-. Basurde batida daukagu, eta on litzateke zuek ere parte hartzea. Aldiro egin behar da, bertzenaz sukalderraino sartuko zaizkigu.

Dultzinea isilik egon zen rato luze batean. Santxak orduan:

-Ni prest nago, bai, eta zuek erran noiz joan behar dugun.

-Ados, hala bedi- Dultzineak.

Herriko Etxeak utzi zizkien eskupeta bana, eta kartutxoak, eta abiatu ziren zakur eta gizonezkoen artean Gorga mendiko magalean zehar. Ibili luze nekagarri baten ostean, sumatu zituzten basurdeak eta tiroa egiteko aukera eman zioten Dultzinari. Honek, bakar bat bota zuen, eta eskupetak atzerantz bota zuen ziplo lurrera, denak barrezka jarritz. Altxatzen lagundu zioten eta ipurtaldea lohiturik zuen oso. Hurrengo aukeran Santxak egin zuen tiro, eta tiro bakarrean hil zuen basurde bat. Zoriondu zuten gizonezkoek. Ondoren gizonezkoek tiratu zuten, usatuak hartan, eta pieza kopuru dezentekoa bildu zuten arratsalde hartan.

-Eskerrik asko, neskak. Abisatuko dizuegu urde-kozinak egin behar direnean. Ehiztariak berekin behar baitu sukaldaria- alkateak erran.

Santxak baiezkkoa eman zuen buruaz.

Bere baitan minberatua zegoen Dultzinea, eta gauean hitzaldi hau egin zion Santxari:

-Santxa maite, lan on bat egin dinagu, eta hik nik baino gehiago, egin ere, usatuagoa baihaiz horrelako lanetan, izan ere. Bejondeinala! Oso goian utzi dun demetriatarron pabilioia. Nolanahi ere, ni ez naun joango urde-kozina horiek egitera, badinat eta bertzelako lanik. Irakurketa pixka bat egin, orain arte ikasitakoaz hausnartu, aurrera begirako asmo batzuk hartu... gainera, iruditzen zaidan, alkate gizonezko honek, lan zakarrak jarri dizigula nahita, eta ez prestakuntza ikastaro bat edo liburu bat komentatzea...

-Baliteke, andere, baliteke. Zu zaude lasai zure irakurketan eta hausnarketan, eta nik eginen ditut kozina lanak bertze emakumeekin, emakumeak izanen baitira gehienak, nik uste- Santxak erran.

-Ongi, Santxa, ongi. Egin dezagun hori, eta mila esker- Dultzineak.

Kozina-lanetatik pozik etorri zen Santxa, errezeta eman ziotelako, basurdea nola prestatu. Hauxe zen errezeta:

Basurde erregosia ardo beltzetan

Zailtasun ertaina Osagaiak

[sei pertsona]

1,5 kg basurde hanka zatitan • 2 tipula • gatza eta piperra • 6 koilarakada oliba olio birjina estra • koilarakada 1 koñac • 1 koilarakada tomate saltsa • 25 g gurina • 25 g grosella gelatina • Gatza

[Marinada]

Kalitate oneko ardo beltz botila 1 • tipula erdi zatitan • 1 azenario xerratan • 2 baratxuri ale • 1 perrexil adar • 1 adar apio • ezkaia • oreganoa • erromeroa • 50 ml oliba olio • 50 ml jerez ozpina • piper-hauts bolak

Basurde gisatua prestatzea

- Nahastu marinadarako osagai guztiak eta gehitu basurde zatiak. 48 orduz hozkailuan utzi, xukatu eta ondo lehortu zatiak.
- Kazola batean tipula fin-fin txikituta olioarekin salteatu. Gorrituta daudenean, gehitu basurde zatiak eta salteatu kolorea hartu arte. Gehitu koñaka eta tomate saltsa eta bainu marinadarekin. Ondu arinki gatzarekin.
- Su motelean egosten utzi haragia oso samurra egon arte. Bi ordu inguru.
- Denbora hori igarota, kendu basurde zatiak eta iragazi saltsa ondo sakatuz. Murriztu (irakiten nahi duzun lodiera arte) behar izanez gero, eta egokitu gatza. Amaitzeko, gehitu gurin hotza nahastuz disolbatu arte eta, azkenik, grosella gelatina.

Oharrak

Beti su motelean egosi, haragia oso samurra egon arte. Presarik ez.

Beti bezala, basurdearekin edo beste edozein haragirekin egindako gisatuak nabarmen hobetzen dira hozkailuan gauean atsedean hartzen utziz gero.

Sagar saltsarekin edo gartzainekin zerbitzatu daiteke, biak doazkio ongi.

-“Grosella” euskaraz andere-mahatsa dun, Santxa!- Dultzineak erran.

-Hala izanen da, andere. “Ezkaia” zer da? -Santxak.

-Tomillo edo thym erraten zaion hori...- Dultzineak.

-Ahhh, ederki!- Santxak-. Etxera noanean prestatuko dut.

-Nik ez, noski, ez nagon lan horietarako- Dultzineak.

-Paper artean ibiltzeko hatzak dituzu, andere, zer eginen diogu...baina nik, berorren lekuan, Orcoyen doktoareari jaki hau prestatuko nioke eta seguru belauniko jartzen zaizula- Santxak.

-Ez horratik! Emakumea sukaldean gizonari zerbitzatzen! Eta ni feministen burua! Ez!- Dultzineak.

-Ba iruditzen zait, arrakasta izango lukeela, pentsatu.... Edo bertzenaz neuk prestatuko dizuet, eta zuek gozatu- Santxak.

-Ez zagon gaizki errana! Esku ona daukan hik!-Dultzineak.

Hala, arin afaldu eta lotaratu ziren. Biharamunean, gosaltzean, Dultzineak Santxari:

-Egun on, Santxa maite, gutxi eta gaizki lo egin dinat, baina burutazio bikain bat izan dinat azkenean.

-Egun on, andere. Nik bikain, berriz. Sakon eta luze. Zer da ba burutazio bikain hori?- Santxak galde.

-Ba, hara, Santxa, hitz guttitan errateko, ostatu hau ordaintzeko dirua bukatzen ari zaigula eta hobe genukeela bertze nonbaitera aldegin eta lekuz aldatzear gaudenez, herri huts batera joan, izendatuko duguna Demetriain, eta hantxe jarri gure bizilekua. Eta ni izanen naizela alkatea eta hi alkateordea. Zer dion?

-Hori bai burutazio berebizikoa, andere! Ni alkateorde! Uau! –Santxak erran- ene Santxoren bederatzi eguneko uharte-gobernaritza baino dezente garratzitsuagoa postu hori! Demetriako alkateorde.

-Bi biztanleko herri guztiz feminista! Bandera lila!- Dultzineak.

-Eta bizitzeko dirua nondik aterako dugu, andere?- Santxak.

-Olyten bezala, ipuin-orriak saltzetik, bertso-paperak edo margolanak- Dultzineak.

-Baina nork erosiko dizkigu, bi bakarrik baldin bagaude Demetriain herrian?- Santxak galde.

-Egia, noski, hik errana, baina gure Demetriainek munduan izanen duen sonarekin eta ospearekin, milaka jende etorriko ditun gu ezagutzera eta gogo onez erosiko gure ipuin-orriak edo bertso-paperak. Nik akuarela batzuk egingen zetunat- Dultzineak.

-Ze ongi! Nik basurdea prestatuko dut eta mokadu ahotik ezin utzia izango da!- Santxak.

-Desiratzen nagon leinu-sorburu den etxe-orube honetatik irten, zorrak pagatu eta gure Demetriain aldera lehenbailehen joateko- Dultzineak.

Hala, ostalariari agur erran, kontua ordaindu eta diosal eginez, abiatu ziren kortara, hartu zituzten abereak, Rossy eta Russy, eta gainean jarririk, Zorysoain herritik atera ziren pauso bixi-bixian.

Zorysoaindik bi leguatara edo, etxe abandonatu bat auritu zuten bidetik ez urrun, teilatua hondatuxea zuena eta alde bat sasituta, eta hantxe geratzeko agindurik Dultzineak, eseri ziren eseri harri banatan eta Alexari deitu zioten. Alexak ez zuen erantzun, estaldurarik gabe edo bateriarik gabe zegoen, eta han ez zuten non indarra sartu. Liburutxo bat zorrotik atera eta honeta irakurri zion Dultzineak Santxari:

Agerikoa da emakumeak sistema kapitalistak ez ezik, gizonak ere zapaltzen dituela, emakumeen egoeratik dudarik gabeko pribilegioak, materialak zein psikologikoak, lortzen baitituzte. Egia da sistema kapitalistari interesatzen zaiola erreserba-armada industrial otzana izatea; langile klasearen sektore bat gehiegi ustiatzea interesatzen zaio; Baina ez da kapitalaren logikak zehazten duena emakumeak izan behar direla gainesplotazio hori jasaten dutenak, sexu-indarkeria ekoizpen- modu kapitalistari egotzi ezin zaion bezala (indarkeria ororen larritasunari egotzi ahal zaion arren). Ez dugu esan nahi, noski, emakumeen zapalkuntza gizon guztien konspirazio bati zor zaionik, beren pribilegioei eustea adostu dutenik... Hitz egin behar dugu, baizik, gizon eta emakumeen arteko harremanen garapen historikoaz. Produktiorako eta erreproduktiorako eta giza gizartearen garapenaren berezko parte den garapen hori nola konkretatzen den gaur egun -gizarte burgesean- modu jakin batean.

-Uff uff- Santxak.

Eta horrela zehazten da emakume guztiek jasaten duten zapalkuntza komun bat, familian eta gizarte osoan ageri dena. Eta horrela konkretatzen da zapalkuntza horrek klaseen barruan gizonak (zapaltzaileak) emakumeekin (zapalduak) aurrez aurre jartzen dituen. Guretzat garrantzitsua da alderdi hau azpimarratzea, batez ere langile klasean, gutxitan ausartu baitira langile klaseko gizonak emakumeak zapaltzen dituztela baieztatzen, etxeko lanaz, sexuaz, botereaz etekina ateratzen dutelako. haiek... Eta emakumeen diskriminazioak gizarte mailan gizonen mesede egiten diela orokorrean.

Hala ere, ez da nahikoa emakumeen zapalkuntza arruntaz hitz egitea; klase gizartean nola gertatzen den ikusi behar da. Zeren egia bada emakumeen zapalkuntza klase guztietan dagoela, ez da hain egia klase posizioak eragina duela emakumeek beren zapalkuntza zehatza jasateko modu konkretuan. Emakumeen klase posizio desberdinari dagozkion desberdintasunak daude eta aberastasunarekin, kulturarekin, eraginarekin eta botere sozialarekin zerikusia dutenak.

-Uff uff- Santxak.

Ikus ditzagun adibide adierazgarri batzuk. Bankariaren emaztearen etxeko lanak ezin dira parekatu langilearen emaztearenarekin, zaintza, ardua, ardua eta abarreko zereginei zenbaterainoko garrantzia ematen zaien ere. Ezin da ahaztu, gure lurretan behintzat, familia burgesek etxeko zerbitzua egiten dutela. Umeen zaintzari dagokionez, aldeak ere nabarmenak dira: —erizainak]], eliteko haurtzaindegiak, eskolak... familia burgesentzat; auzoko patioak edo kalea langileentzat. Nahiz eta umeen kopurua gutxiago edo gehiago kontrolatu ohi da familia burgesen artean, hezkuntza handiagoa edo antisorgailuak errazago eskuratzeagatik. Eta abortua zer? Zein emakumek jasango dute gogorrago abortua ia legezkoa edo inola ere doakoa ez den egoera batean? Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, langileek aukera askea egin dezakete banantzeak ia beti miseria ekartzen duenean...?

-Uff uff- Santxak- Monaque pixka bat behar dut-.

bAst 2021

Ondorioa

Bigarren sexua, Simona de Beauvoir Arrarats

—Ez, emakumea ez dagure anaia; alferkeriaz eta ustelkeriaz, bazterreko izaki bihurtu dugu, izaki ezezagun, sexua beste armarik ez duena; horrek gerra azkengabea ekartzen du, eta, gainera, ez da borroka garbirako arma -gurtua nahiz gorrotatua izan, ez da kide zintzoa, ez da izaki bat beste askorekin eta askorekin batzen dena talde ebrekoak eta haurrideak direla sentituta-, betiereko esklabo txikiaren mesfidantza baitu.

Gizon askok bere egingo lituzkete Jules Laforgueren hitz horiek; askok pentsatzen dute bi sexuen artean beti izango dela “amarrurik eta liskarrik”, eta haurridetasuna ez dela inoiz posible izango. Kontua da gaur egun ez gizonak eta ez emakumeak ez daudela pozik batzuk besteekin. Baina gakoa da

jakitea jatorrizko madarikazio bat den, elkarren kontrako kalapitara kondenatzen dituen, ala, aldiz, giza historiaren garai pasakor baten isla hutsa diren batzuek besteekin dituzten gatazkak.

Ikusi dugu ezen, kondairak kondaira, ez dagoela inolako destino fisiologikorik Arrari eta Emeari elkarren etsaigo amaigabea inposatzen diuenik, ar eta eme izate hutsagatik; Mantis religiosa sonatuak berak ere beste jakirik ezean baino ez du irensten arra, eta espeziearen hobe beharrez: animalien eskalan goitik hasi eta behearaino, espeziearen mendekoak dira banako guzti-guztiak. Bestalde, gizadia espezie bat baino zerbait gehiago da: bilakaera historiko bat da; faktikotasun naturala onartzeko duen moduak definitzen du. Egiazki, munduko federik txarrenarekin ere ezinaurki daiteke giza arraren eta emearen arteko areriotasun berez fisiologikorik. Hortaz, biologiaren eta psikologiaren tarteko eremu batean kokatuko dugu haien etsaigoa: psikoanaliaren alorrean. Emakumeak inbidia omen dio gizonaren zakilari, eta hura zikiratu nahi omen luke; umetan zakila gutzizatu izanak ez du garrantzirik emakume helduaren bizitzan, ordea, feminitatea ez badu mutilazio gisa sentitzen; hala bada, gizontasunaren pribilegio guztiak hezurramitzen dituen heinean egin nahi du emakumeak zakilaren jabe. Ontzat jo ohi da emakumearen kastrozio- ametsak esanahi sinbolikoa duela: transzendentzia kendu nahi omen dio gizasemeari. Emakumearen irrika, ikusi dugun bezala, askoz ere anbiguoagoa da: nolabaiteko kontraesanean, transzendentzia hori eduki nahi du, eta horrek esan nahi du aldi berean errespetatu eta ukatu egiten duela, aldi berean transzendentzia horretara jo nahi duela eta bere baitan atxiki. Hau da, drama ez da eremu sexual batean gertatzen: sexualitatea, gainera, sekula ez da izan ez destino baten definigarria, ez giza portaeren berezko giltza, baizik eta agerian uzten du egoera oso bat, egoera hori definitzen lagundu ondoren. Sexuen borroka ez da zuzenean ondorioztatzen gizonaren eta emekumearen anatomiatik. Egiaz, anatomia gogora ekartzen dugunean, segurutzat ematen dugu Ideien zeru denboragabearen guduan ari direla dudazko esentzia hauek: Femeninotasun betierekoa, Maskulinotasun betierekoa. Eta ez gara ohartzeko borroka titaniko horrek bi molde guztiz desberdin dituela lurtean, zein bere garai historikoari dagokiona.

[...]

Azkenean,

Agurea haur bihurtzen da

Gizonak emakumearen hazpegi samurrak agertzen ditu.

Eta emakumearengan bizia hartzen du gizonaren indar serenoak.

Bizitzak ezustekoa ematen digu azken itxuraldaketa honekin.

Nahi balu bezala, lezio magistral behin-betiko batekin,

gu eraman, aurkakoen amaieraren jatorrira.

Içar Anchusteguy (munduaren azala)

Esker ona

Andelo museoko webgunea.

Bilboko Arte Ederren Museoko webgunea.

Hainbat egunkari eta aldizkari: Berria, Hitz, Elhuyar,...

Iker Amuchastegui as Içar Amuchastegui (La piel del mundo eta Rey de corazones poema liburuak)

Domingo Elizondo as behorzaleen pasarteko elkarrizketatua

Basurdea prestatzeko errezeta: Centro de caza-Murieta webgunea

Gaur amets bat izan dut:

Alaitasun-izurrite ezineustizko batek mehatxu egiten du, munduko terrorearen inperioa behera botako duela.

Maitasunaren birus kutsagarriak eragin hondatzaileak ditu sistemarentzat: hizakiak elkar ezagutzenaren seinale masiboak daude.

Iturri baimendunek diotenez, isiltasuna infiltratu da giza garunean eta sortu du uholde bat sintoma kolektibo, bakea eta buru-argitasuna erraterako.

Beldurra galzori larrian dagoen espezie bat da.

Planetaren azalak, Geologia institutuen arabera, sukar-sintomen apaltze bapatekoa jasan du.

Eta munduko gobernuek lege bat ezarri dute, zeinaren arabera, munduko arma guztiek desegin behar liratekeen 24 orduko epean.

Jende makur-maltzurak ikusi dituzte, lekukoek erran dutenez, planeta presaka-presaka abandonatzen.

Historia liburuak 3017ko San balentin eguna ezarri dute, planetaren askapen eguna: Herritarrek dioenez, unibertsoetik zatorren ahots batek zeruan egin zuen dur-dur:

—Ongi etorriak zarete!!!

Içar Amuchastegi [munduaren azala] itzulbAst